

Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi
Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton*
Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*
Yolanda eta beste euskarazko idazlanak.
2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi
Artzain beltxaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*
Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*
Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Biziaren Hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia*
Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*
Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi
Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti
Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi
Prediku Zenbait. 2009

Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



**MARTIN
MAISTER**

JESÜ KRISTEN IMITAZIONEA



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzailea:



Martin Maister

JESÜ KRISTEN IMITAZIONEA

Argitalpenaren paratzailea: Jean-Louis Davant



EUSKALTZAINAK BILDUMA

EUSKALTZAINDIA



JEAN LOUIS DAVANT

Jean Louis Davant Iratzabal 1935eko uztailearen 5ean jaio zen, Zuberoako Urrustoi-Larrabile herrian. Laborantza ikasketak burutu zituen Frantziako Angers hirian: hemeretzi urte zituela sartu zen eta hogeita birekin irten, ingeniari tituluarekin (Ingenieur Agriculteur de l'Ecole Supérieure d'Agriculture d'Angers).

1960an, Hazparneko Laborantza Ikastetxean hasi zen lanean. Bertan ihardun zuen jubilatuta arte.

Enbata mugimendu abertzalearen bultzatzaileetarikoa bat izan zen Davant.

1965eko irailaren 24an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta hamar urte beranduago, hots, 1975eko otsailaren 28an, euskaltzain oso.

1957az geroztik egunkari eta aldizkari askotan argitaratu ditu bere artikuluak, euskaraz zein frantsesez. Horietan jorratu dituen gaiak honako hauek dira: laborantza, ekonomia, egoera soziala, politika, historia, kultura.

1980an literaturan hasia dugu Davant, bereziki olerkian. Pastoral-antzerki ere ugari idatzi du.

Agerturiko liburuak:

-euskaraz eleberrri bat, hiru saio, sei olerki liburu, zazpi «trajeria» (pastoral), hamar bat liburuxka, eta idazlan hautatuak;

-frantsesez, *Histoire du peuple basque*, eta *Le « problème basque » en 20 questions*.

-Zuberoako literaturaz. Euskaltzaindia 2009

MARTIN MAISTER
JESÜ KRISTEN IMITAZIONEA

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.
Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-59-I
Lege-gordailua: BI-477-2010

MARTIN MAISTER

JESÜ KRISTEN IMITAZIONEA

Argitalpenaren paratzailea: Jean-Louis Davant

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2009

JESU-KRISTEN
IMITACIONIA

CUBEROUACO USCARALA,

HERRI BERAURTACO

APHEC BATEC,

Bere Jaun apheçcupiaren baimentouareki

UTCULIA.



PAUBEN,

G. DUGUE' eta J. DESBARATZ ;
Beithan Mouldeçco Leteretan eçarria.

M. DCC. eta LVII, guerren ourthian.

AURKIBIDEA

Jesü Kristen imitazionea. <i>Jean-Louis Davant</i>	9
Jesü Kristen imitazionea	39
Lehen lib(ü)rüa	55
Bigarren lib(ü)rüa	97
Heren lib(ü)rüa	119
Laurgerren lib(ü)rüa	208
Maisterren hiztegia	241

JESÜ KRISTEN IMITAZIONEA

« *JESU-KRISTEN IMITACIONIA çuberouaco uscarala (sic)*, herri beraurtaco apheç bateç, bere Jaun apheçcupiaren baimentouareki utçulia. Pauben, G. Dugué eta J.Desbaratz beithan mouleçço leteretan eçarria. M.DCC. eta LVII guerren ourthian. »

Izenburu eta azalpen horiekin, itzulpenezko liburu bat zubereraz Pauen agertu zen 1757an, izen-abizenik gabe, M.M. letra soilez sinatua. Itzultzaile horrek liburua François de Revol, Oloroeko apezpikuari luzatu zion euskaraz eta latinez.

Ez dakit zer arrakasta ukan zuen bere denboran, baina 1838a berriz argitaratua izan zen, titulu eta argibide orokor hauekin : « *Jesus Christen Imitacionia uscaralat (sic) utçuliric eta Olorouco Apheçcupu cen batec aprobatu cien moule baten arabera arra imprima eraciric. (...). Salduric izateco Oloroun, P.A. Vivent martchantaren etchen, Dona Mariaco kbarrikan. M. DCCCXXXVIII* ». Hortik aurrera, 1838ko liburuak 1757koa burutik buru errepikatzen du, hiru sar hitzak eta aurkibideko « Tabla » barne : ber testua du, ber ortografia, ber orrialdeak, ber puntuazioa, ber hutsak ere ; diferentzia bakarra inprintako letren moldean dute. Izenburuarekiko azalpenak dioena bete-betean egia da : jatorrizko zuberotar itzulpena *arra-inprimarazi* dute, haatik ez Pauen, baina Montbeliard hirian, Suitzako mugatik oso hurbil. Eta nork ote ?

Karia horretara Emmanuel Inchauspe zuberotar apaizak aurkitzen du idazlea nor zen : Martin Maister, Ligiko erretorea. 1883a Inchauspe horrek Imitazioaren beste itzulpen bat argitaratuko du : « *Jesu-Kristen IMITACIONIA çuberouco uscaralat (sic) utçulia Bayonan andere Lamaignère albarçüntsaren mouldategian. 1883.* » Maisterren argitalpeneko sinadura (M. M.) eta hiru sar hitzak eza-baturik, baita edirengia, lehen liburuko tituluaren aurretik bere « *Jaun apheçcupiaren baimena* » dakar, Arthur-Xavier Ducellier gotzainak 1882ko azaroaren 25ean Baionan sinatua. Euskara bikainean idatzia dago, Inchausperen eskutik seguru. Gainera Imitaziotik landa, liburua beste idazlan batez osatzen du : hau da « *Eguiazco erreligionia.* » Martin Maisterrik ez du aipatzen. Haatik ohargarria da baimenean sartu den « *berriz* » hitza, nik azpimarratua : « *Gogotik*

honesten dugu imprima dadin Jesu-Kristen Imitacionia, çuberouco uscaralat berriz utzulia, ehignera orotzaz enthelegatceco guisan. »

Batetik niretzat agerian dago testua ez dela Maisterrena, edonork aisa egiazta dezakeenez. Bestetik uste dut ez dela ere benetako itzulpena, baina Ligiko erretoreak idatzi zuenaren egokitzapena, hiztegiaren aldetik garbi-zaleagoa, erranaldietan modernoagoa eta sinpleagoa, agian idazlea Kempisen testu zehatzetik gehiago askatu delako. Inchauspek berak horretan zerbait argitu ahal zezakeen. Jakinez Axular handiaren « *Geroko Gero* » bere gisa zuzendu zuela, iduri zait autorearen errespetu gutixko zegoela denbora hartako Euskal Herrian. Oraino ere ez dugu gehiegirik, bereziki euskaltzale gogorren artean, adibidez pastorean : dena denona, salbu nirea, eta jo aitzina, eskuineko anarkia lasai batetik, arras ezkertiar izan guraz ! Inchauspe ordea ez zen ezkerzalea, « *Eguiazko erreligionia* » idazlanetik ikus dezakegunez, sekulakoak botatzen baititu beste eliza, erlijio eta sinesteen aurka. Gaur eskuin muturrean koka ginero. Haatik anakronismotik ere begira gaitezen.

Gaurko argitalpen hau Maisterren 1757ko idazkitik zuzenean egokitu dut oraiko euskal grafia batuan, Euskaltzaindiko arau eta erabakien arabera, zeren 1978an Bergarako Biltzarrean, euskaltzain osoek bozkatu eta sinatu genuen grafia berritua euskalki guzietan erabili behar genuela, ber aholkua idazle guziei emanaz.

Latinezko aurkezpena bazter utzi dut, euskarazkoaren parekoa baita.

Maisterren jatorrizko testua Olaso Dorrea Sorrerakundeko Lacombe Bibliotekatik bi eratako fotokopiatan (bat paperean, bestea diskoan) helarazi dit Andres Urrutia euskaltzainburuak. Horrez eskerrik bizienak zor dizkiot, baita Pruden Gartzia, Azkue Bibliotekako zuzendariari, beste bi edizioen kopia bana diskotan emategatik, eta orokorki nire ikustatea Euskaltzaindiari lan honen agertzeaz.

Lehenbizikorik Maisterren obra bere ingurugiro historikoan eta literarioan kokatu dut, horretara lehiatu naiz behintzat. Testuari aldiari aldiko argibideak ezarri dizkiot kapituluka, lan horretan ere saiatu naiz bederen. Ondotik Maisterren hiztegi orokor bat moldatu dut, lexiko soila baino zerbait gehixeago izan nahi lukeena.

DE IMITATIONE CHRISTI

Jesu Kristoren Imitazio, *De imitatione Christi*, XV. mendeko idazlan mistikoa da. Jesu Kristoren Pasiotik abiatuz, honen inguruko meditazioa da. Sinadurarik ez du. Haatik idazletzat ematen zaio « Thomas Kempisko » fraide

apaiza, sortzeko izen abizenek Thomas Hemerken deitua. Renaniako Kempen hirian jaio zen 1380an, Dusseldorf aldean. Ikasketak Deventer herrian eginik, Zwolleko Sint Agnietenberg monastegian sartu zen, Holandan, eta hor hil 1471an. Imitazioaren idazle segurutzat aipatzen du Jean Busch historiazaleak (1479an zendua), bere *De viris illustribus de Windesen* liburuko bigarren argitalpenean (1464).

Eta gaur Kempisen autoretza baieztatzen du Jean Delumeau erlijioen frantses historialariak bere *Que reste-t-il du paradis ?* liburuko 178. orrialdean, hitz hauen : « ... Thomas a Kempis, le rédacteur final de l'Imitation ... » Xehetasun gehixeago aurkitu daiteke nire *Bibliografian*. Haatik Delumeauren hitz horiek adieraz dezakete Kempisek bere idazlana beste batzuekin prestatu zuela edo zukeela.

Devotio moderna mugimenduko testu nagusia omen da *De imitatione Christi*. Bere denborako egoeran koka dezagun.

Erdi Aroaren bukaera da : garai nahasia, Berpizkundearen sortze minek inarrosia bezala. Erdi Aroak Eliza katolikoa eta populua gaizki utzi ditu, bereziki 1348-1349ko izurrite beltzaren ondotik : Asiatik etorritz, berrogei bat miliun hil egin zituen oraiko jendetzatik urrun zegoen Europa batean : biztanleriaren herena galdu omen zuen. Ondorioz etsipen izigarria, bizitzaz ikuspen beltza, « *Danse macabre* » margolan famatuak irudikatua, eta ber denboran, erantzunez, bizinahi lehiatsua, harraparia, sutsua, nahasia.

Eliza katolikoaren maila oso apal jaitsia zen, bereziki komentuetan. Erreformaren behar gorria zen, entsegurik egiten zuten kristau batzuek ezker, eskuin, baina debaldetan, alferrik, norabide orokorrik ezean. Erantzun puski-lak beheretik etorri ziren, inizatiba ezberdinen bidezidorrez, bi eskualdetara : batetik debozioa, bestetik mistika. Debozio sentikor eta sukartsu bat barreiatu zen, irudiei eta ikuskizunei lotua. Horien gailurrean agertu ziren frantses *misterioak* (egiaz *ministerioak*), Jesusen Pasioa ikusgarriki antzezten zutenak. Plaza batean edo zelai batean ematen ziren. Oholtza edo tauladaren atzeko eta gibeletiko ezker aldetik infernua, eskuin aldetik zerua. Anitzen arabera, hortik datorkigu Zuberoako « *pastorala* », « *trajeria* », misterioen ondoko goiztiarra batzuen ustez, berantiarra bestean arabera. Haatik zenbaitek frantses « *miracles* », mirakulu eta mirarien teatro hagiografikotik hurbilago ikusten dute, euskal pieza zaharrenek sainduen bizitza kontatzen dutelako, eta gerokoek historiako beste pertsonaia batzuen ere. Baina beste bakar batzuek, bereziki Agosti Xahok eta Junes Casenavek, uste dute Zuberoako trajeria beste horiek baino zaharragoa dela.

Dena dela, mistika loratu zen bereziki Alemania mendebaldeko Renanian, buru nagusia zuelarik XIII. mendeko Eckart dominikarra : mistika jakintsua, batzuetan panteismoz akusatua.

Herbereetan eta bereziki horko Holanda probintzian erantzun zion mugimendu bihozbera eta praktikoago batek : *Devotio moderna* deitu zen, eta beraz horren testu gorena litzateke, latinez, *De Imitatione Christi*, Tomas Kempisek idatzia horren garaiko Jean Busch lekuko, testigu eta jakile fidagarri haren arabera, gaurko Delumeau jakintsuaren oniritzia duelarik.

Norentzat idatzia ?

Kempis fraidea zen, eta fraideentzat idatzi zuela nagusiki, begien bistakoa da, bereziki XVIII. Kapitülüan, « *Komentüetan bizitzeaz* » :

« *Ikasi behar düzü zure büriari hanitx gauzatan bübürtzen, bestekila nabi badüzüü bakea eta jünto izatea begiratü. Ez da gauza apürra komentüetan, edo alkarreki(n) bizitzeko jüntatzen direneki(n) egoitea, eta han berean, plainitzeko arrazurik eman gabe, hil arteo fidelki iraiütea. (. . .) Zerbützatzeke jin zira, eta ez gobernatzeko : jakin ezazü soferitzeko eta tribailatzeko deitü izan zirela, eta ez elestetan tenporaren igaraiteko eta auber izateko. Komentüan arren gizonak borogatü izaten dira, hala nola ürrea labe bero batetan. Han ihor ez dauke, bihotz osoz Jinkoaren amore(a)gatik ümiliatü nabi ez balin bada. »*

Horrek ez du erran nahi Kempisek uko egin ziola publiko zabalago baten konbertitzeari, dela zuzenka, dela fraide predikarien bitartez.

Antzinako krisi orokor batean ere, XI. mendean, Eliza komentuetarik indartu zen berriz, Cluny eta Citeauxko erreformei esker, bereziki haietarik apezpiku asko hartuz, eta ondorioz Jean Delumeauk dio Elizak fraideen morala kristau guziei inposatu zuela. Baina lehenik apaiz eta apezpikuei aplikatu zien.

1074an Gregorio VII « Aita Sainduak » gizon ezkonduetara apezgorako atea hesten die, eta jadanik ezkonduak dauden apezpean emazteek apezetxeetarik joan behar dute. Hori da manua. Nola bete zuten ? Ez osoki, dirudienez. Latrango bigarren kontzilioak, 1139an, gaira itzuli behar du, legea errepikatuz eta zehaztuz, haatik nabardura gehiagorekin : gizon ezkondu bat apezpiku bilaka daiteke, baldin eta emazteak komentu batean sartzea onartzen badu, senarrak mantenua segurtatuz ; gizon ezkondu baten apaiz ordenatzeko, « Aita Sainduaren » baimena behar da. Praktikan solteroak bakarrik apaiz eta apezpiku eginen dituzte aurrerantzean. Baina praktika hori oso berantean lege bilakatuko da zuzenbide kanoniko berri batean. . . 1917 urtean !

Hastapeneko arrazoi nagusia, garbitasunaren zaintzea dela dirudi. Aurreko bizpahiru mendeetan jadanik, Karlo magno enperadorearen denboratik (800-814), apaiz ezkonduak beren emaztearekiko harreman erotikoak bazter utzi behar zituzten printzipioz, nahiz ber etxean bizi zaitezkeen, baina bistan dago ezin kontrolatu zaitezkeela senar-emazteek debekua errespetatzen zuten ala ez. Gainera apaiztu ondoren ezkontzen ziren abadeak ere bazeuden. Iduri luke denbora haietan Elizako legeak ez zirela gaur bezain zorrozki betetzen,

beharbada harremanak oso baratxak eta geldoak zirelako, kontrolak halaber...

1000. urte inguru horretan, apaizen ezkontzaren aurkako bigarren arrazoi bat agertu zen : Elizaren ondasunak haurren artean banatzeko arriskua.

Hirugarren arrazoi bat, ene jakinean Elizako hierarkiak erabili ez duena, baina nihaur bezalako katoliko arrunten artean entzun izan dudana : konfesioko segetuaren hausteko arriskua apaizaren emaztea dela kausa...

Gaur mendebaltar Elizako buruzagiek derabilten argudioa : apaiz donadua jendearen zerbitzuko libre dagoela osoki, aldiz ezkondua emazteari eta haurrei asko lotua. Ikusi behar litzateke puntu horretan nola dabilzan beste elizetako kristauak : ortodoxoak eta ekialdeko katolikoak. Baina hau ez da Euskaltzaindiaren egitekoa.

Ez idurian Imitazioaren inguruan gabilza beti, horren helburu eta jomugak ulertu nahian. Fraideen ikuspegia du bete betean, eta hori katoliko guzietan proposatzen diete itzultzaile ugariak, bereziki euskaldunek, haietan Xurio eta Maisterrek. Apaltasunarekin batean, iduri luke garbitasuna zaiola etikako puntu nagusia : funtsean berriki arte haragizko bekatua zen askorentzat bekatu handiena, eta kasik bakarra. Horren beldurra etengabe nabarmentzen da ene ustez Imitazioan.

Kempisen teologia San Agustinen ikuspegi ezkorrean oinarritzen da dirudienez (354-430) : jendeak ezer onik ez dezake bere baitarik, jatorrizko bekatu originalak natura osoki usteltzen duelakoan. Haatik bere salbamena erdiets dezake Jinkoaren grazia esker. Baina predestinazioan ez du klarki sinesten idazleak, berantago kalbinista batzuek eginen dutenaren aurka, aitzitik batzuetan bederen beste puntara doa : Jinkoaren grazia merezi omen dezakegu, baita bizitza eternala, pasarte zenbaitetan dioenez. Kristau ikuspegi ortodoxo batetik aldentzen da hor ene ustez. Grazia, Jainkoak ematen du bere baitarik, subiranoki eta nasaiki, dohainik, urririk eta kitorik, inork merezitu gabe. Beste toki batzuetan hori bera dio Kempisek ere. Eta Jondoni Pauloren ondotik, Lutherrek errango du Jainkoak fedeari esker salbatzen gaituela, gure bizitzan karitatea sinesteari uztartzen dugun ber, edo gutienez horretara zintzoki saiatzan garen ber : gure fedea da giltza, ez gure meritua. Joan Paulo II.ak aleman erreformazalea horretan zuzen zebilela ezagutu zuen duela urte guti, lutherriaren buruzagiekin adostu eta sinaturiko idazki batean.

Artetik oroitarazten dut Jesu Kristoren ondoko lehen lau mendeetan, San Agustinen ikuspegi ezkorra gabe bizi izan zirela giristinoak : beren ondokoak baino kristau txarraok izan ote zirena ? Ez zait iduri...

Kempisek inoren sofrimenari toki handia ematen dio, batzuetan are denen giltza balitz bezala. Luzaz Eliza Katolikoak ere pairamenari leku zabala utzi dio. Bere aldetik medikuntzak berriki arte horren eztitzeko kezka

handirik ez du erakutsi. Egia da horretarako ahalmen, botika eta bitarteko guti zegoela.

Orain iturburura itzuliz, azpimarratzen da Jesu Kristoren sakrifizioa dela salbamena eskaintzen duen bakarra. Funtsean Kempisek ere bazekien « *mündü bontako soferitze(e)k ez züela aski potere gloria eternalaren merexitzeko.* » Baina beren partea bazutela pentsu zuen. Haatik ene ustetan, ez dugu sofrimenaren bilatu beharrik : zoritxarrez etortzen zaigularik, aski lanik badugu horren jasatean.

Jesu Kristok berak ere ez bide zuen penitentzia egiterik xerkatu. Lagunekiko afariak eta bekatoreekiko bazkariak ez zituen hastio, ardoa estimutan zaukan, eta ondorioz etsaiek sabelkoi eta festazale bezala salatzen zuten faltuki. Baina bere mezuaren hedatzeko, bizitza gogorra zeraman herriz herri, sekulako ibilaldietan bere ikasle hurbilenekin, Palestinako eguzki bortitzaren azpian. Eta badakigu lurreko bere bizitza nola bukatu zuen.

Kempisentzat ere, sufrimena ez da helburu bat, baina zerurako aldapa eta patar neketsua. Haren jomuga inoren zoriona da, ez bakarrik beste munduan, baina hemengoan ere, oraidanik, bihotza lasaituz. Maisuari erranarazten dio : « *Ene semea, saintüen bidea zoin den ezagüt ondoan. . . behar düzü territatü izan gai-zarik hobe(re)nen egitera. . . eta zure bizitzea bakean eta boztarioan igaren litezü.* » III. Libürüko XXXII. Kapitülüa, 2. B. Haatik zorion materialean ez du sinesten : enganagarria zaio, arrunta, kalitate gutikoa eta laburra. Zorion espirituala bilatzen du, bihotzekoa : sakona, garbia, ederra, iraunkorra.

Beraz mundu honetan bihotzeko atsedena, bakea eta poztasuna erdietsi ditzakegu pasioetarik libratuz, ondasun materialen janizatik askatuz, hedonismorako lehiaketa erotik urrunduz. Budaren bidetik hurbil gaude, baita naski Jesu Kristok markatzen duenetik. Ezen honentzat Jainkoaren erresuma hemen orain hasten da, eta zoriona ere bai. Apostoluei erraten die : « *Jainkoaren erregetzagatik etxea, emaztea, senideak (haurrideak), gurasoak (aita-amak) eta seme-alabak uzten dituenak, mundu honetan askoz gehiago jasoko (eraikiko) du, eta datorren munduan betiko bizia.* » Lukas, 18 (28-30).

Kempis ez da XVII. mendetik agertu diren jansenistak bezain ezkor eta hertsia : kristaua maiz jaunartzera bultzatzen du, horiek ez bezala, beren burua eta are besteena horretarako ez baitzaie duin eta gai. Aldiz Kempisek Jainkoaren baztergabeko miserikordian sinesten du.

Jesu Kristori dion atxikimendua, maitemindu batena da, oso mistikoa. Behin Pierre Lafittek Uztaritzeko San Frantses Xabier ikastetxean, 1953-54 ikasturtean ikasle handienei erran ziguna gogora datorkit : mistikoek, amorsek bezala, batzuetan izigarriko gehiegikeriak eta menskeriak erraten zituztela. Irakurlea oneski abisatzen dut, ez dedin gehiegi harritu.

Kempisek Jesu Kristorekin bat egin nahi du, haren baitan arras urtu. Ez ote da maitemindu guzien ametsa, hasiera batean bederen ? Baina bikote

guziek, denbora joan ahala, ezin betea dela ikasten dugu : bakoitzak irauten du bere nortasunarekin. Jainkoa ere beste norbait da, ezin urtua, eta guk ere horretarako dohain eskasa daukagu.. Baina Lafittek zioskun bezala, amorosek ez dakite beti zer dioten...

Kempisek ez ote dio gehiegitxo eskatzen gaixo fraide xeheari, eta zelan ez ni bezalako kristau arruntari ? Jondoni Paulok egitarau zuhurrago bat ez ote digu proposatzen, honela dioskularik : « *Jainkoak eman didan dohainaren izenean, hau diozuet guziei eta bakoitzari : ez har zuen burua den baino gehiagotzat : atxik neurria, Jainkoak bakoitzari eman dion fedearen arabera.* » (*Erromatarrei, 12, 3*). Himalaiara igotzea ez diot inori galarazi nahi, baina nihauri Pirinioko gailurrak aski zaizkit. Haatik Kempisek apaizari kristau arruntari baino gehiago eskatzen dio, beraz honi apaizari baino gutiago : « *Haren bizitzeak ez dii behar jende komünenak bezalako izan, bena zeliuko aingüriuenak edo lürrean konplitiüenik direnenak bezalako.* » *IV. Libürüian, V. Kapitülüian, 2.eko bukaeran*. Horrez oroitarazten dit maisuaren erran hau : « *Nagusiaren gogoa zein den jakin arren, gauzak bark nahi bezala eratzen edo egiten ez dituen morroiak zigor zorrotza izanen du ; nagusiaren gogoa zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbait egiten duenak, berriz, biguna. Asko eman zitzaionari, asko eskatuko zaio ; askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko.* » *Lukas, 12 (47, 48)*.

Bestalde pentsu dut komentu batean denborak luze izan behar duela baratzean edo liburutegian ari ez denarentzat : otoizlari hutsak bere burua den baino bekatoreago asmatzeko astia baduke. Horrez bi gogoeta labur gogora datozkit. Bata 1953an Maulen, Saint François (d'Assise) ikas-tetxeko apaiz zuzendariak klase ordu baten hasterakoan, halako etsipen batekin, hasperenez eta suspirioz ikasleei erran ziguna (frantsesetik itzultzen dut): « *Aldameneko serora dominikarren konfesatsetik nator : gaixo neskek, ez dakite zer asmatu !* » Bestea berriki aldizkari katoliko frantses batean ikusiriko marrazkia ; apaiz batek, arrantzaleak harrapatu omen duen arrainaren berri ematean bi eskuez egiten duen keinu zabala errepikatuz, erraten du : « *Le pêcheur exagère toujours la taille de son péché* », hots bekatoreak bere bekatuaren tamaina beti handitzen duela, frantsesez ber izena baitute, tildea salbu, bekatoreak (pécheur) eta arrantzaleak (pêcheur). Hasian hasi, hona ber haritik hirugarren etsenplu bat, haatik hau azkena. Behin omen, iparraldeko herri txiki batean, apantziala Baxenabarren, moda xaharreko erretoreak parrokiantak peredikatu erasiatu eta gaizkitu zituen, (orduan hola usatzen baitzuten erretore batzuek), bekatu larri, mortal eta hilkorra franko aise aipu zutela, eta zorrozki debekatu zien horrez gehiago mintzatzea, zehaztuz : « *Herri hontan bi jende baizik ez gira, bekatu mortal baten egiteko gai eta kapable girenak : jaun mera eta ni !* » Ikusten dugu apaiz hori ez zela jansenista, ez eta kempista ere, baina zuhurra, beharrik apaiz asko ziren bezalako.

Kempis mistikaren gehiegikerietara bultzatu zuketzen bakartasunak eta ondoriozko nonbrilismoak, nahiz gero gainditu zituen idatziz. Ulerterraza da : nire buruari luzazegi adi egoten naizenean, hala nola gauaz loa galdurik, baina beharrik ez zait usu gertatzen, holako edo halako dolore txiki bitxi baten sentitzen hasten naiz han edo hor, eta berehala susmo txarra hartzen diot ez ote litzatekeen minbizi baten hastapena ! Dirudienez, komentu batean luzaz egoteko ez nintzateke gai, salbu liburutegian, eta gazteago izanez baratzean. Monastegietan bizi direnek oreka pertsonal handia eduki behar dute gaur bederen, eta horrek ere esplika dezake hain guti egotea. Haien biziera kanpoko kristautentzat eredugarria izan ote daiteke ? Antza denez, Maisterren ustetan bai, bere garaian behintzat.

Fraide izateaz gain, apaiza da Kempis, 4. Liburuko 5. Kapituluan ongi azpimarratzen duenez, eta hor, aipatu berri dudan nonbrilismotik ateratzen da, populuaren zerbitzari agertuz, horren salbamenaz duen kezka bizia nabarmenduz. Kristau ikuspegi batetik, IV. eta azken liburu hori da ene ustez interesgarrien eta baikorrena.

Gainera egia da Imitazioak apaltasunaz eta garbitasunaz besterik aipu duela, eta beste puntu askotan ere aholkuak ematen dituela, frankotan zentzuzkoak edozeinentzat, kristau izan ala ez, ateo ala jainkotiar, arrazoizko bizitza batean guzientzat baliagarriak. Beraz alde horretarik ere irakurtzea balio du, zatika bederen. Luzatzen dituen bi kontseilu baikor seinalatu nahi ditut : bata handiekiko loturak ahal oroz baztertzekoak direla, bestea espirituko libertatea oroz gainerik bilatu behar dugula. Lehenaz hona esaldi bat, kristautasunari begira ikuspegi hertsiegia duenarentzat harrigarria : « *Aberatsak ez ditzazula lausena, eta handien aitzinean ez ziteala ager plazerekin.* » (*I. Libürriä, VIII. Kapitüliä, 19. orrialdea*).

Maisterren denboran, fraide guti zegokeen Zuberoan. Urdatx/Santa Graziko monasterioa, Leirekoak XI. mendean eraikia, geroan hamahiru kalonje/kanonigoz hornitua, 1724an Oloroeko apezpikuak beretu zuen, eta hiriburu horretan sortu berria zuen apaizgaitegi handiari lotu, horren diruz hornitzeko. Erabaki horren aurka Urdatxeko kalonjeek auziak egin zizkieten, Belako zaldun historiazalearen laguntzarekin (herri horretan etxe bat baitzuen), baina borroka galdu zuten.

Haatik Maulen bazegoen kaputxinoen komentu bat, 1669an eraikia, Arnaud III de Maytie Oloroeko apezpiku mauletarrari esker. Lehenbiziko fraideak Pauetik etorri zitzaizkigun. 1850ean kaputxinoen segida hartu zuen Collège-lycée Saint François (d'Assise) ikastetxe katolikoak, betiere frantziskotarrekin, eta geroago diozesako apaizekin. Bigarren maila hor egin nuelarik (1947-1953), irakasleak elizbarrutiko abade horietarik zituen. Orain maisu laikoak dauzka, nagusiki emakumezkoak.

Bestalde XVIII. mendean, Zuberoako herrixka ugarietarik bakoitza parrokia bat izanez, elizbarrutiko apaiz asko bazegoen gure ibarrean. Pentsa daiteke Imitazioa horientzat itzulia izan zela nagusiki, predikuetarako, igandeko sermoiaren moldatzea beti lan kezkarria baita. Beraz apaizen bitartez, populu kristauarentzat izango zen. Eiki Jaureguizahar, Mauleko erretore eta Diozesako Bikari Jeneralak, bere « Aprobazionean », Maisterren itzulpena berehala inprimaturik ikusi nahi du, «...*Züberoa herriko fidel orenen profetiü espi-ritüalagatik.* »

Hori bera da Revol apezpikuaren eta Maister apaizaren helburua, goraxeago itzultzaile horrek bere buruzagi gorenari zuzentzen dion aurkezpen adeitsuan idazten baitu euskaldun kristauak beren fedez argitu behar dituztela beren hizkuntzan.

Gainera Maisterrek, aurkezpen horretan, bere liburuari bigarren helburu bat ikusten dio : eskoletako haurrei euskaraz irakurtzen irakasteko tresna bezala proposatzen du. « *Eskolan dabilzan haurrek üdüiri dü abantaila haur jardietsiren düela, (e)üskararen irakurten ikasten düelarik, bala nola latia eta frantzesa ikasten beituüie ...* » Eta beheraxeago, « *Irakurzaleari* » zuzenduriko sar hitzean : « ...*errejentek behar lükeie eskolierer, (e)üskara baizik ez dakiener, lib(ü)riü bontan irakurten irakatsi.* » Ber ikasleez ari ote da kasu batean eta bestean ? Lehenean latinez eta frantsesez ikasten dute : eskola txikietakoak ote dira, ala bigarren mailakoak, apaizgaiak eta jaunen semeak ? Bigarrenak aldiz parroketako « eskolier » arruntak ? Zeren horiek ere baziren, parrokia bakoitzean eskola txiki baten idekitzeko manua Belapeyrek emana baitzuen 1696an agerturiko « *Katexima labürra...* » liburuiko sar hitzean. : « *Erretor eta Bikariak ... gure Jaun Apezküpiüaren ordenantzen arau, nor bere parropietan, orenen eskola bat ezareraziren düe abalik sarriena ...* » Eskola horren helburu nagusia zen katiximaren irakastea, eta hau euskaraz egiten bide zen, Belapeyrek bere Katexima labürren hasieran horretarako manua emana baitzuen : « *Hartakoz Züberoako Jüje espi-ritüal bezala ordenatzen dügü Herri hon-tako erretor edo bikari orori, Jesü-Kristen doktrina (e)üskaraz erakats eta entelegaerazi diezen bere(n) parropiakoer, gutiena igante oroz, mezako gibaurek aspaldian (e)üskaraz egin derizüegün prononan ondoan ...* » Astegunetan ikasiaren kontrola eta zuzenketa apaizak igandean egiten zuen. Haatik egiaz, horretarako ez dute Belapeyrenen Katexima egariko : de Salettes apezpikuak bazterturko du, biek beren artean zituzten liskarren ondorioz. Laster Revol apezpikuak bere dotrina frantsesez idatziko du, eta Jacques de Maytie Zuberoako bikario orokorrari euskaraz itzularaziko : honen liburuxka 1706an agertuko da.

Bere aldiari Baionako apezpikuak, Inchauspereen eskutiko Imitazioneari ematen dion baimenean hauxe dio : « *Hori da güigonon eskietarik elkbi den libururic ederrena, eskriptura sainta berbez uzten delaric, Jincoaren hitza bera beita. (...). Behar lüke liburu balious horrec ediren etchadia edo familia gücietan ; eta nabi günuke arrax oroz, othoi-*

tciaren aiticinetic edo ondotic, iracour ledin capitulu bat ; ekboizpen handiac iracourte hortarik bil belitzakeye arima fededunec. »

Dena dela, Kempisen liburuari, hainbeste itzulpenekin duen arrakasta, nondik ote datorkio ? Ene ustez tituluak iragartzen duen gaiari zor dio. Jesu Kristoren imitatzera saiatzea zinez egokia zaio kristauari, eta bereziki elizgizon edo andereari, apaiz, fraide, serorari. Eiki Josuaren mezuak bi puntu ditu : bata Jainkoa gure aita dugula, bestea nolako pertsonak izan behar dugun. Bere izaeraz eta bizitzaz, are hitzez baino gehiago, jendetasun berriaren etsenplua eman nahi izan zuen, eta modelo horren irudirik adierazgarriena zait Erramuz erakutsi zuena, Jerusalemen sartu zelarik Israelgo Mesias/Errege baketsu bezala, gerlarako zaldiari uko eginik, asto gazteño baten bizkarrez.

Astoa, abere zinez apal, ezti eta zerbitzaria... Baina zenbat jendek dakite zaldia baino argiagoa dela ? Kristauak badu hor zer pentsa : indarkeria mota guziez mesfida daiteke naski, baina halaber botere mota guziez. Funtsean, ez ote dabilta maiz biak elkarri uztarturik, Herodes eta Pilatoren kasuan bezala ? Eta denak uztarri horren azpitik pasarazi nahi gaituzte... Hori ere, nik uste, Mesias/Errege apal, ezti eta zerbitzariaren mezu bat bederen, astoñoaren bitartez. Zenbaiti horren erakusteko balio baldin badu Jesü Kristen Imitazioeak, ez zait guti. Haatik Euskaltzaindiaren eginbidea ez da hori, bai ordea Martin Maister idazlearen euskara gaurko euskaldunen meneko jartzea, horrek segur balio baitu sinesmen guzietako hiztunentzat.

Maisterren obra bere denboran

1757 urte horren inguruan, zer ote dabila hemen eta gure aldameneko lurraldeetan ? Aitzineko urtean jaio da Mozart (1756-1791). Laster zenduko da Haendel (1685-1759) eta sortuko Schiller (1759-1805), berantxeago Beethoven (1770-1827). Goethe oraino haur gazteñoa da bere zortzi urteekin (1749-1832). Zer kultura emankorra bere batasunaren egitetik urrun dagoen Alemania horretan !

Frantziako eta (ipar) Nafarroako errege da Louis XV (1715-1774), 1710ean sortua. Zazpi urteko gerlan sartuak daude (1756-1763) batetik Frantzia, Espainia, Austria, bestetik Britainia Handiko Erresuma Batua eta Prusia. 1757an Rossbachen, Prusiako armadak Frantziakoa garaitzen du. 1763an Parisko tratuaz, India eta Kanada galtzen ditu Frantziak, Erresuma Batuaren fagoretan.

Espainian bourbontarrak tronuan finkatu dira 1701-1714ko gerla irabaziz, eta zentralismoaren bidea hartu dute Frantziako monarkiaren ideologia pre-jakobinoaren ildotik.

1707an « *Decretos de Nueva Planta* » delakoez, Felipe V.ak Aragoi eta Kataluniako Foruak ezabatu ditu. 1716an katalan hizkuntza bizi publikotik eta

merkatalgotik kanporatu du. 1759an Karlos III.ak gaztelera beste hizkuntza guztiak erasotzen ditu penintsulan, Ameriketara, inperioko beste herrialdeetan, gaztelera bakarri denetan inposatu nahiz. Lehen mailako irakaskuntza bortsazkoa bilakatzen da, osoki gaztelera : zigor mehatxuz ikasle ala irakasleei tokiko hizkuntzarik erabiltzea debeku zaie.

1766an Iruñean, Aranda ministroak Iñigo Loiolakoaren bizitza baten inprimatzea debekatzen du, Kardaberatzen liburu hori euskaraz idatzia delako. 1767an Jesuitek inperiotik kanpoa dute : euskarak laguntzaile argi eta sonatuak galtzen ditu.

1777an Iruñeko apaizgaitegi nagusia estreinatzen dute. Apezgaien heziketan euskarak lekurik ez du. Nafar hizkuntzaren ohiko babeslea zen apaizeria gai horretan zatituz doa. Apaiz erdaldunak izendatzen dituzte herri arras euskaldunetan ere. Apaiz euskaldun batzuek euskara baztertzen dute, erdaraz egitea erosoago zaielako : kristau dotrina eskolan gaztelera irakasten delakoan, erdarara inposatzen dute beren elizetan (kantika, mezu, otoitz, predikuetan). Beraz XVIII mende hondarrerantz, euskararen erabilera murriztuz doa Iruñean eta Iruñerrian, propaganda ofizialaren eraginez ere.

Baskongadetan iduriz ez dira hain zorrozki betetzen euskararen aurkako debekuak ; erregeren gobernu kontu gehiagorekin dabil hor, antza denez : hiru lurralde horiek Gaztelarekiko historia komun luzea dute atzetik. Aldiz Nafarroa berantean konkistatu zuen erresuma da.

Portugalen 1755ean lurrikara batek Lisboa suntsitu du. 1758an erregeren erailtzeko konplota huts eginik, noble batzuek herio zigorra jasanen dute 1759an. Ber urtean Jesuitak Portugaldik haizatuak dira, baina bi gertakizunen artean loturarik ez dago.

Eta literaturan zer berri ? XVIII.en mende horretan, Frantzia eta Espainia, antzerki heroikoak eta poesiak beherapen handia ezagutzen dute. Baina ber denboran garatzen hasten dira kritika, filosofia, jakintza, antzerki moderno...Filosofoetan aipa ditzagun bereziki Rousseau (*Discours sur l'inégalité*, 1755 ; *Lettre à d'Alembert*, 1758), Voltaire (*Loi naturelle*, 1755 ; *Désastre de Lisbonne*, 1756 ; *Le pauvre diable*, 1758), Helvétius (*De l'Esprit*, 1758), Diderot antzerkian (*Le Fils naturel*, 1757 ; *Le Père de famille*, 1758).

Euskarak ere bere filosofoak ukan ditu : Manuel Larramendi Andoaino gupuzkoarra, Joanes Etxeberri Sarako lapurtarra eta Jusef Egiategi zuberotarra. Nor bere aldi berriz aipatuko dut, nahiz laburki.

XVIII. mendea « filosofoen mendea » deitu izan da, bereziki frantses idazle sonatuei esker. Zientzia ere aurrera doa mundu zabalean, hala nola biologian. Horren eredu ditugu Louis Leckerc de Buffon frantsesa (1707-1788), Jussieu familiako bost botanistak, frantsesak hauek ere, eta Carl Linné suediarra (1707-1778). Lehenak *L'histoire naturelle* idazlan erraldoia publikatu

zuen 1749tik 1788ra, eta azkenak 1758an bere *Sistema Naturae* hamargarren aldiko agertu. Horretan zenbait mila espezie deskribatu ditu, eta bi erri-nuentzat egin duen nomenklatura « binominala » gaur oraindik indarrean dago. Fisikan seinala ditzadan Franklin amerikarra, 1760an tximistorratza asmatu zuena, euskaldunetan Elhuyar anaiak (Joan Jose, 1754-1796, eta Fausto Fermin, 1755-1833), frantsesetan Réaumur (termometroa, 1731), Cassini (*Eléments d'astronomie*, 1740), Nollet apaiza (*Leçons de physique expérimentale*, 1743) eta d'Alembert (*Traité de dynamique*, 1743). Hau Diderotekin *L'Encyclopédie* obra monumentalaren idazle nagusia dugu. 1751etik 1772ra inprimarazi zuten. Garaiko jakintza guzien itzulia egin nahi izan zuten horren hogeita hamabi liburuetan : testuek hamazazpi hartzen dituzte, eranskinak lau eta marrazkiek hameka.

Literaturara zientefikoa laburki utzirik, literariora itzultzen naiz. Zuberroan, 1750koa da ezagutzen dugun pastoral testu zaharrena, *Sainte Elisabeth de Portugal*, urte horretan Eskiulan eman zutena ; ondokoa 1759an *Jean de Paris*, Larrainen antzeztua, eta ber urtean (*Ædipe*, Gameraen. 1760an berriz *Jean de Paris* Larrainen ; 1769an *Richard Cœur de Lion* Zalgizen, *Histoire de Saint Eustache* Alzabehetin ; 1770ean *Clovis* Sarrikotapean...Ikusten dugu pastoralik ez zela urtero ematen, eta berriki arte hori zen usaia. Baina ber urtean pastoralak eman zaitezkeen bizpahiru herritan, gaur ahal oroz baztertzen dugun erronka, garestiegi delako. Bestalde ber testua errepika zaitekeen epe laburrean, herri batean edo herri ezberdinetan : gaur antolatzaileek pieza berri bat eskatzen dute aldikal.

Gainera Jean Racineren *Esther* tragedia zubereraz itzuli/egokitu zuen Jean Espil batek (1701-1786). Hau Mendi herriko seme zen (gaur Idauze-Mendi udalerrian dago Mendi), eta bertako errienta, hots lehen mailako irakasle, maisua. Patri Urkizuk horren berri ekarri du Lapurdum IX aldizkarian, 2004ko azaroan agertuan, 311-320 orrialdeetan : « XVIII mendean *Jean Espil-ek zubereraz moldatu Jean Racineren Esther* ».

Beste sailetan zer utzi digu XVIII. mendeko zuberotar literaturak ? Kantu sorta polita, eta Beñat Mardo barkoxtar bertsolari sonatuaren bospasei lehia-keta, gehi horren kantu pare bat. Etsenpluak eta argibideak ediren daitezke nire *Antologia laburrean*. Prosan beraz Maisterren liburua, mende horretarik zubereraz dugu lehena.

Lapurdin ordea, nahiz beherapen bat gertatu den urrezko XVII. mendetik ostera, franko emankorra dago Elizako literatura. 1720an agertu da Xurioren *Imitazioea*, 1749an Haranederren *Filotea*, 1750ean horren *Gudu izpirituala*, Scupolirena itzuliz ; 1775ean eta 1777an *bi Testamentuen historia* jalgiko da, Larreguyk de Royaumonten *Histoire de l'Ancien et du Nouveau Testament* itzuliz. Laster Oztibarrek bere deboziozko liburua ukanen du, itzulpenezkoa

hau ere, Lopez Ibarrolako erretorearen eskutik (1782). Hor urruntzen ari gara. Baina 1745ean Akizeko apezpikuak euskal *katixima* bat agerarazi du Amikuzeko azpi euskalkian, eskualde hau bere meneko baitzuen, baita Oztibarre.

Literatura erlijioso horretan erdiz-erdi kokatzen da beraz Maisterren itzulpena. Ikus bedi Jean-Baptiste Orpustan irakaslearen « *Précis d'histoire littéraire basque, 1545-1950, Izpegi* », bereziki 78-84 orrialdeetan.

Azpimarratzekoa da Frantziako Iraultzaraino iparraldekoa hiru diozesaren artean banatua dagoela : Lapurdik eta Baxenabarreko parte handienak Baionako elizbarrutia osatzen dute ; Zuberoa Olorokoan dago, Biarnoko zati batekin ; iparretik bien artean, Amikuze (Bidaxune barne) eta Oztibarre Aki-zeri lotuak daude.

Bestalde Joanes Etxeberri Sarakoa, medikua, lapurteraz prosalari bikaina, Azkoitian zendu berria da (1668-1749). 1848an hiri horretako hiru zaldunek « *Junta Academica* » bat sortu dute. Andoingo seme den aita Manuel Larramendi (1690-1766) euskararen defentsan idazle dugu, gehienik gazteleraz ; halaber Juan de Perochegui nafarra, ofizioz artilleriako ofiziera. Etxeberri ere horretan saiatu zen, bereziki Lapurdiko Biltzarrari egin zion *Gomendiozko Carta edo Gubunean*, baina erakunde horrek ez entzunarena egin zion, nahiz berak euskara bere lanetan erabiltzen zuen, noiztenka bederen. XVIII. mende erditsu horretan, Belako mauletar zalduna (1709-1796) idazki batean « *Zazpiak-bat* » lemaren aitzindari agertzen da erranaldi honez : « *On divise les Basques en sept provinces ou païs particuliers.* » Zalantza barik, Axularrek Gero liburuko sar hitzean, zenbakirik aipatu gabe izendatu zituen zazpi lurraldeez ari da zuberotar historiarezalea. Eskuizkributan dago haren « *Histoire des Basques* » bat. Bere aldetik Manuel Larramendi jesuitak (1690-1766) « *Las Provincias Unidas del Pirineo* » delako estatu baten xedea proposatzen du, euskal errepublika edo monarkia konstituzional gisa.

1752an Pedro Ignacio Barrutia, Arrasateko notarioak, Eguberriko antzerki bat idatzi du, euskara eta gaztelania tartekatuz : *Gabonetako ikuskizuna, Acto para la Noche Buena*.

1761ean Agustin Kardaberatz (1703-1770) gipuzkoar jesuitak (sortzez Hernanikoa da) Iruñean agertuko du euskara onaren emateko erregelaren liburuxka bat, *Euskeraren berri onak*. . . Horren lan ezagunenak, Aranda ministroak debekatu zionari gehituz, *Aita S. Iñazio Loiolakoaren exerzizioak* (1761), eta hil ondoren agertuko dioten *Kristauaren bizitza* (1774), itzulpenezkoa. Aitzinean erregeak Espainia guzietarik erbesteratua zuen, bertze Jesuitak bezala, 1767ko erabakiaz. Portugalaren ondotik (1759), Frantziak jadanik haizatuak zituen (1764), nahiz Voltaire handia haien defentsan agertu zen : gaztaroan haien ikasle izana baitzen, estimu handitan zauzkan.

Ber garaian agertzen da Sebastian Mendiburu, gipuzkoar Jesuita hau ere, sortzez oiartzuara (1708-1782) : erlijioko gaietan predikari bikaina eta idazle oparoa da, Kardaberatzena baino euskara zainduagoan : *Jesusen bibotzaren debozioa*, 1747 ; *Otoitz-gaiak*, 1759 ; *Jesusen amore-nekeei dagozken zenbait otoitz gai*, 1760 ; *Euskaldun onaren biziera*, 1762...Azpimarratzekoa da H letra derabilela, nahiz ez iparraldekoek bezain burrustan.

1764 urtean Xabier de Munibe eta Idiaquez, Peñafloidako jaun kondeak « *El borracho burlado* » (mozkor trufatua) opera-komikoa euskaraz eta gaztelez publikatu eta emanaraziko du. Ber urtean « *Sociedad Vascongada de los Amigos del País* » elkarte Bergaran sortuko du.

Euskal literatura, Lapurdin elizkizunetan hein bat aberatsa, beste lurraldeetara hedatzen ari da, bereziki Gipuzkoan Kardaberatz eta Mendiburu jesuitekin. Generoetan ere zabaltzen hasi da, laikoen partaidetza pixka bat indartuz Etxeberri Sarakoaren haritik.

Zuberoan bertan prosalari laiko bat agertuko zaigu : Jüsef Egiategi errientea, filosofoa, bere hiru liburugaiekin. Luzaz eskuizkributan egon dira « inprimitu bagerik ». 1983an Euskaltzaindiak « *Leben liburria edo filosofo Huskaldunaren ekbeia (1785)* » publikatu zuen, Txomin Peillenek paratua. Orain Txominek bigarrena prestik du, eta pentsu dut euskararen Akademiak laster agertuko diola. Maisterren euskara « naturalari » konparatuz, nahiko purista da Egiategirena, Larramendiren hiztegitik asko hartzen du, eta irakurleari lana zailtzen dio. Baina kontzeptuen eta goi mailako gauzen errateko, hitz berriak bilatzen ditu, eta eginahal horretan eskertzekoa zait irakasle ausartaren lana.

Maisterren itzulpena beste batzuen artean

Imitazioak itzulpen anitz badu jatorrizko latinetik beste hizkuntzetara, bereziki frantsesez : lehena XV. mende ondarrera, Tolosakoa deitua. Gero dator itzultzaile sonatu mordo bat : XVII. menean Marcillac eta Sacy, XVIII.ean Pelletier eta Beaupré, XIX.ean Gence, Mgr Darboy, Wailly, Péte-tin, Beauzée, Lamennais anaie bat, Bautain, Mgr Puyol (1898). Azken honen arabera, mende horren hasieran hiruetan hogeit bat bazeuden, eta bukaerantz ehunetik hurbiltzen ari ziren.

Aita Villasantek bere *Historia de la literatua vasca* liburuan dioenez, Kempisen obrak euskaraz ere itzulpen asko ukan du, bereziki lapurteraz. Lehena, Sylvain Pouvreau frantses apez « euskaldun berriak » lapurteraz egina, argitaratu gabe dago, eskuizkribuz, Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan. Beste lapurtar itzultzaileak :

- Aranbillaga (1688)
- Xurio/Chourio (1720)

– Duvoisin eta Haristoy (1896)

– Leon Leon (1929).

Xuriorena famatua zela dio Villasantek, eta geroztik askotan berragertu diotela. Lapurtera klasikoaren etsenplu hoberenatarik zaio. « *Aunque no es la primera traducción del Kempis (pues antes había sido traducida esta obra por Arambillaga y Silvain Pouvreau), ésta era más perfecta y respondía mejor a las exigencias del público euskaldun. Chourio es uno de los más egregios representantes del labortano clásico por la dignidad, nobleza y majestad de su lengua.* »

Hegoaldean ere, haatik berantago, itzultzaileak ugari ditu Kempisen obrak :

– José Cruz Echevarria (1829), gipuzkeraz

– Gregorio Arrue (1887), gipuzkeraz

– Luis de Elizalde (1917), bere gisako sabindiar batuan

– Manuel Arriandiaga (ber urteetan), bizkaieraz

– Raimundo Olabide (1920), bere gisako batuan

– Pio Echebarria (1926, 1936 eta 1956), bizkaieraz.

Haatik iduri luke Imitazioaren euskal edizio gehixenak, itzulpenak baino seguruago egokitzapenak direla : hara bereziki Patri Urkizuren aburua, aho-mihiz erran izan didana.

Maisterren obrara itzul gaitezen. Pierre Lafittek « *Eskualdunen Loretegia* » antologia laburrean (1931) haren aitzin solasa, « *Irakurzaliari* » delakoa, publikatzen du (101-104 orrialdeetan), aipamen labur honen azpian : « *Ligiko erre-tor zen Martin Maister, Jesu-Kristen imitazionia zibero-eskuaralat 1557-an argitaratu zuen. Ziberotar gaztek on lukete, hari jarraitzea. Tartas baino aipagarriago zaiku, bai gochoz, bai jakitatez, bai hizkuntzaz. Vinson-ek haren latin gurbila goretsi baitu, guk haren eskuara maiteago. Huna liburua haren aitzin-solasa bururen-buru.* »

Lafitteren hizñoa eta Maisterren aitzin-solasa agertuak ditut Zuberoako literaturaz antologia laburra liburuan, 21-24 orrialdeetan, *Loretegi*ko grafian.

Loretegi horretan, Lafittek Xurio ere aipatzen du 62-63 orrialdeetan, haren Imitazioneko zatiño bat agertuz. Hona lehenik idazleaz dioena :

« MICHEL CHOURIO – Azkaindarra zen sortzez Michel Churio (sic). Donibane-Lohizunen bikario egonik 1702-an herri hortan berean erretortu zuten : 1718-an hil izan zen. Bi urtheren buruan, agertarazi zuten harek eskuaralat itzuli *Jesu-Kristoren Imitacionea* (1720). Jadanik Pouvreau-k gure mintzaierat bihurtu zuen lan aipatua, ez ordean argitarat eman. Arambillaga deitu apez batek 1684-an *Imitazione* bat egin zuen eskuaraz. « Egin » erran baitugu, « huts-egin » erran beharko ginuen. Beharrik Chourio-ren liburua agertu baitzen. Nahiz geroztik hunat eskuarazko Imitazione hoberik moldatu den, hau ez daukagu batere gutiestekoa. »

Hona segidan Lafittek agerturiko zatia, *Loretegi*ko grafian :

« Gerotik gerorat bertutean aitzinatzeraz behar dugula lehiatu

1. Izan zaite erne eta arthos Jainkoaren zerbitzuan, eta manera berezi batean Jainkoari konsekratua bazare, errozu maiz zure buruari : Zer chedez ethorri haiz hunat ? Zertako utzi duk mundua, Jainkoaren zerbitzatzeko, eta bizitze spiritual bat eremateko baizen ?

Zoaz beraz khar handirekin aitzina, sinhetsirik nekheen saria laster izanen duzula, eta orduan izanen zarela zure gaitz eta beldur guzietarik kanpoan.

Nekhe hek chumeak direlarik ere izan araziko darozute sosegu eternal bat, eta dohatsutasun infinitu bat.

Zaren leial eta khartsu Jainkoaren zerbitzuan, eta Jainkoa leial izanen da eta liberal zure golardoan.

Behar duzu izan esparantza handi bat ardietsiko duzula golardo hura : ordean halere ez diozozula zure buruari egin segurantza osorik, beldurrez eror epheltasunerat edo orguleriarat.

2. Behin Jainkoaren zerbitzari bat khexatua hagitz, eta penatua beldurraren eta esparantzaren artean, goan zen tristeziar betherik eliza batetara, eta han aldare baten aitzinean ahuspez emanik, gogoeta hau zerabilan bere baithan : Oi banaki bederen iraunen dudala Jainkoaren zerbitzuan ! Eta baitzioen : Eta bada gauza hori bazinaki, zer egin nahi zinduke ? Egizu orai orduan egin zinezakeena, eta izanen duzu desiratzun duzun segurantza. Errepusta hortaz konsolatua guzia eta borthiztua, abandonatu zen osoki Jainkoarn borondatera, eta apezagatu ziren haren khexagune guziak. Handik harat ez zen kurios izatu jakitekotz zer gertathu behar zitzaioen ethorkizunear, bainan haren artha guziak izatu ziren jakiteko zer zen Jainkoaren nahia, zer zen haren begietan hoberenik eta perfetenik, bere obra on guziak sailduki hasteko eta akhabatzeko.

3. *Duzun esparantza Jainkoa baithan, dio Profetak, eta egizu ongia ; egon zaite lurrean, eta baziko zare haren ontasunez.*

Gauza batek gibelatzen gaitu edo geldiarazten salbamenduko bidean : eta hura da han kausitzen diren gaitztasunen, eta han jasan behar diren guduen beldurra.

Bertzenaz hainak gehienean berthutean aitzinatzen dire, zeinak animo gehiagorekin entsaiatzen baitire trabalarik handienen, eta gure desira sailduak gehienik kontratatzen dituztenen garaitzerat.

Ezen zenbatenaz gizonak bere burua garaitzen eta mortifikatzen baitu gehiago, hanbatenaz ardiesten du grazia, merezimendu, eta perfezione gehiago.

4. Bainan guziek ez dute hanbat pasione mortifikatzeko, ez hain gudu handia egin behar bere buruen garaitzeko.

Halere khar edo zelo gehiago duenak bide gehiago eginen du berthutean, pasione borthitzagoak izan-arren, ezen ez pendura onak dituelarik khar gutiago duenak.

Bi moian dire guziz handiak gure eskasetarik libratzeko : lehenbizikoa da gure buruei bortcha egitean, gure bizio naturalei kontra egiteko : eta bertzea zin-zinez premiatzea gehienik behar ditugun berthuteen ardiesteko.

Entsaia zaite beraz arthoski zure baithan garaitzerat bertzeen baitan gehien gaitzesten dituzun eskasak. »

Xurioren testu honen parean Maisterrena jar dezakegu. I. Liburuan, XXV. Kapitülükö lehen lau zatiak hartzen ditu haren idazlaneko 77-80. orrialdeetan :

« Gure bicitce ororen gaiçkitic hounialat utçultciaç

Jincouaren cerbutchian, gouaitan beitchina beçala, eta arrancurareki, bici cite, eta fraide bacira, orhit cite ceitera jin ciren, eta ceren mundia kitatu duçun.

Etcuniana hori eguin, Jincouareki bicitceko, eta guiçon eçpiritualbat gertha cintian amorecatik.

Ukhen ezazu arren çoure profetiarentaco su handi bat, zeren thenpora llaburretan barnen, çoure triballien phakia ukenen beituçu ; eta eçtuçeçu haboro çoure unguruetan, eç loxarik, eç dolorerik.

Aphurbat orai triballaturen çira, eta edirenen duçu phaussu handibat, edo hobeki erraitera, alagrantzia bethi iragnen dianbat.

Leyalki, eta sureki, çoure eguinbidiak eguiten badutuçu, eçtuçu dudarik, Jincoua leyal, eta aberax içanen dela, çouri hayen phakiaren emaiteco.

Behar duçu esparantcha hounbat ukhen, helturen cirela celuco gloriala, bena eçtuçu behar segurantçaric hartu, beldurreç herabeçti, edo urgulluxu guertha citian.

Guiçonbat behin loxaren, eta esparantçaren artean, erreuski duda bateç, ceri egon leitian ecin haitatuç, ardura çagouelariç eskerniatuic, tristeciaç acabirik, aldi-bateç eliçabatetan, althare baten aitcinian belhauricaturic, oracionetan jarri içan cen cioualariç bere beithan phentsamentuç : o nic orai baneki, ene açkenticiala drano, hounian iragn behar dudala ; eta berhala Jincouaren ihardestia bere bihotçian entzuten du houlache : eta hori baceneki cer eguin nahi çunuke ? egiçu orai ordian eguin nahi çunukiana, eta segurantza osobatetan içanen cira.

Eta berhala consolaturic, eta açcarturic, Jincouaren boronthate saintiaren pian jarri içan cen, eta haren duda, harat hounat çarabilana, baratu içan cen.

Etcian nahi ukhen curiouski tcherkatu, guero jin behar ceyonaren jakitia ; bena haboro arrancura ukhen cian jakiteko cer cen Jincouaren boronthate houna, eta hari placer eguiten ceyona, bere obra houn ororen hasteco eta acabatzeco.

3. Jincouatan ukheçu esparantcha, eta eguiçu hounki, dio profetac, *çaude lürren gagnen, eta haci içanen çira haren aberastarçunetçaç.*

Gaiça batec hanitch gente bere profeututic eta khambiamentu debot batetariç hurrunt eracitcen dutu, çougn beita nekeç baicik ecin eguiten denaren loxa, eta bere buriaren garhaitceco hartu behar den phena.

Eta eguiaçki, çougnere corajouskiago isseiatcen beitira, greü zaitcen, eta hec nahi beçala eçtiren gaicen, garhaitcera, hec bestec oroc beno haboro profetu berthutetik idokitzen die.

Eci çounbatenaç giçonac bere buria garhaitcenago, eta eçpirituç hil eracitcenago beitu : hanbatenaç hobeki Jincouaren bidian jouaiten da, eta gracia handiago baten ukheitia merechitzen du.

Bena oroc eçtie bardin indar, bi gaiça horien egiteco.

Haregatic orogatic, zelo eguiaçco bateç hounkiric denac, nahibada dian passione haboro, hobeki berthutian profeitaturen du, ecieç obra hounetarar hotç denac, nahibada dian içate ounxa chedatubat.

Bi gaiça berheciki houn dira, houniala utçul eracitceko ; bere buriaren indarreki soltatcia, enjogidura gaichtouac okher eraci nahi lukian gaiçatic, eta çougnere houn-tarçunen ihourk haboro mengoua beitu, hari su handireki jarraikitia.

Cer ere bestetan hanitchetan itchousi beitçaitçu, hetaric hurruncera, eta cihau-ren corajouski beguiratcera, isseia cite. »

Eta hona jarraian Inchausperen ber zatia.

XXV. CAPITULIA. *Goure bicitce guziaren hobetzeco egarsuyaz.*

1. İçan cite beleratz eta agudo Jincoaren cerbutchian ; eta erraçü ardura çoure buriari : « certara jin hiz, eta certaco utzi duc mundia ? Eza Jincoaren cerbutzatzeco eta guiçon celutiar içateco ? »

Arren cinez aitcina cite berthutian, ceren llaburski ukhenen beituçu çoure lanegui-nen phakia ; eta ordian eztuqueçu haboro ez loxaric ez ophenaric çoure ungunetan.

Orai aphur bat necatu behar duçu, bena ukhenen duçu guero phausu handia eta bethiereco boztarioa.

Çu egoiten bacira leyal eta sutsu zure lanian, eztuçula dudarik Jincoa içanen dela leyal eta gori emanen deiçun sarian.

Esperantza handia ukhen behar duçu irabaciren duçula phakia ; bena seguran-çaric eztuçu hartu behar, lachukeriala eta urgulliala eror ezcitian.

2. Bacen guiçon bat hanitz bihozcatzen cena, loxaren eta esperantzaren artian boulcaturik ; egun batez tristurac egotchiric sarthu cen eliça batetan eta han althare baten aitcinian othoitceco luherrasturik, bere beithan igaraiten cian eta erraiten : « O baneki ounxan irainen dudala ! » Eta hainbestereki entzun cian barnetic Jincoaren ihardeste hau : « hori baheki, cer egin hiro ? Eguic orai ordian egin hiroana eta badu-kec segurantza behar duyana. » Hitz horrec eraikiric eta azkarturic, eman cen ossoki Jincoaren boronthatiari ; eta irachi ziren haren bihozqueta phenousac.

Hantic harat ezcen anxiatu jakin beharrez cer içanen cen harentaco gueroa ; bena anxiatu cen jakitez cer cen Jincoaren boronthatia, haren gogara eguitia eta hobekie-nic cena : ounxa diren orori lohzeco eta hen burutzeco.

3. *Ukbazu esperantza Jincoatan, dio Profetac, eta ountxà eguiçu, eta lurrian bici cite eta haz cite baren bountarçunez. »*

Hanitz badira gaiça batec guibeltzen dutianac bicitciaren hobetzetic eta berthutian aitcinatcetik ; gaitz delaco loxak, eta guducatzeco nekiac.

Ainikere berthutian aitcinatcenenic direnac dira, borthizkienic indarcacten dire-nak, nekenic direnen eta bere nahiaren countre direnen garhaitcera.

Eci çombatenaz ere guiçonac bere buria goitcen beitu eta espiritualki ehaiten, hambatenaz ekhintcen da berthutian eta haboro gracia merechitcen du.

4. Bena eztie oroc bardin agognu guducatzeco eta hiltzeco. Gaineran gogo hou-nezco guducariac, bide haboro eguinen du berthutian, passioniac borthitzago ukhe-nic ere ; eciez hobeki dohaintu den batec, çoinec gutiago su beituke berthuten ardie-tesco.

Bi gaiçac berheciki laguntcen gutu, goure bicitziaren hobetzen : lehenic natura gaistoac eguineraci nahi deicun gaizkitic, borthizki guibeltziac ; - biguerrena : behar-
renic dugun berthutiaren ardiesteco, cinez indarcatziac. »

Xurioren itzulpenaz geroztik, « eskuarazko Imitazione hoberik moldatu » dela baitio Lafittek (1931), Leon Leon hazpandar apaizarena (1929) ote zuena bereziki gogoan ? Pentsu dut baietz, ezen hazpandar apaizak nafar-lapurtera bikainean idatzi du hor, bere beste obretan bezala, eta hori da orokorki Lafittek iparraldean hobetsiko duen euskalki berria. Hemengo bilakaera « naturala » ikusiz, hein batean zentzuzkoa iduri zait, Nafarroa Beheretikoari azkenean leku bat emanez. Halere « hiz » eta « zitu » eta « zira » idatzi behar zena ? Lapurteratik hainbeste urrundu ? Lafitte bera ez da horraraino joanen, « haiz » eta « zaitu » idatziko du, haatik « zira » ere, tradizio luzeko « zare » ospetsua baztertuz... Orokorkiago, deitoratzen dut Axularrenganik hartu genuen euskara literario lorios eta loretsua, kasik osoki bazter utzi dedin iparraldeko euskaratik, baita gutiz gehienek batutzat derabilten gipuzkera osatutik.

Haatik azpimarratzekoa da Leonen euskarak belarrira duen harmonia ederra, iduriz oso « naturala », baina egiaz artoski eta artezki landua duke, nahiz Hazparden arras ongi hitzegiteko usaia zuten, eta oraino ere askok atxikitzen dute.

Dena dela hona, beste bien ertzean, Leonen itzulpenetik harturiko berzatia, Maisterren ber orrialdeetan (77-80).

« 25garren KAPITULUA.

Khartsuki behar dugula gure bizi-molde guzia onerat bidatu.

1. – Zaude erne eta khartsu Jainkoaren zerbitzuan, zure buruari maiz diozula : zertarat jina hiz ? munduari zergatik egin diok uko ? Ez othe Jainkoarentzat bizitzeko ? Ez othe khartsutzeko ?

Zoazi beraz lehiatuki aitzina bertutean, laster bilduko baituzu zure nekeen saria, eta ordutik ez baitukezu bihotzean ez minik ez beldurrik. Hemengo neke chumeen ondotik, bake handiaz, erran nahi baita, bethiereko zorionaz zira jabeturen. Zure egitekoak leialki, khartsuki bethetzen badituztu, Jainkoak segur saristatuko zitu leialki eta aberaski. Sari hortarat helduko zirela, zailki behar duzu igurikatu, bainan ez sobera fidatu, ez nagitzeko edo urgulutan ez sartzeko.

Griñak jana, bere salbamenduaz batean segur, bertzean dudan zagon gizon bat, behin, egundaino baino hitsago, eliza batean sartu zen eta han aldare baten oinetan ahozpetu, bere buruari ziola : « Ai ! banaki bederen bururaino iraunen dutala ! » Eta berehala hitz hok entzun zituen bihotzean : « Bazinaki hori, zer zinueke bada chede ? Orduan egin nahi zinuekeena, egizu orai beretik eta segura dukezu salbamendua. » Hitz hoiek bihotza alchatu eta azkarturik, osoki Jainkoaren eskuko jarri zen gizona, bai eta haren duda-muda lotsagarriak itzali denak. Handik harat, ez zuen gehiago

bere geroa jakin beharrez ibili nahi ; denik ere, azkarkiago lehiatu zen jakiterat *Jainkoaren nabi hoberen eta osoena zer zitaken, bere obra guzien ontsa hasteko eta osoki bururatzeko.*

3. — *Jar zure esperantza Jainkoa baitan eta egin ongia, dio profetak, eta lurrean egiten baduzu zure egoitza, aberaski haziko zitu.*

Bertutean aitzinatzetik eta beren bizi-moldearen chuchentzetik, gauza batek hanitz jende gibelatzen ditu : nekearen iziak eta gudukatzeari datchikon lanak. Urrats handienak alabainan nork ditu egiten bertutean ? Bere aztura makurrenen eta behaztopagarrienen garaitzerat azkarkienik bermatzen denak. Zertan ere alabainan gizonak bere burua garaitzen eta gogotikago nekatzen, hartan ere da gehiago aitzinatzen eta du grazia nasaikiago merezitzen.

4. — Ez dituzte denek aztura berak zaphatzeko eta garaitzeko. Arima khartsua eta ernea bizkitartean, jaidura tzarrek ithoa izanikan ere, bertutean lasterrago aitzinaturen da, bere egitekoen bethetzeari nagi dagon jite oneko bat baino.

Bertzeak bertze, bi bide badauzkagu gure arimaren ontzeko : lehena, gure jite makurra norat ere baitago eta handik gogorki urruntzea ; bigarrena, bertutetarik zoin ere baitugu eskas eta haren biltzeari gogotik artzea. Bertze gizonetan zer ere baituzu gehienik hastio, hura behar duzu zu baitarik urrundu eta garaitu. »

Leonen euskara, lauatarik berriena baita ere, « naturalena » iduri zait, bereziki esaldien malguaz, ber denboran klarrena eta ginarritsuena esaldien indar bilduaz. Besteengan elasturia gehiago, « barreiarzün » gehiago, eta frantses kutsuko plegu gehiago ere susmatzen dut, « sujet-verbe-complément » hirukote « logiko » famatuaren eraginez bezala. Euskaraz ere posible da noiztenka, baina maiztasunak gutienez monotono egiten dit. Ordea Lafittek aipatu zigun euskarazko egitura egokia infrentzuzkoa zen, eta nik bereziki maiz erabili dut : haatik ez da automatikoa, ezinbestekoa, baitezpadakoa. Orain aldiz, batzuek legetzat inposatu nahi digute Altubek modelotzat jo zuena : sujeta hasieran, aditza bukaeran. Baina hori ere ezin izan da forma bakarra, tradizioan ez baitzen halakoa izan. Ene ustez euskal erranaldiaren ezaugarri nagusia malgutasuna da. Ahoz bederen, esaldia nola hasten dugu ? Lehen hitza, mihira naturalki datorkiguna, kontestuak ekartzen diguna da : txakurraren antzora, non piztu zaigun mina, eta hara mingaina. Gerokoak ondotik, ahal bezain argi eta zehatz. Egia da idatzizkoak gehixeago pentsatzea eskatzen duela.

Grafia zaharretik berrira

Maisterren edizio berri honetan, lekuz kanpoko eta luzeegia litzateke zubererazko grafien ikerketa diakroniko sakon bat. Bilakaera bateko puntu larrienen markatzeraz mugatuko naiz.

Orokorki Belapeyreren sistematik hurbil dago Maister. Haatik Belapeyre, forma batzuetan, ondotiko zuberotar idazleak baino modernoagoa zait. Kate-

xima labürraz Euskaltzaindiaren baitan prestatu nuen edizio kritikoan (1983), aitzin-solaseko 24. orrialdean, modernotasun erlatibo hori seinatu nuen :

- gaignen (eta ez : gagnen) zenbait aldiz ja
- baitie, baitira, bai hiz, (ai, eta ez : ei)
- zoin, ihor, nori, nola, ohore, gizon, honen, kontre, kontu, ezkontzen, hon, ontsa, honetan, honki (o, eta ez : u)
- mahaxanoa (mahatsardoa), doa, gainelacoac, laidorioac, ondoan (oa, eta ez : ua)
- mirail (eta ez : mirall), manatu (eta ez manhatu).

Puntu horietarik batzuetan bederen, atzera eginen du Maisterrek, bereziki *ua* sasi diftongoa *oua* idatziz, eta forma horrek iraunen du Lafon euskaltzainaren (1949-1974) erreformaraino, *oa* formako salbuespen gutirekin. Horietako bat dugu Antoine d'Abbadie astronomoak Ürrüstoiko hilarrarian, kalos-trapean, bere izeba eta « egüzama » pontekoari egin zion hiltartitzean :

« Heben dago erhausteco
 Bena berriz phizteco
 Maria Maitena
 ABBADIACO albaba zena.
 Sortu zen apherilan
 1771-an
 Hil izan da abentian
 Laugarren egunian
 1856-an
 JINCOAREN bakian.
 Igaraille bihotz bona
 Ber bidian zoazana
 Gomenda ezazu JINKOARI
 Eta virgina MARIARI.
 Adio gabe eguzama
 Phausian dela zure arima »

Hor azpimarratzekoak dira gainera *Laugarren* (ez gerren) eta *bona* (ez houna/huna) formak, Belapeyrek jada bazituenak, Maisterrek eta honen ondotikoek ez bezala.

Ou forma oraino bizi zen 1941eko katixima liburuan, nik dotrina hori ikasi bainuen munduko bigarren gerla denboran, baita 1947ko udaraino. 1950ko hamarkadan, Lafon bordeles euskaltzainak, euskara Larrainen ikasirik, *u* eta *ou* formak gaurko *ü* eta *u* letraz ordezkatu zituen. Bitartean desager-tuak ziren *ç* eta *c* letrak : azken hau bizirik dago d'Abbadieren hiltartitzean ; XIX. mende bukaerantz *k* bilakatuko da, eta apaiz batek erranen du erreformazaleek « euskara kakastatzen » dutela.

Xahok euskal grafiaren berritzapena proposatua zuen « *Le Messenger de Bayonne* » egunkari politikoan agerturiko idazlan ezberdin hauetan :

- « *Lettres sur l'orthographe basque en réponse à l'abbé Hiribarren* » (1954/01/19)
- « *Lettres sur l'orthographe basque* » (1854/11/28)
- « *La guerre des alphabets* » (1854/12/09, 14, 19, 25)
- « *La guerre des alphabets* » (1855/01/06, 16, 25 ; 02/10 ; 03/15 eta 24).

Bestalde Lespéseneko argitalpen hauez :

- « *Règles d'orthographe euskarienne adoptées pour la publication du Dictionnaire basque, français espagnol et latin* » (P. Lespès, Baiona, 1856).
- « *La guerre des alphabets. Règles d'orthographe euskarienne adoptées pour la publication du Dictionnaire basque, français, espagnol et latin* » (P. Lespès, Baiona, 1856) – *Bibliothèque Municipale de Bayonne, R.-531, in-4^o, 472 pp.*

Bere aldetik Antoine d'Abbadie adiskide jakintsuak bere iritziak eman zizkion *Le Messenger de Bayonne* egunkari hartan berean :

- « *Le dictionnaire de Chabo* » (1854/05/27, eta 1855/01/12, 19, 26, baita 1855/04/25)
- « *Lettres sur l'orthographe basque* » (1854/11/28 eta 12/09).

Ürrüstoitarrak atharraztarrari ohar zuhurrik egiten dio, eta hiru hizkitan bederen geroak arrazoin emanen dio. Xahok *gb* (ghizon), *y* (yaun) eta *x* (bedaxe) idazten zituen letren ordeaz, Abbadiak hobetsi zituen *g*, *j*, eta *ts*. Hiru letrak hola idatziko ditu Inchauspek, eta geroztik beste guzietan. Altxabeheko seme horren grafia sistemak XX. mende erdiraino iraunen du bere hartan, Lafonen erreforma txikia etorri arte. Hirugarren aldaketa Euskaltzaindiaren ingurutikoa dugu.

Beraz euskal grafiak ez dira gurekin hasi. Alta bada, Zuberoako euskaltzaleen artean badago ideia bitxi bat, berriki arte ez zegoela zubereraz euskal grafiarik, idazleek frantses grafia erabiltzen zutelako, eta beraz batukoa hartu behar dela batuan bezala, inolako ñabardurarik gabe. Ustekeria itsu eta okerra da : ikusi dugu zubererak bazuela bere grafia ofiziala, 1950eko hamarkadan Lafonek antolaturiko hura bera, Guillaume Epphere Zuberoako euskaltzain osoarekin zabaldutakoa. Zuberotar ahoskerari egokituriko euskal grafia zen. Gaur oraino Zuberoako elizak erabiltzen du, eta zuberotar askok eskura du mezako liburuetan, kantatzeko bederen.

Beraz oinarritzko grafia horretarik abiatu behar dugu, eta horri aplikatu behar dizkiogu Euskaltzaindiak ekarririk aldaketak : kontsonanteen ondotik *b* letra ken, eta basa diftongoak logikaren arabera idatz hitzaren erroa bere hartan utziz (etxe-a, otso-a), eta *u* estuaren ordeaz *o* sartu, bereziki erakusleetan.

Aldaketa horik, Euskaltzaindiak ofizial egin zituen 1968an Arantzazuko Biltzarrean, baina Txillardegiren inguruan jadanik prestatuak genituen

1964an Baionako Biltzarrean, eta ordutik zubereran ere sartu nituen, salbu *ü/i*-ren kasuan (bortü-a): hau zinez berezia izanez Amikuzen eta Zuberoan, ez zitzaidan burutik pasa ere. Gero 1980 hamarkadan, hori ere normalizatu zuten Zuberoako Gaü Eskolek, aita Junes Casenaveren inguruan.

Erregela berriek ez dute aitzinetiko grafia ezabatzen, ez itzulipurdikatzeko: txerto batzuen modura enpeltatu behar zaizkio.

Zerotik abiatzen baldin bagara ezjakintasunez, huts larri batzuen egiteko arriskua hartzen dugu. Adibidez batzuek *ll* bikoitza eta *ñ* tildeduna baztertzen dituzte, eta hori Euskaltzaindiak 1978an Bergarako Biltzarrean harturiko erabakiaren aurka doa. Honek dio, segurki, euskara beti euskara dela, eta beraz grafiako lege berriak euskalki guzietan aplikatu behar direla. Baina gehitzen du euskalkiaren oinarriak errespetatu behar direla. Zubererak *ll* eta *ñ* letrak zinez bereak ditu, ezin baztertuak.

Beste aldera huts egiten da zubereraz *in* guziak *iñ* ahoskatuz, gipuzkeraz bezala : adibidez nik zaharretarik ikasi dudana euskalkian, eta iparraldeko bertze guzietan, ez dago *sorgiñik*, ez eta *urdiñik*, arras berriki entzuten ahal den bezala : beti *sorgin*(a) eta *urdin*(a), haatik zubereraz erregiña, espartaña...eta Urdiñarbe ! *In* horren palatalizatzeke, bustitzeke, tilderik ezean, beste bokal bat behar du aurretik : *ain*, *ein*, *oin*, *uin*, *üin* . . . halaber *aün* (belaün = belañ)) eta *eün* (leün = leñ) formek ahoskeran bustidura hartzen dute, sorginak eta urdinak ez bezala.

Bestalde *ll* bikoitza ere zubererak duen berezitasun bat da, eta kasu batzuetan horren beharra badugu : orokorki beste euskalkietan ber hitzak *il* letra parearik ez duenean, hala nola : *büllan*, *llabür*, *llapa*, *pollit* bezalako hitzetan.

Kasu batzuetan zinez absurdokeriak eman ditzake zerotik abiatzek. *Sü* hitzaren kasua maiz dator kit gogora. Artikuluarekin, zubereraz *süia* idatzi da beti. Ahoskera ez zaio aldatu, lege aldaketarik ez dut ikusten hor, eta bizkitartean *süia* idazkera denetan zabaldu zaigu bat-batean. Beraz bi aukera ditugu : edo *sia* ahoskatu, edo *süia* idatzi. Zein da zentzuzkoena ?

Oro har, grafia berria franko erraza da, logikoa, sinplea. Ahoskerazko diferentzien gainetik bertze euskalkietarik eta batutik hurbiltzen gaitu. Bertze euskaldunei zuberera idatzia ulertterazagoa egiten die. Haatik zuberotar ahoskeratik urruntzen gaitu, eta hemen alfabetatu ez den gehiengo elizako idazkera xaharraren zale dago.

Maisterren puntuazioaz bi hitz. Koma burrustan sartzen du, erranaldia zati txikitana banatuz, irakurtzea erraztu nahiz naski. Niri alderantzizko efektua egiten dit, perpausen uhina hautsiz eta logikaren ibilera puskatuz. Beraz franko soildu dizkiot, gaurko joera eta usadio nagusietara hurbilduz. Jatorrizko puntuazioa ezagutu nahi duenak, testu berrituaren ondotik aurki dezake, Maisterren idazkera guziarekin.

Maisterrena zelan ahoskatu grafia berrian

Maisterren sar hitza *Zuberoako (...)* antologian Loretegiko idazkeran utzi nuen. Oraikoan, haren testu guziari bezala, grafia berria ematen diot. Hau puntu batzuetan ahoskeratik baztertzen dela erran berri dut. Beraz giltz hauek beharrezkoak dira zuzen ahoskatzeko :

1. – *a* letraren aurretik :

e letra *i* ahoskatzen da : aterbea, etxea = aterbia, etxia.

- *o* - *u* - - : osoa, otsoek = osua, otsuek.

- *ü* - *i* - - : bürüa, züan = bürria, zian.

2. – *a* eta *e* letren ondotik :

- *ü* letra *i* ahoskatzen da : gaüa, iraün, iraültza, leün = gaia, irain (irañ), irailtza, lein (leñ).

3. – Bokalen arteko *r* ezta ez dugu ahoskatzen, salbuespenez kanpo. Kasu batzuetan beste kontsonante batez ordezkatzeko dugu :

- *d* : ahaire, apairü, aire = ahaide, apaidü, aide.

- *b* : arin, berezi : ahin, behezi.

- *l* : bortara, mendira : bortala, mendi(a)la.

4. – *b* letra ez da idazten kontsonanteen ondotik. Haatik Euskaltzaindiak salbuespen bat onartu du bi homonimoren bereizteko : *alba*, versus *ala*. Horrek ate bat ireki behar liguke zuberotarroi beste homonimo bakar batzuekin halaber egiteko. Adibidez hor genituzke *belar* (kopeta) eta *belbar* (belardiko, pentzeko, soroko, zelaiko bedar-belarra). Salbuespen bakar horiek ongi zehaztu behar genituzke zuberotar adituen artean, Euskaltzaindiarekin elkarlanean.

5. – Hasierako *b* idazten eta ahoskatzen da : hobe, hona (ona), hüna (muina), herexa (hatza)... Hortarik asko dugu zubereraz. Baina hitz batzuetan, besteek badutelarik, guk ez dugu : *aize*, *aragi*, *azi* (iz.), *eziir*, *osto*... Batzuetan diferentziak baditugu zuberotarron artean ere : Basabürüan *baxeri* dena, *axeri* klasiko bilakatzen zaigu Arbailan eta Pettarrean...

Zubereraz idatzi dutenen artean, zer leku Maisterrek ? Zuberoako prosalari hoberenatarik dugu, nik uste. Aski urrun joanez, beste bi apez pareko ikusten dizkiot : XVII. mendean Belapeyre eta XIX.ean Inchauspe. Segurki XVII.ean Tartas ere hor dago, baina ez zuberera hutsez, eta nire gustuko ez da ber mailara igotzen, arta eskasez ; XIX.ean Agosti Xaho, trebea, sotila, baina euskaraz gutixko idatzi du. XX.ekoen sailkatzea zail egiten zait, bai prosalari kopuru nahiko handiagatik, bai hurbiltasunagatik, batzuek oraino idazten dutelarik...

Itzulpen lana zailenatarik da : batetik zehaztasuna zorrozki zaindu behar, bestetik hizkuntza onean egokitu, eta nekeena biez bat egitea. Maisterrek Zuberoako euskara bikaina du. Halere batzuetan halako galizismo edo lati-

nismo kutsurik usnatzen diot, itzulpenaren zehaztasunak horretara beharturik bezala. Testu arrotzeko frase luzeak eta konplikatuak ezin dira sinpleki egokitu beste batean, eta esanahiaren errespetu zorrotzak perpaus batzuetan, jatorrizko idazkiaren pleguetara tolestu duke. Belapeyreri gisa bereko bortxaketa zenbait susmatu nizkion bere liburuiko itzulpen zatietan. Agian garbiza-leegia naiz, bereziki esaldietan, jaiotzan euskararen putzura eroria, geroztik beti ama hizkuntzan murgildua familiako eta herritarrekiko harremanetan...

Dena dela, ezin uka Maisterrek Zuberoako euskara on eta ederra duela, eta geroztik ez zaigu anitz zahartu. Arrazoi nahikoa liburu berriz agertzeko, bereziki euskaldun ikasle-irakasleek balia dezaten beren lanerako, eta zeren ez goza, atsegin eta plazerez, erleen ezti zaharra bezala, min txiki askoren sendagailu eta bihotzen pizgarri.

Maisterren euskara

Pierre Lafittek, bere Loretegi txikian, Maisterren euskara biziki gora jarri zuen. Egia da Ligiko erretoreak zuberera sotil, aberats, elegantea duela. Aditza bikainki derabil, hiztegi aratz eta zehatza, esaldi ederrak ugari. Azpimarratzekoa zait bereziki aditzaren aberastasuna. Haatik hitzen kokapenean, maiz galizismo edo latinismo kutsua usnatzen diot askotan. Hona etsenplu zenbait :

- *Jinkoak diianen gaine(a)n poterea zuri kon(t)solazione handiago baten arzara emaitetkoa. (originaleko 114-115 orrialdeetan). Ber hitzekin idatzi zezakeen naturalkiagi :*

Jinkoak kontsolazione handiago baten (h)ar(t)zara zuri emaitetko poterea diianen gaine(a)n.

Itzulpen zorrotzaren ondorioak ote dira soilik ? Ala garai hartan halako moda bat ote bazegoen, dotoreago idaztearren ? Baliteke, zeren berantxeago ber joerak ediren ditzakegu Joakin Lizarraga Elkanokoaren idazkeran. Hona horrez A. Irigarai nafar euskaltzainak idatzi duena : « *Bere yoskerak erderatiko kutsu bat badu ; bainan oso aberatsa da bestalde verboaren itzulietan, itzetan eta esakeretan ere ; beraz lingüistaentzako preziatua eta ikusgarr(i)a* ». (+)

Hori bera erran daiteke, nik uste, Maisterren idazkeraz, eta beste hitzez bada ere, hortik nabil. Halere harrigarriak egiten zaizkit honen erranaldi batzuk, adibidez hau, IV Libürüko I Kapitülüan, 3 : « *bi legearen taulen (arka) hartan goititzeko* ». Gaur edozein euskaldunek idatz lezake naski : « *legearen bi taulen ...* »

(+) « *Lizarraga Elkanokoa* », Euskera, 1959, 119-126. Juan Apececheak zitatu *Joakin Lizarraga, Elkanokoa, 1748-1835* liburuxkako 20. orrialdean, Bidegileak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean.

Laurogei bat urte aurretik, 1676an, Belapeyrerekin hasi baitzen zuberera klasikoaren ibilaldia, bi apaizen hizkerak erkatu ditzakegu. Egia da bere « Katexima labürra » 1696an publikatu zuela. Baina horren sar hitzetik agerian dago berak idatzia zuela 1676an argitaratu zen « *Pronus diebus dominicis... post Evangelium populo legendus* » delako liburuxka, zeren sar hitz horretan hauxe dio, Euskaltzaindiko argitalpenaren 48. orrialdean : « *Hartakoz Züberoako jüje espirituäl bezala ordenatzen dügü Herri hontako erretor eta bikari orori, Jesü Kristen doktrina (e)üskaraz erakats eta entelegaerazi diezen bere(n) parropiakoer, güitiena igante oroz, mezako gibaurek aspaldian (e)üskaraz egin deizüegün pronoare(n) (nik azpimarratua) ondoan, edo bezperetan... ».*

Gainera bere Kateximako sar hitzean dio « *Sorhoetako gure parropian hanitz urtez erakatsi dügün Jesus-Kristen dotrina lüzaz eta barnago, orai bobeki nabiz* » publikatzen duela : beraz hogeita hamar urteko lanaren fruitua duke bigarren liburu hau.

Belapeyreren euskara Maisterrena baino naturalagoa iduri zait, agian frase laburragoak dituelako gutiz gehienetan : katiximako haurrentzat idazten du, eta jende xehearentzat. Maisterrengan, hitzen kokapena eta ordena franko maiz hein bat erromanikoak iduritzen zaizkit, bereziki esaldi luzeetan. Itzulpenaren ondorioz izango da nagusiki. « *Irakurzaleari* » egiten dion sar hitzean, haren idazkera askoz ere gozoagoa zait, azken bi mendeetako zuberotar idazleenetik hurbilagoa.

Haatik ber aditz formak derabilzkite bi apaiz horiek : orokorki gaur erabiltzen ditugunak dira, nahiz batzuk arrotzu zaizkigun. Baina Maisterrek aditza ohi dugun baino ñabardura gehiagorekin egarten du, zoragarriki, bereziki « *iro* » formako potentzian : *bazirozkezüt, beitirotza, beitirozü, diro, diroala, diroan, diroian, diroie, dirogü, dirokegü, dirocketza, dirokezü, dirot, dirozü, giniro, liro, liroan, liroien, litiro, litiroan, litziroie, litzirozün, nindiroian, nindirozü, niro, niroa, nirozü, ziniro, ziniroan, zintiroala, ziroien,, zirozü, zirozüt . . .*

Hiztegia halaber guti aldatu da, nahiz oraiko gazteek, eta hain gazteak ez direnek ere, hitz arrunt andana bat ez duten gehiago ezagutzen : beraz « *manex* » edo « *espainol* » hitz arrotzak zaizkie ; edonoiz entzun daiteke, bereziki pastoraletan, « *hitz hori ez düzü xiberotarra* », edo « *bori ez düzü gure üskara* ». Zaharragoek ezagutzen ditugu, baina horietarik zenbait guti erabiltzen. Hona Maisterren hiztegitik galdu edo galtzen ari zaizkigun hitz arruntzen etsenplu zenbait : *adelatü, akazatü, apartatü, (h)ar(t)zara, beldür, borogatü, bü(r)zagi, dago, daude, drano, ediren, er(h)o, erortoki, estali, ezi, eziez, garbitü, gertatü, hertü, hetsi, izaria (a), izartü, izitü, jagoiti, solt, ürğa(i)tzi . . .* Beste hitz zenbait guti edo asko aldatuz etorri zaizkigu :

Atzeman : atzaman.

Eitzi : ützi, utzi.

Erazitzen : erazten, arazten.

Hitzeman : hitzaman.

Jakite : jakitate.

Igaren : igaran.

Jardietsi : ardietsi, erdietsi.

Soferitü : sofritü.

Tenpora : denbora.

Maisterren hiztegia izenondoaz aberatsa da. Haatik jatorrizko hitz ugarien alboan, erromanikoak ere hartzen ditu ausarki, ene gustuko askotan behar-rune handirik gabe, lehenbizikoetarik hainbeste ukanez. Atzizkietan halaber, *os* forma oso maite duela dirudi : adibidez *jakintsü* erabiltzen badu, *jakitos* ere bai ... eta beste zonbat holako : *abantailos*, *balios*, *banitatos*, *finazios*, *handios*, *inbidios*, *inganios*, *iraiüpos* (*iraiüpos*), *kanbios*, *korajos*, *mesperetxos*, *miraküillos*, *nabios*, *penos*, *poteros*, *prezios*, *süperbios* eta abar ...

Oro har Belapeyrek eta Maisterrek euskara berdintsua derabilte, batetik bestera oso arte guti nabaritzen dut. Horien euskara ez zaigu askorik zaharkitu, kasik bere hartan ekarri digu Zuberoako Eliza katolikoak. Haurtzaroan ikasi nuen dotrina, Belapeyrek idatziriko *Katexima labürretik* oso hurbila zen, bai doktrinaz (Vatikano II kontzilioaren aurretiko teologia zuten biek), bai hizkuntzaz. Belapeyre zuberera klasikoaren aitatzat daukat, eta Maister ez da hainbat hartarik urruntzen, bien artean ez dut hausturarik ikusten.

Haatik estiloa gehiago aldatu da. Adibidez biek « zoin » (zein) juntagai-lua derabilte nasaiki, itzulpenezko esaldi luzeek horretara beharturik bezala. Gaur ordea ez dugu hainbat egarten. Euskaraz etxean ikasi dugunok behintzat, erdaren kalko itxura bat usnatzen diogu, zuzen edo makur.

« Ezi » lokailua, maiztasun handikoa bi apaiz horiengan, baita Lizarraga Elkanokoarengan, guti agertzen da gaur : horren ordezkio dabila « zeren », baina hau zubereraz galderazkoa ere izan daiteke, hegoaldetiko « zergatik » bezala.

« Kin » izenaren atzizkia *n* hizkia gabe idazten dute biek, Lizarragak ere bai, Bernat Etxepareren ildotik. Joanes Leizarragak ordea Testamentu Berrian *n* batekin idatzi zuen, eta hola eginen dute ondotik euskalki ezberdinetako idazle gehienek. Lizarraga eta zuberotarrak ditugu salbuespenak. Berriki arte, hori izan da Zuberoako tradizioa, eta oraindik bizirik dago, indartsu ere. Bi ñabardura halere : lehena, bokalen aurrean *n* baten sartzeko joera lukete batzuek ; bigarren hautua, orokorra, ez dago aurrekaririk gabea, *kin* idatzi baitute arruntean Altzürüküko Eppherre anaiek : Guillaume nire aitzinetik Zuberoako euskaltzain zenak, baita Gregoire eta Michel gazteagoek.

Niretzat izenaren atzetik doan *ki* hori, adizlagunak duen berdinarekin nahasgarria, arkaismo bat da, beste euskalkietan gainditu dutena, eta uste dut

ordu dela zuberotarrok ere gaindi dezagun, *kin* idatziz *n* batekin : batuko grafiaren hartzean, askoz ere aldaketa gogorragoak irentsi ditu zubererak. Euskalki honek berezitasun sakonagorik badu, eta haiek bai peretxatu behar genituzke.

Aditzari dagokionez, geroaldian *ren* bukaera erabiltzen du beti, eta ez *ko*. Zubererazko tradizioan biak baditugu, baina gaur *ko* derabilagu nagusiki.

Aditz arazlean, Belapeyrek bezala, Maisterrek « *erazi* » derabil (eta geroztik « *erazten* » bilakatu den « *erazitzen* »). Hori da orokorki zuberera idatziaren tradiziozko forma. Haatik ahoz « *arazi* » da nik haurretik entzun dudana. Ondotik izkirioz ere usatu dut. Euskaltzaindiak euskara baturako 1994ko abenduaren 29an Oiartzunen onarturiko gomendioa kontutan harturik, « *arazi* » forma zubereraz ere aholkatzekoa zait.

Ortografiatik at ere, ez gara hutsetik abiatzen. Hor ditugu adibidez Arxu eta Gezeren gramatika-hiztegiak, Emmanuel Inchausperen *Le verbe basque* (euskal aditza) erraldoi eta monumentalak, horrez Clement de Jaureguiberryk munduko bigarren gerlaren ondotik egin zituen sistematizazio matematikoak, Altxaiko Junes Eppherre zenak erronez prestatuturiko ikasgaiak, Lhanderen hiztegi famatua... Bestalde hor dago trajerien, kantuen, atsotitzen altxorra, eta Zuberoako Eliza katolikoak bereziki ekarri digun zuberera klasikoa, Belapeyre, Maister, Inchauspe, Althabe, Eppherre altzürükütar anaien bitartez, Constantin aita-semeak ere gogoan edukiz, bizi diren idazleak ahantzi gabe. Ez da guti, eta kate luze horretan, Belapeyre eta Inchauspe maisuen artean, kasik bi mendeko hutsune handia betetzen du airoski Martin Maister, Ligiko erretore ahantziak. Ekar dezagun berriz plazara, irakurri nahi dutenen eskura, eta bereziki lehengo zuberera dastatu gura dutenen aurrera.

Bukatzeko, itzulpengintzak eremu zabala betetzen du euskarazko literaturan. Haatik ez zaio nire ustez merezi lukeen eskerririk ematen. Horren beharra duen literatura hau gutiesten da, pobretzat jotzen, itzulpenari dei egiteak honen baitan hutsune larria suposatzen balu bezala, iturri arrotzetik betetzen dena. Gainera lan horri ez zaio bere mailarik aitortzen. Aldiz kreakuntza bezain neketsua zait, bi baldintza kontrajarriak elkarri uztartu behar baititu : batetik jatorrizko idazkiaren erranahia zorrozki adierazi behar du, bestetik euskara onean irudikatu. Lan zaila, hizkuntzarentzat aberasgarria eta malgutzaila. Gure literatura munduko beste kultura batzuei zabaltzen diela iduri zait, gure-gureak bilakaraziz.

Jean-Louis Davant

BIBLIOGRAFIA LABURRA

A-KEMPIS, Thomas – De imitatione Christi.

DELUMEAU, Jean – Liburu andana bat, frantsesez, erlijioez, eta bereziki Eliza katolikoaren historiaz. Etsenplutzat : *Que reste-t-il du paradis ?* Fayard, 2000. Horretan ikus Kempisen aipamen laburra 178. orrialdean, jaun hori *Imitazioaren* idazlea dela baieztatuz : « Une hymne, déjà citée, en l'honneur de la Jérusalem céleste et attribuée à Thomas a Kempis, le rédacteur final de l'*Imitation*, proclame : « Nous verrons dans la clarté les personnes de la Trinité. Nous contemplerons à nu l'essence de son unité. Nous admirerons ensemble l'unité et la trinité. » (488. orrialdean erreferentzia : « Dans *Analecta hymnica*, t.48, p.493.).

INCHAUSPE, Emmanuel – Jesu-Kristen imitacionia, Baionan moldatua, 1883an.

LAFITTE, Pierre - Eskualdunen Loretegia, XVI garren mendetik hunateko liburuetarik bildua, lehen zatia (1645-1800), Baionan, 1931.

LEON, Leon – Jesu-Kristoren imitacionea, Turnhouteko hirian, Belgikan moldatua, 1929an.

MAISTER, Martin – Jesu-Kristen imitacionia, Pauen moldatua, 1757an. - Jesus Christen imitacionia, Montbéliard hirian moldatua, 1838an.

ORPUSTAN, Jean-Baptiste – Précis d'histoire littéraire basque, 1545-1950. Editions Izpegi, Baigorri, 1996.

POULET, Charles (Dom) – Histoire de l'Eglise, 1959, Beauchesne, Paris. Tome I, Antiquité et Moyen Age, début des temps modernes. Chapitre II, La mystique, pp. 367-368.

PUYOL, P. E. (Mgr) – Les quatre livres de l'Imitation de Jésus-Christ, traduction et commentaires, Paris, 1898.

UTHURRY, Thomas - Un grand Souletin, le chanoine Emmanuel INCHAUSPÉ, 1815-1902. Imprimerie « Le Courrier », 9 rue Jacques-Laffitte, Bayonne, 1950.

VILLASANTE, Luis – Historia de la literatura vasca. Editorial Aranzazu, 1979.

JESÜ KRISTEN IMITAZIONEA

ZÜBEROAKO (E)ÜSKARALA, HERRI BERAURTAKO APEZ BATEZ, (1,2,3,4)

Bere Jaun apezküpüaren baimentoareki(n) (5)

ÜTZÜLIA.

PAUBEN,

G. DUGUE' ETA J. DESBARATZ

beitan moldezko leteretan ezarria. (6,7)

M.DCC eta LVIIgerren urtean. (8)

ILLUSTRISSIMO AC REVERENDISSIMO
IN CHRISTO PATRI

DOM. DOM. FRANCISCO DE REVOL,

EPISCOPO OLORONENSIS,

Regi ab omnibus Consiliis, &cc.

Zuri züzen (9) jüstoagoreki(n) gomenda leite lib(ü)rüño (10), hainbeste gizon bai debozion(e)az, bai jakiteaz (11), beste(e)n artean seinalatüririk zau-deanek, bere(n) bizitzearen xede honeala erakarteko, gidatako hartü üken düena ; eziez ZURE HANDITARZUNARI, ô jaun apezküpü ezinago argitarzünez beterik zirena zure bizitze xüxenean, kolore bizi elibatez (12) pintatüririk (13) bezala ageri direnen gaine(a)n (14), lib(ü)rü txipi hontan edireiten (15) diren eskola (16) honak, zoinen ikustea ez beita neke zure botzari behatzen (17)

¹ Züberoa (Herria), le País de Soule : Züberoaren izen historikoa, lehenik Belapeyreren *Katexima labürraren* hasieran agertzen dena.

² üskarala : euskarara.

³ beraurtako : bertako, tokiko.

⁴ apez batez : apaiz batek.

⁵ baimentoa : baimena.

⁶ moldezko letretan : inprimaturik.

⁷ letera : letra, hizkia.

⁸ gerren : garren.

⁹ züzen : eskubidea.

¹⁰ librü : libürüa, liburua.

¹¹ jakite : jakitatea, jakinduria, jakintza.

¹² elibat : batzuk.

¹³ pintatü : tindatu, margotu.

¹⁴ direnen gainen : direnaz geroz, direnez gero, direnez.

¹⁵ ediren: aurkitu, kausitu.

¹⁶ eskola : kasu honetan, irakaspena.

¹⁷ behatü : adi egon, entzun.

direnentako, eta jaun apezküpü müdü oroz laüdatu (18) den baten eginbide(e)n jardiestea (19) desiratzen düen ororentako. Eta nola zure kargüan (20) eta esküpean den diozesaren (21) parte batek ezin eskola hon (22) hoietarik (23) ajütürik (24) ükeiten (25) beitzüan, bere sortzepeneko (26) lengoajea (27) baizik ez zakialakoz : hartakoz hanko izale(e)k (28) ere, beste(e)k hebertik (29) idokitzen (30) dütüen abantailetarik üken lezen (31) parte, h(ai)en (e)üskarala ützüli izan (32) den lib(ü)rüño haur (33) ZURE HANDI-TARZÜNAREN gomendüaren (34), bai eta (e)re süstengüaren (35) pean ezarri izan düzü ; amore(a)gatik h(ai)ek ere ontsa ezagüt ahal dezen zoinen jüstoki eta konplitüki heben izkiribatürik (36) daudean gaüzak, zük egiten eta erraiten dütüzüneki(n), pareiü (37) batetan (38) jüntatürik edireiten diren, eta tenpora (39) beraurtan (40) jardiets ahal dezen, zure etsenplü ederraren argia aitzinetik düelarik, gizona herraumentüetarik (41) bere beitan sarerazitzen (42) düan bertütea, eta haren berauren (43) ajütüareki(n) boroga (44) dezen obra honen (45) baten ere egiteko indarrrik ez düela bere(n) mengoaren (46)

18 laüdatü (laidatü) : laudatu, goratu, goraipatu, goretzi.

19 jardietsi : ardietsi (*Ipar*), erdietsi, lortu.

20 kargü : betekizuna.

21 diozesa : elizbarrutia.

22 hon : ona.

23 hoietarik : hauetarik.

24 ajütü : lagungoa, laguntza.

25 üken : ukan, eduki.

26 sortzepeneko : jatorriko.

27 lengoaje : lengoaia, hizkuntza.

28 izale : izailea, izakia.

29 heben : hemen.

30 idoki : atera.

31 lezen : lezaien (*Zub*), lezaten, zezaten.

32 ützüli izan : ützülik izan, itzulia izan.

33 haur : hau.

34 gomendü : gomendioa.

35 süstengü : sostengua, laguntza.

36 izkiribatü : idatzi.

37 pareiüan : parean.

38 batetan : batean.

39 tenpora : denbora.

40 beraurtan : berartan (*Zub*), bere baitan.

41 herratü : bidea galdurik ibili.

42 sarerazitzen : sararazten.

43 beraur : bera.

44 borogatü : frogatu, probatu, esprabi (*Zub*).

45 hon : ona.

46 mengoa : beharra, premia.

araur, Jinkoaren graziaren sokorriaz (47) lagüntüak ez badira, eta indartsü gertaerazitzen ez badütü bizitze eternaleala gidatzen düen manü (48) sain-tüen konplitzeko.

Grazia horren lagüngo (49) düelarik arren (50) ezagütüren dizüe klarki, segür nüzü, lib(ü)rü txipi honen behin beno haborotan (51) irakurtetik (52), zoinen maitagarri eta profiteable (53) den zuri artzain honari bezala jarraiki-tea ; orotan gainti berek ikusten düen tenporan, zük ez düzüla deüs ere egi-ten Jesü Kristen, zoinen medioz (54) Jinkoaganat hüllangia (55) ükeiten bei-tügü, imitazioneareki(n) üdüripen (56) miragarri bat ez düanik, eta zoinen esküsa (57) gabe den, salbamentuaren jardiesteko, zük herexa (58) eizten (59) deizgützünetan gaine(a)n ebiltea (60) ; amore(a)gatik kiristi orenen botoek (61) hedatü behar düen leküala heltzera iseia (62) ditean, eta zer nahibeita (63) penari ihesirik (64) ez dezen egin, desiratzen düen ürrentze (65) doha-tsüaren atzamaiteko. Zure gehiengoaren autoritate bizitze xahüareki(n) (66) jüntatürik dagoenak, ô jaun apezküpü gisa oroz ohoratü izatea merexi düzüna, bortizki bulkatüren (67) ditizü bere(n) lengoajea baizik besterik batere ez dakienak, noiz ere lib(ü)rü haur irakurtüren beitiü, heben bere(n) bizitzearen xüxentzeko, eta bihotzaren debozioneareki(n) estekatzeko (68) propi (69) diratekeala ezagütüren dütüen gäizen orenen sü eta gozo handi bateki(n) konplitzera, ZURE HANDITARZÜNAREN manuak, zoin Jaun erretoren

47 sokorri : sorospena, laguntza.

48 manü : manua, agindua.

49 lagüngo : laguntza.

50 arren : beraz.

51 haboro : gehiago.

52 irakurte : irakurtze, leitze.

53 profiteable : probetxugarria, baliagarria.

54 medioz : bitartez, bidez, arartez.

55 hüllangia : hurbilgia.

56 üdüripen : iduripena.

57 esküsa : aitzakia, estakurua.

58 herexa : hatsa, arrastoa, aztarna.

59 eitzi : ützi, utzi.

60 ebili : ibili.

61 boto : agintza, promesa.

62 iseia : entsegua, saioa, saiakera.

63 Ihesi egin : eskapatu, ezkapi (*Zuh*).

64 zernahibeita : zernahi, edozer.

65 ürrentze : bukaera, amaiera.

66 xahü : garbia.

67 bulkatü : bultzatu, pusatu.

68 estekatzeko : lotzeko.

69 propi : egokia.

medioz entelegaeraziren (70) beiteiezü, erakar ditzan ber honi ahal bezain ardüra (71) so egitera, amore(a)gatik berek borogatuären düen gaüzak segürta (72) ditzan, zoinen handi datekean frütü (73) ezpiritüal jardietsiren düena, irakurte saintü hontan debotki, eta gogoia ihorat baztertü gabe tenpora enplegatüären düenean.

Bestalte (74) eskolan dabiltzan hurrek üdüri da abantaila haur jardietsiren düela, (e)üskararen irakurten ikasten düelarik, hala nola latia (75) eta fran(t)zesa (76) ikasten beitätüe, hanitxez ehiñerago (77) gogoan etxekiren dütüela katiximan (78) erakusten zaitzen egia saintüak, eta Jinkoaren laüdorioen kantikoak (79), errejentek (80) erakutsi (81) deikeiengan lengoajearen hain laster irakurten, nola beste(e)tan trebatzen beitätüe.

Tribailüño (82) honen moldezko leteretan ezartea (h)onesten badüzü, ô Jaun apezküpü ezinago konplitü zirena, (hori beitate Jinkoaganat eta zure manüpean ezarri zaitzün ardiatarat düzün amorioaren seinale bat), haur dükezü zure handitarzünari baizik ezin emaiten den laüdorio bat, zü ziratekeala zure aitzinetiko ororen lehena, ardi saldotik (83) parte bat hain bazka honeala eraman dükezüna, zoinek beste bazkagütan (84) batetan ere mütürrik ezin pausatzen beitzüan, eta zoinek harentako üken düzün hontarzünaren orimentxa (85) betierekoz begiratüären (86) beitätü segürki, ezagützea (87) ere bai karreiatüären (88), lan honen egileaz dena beza(i)nbat, bere desirkünterik (89) handienak konplitürrik litikezü, harek egin düan iseiüño (90) haur ZURE

⁷⁰ entelegatü : konprenitu/tü, ulertu.

⁷¹ ardüra : ardura, maiz, sarritan, usu, üsü.

⁷² segürtatü : segurki egiaztatu.

⁷³ frütü : ekoizkina, emaitza.

⁷⁴ bestalte : bestalde.

⁷⁵ lati : latina (latin hizkuntza).

⁷⁶ frantzes : frantsesa.

⁷⁷ ehiñera : ehiki, errazki, aisa.

⁷⁸ katixima : dotrina.

⁷⁹ kantiko : kantika.

⁸⁰ errejent : erriente, maisua, lehen mailako irakaslea.

⁸¹ erakutsi : erakutsi, ikusiarazi.

⁸² tribailü : lana.

⁸³ saldo : taldea (maiz handia).

⁸⁴ bazkagü : bazkagia.

⁸⁵ orimentxa : oroimena, oroitzapena.

⁸⁶ begiratü : zaindu.

⁸⁷ ezagütze : ikustatea, esker ona.

⁸⁸ karreiatü : garraiatu.

⁸⁹ desirkünite : desira, nahia.

⁹⁰ iseiü : entsegua, saioa, saiakera.

HANDITARZÜNAREN gogoko bali(t)z, eta noren ere abantailatako, Jinkoaren ajütüareki(n), hasi eta akabi (91) beita, h(ai)en beren salbamentüala helerazitzeko zerbütxa ahal ledin, eta moian beraurtzaz klarki ageri izan ledin, zoinen lühar-rastüririk (92), eta zonbat apalmentüreki(n) den ZURE HANDITARZÜNAREN begirari (93) eta zerbütxari leial bat, eta hari ezin haboro estekatü den bat.

M... M...

JAUN BIKARI JENERALAREN APROBAZIOEA

Irakurtü (94) dizüt (95) Jaun Apezküpäaren manüz *Jesükristen Imitazionea Züberoako* (e)üskarala herri beraurtako jaun apez batez orai berri (96) ützülia (:) lib(ü)rü hori irakurtüren düanak ikasiren dizü bere bürüaren ontsa ezagützen, mündü fal(t)sü eta eroaren (97) mesperetxatzen (98), eta bihotza zelüalat altxatzen düalarik zoin moian segürak harat heltzeko. Hartakoz konbeni (99) dela jüjatzen dit lehen beno lehen izan dadin inprimatüa Jinkoaren gloriagatik, eta Züberoa herriko fidel ooren profeitü (100) ezpiritüalagatik. Mauleko hirian barantailaren (101) laurgerren (102) egünean, eta mila zazpi ehün eta berrogeieta hamaseigerren urtean.

JAUREGUIZAHAR Mauleko Erretor eta Diozesako Bikari Jenerala (103).

IRAKURZALEARI

Haur düzüla, ene irakurzale (104) maitea, zuregatik zure lengoajeala ützüli izan den lib(ü)rü bat, zoin mündü ooren erraneala, eskriptüra (105)

⁹¹ akabi : akabatu, bukatu, amaitu.

⁹² lühar-rastüririk : apaldurik, ukurturik, makurturik.

⁹³ begirari : zaindaria.

⁹⁴ irakurtü : irakurri, leitu.

⁹⁵ dizüt : gaur usaian *dit*, baina *dizüt* ere bizirik dabil.

⁹⁶ orai berri : duela berri, berriki.

⁹⁷ ero (*erbo*) : zubereraz gaur usaian *ertzoa*.

⁹⁸ mesperetxatü : mespretxatu, gutietsi.

⁹⁹ konbeni : komeni, egoki.

¹⁰⁰ profeitü : probetxua, abantaila.

¹⁰¹ barantaila : otsaila.

¹⁰² laurgerren : laugarren.

¹⁰³ Bikari jeneral : bikario orokorra, apezpikuaren ordezkoa.

¹⁰⁴ Irakurzale : irakurtzailea, irakurlea.

¹⁰⁵ eskriptüra : eskritura, izkribua, idazkia.

sainta bere(i)zten delarik beita, bere salbamentüa egin nahi düanaren, izaten ahal den lib(ü)rürük hobe(re)na (106) eta baliosena ; hartakotz ere ez düzü heltübada (107) batere haboro lengoajetara ützüli izan denik (hainbestera-drano (108) joan izan düzü, sokorri espiritüal honen batbederak (109) bere herriari emaiteko üken düan nahikünte (110) bortitza) arrazu (111) horrek berak saldoatan desiraerazi deio lan honen egileari, bere herritar ga(i)xoer (112) sortzepenezko langojea baizik ez (113) dakiener (114) sokorri berauren emaita, ustez Jinkoaren bide her(t)sian (115) ebiltea, bere bürüaren apal etxekitea (116), mündüari gerla tai gabezko (117) baten egitea, eta zelüalako inbeia (118) saintü baten ükeitea lib(ü)rü honen medioz ezagüterazirik, bere salbamentüaren egitera erakarriren zütüan : bena bere flakeziaz (119) lotsatürük (120) egon izan da tenpora lüzaz, bentüratü (121) gabe bere desirkuntearen konplitzera.

Azkenekoz hargatik lotsa hura garaitürük (122), atrebitü (123) izan da (e)üskarazko lib(ü)rü goxoño honen argiala agererazitzera, ustez ezi (124) (nola hatsarre (125) bati beitaude gaüzak oro) hartarik landa (126) izanen den norbait, harek hüts egin lütükeanak (127) xüxentüren, eta hobekiago (128) haren lehen iseia (129) ezar(r)iren düanik, edo beste zonbait argitarzün zuri, ene irakurzale maitea, emaitera ekarri (130) izanen denik. Ni-

-
- 106 hoben : hoberena.
 107 heltübada : beharbada.
 108 drano : lano eta rano (*Zub*), raino.
 109 batbedera : bat-bedera, bakoitza.
 110 nahikünte : nahia.
 111 arrazu : arrazoa.
 112 gaxo : gaixoa.
 113 baizik : beti *ez*-ekin (baizik *ez, ez ...*baizik).
 114 dakiener : dakitenei.
 115 hersi : hertsia, estua.
 116 etxeki : atxiki, eutsi.
 117 tai gabe : gelditu gabe, atertu gabe.
 118 inbeia : gutizia, gogoa.
 119 flakezia : ahulezia.
 120 lotsatü : beldurtu, izutu.
 121 bentüratü : menturatu, ausartu/tü.
 122 garaitü : garaitu, goitu/tü, aurkaria gainditu.
 123 atrebitü : ausartu/tü.
 124 ezi : zeren.
 125 hatsarre : hasiera, hastapena.
 126 landa : lekora, kanpo, ondoren.
 127 lütükeanak : lituzkeanak.
 128 hobekiago : hobeki.
 129 iseia (*iz*) : entsegua, saioa, saiakera.
 130 ekarri : ekarria, emana, enjogi (*Zub*).

tzaz (131) dena beza(i)nbat (132), Jinkoak baletsa (133) ez nüan üken beste deseinik (134) batere, haren gloria handiaren txerkatzea (135), eta zure salbamentüari bide segür (136) baten erakustea baizik, amorio (137) propi (138) traidore (139) gaixto harek parterik batere üken gabe, zoin, ohoin (140) estalgünez estalgüne (141) nontik zer ebatsiren (142) düan dabilan (143) bat bezala, gizonen bihotzetan sartzen beita, h(ai)en obra hon uste dütüenen gaixtotzeko eta ezdeüsteko (144), eta h(ai)etarik pakü (145) üken behar lükeienen h(ai)er galerazitzeko.

Hura da altxatürazi (146) zahar zointzaz gabetü behar dügüla apostolüak erraiten deigüna, zeren (h)aren propitajea (147) den bezala orearen hant eta mingatzerazitzekoa (148), orobat (149) ütsü (150) den amorio harek laüdable (151) uste dütügün egitateak banitatezko aizeaz hanterazitzen dütüalarik ürrintzützen (152) beitätü, eta h(ai)en mereximentüa oro ezdeüsetara erakarten. Hura da gizon zahar zointzaz bilaizi (153) behar dügüla apostolü ber(r)ak manü emaiten deigüna, amore(a)gatik gizon berriaren beztimenta (154) honez beztitürik (155), bekatü orijinaletik (156) baratü (157) zaigün

-
- 131 nitzaz : nitaz.
 132 bezanbat : bezainbat.
 133 baletsa : (on)ets(i) dezala.
 134 desein : asmoa, xedea.
 135 txerkatü : xerkatu, bilatu/tü.
 136 segür : segurua.
 137 amorio : amodioa, maitasuna.
 138 amorio propi : norberaren estimua, autoestimua.
 139 traidore : saltzailea.
 140 ohoin : ebaslea, lapurra.
 141 estalgüne : estalpea, babesgunea, ezkutalekua.
 142 ebatsi : ostu, lapurtu.
 143 dabila : ibiltzen da.
 144 ezdeüstu : ezdeus bilakatu.
 145 pakü : pagua, paga, ordaina.
 146 altxatürazi : altxagarria.
 147 propitaje : egokitasuna.
 148 mingatzü : karastu, mingoztu.
 149 orobat : era berean, berdín, halaber.
 150 ütsü : itsua.
 151 laüdable : laudagarria, goresgarria.
 152 ürrintzütü : usain txarra bildu.
 153 bilaizi : biluzi.
 154 beztimenta : arropa, jantzia.
 155 beztitü : beztitu, jantzi.
 156 bekatü orijinala : bekatu originala, jatorrizko bekatua.
 157 baratü : gelditu.

kozü (158) gaixto haren kontre (159) bühürtzen (160) ikas dezagün, eta gure mente orotan azken hatsealadrano (161) hari gerla egiten. Hura da hitz batez etsai ezaba (162), ezin ikusten ahal dügün bat, gureki(n) sortü, gureki(n) hil behar düan bat ; hartaz zerbützatzen da espiritü gaixtoa gure bere lazoetan (163) atzamaiteko (164), eta guri esküen artetik ezkaeraerazitzeko (165) salbazale adorableak (166) merexitü deigün gloria eternala.

Arren (167) zer dirokegü (168), zük eta nik, ene irakurzale karioa (169), besterik pentsa, baizik ere behar dutügüla gure pensamentüak beleratz (170) etxeki, eta gure eginahalak bihoztoiki (171) enplegatü, hain ikaragarri den, eta hain ezabaki (172) bere pozua (173) barreiatzen düan etsaiaren kontre, amore(a)gatik gütan abantaila ükeiteko lütükean (174) bideak zerra (175) diatzogün (176).

Lehen pentsamentü üken behar dügüna da gihaurdanik ez gitakeala hainbeste itxüra honen üdüriaren pean gordatzen (177) den etsaiari bühürt, barnetiko eta kanpotiko sokorriak gabe, zeren gihaurtan ez beitirogü ediren flakezia, eskazkeria (178) eta eritarzün (179) baizik. Barnetikoak daude Jinkoak ber grazia saintüaz ezpiritüen argitarzün, eta bihotzen gortarzün emaiten deigünetan, zoinen merexitzeko hanitx zerbützatzen beitzazgü kanpotikoak.

Kanpotiko horik (180) aldiz daude etsenplü honer jarraikitean eta lib(ü)rü honen irakurtean. Ez likidizü esküetara eror ahal lib(ü)rü sokorri

158 kozü : kutsua, kutsuduna.

159 kontre : kontra, aurka, aitzü (*Zub.*).

160 bühürtü : bihurtu, bihurritu, buru eman.

161 hatsealadrano : hatseraino, hatsealano (*Zub.*).

162 ezaba : ezkutuan, gorderik.

163 lazo : lakioa, bazihizien harrapatzeko soka urka-bilurduna.

164 atzaman : atzeman, harrapatu.

165 ezkapü : eskapatu, ihes egin.

166 adorable : adoragarria, gurgarria.

167 arren : beraz.

168 dirokegü : dezakegu.

169 kario : garestia, maitea.

170 beleratz : ernea, sendoa, sentoa (*Zub.*).

171 bihoztoiki : kuraioski, bihotzez, bipilki.

172 ezabaki : ezkutuan, gordeka.

173 pozu : pozoia.

174 lütükean : lituzkeen.

175 zerratü : hetsi, itxi.

176 diatzogün : ditzogün.

177 gorde : ezkutatu.

178 eskazkeria : eskasia, urritasuna.

179 eritarzün : gaixotasuna.

180 horik : nominatiboan ; ergatiboan *horiek*.

puxantagorik (181) eman litzirozünik, eziez (182) honek emanen beiteizü. Ezi batz(ü)en (183) eta beste(e)n ükeiteko moianik hobe(re)na eta labür(r)ena bada Sant Aügüstinek dioian bezala, gure бүрүen eta Jinkoaren ontsa ezagützea, ez ziniro, zonbat nahibeita (184) txerkü (185) eginik, ediren lib(ü)rürük, hobeki ezagüterazi litzirozünik, zoinen gure entelegü (186) ororen gainetiko den Jinkoaren izatea ; eta zoinen ezin erran ahal beno apalago den gure ezdeüstarzüna, gure flakezia, eta gure ajütü mengoa.

Har ezazü arren har, ene irakurzale maitea, boztario (187) handireki(n), zük orotan gainti zure sortzepenezko lenguaiea baizik ez dakizüna, lib(ü)rü zure ziharen egin izan dela üdüritüren zaizün haur. Honen irakurteareki(n) batean agertüren zaitzü lehen gorderik egoiten zeitzün eskakeriak eta makülak (188), h(ai)etarik sendotzeko (189) moiana edireiten düzularik. Heben oraidrano zihartzaz ustekeria sobera hon üken dütüzünen fundamen (190) gabea ezagütüren düzü, h(ai)etarik soltantxaren (191) Jinkoari galtatzeko (192). Heben zure ezdeüstarzüna zonbatetaradrano doen (193) senditüren düzü, zük kürütxe eta apaltarzün baizik ez düzüla merexi ontsa ikusteko. Heben ikasiren düzü Jinkoarenganik baizik ezin egürükiten (194) düzüla, zure flakezia gaizkiala hain erortoki (195) denaren azkargarri (196) edo sendogarri moian hon denik batere. Lib(ü)rü honen eskolek zure ezpiritüari segürantza (197) oso bat emanen dizüe, hobeago (198) dela Jinkoaren begien aitzineko (199) gizon bekatüz estalirik lizan (200) bat ere, bena ümilitatearen handitarzünez begiak zelüalat goititzera (201) ezin bentüratzen den bat,

181 puxant : ahaltsua.

182 eziez : ezen ez.

183 batzen : batzüen / baten (*Zub*), batzuen.

184 zonbat-nahibeita : zenbat-nahi, zenbanahi.

185 txerkü : xerkatzea, bilaketa, bilakuntza.

186 entelegü : adimena.

187 boztario : bozkarioa, poza, poztasuna.

188 maküla : orbana, nota, t(h)ona (*Zub*)

189 sendotü : sendatu.

190 fundamen : fundamentua, funtsa.

191 soltantxa : askatasuna, libertatea.

192 galtatü : galdatu, eskatu.

193 doen : joan daitekeen, joan daitean (*Zub*).

194 egürüki : igurikatu, iguriki, itxadon.

195 erortoki : erorkorra.

196 azkargarri : sendogarria, indargarria.

197 segürantza : segurantza, segurtasuna.

198 hobeago : hobe.

199 aitzineko : aurrekoa.

200 lizan : litzatekeen, lizatean (*Zub*).

201 goititü : altxatu, eraiki.

eziez süperbios (202) bere honki (203) egin hanitxez pakü lizatean bat ; zeren bere büriak apal dadüzkaner Jinkoak hüllandanik (203) so egiten beitu, gora dadüzkaner aldiz ez hürrüdanik (204) baizik.

Ez düzü balinba ihesirik eginen zure arimari hainbeste abantaila ükene-razi ahal diroan irakurte baliosari. Ez, segur bezala nüzü ziharek, ihork (205) erran ahal litzirozün beno hanitxez hobeki, ikusiren, ezagütüren eta gozatüren dütüzüla hontan edirenen dütüzün egia saintüak. Has zite solamentz (206) borontate oso bateki(n), Jinkoari zor dütüzün gaüzen konpliztean fidel izanen zirela : eta borogatüren düzü zihaur beitan zerbait honeal bulkatüren zütüanik, eta zure bizioez ahalketürik, h(ai)en kontre hon diren kon(t)seilüer behatüren zira, iseiätzen zirelarik h(ai)er jarraikitera. Ezagütüren düzü orano segurki zure debozion(e)alako hoztarzüna kanbiatüren (207) dela zelüalako berotarzüen saintü batetara ; eta zure gaizkialako enjogidüra (208) hertüren (209) dela, eta honealako emendatüren (210).

Bena nola lib(ü)rü honek irakurtü izan behar beiluke familia osoek hobekienik profeita (211) ahal liro(i)en bezala, hon lizate hortako, familiako gehien (212) irakurten dakienek irakur lezen (213) azkarki egüean kapitülü bat goizean edo arratsaldean (214), orok entzün ahal liroien bezala, mixkandiek (215) hain ontsa nola gaineratikoe (216) ; hel baledi aldiz lanen hanixtarzünak ez liroien (h)ütsarterik (216) eman egün oroz eginbide horren konplizteko, ez lükeie behar aments (217) iganterik ez bestarik eitzi igaraitera hazkürrü (218) saintü hori bere(n) arimer eman gabe.

Izanen da düda gabe zombait erraile, (e)üskararen irakurteko üsantxa (219) gabeak gaitz, penos eta gozogabe gertaeraziren düala eginbide horren

²⁰² süperbios : urguilutsua, harroa.

²⁰³ honki (iz.) : ongia.

²⁰⁴ hüllan : hurran, hurbil.

²⁰⁵ ihor : inor.

²⁰⁶ solamentz : solamente, bakarrik, bakoizki.

²⁰⁷ kanbiatü : aldatu.

²⁰⁸ enjogidüra : joera, grina.

²⁰⁹ hertü : gutitu/tü, murriztu.

²¹⁰ emendatü : gehitu.

²¹¹ profetatü : baliatu/tü.

²¹² gehien(ik) : haboroen(ik).

²¹³ lezen : lezaien (*Zuh*), lezaten, zezaten.

²¹⁴ arratsalde : arrastiria.

²¹⁵ mixkandi : sehia, zerbitzaria.

²¹⁶ (h)ütsarte : hutsarte, tartea, bitarte hutsa, bi lanen artea.

²¹⁷ aments : bederen.

²¹⁸ hazkürrü : hazkurria, bizigaia.

²¹⁹ üsantxa : usantza, ohitura.

konplitzea ; hori hala izanik ere hatsarrean, geroalat beti hertüz joanen dira, ihor kostümatzen (220) den bezala, eta emeki-emeki beste lengoaje(e)n irakurtea ikasten den bezala, honena ere ikasiren da. Arrazu hori dela kausa, errejentek behar lükeie eskolierer (221) (e)üskara baizik ez dakiener lib(ü)rü hontan irakurten irakatsi. Gisa hortan gaitz (222) üdüri den gaüza ehitüren (223) da, eta gozo eta profeitü (224) habororeki(n) batbederak irakurtüren dü berak entelegatzen düan lengoajea. Ez düzü arren estakürüarik (225) batere ükeiten ahal, zure arimari sokorri hon horren emaitetik gibeltzen (226) ahal zütüanik. Zihauren barnetiko ezagützea har ezazü jakiletako (227), eia ihork erran ahal litzirozün beno hobeki ez dü(tü)tzünez senditüren, lib(ü)rü honen irakurtean bihotzeko kanbiamentüak bide xüxenean eбилteko, eta Jinkoaganako desiren haren konplitükiago zerbützatzeko, eta eia hanitx ordüz (228) zelüko inspirarzünek (229) ez dütüenez bizikiago hunkiren, eziez hanitx perediküren (230) entzüteak . Mendrenetik (231) aments hori dateke iseiüño honen egileak Jinkoari bere boto apal beno apalagoetzaz zuretako galatüren düan grazia, amore(a)gatik haren lanegina zure arimaren salbamentütako, eta Jinkoaren gloriarik handienarentako gerta ahal dadin, halabiz.

Hitz zombaiten entelegatzea neke zatekeala jente komünaren üdürütürik, h(ai)en beren ezagützeko moiana jardiets ahal dezan amore(a)gatik pena hartan datekeanak, ezarri izan dira hoilen (232) zola zombaitetan, h(ai)en entelegaerazitzeko mengoa zirela uste üken dütügün argiak.

²²⁰ kostümatü : ohitu, usaia hartu, üsatü.

²²¹ eskolier : lehen mailako ikaslea.

²²² gaitz (izond) : nekea, neketsua.

²²³ ehitü : erraztu, aisatu.

²²⁴ profeitü : probetxua, abantaia.

²²⁵ estakürüa : aitzakia.

²²⁶ gibeltü : gibelatu, atzeratu.

²²⁷ jakile : lekukoa, testigua.

²²⁸ ordü : unea.

²²⁹ inspirarzüen : inspirazioa, goiargia, goiarnasa.

²³⁰ peredikü : predikua, sermoia.

²³¹ mendren : den mendreena, den gutiena, txikiena.

²³² hoila : (*paper*) hostoa, orria.

Jesü Kristen Imitazion(e)aren laur Lib(ü)rüetan diren Kapitülüen

T A B L A

Edo zoin hoilatan edirenen diren xifrea.

L E H E N L I B (Ü) R Ü A

- I. K A P. JESÜ KRISTEN Imitazioneaz eta mündü hontako banitate(e)n mes-
peretxatzeaz.
- II. Bere bürüaz sendimentü apal baten ükeiteaz.
- III. Egiaren jakiteaz.
- IV. Egin behar diren gaüzetan, zer aitzinetik ikusi behar den.
- V. Eskriptüra saintaren irakurtzeaz.
- VI. Estekamentü gaixtoetzaz.
- VII. Esperantxa banoari eta goratarzünari ihesi egiteaz.
- VIII. Nabastarre handiegier ihesi egiteaz.
- IX. Obedientzi az eta besteren pean izateaz.
- X. Ele soberari gogo a emaitiaz.
- XI. Bakearen jardiestiaz, eta profieitatzeko zeloaz.
- XII. Gaüza nahi ez dü(tü)günen heltzearen abantailaz.
- XIII. Tentazione(e)n apaisatzeaz.
- XIV. Jüdikamentü temerarioari ihesi egiteaz.
- XV. Amorioz egin izan diren obretzaz.
- XVI. Besteren mensdüren onestiaz.
- XVII. Komentüetako bizitzeaz.
- XVIII. Aita saintüen etsenplüetzaz.
- XIX. Fraide eta (er)relijios hon batek egin behar dütüan obretzaz.
- XX. Isiltarzünaren eta ihor gabe izatearen amorioaz.
- XXI. Bihotzeko dolümenaz.
- XXII. Gizonaren miserien ezagützeaz.
- XXIII. Hiltzearen ardüra gogoan ükeiteaz.
- XXIV. Azken jüjamentüaz eta bekatore(e)n penetzaz.
- XXV. Gure bizitze ororen gaizkitik honealat ützültzeaz.

B I G E R R E N L I B (Ü) R Ü A

- I. K A P. EZPIRITÜZKO bizitzeaz.
- II. Jinkoaren manüpean ümilki jartiaz.
- III. Gizon perestü bakea maite düanaz.
- IV. Bihotzaren xahütarzünaz, eta intentzionearen sinpletarzünaz.

-
- V. Bere бүрүярен ezagützeaz.
 - VI. Kontzentzia hon baten alagrantziaz.
 - VII. Jesüsen гаүза ороren gainetik maite үкеитеаз.
 - VIII. Jesү(se)kilako adiskidegoa nabasiaz.
 - IX. Kon(t)solazione ороren gabeziaz.
 - X. Jinkoaren graziari zor den ezagützeaz.
 - XI. Jesüsen күрүтхеaren maitazale(e)n апүртарзүназ.
 - XII. Күрүтхе saintүaren errege bideaz.
-

H E R E N L I B (Ü) R Ü A

- I. Kap. JESÜ KRISTEK arima fidelari barnetik etxekiten дүан elestaz.
- II. Otoizten дү Jinkoa bere bihotzean mintzatzen entzүн dezan.
- III. Ümilitatereki(n) behar di(r)ela Jinkoaren hitzak entzүн, eta hanitxek ez дүтүела aski pezatzen.
- IV. Egian eta ümilitatean Jinkoaren aitzinean bizi behar dela.
- V. Jinkoaren amorioak egiten дүтүан гаүза miragarriez.
- VI. Egiazko maitazalearen borogatzeaz.
- VII. Ümilitatearen begiraren pean, graziaren estaltzeaz.
- VIII. Jinkoaren aitzinean bere бүрүярен txarretako igarenerazitzeaz.
- IX. Гаүзек орок Jinkoarenganat, azken үрrentzealat bezala, joanerazi behar дүела.
- X. Гаүза ezti bat dela, мүндүа mesperetxatүрик, Jinkoaren zerbүtxuan izatea.
- XI. Behar дүтүала ihork bihotzeko desirak ontsa ikertү eta xuxentү.
- XII. Pazentziaren bere пүнтүала ezarteaz, eta aragiaren nahikүnte(e)n kontre borrokatzeaz.
- XIII. Jesükristen etsenplүala, zerbүtxari ümil batek үken behar дүан obedientziaz.
- XIV. Behar дүела Jinkoaren жүjamentү estaliek лүzaz pezatү izan, gihauren obra hon uste(e)k үrgүлүtsүerazi ez gitzen amore(a)gatik.
- XV. Nola egon eta mintzatү behar den гаүза desiratzen ahal diren оrotan.
- XVI. Jinkoatan beraurtan behar dela txerkatү egiazko kontsolazionea.
- XVII. Gure arrankүрек орок Jinkoatan ezarri behar дүела.
- XVIII. Мүндү dontako miseriek behar дүела pazentzia ezti bateki(n) soferitү Jesükristen etsenplүala.
- XIX. Goitzarreen honesteaz, eta nor egiazki pazient den borogatzeaz.
- XX. Gihauren flakүтарзүнaren aitortzeaz eta мүндү dontako miserietzaz.

- XXI. Jinkoatan pausatü behar dügüla, hontarzün eta dohain ororen gainetik.
- XXII. Jinkoaren hanitx gisatako honki eginen orimentxaz.
- XXIII. Bake handi bat erakarten düen laur gaüzak.
- XXIV. Ez dela behar, sobera jakin nahireki(n), besteren bizitzea txerkatü.
- XXV. Zertan dagoen bihotzeko bake osoa, eta egiazko arimaren profetiä.
- XXVI. Ezpiritü libertateaz gozaten denaren goratarzünaz, zoin ihork merexitzen beitiü orazioneaz lehenik, eziez irakurtzeaz.
- XXVII. Gihauren amorio propiak ezinago gibeltzen gütüala, hontarzün ororen gainetik denaganik.
- XXVIII. Mardaileren mihien kontre.
- XXIX. Nola türbürarzünaren jiteareki(n), Jinkoak otoitü eta benedikatü behar düan.
- XXX. Jinkoaren sokorriaren galtatzeaz, eta graziaren (h)ar(t)zara ükeiteko esperantxaz.
- XXXI. Kreatüren ororen eizteaz, krezalea ediren ahal dadin amore(a)gatik.
- XXXII. Bere bürüaren eizteaz, eta desirkünte gaixto orotarik bilaizteaz.
- XXXIII. Gure bihotzaren kanbiakor izateaz, eta Jinkoaren azken inten(t)ziona üken behar dügünaz.
- XXXIV. Maite düanaren gozoko dela Jinkoa gaüza orotan, eta ororen gainetik.
- XXXV. Tentazionearen kontre ez dela seguranzarik bizitze hontan.
- XXXVI. Gizonen jüdikamenü banoen kontre.
- XXXVII. Bere bürüaren Jinkoari osoki eta pürki emaitiaz.
- XXXVIII. Kanpotiko gaüzen gobernü honaz, eta danjeretan Jinkoari her(t)satzeaz.
- XXXIX. Erreüs ihor ez dadin izan egitekoetan.
- XL. Gizonak beraorganik deüs honik ez düala, eta ez daiteala deüsez ere glorifika.
- XLI. Ohore tenporal ororen mesperetxüaz.
- XLII. Gizonetan ez düala behar ezarri gure bakeak.
- XLIII. Mündüko jakite banoaren kontre.
- XLIV. Kanpotiko gaüzen ezagützean ez düala behar ihork sartü.
- XLV. Ez düala behar orok sinetsi izan, eta zoinen ehi den elestetan hüts egitea.
- XLVI. Jinkoatan ihork üken behar düan konfidantxaz, gure kontre erraiten diren ele(e)n onesteko.

-
- XLVII. Gaüza greügarriek orok, bizitze eternalagatik, soferitü izan behar düela.
- XLVIII. Eternitateko egünaz, eta bizitze hontako miserietzaz.
- XLIX. Bizitze eternalaren desiratzeaz, eta harat joaitera iseiatzen direner, zoinen hontarzün handiak daudean haidürü.
- L. Zer gisaz gizon eskerniatüak Jinkoaren esküetan jarri behar düan.
- LI. Obra apaler ihork estekatü behar düala gorenatarat ezin heltzen denean.
- LII. Gizonak uste üken behar düala lehenago merexi dütüala azote kolpeak, eziez kon(t)solazioneak.
- LIII. Jinkoaren grazia ez dela laket lürreko gaüzetan gozo hartzen düenekilan.
- LIV. Grazia eta natüraren bulka ezin alkarreki(n) konpostatzen ahal direnetzaz.
- LV. Natüraren gastatü izateaz, eta Jinkoaren graziaren egitate azkarraz.
- LVI. Gihauren büriak eitzi behar dütügüla, eta Jesü Krist kürütxearen karreiatzean imitatü.
- LVII. Gizona ez dadin izan sobera deskorajatü, zombait faltatara erorten denean.
- LVIII. Guretako sobera gora diren gaüetzaz, eta ez düela behar Jinkoaren jüjamentü estaliek sobera xehe txerkatü.
- LIX. Jinkoaren beraurtan gure esperantxa eta konfidantxa oro ezarri behar dügüla.
-

L A U R G E R R E N L I B (Ü) R Ü A

- I. KAP. ZONBAT apalmentureki(n) Jesü Kristek errezebitü izan behar düan.
- II. Jinkoak gizonari sakramentü hontan hontarzün eta karitate handi bat erakusten düala.
- III. Hon dela ardüra komüniatzea.
- IV. Debotki komüniatzen düenek hanitx hontarzün jardiesten düela.
- V. Altareko sakramentüaren handitarzünaz, eta apezgoaren goratarzünaz.
- VI. Galto bat, eia zer egin behar den komünionea beno lehen.
- VII. Kontzentzia propiaren ikertzeaz, eta bizitzez kanbiatzean fermo izateaz.
- VIII. Jesüsek kürütxe(a)n gaine(a)n egin düan oberendaz, eta bere büriaren Jinkoaren esküetan ezarteaz.

- IX. Behar dütügüla gure bürüak eta gük dütügün gaüzak oro Jinkoari eskentü, eta orogatik hura otoitü.
- X. Ez düala ihork arinki ützi behar komünione saintüa.
- XI. Ezinago Jesü Kristen korpitzaren eta eskriptüra saintaren behar handia düala arima fidelak.
- XII. Jesü Kristen errezebitzeko behar düala ihork arranküra handi bateki(n) adelatü.
- XIII. Arima debot batek behar düala bihotz osoz txerkatü sakramentü hontan Jesü Kristeki(n) jüntatü izatea.
- XIV. Jesü Kristen errezebitzeko zombait arima debotek düen desir süz beteaz.
- XV. Graziaren debozioea ihork jardiesten düala ümilitateaz eta bere bürüaren ezdeüsteaz.
- XVI. Gure beharrünek behar dütügüla Jesüsi erakutsi, eta grazia berauri galtatü.
- XVII. Jesü Kristen errezebitzeko ihork üken behar düan bihotzeko desir handiaz eta amorio süz beteaz.
- XVIII. Ez düala behar gizonak sakramentü honen, sobera jakin behar-reki(n), ikerzale izan ; bena bai Jesüsen ümilki imitazale, fede sakratüaren pean bere ikustea ezarten düalarik.

Tablaren akabantza.

J E S Ü K R I S T E N
I M I T A Z I O N E A R E N
L E H E N L I B (Ü) R Ü A

Bizitze ezpiritualaren hon eta profitable diren abisüak.

L E H E N K A P I T Ü L Ü A .

Jesü Kristen Imitazioneaz, eta mündü hontako banitate(e)n mesperetxüaz.

1. ENI jarraikiten dena ez dabila ülünpean, dio Jinko Jaunak ; hoiek dira Jesüsen hitzak, zoinz (h)abitatüak beigira, behar dügüla haren egitatea eta bizitzea imitatü (+), nahi bagira egiazki argitü izan eta ütsümentü (233) orotarik eskantzatü. (234)

Gure arrankürarik handiena biz (235) arren, Jesüsen bizitzearen ardüra ezpiritüan ükeitea.

1. Jesüsek erakusten deizgün (236) gaüzak, saintü orenak beno balio-sago dira, eta haren ezpiritüa lianak (237), han ediren liro mana estalia.

Bena heltzen da, ebanjelioaren ardüra entzüteagatik, hanitxi ez zaiela bihotza hunkitzen, zeren ez beitüe Jesüsen ezpiritüa.

Nork ere gozatü eta ontsa entelegatü nahi beitütü Jesüsen hitzak, harek behar dü iseiatü Jesüsenaren araur bere bizitze oren igaraitera.

3. Zer profeitü düzü Trinitateaz hitz handirik erraitea, Trinitatearen gogoko ez bazira, ümilitatearen üken gabez.

Egiazki hitz handiek ez düe jüstoa eta saintüa egiten, bena bai bizitze bertütosak Jinkoari kario izanerazitzen.

Nahingo dit bihotzeko dolümena senditü, eziez jakin zoin hitzez entele-gaerazitzen den.

Bazeneke ere eskriptüra sainta oro gogoz, eta filosofo oren jakiteak, zer profeitü zünüke Jinkoaren grazia eta amorioa gabe ?

(+) Imitaztea erran nahi da beste batek hitzez eta obraz konplitü düttian gaüzer jarraikitea, eta h(ai)en beren egitea.

- Mana zen Jinkoak Jüdioer desertüan zirenean zelütik jaitserazi züan hazkürrü miraküilos bat, zoinnek Sakramentü Saintüaren miraküilüa ordüandanik seinalatzen beitzüan.

²³³ Ütsümentü : itsudura.

²³⁴ Eskantzatü : askatu, libratu/tü.

²³⁵ Biz : izan bedi.

²³⁶ deizgün : dizkigun.

²³⁷ lian : lukeen, lükean (*Zuh*).

Banitate(e)n banitatea, dio zühürrak eta oro dira banitate, salbü Jinkoaren maite ükeitea, eta haren zerbüttxatzea.

Haur da zühürtze handia, mündüaren mesperetxüez zelüko erresumalat joaitea.

4. Banitate bat da arren aberastarzün galdü behar düenen txerkatzea, eta h(ai)etan esparantxa ükeitea.

Banitate bat da orano ohore(e)n jardiesteko eginahalaren egitea, eta bere bürüaren goratzea.

Banitate bat da aragiaren nahikün(e)r jarraikitea, eta zertaz ere hain garrazki ihork gaztigatü (238) izan behar beitü, haren desiratzea.

Banitate bat da bizitze lüze baten nahi ükeitea, eta haren ontsa igaraitez ez axolatü izatea.

Banitate bat da bere gogoaren oraiko bizitzeareki(n) estekatürrik etxekitea, eta gero zer jin behar den aitzinetik ez ikustea.

Banitate bat da laster beno lasterrago igaraiten den gaüzaren maite ükeitea, eta beti iraünen düan alagrantzia haidürü daukünaren leküala lasterrekaz (239) ez joaitea.

Ardüra orit zite erran zahar honez, ez dela so egitez begia asetzen, ez eta (e)re beharria (240) entzütez.

Iseia zite arren zure bihotzaren gaüza ikusten ahal direnen amoriotik soltatzera (241), eta ezin ikusten direnet(a)rat igarenerazitzera ; ezi aragiaren desirer jarraikitzen direnek, kontzentsia (242) teiützen dizüe, eta Jinkoaren grazia galtzen.

II. KAPITULÜA.

Ene bürüaz sendimentü apal baten ükeiteaz.

1. Gizon orok natüralki jakitea desiratzen düe ; bena zer profetitü emaiten dü jakiteak, Jinkoaren lotsa gabe ?

Jinkoa zerbüttxatzen düan laborari ümil bat hobeago da düda gabe, eziez filosofo ürgüilütsü bat, zoinek arimaren arrankürarik üken gabe, zelüko izarren lasterrak gogoatzen (243) beitütü.

²³⁸ gaztigatü : zigortu.

²³⁹ lasterrekaz : lasterka(z), lasterrez.

²⁴⁰ beharri : belarria.

²⁴¹ soltatü : askatu, libratu/tü.

²⁴² kontzentsia : kontzientzia.

²⁴³ gogoatü : arranguratu, kezkatu.

Bere bürüa ontsa ezagützen düanak, beraurtzaz ez dü peretxürük (244) ükenen, ez eta (e)re gizonen laüdorietan plazerik hartüren.

Nakitzan (245) ordüan mündüko gaüzak oro, ez balin banü (+) karitatea, zer balio lüke jakite harek Jinkoaren aitzinean, zoinek jüjatü behar beinai ene gaüza eginetan gaine(a)n ?

2. Ez düzüla (246) hanitx jakiteko desirkünthe handiegi bat, zeren barreiarzün (247) eta inganio (248) handirik han edireiten beita.

Jakitosek (249) bere(n) bürüen agertzez plazer hartzen düe, eta zühürrak deitü izatez.

Hanitx gaüza dira, zoinen jakitea arimaren apür edo batere ez beita profitable.

Ontsä da zentzügabea, beste salbamentüari baizik so ez daudean gaüzer estekatzen dena.

Ele hanitxek ez düe arima asetzen, bena bizitze honak bai entelegüari indar emaiten, eta kontzentzia xahüari Jinkoa beitan konfidantxa handi bat ükenerazitzen.

3. Zonbatenez haboro eta hobekiago beitaükezü, ha(i)nbatenez garrazkiago jüjatü izanen zira, saintükiago bizitzen ez bazira.

Ez ziteala arren handios izan jakite(e)z, batez ere : bena lotsa üken ezazü lehenago eman izan zaizün ezagützeaz.

Üdüri bazaizü hanitx badakizüla, eta aski entelegü hona düzüla, halarik ere jakin ezazü hanitxez haboro direla zük ez dakitzünak.

Ez dezazüla handiarena egin, bena aitor ezazü lehenago zure jakin gabea. Zeren nahi düzü zure bürüa beste bat beno haboroago etxeki, denen gaine(a)n (250) zü beno jakitosagorik hanitx, eta zük beno hobeki legea entelegatzen düenik ?

Nahi badüzü abantailoski zerbaüt jakin eta ikasi, maite ükezü (251) ez ezagütü izatea, eta zützaz ez peretxürük egitea.

4. Bere bürüaren ontsa ezagützea da jakitaterik baliosena, eta gorena.

²⁴⁴ peretxü : estimua.

²⁴⁵ nakitzan : nakizkien.

(+) Karitatea da hirur bertüte teologatarik handiena, zointzaz Jinkoa maite beitägü gaüza orenen gainetik, eta protsimoa gure bürüa bezala.

²⁴⁶ ez düzüla : ez dezazula.

²⁴⁷ barreiarzün : barreiamendua, barreiadura, sakabaneketa.

²⁴⁸ inganio : engainua.

²⁴⁹ jakitos : jakintsua.

²⁵⁰ denen gaine(a)n : denaz geroz, denez.

²⁵¹ ükezü : ukan ezazu, eduki ezazu.

Bere büriaren apür etxekitea, eta besterenetzaz sendimentü honik eta gorarik ükeitea da zühürtarzün eta ontsatarzün handi bat.

Ikus bazeneza ere beste bat agerriz bekatü egiten, eta beste zombait itsustarzünen egiten, halarik ere ez zünüke behar uste üken zü hura beno hobe zirela : zeren eta ez beitakizü zombat tenporaz honean egon ziratean.(252)

Oro gira erorkor, bena ez düzüla uste badela ihor ere zü beno erorkor(r)agorik.

III. kapitülüa. *Egiaren jakiteaz.*

1. Dohatsü da egiak berak, ez figüra eta hitz igaraiten diren elibatek, bena bere beitan den bezala, argitzen düana.

Gure ustekeriak, eta gure (+) zentzüak apür ikusten dü, eta ardüra inganatzan (253) gütü.

Zer profetitü da gaüza estaliez eta ezagütü ez direnez mintzatzea, ez dügünen gaine(a)n behar azken jüdiziozko egünean h(ai)en jakin gabez laidorik üken.

Erokeria handi bat da gaüza abantailos eta behar dirennezaz kasürük egin gabe, bolontarioki (254) gaüza berritzepen ekarten eta damü baizik egiten ez deigüener esteka gitean. Begiak dütügükarik ez dügü ikusten.

2. Zer axola dügü filosofoek genero eta espez(ie)a deitzen dütüen hitzetaz ?

Nori ere berbo (255) eternala mintzatzen beita, hura hanitx ustekeriatarik eskantzützen da.

Gaüzak oro berbo harez egin izan dira, eta orok lengoaje bera etxekiten düe, eta hatsarre hura da guri mintzo zaigüna.

Ihork ere hura gabe ez diro ez entelega, ez jüja ontsa.

Zoientako orano gaüzak oro bat beitira, eta bat hartara oro erakarten, eta oro hartan ikusten beitütü, hura bihotz fermo bateki(n) izaten, eta Jainkoaren bakean egoiten ahal da.

²⁵² egon ziratean : egongo zaren.

(+) Bost zentzü dira zoin beitira ikustea, entzütea, ürrinstatzea, gozatzea eta hunkitzea, zoin ez zentzü komün honean dagoenetik hartzen beitütüe bere(n) propitajeak, eta (h)ar(t)zara berriz hare(n)ganat ützültzen bost sendimentü horien bat- banaka gütan edirenerazit(z)eko.

²⁵³ inganatü : engainatu, tronpatu/tü.

²⁵⁴ bolontarioki : boluntario bezala, nor bere nahiz, bere olez.

²⁵⁵ berbo (verbo) : hitza (Jainkoaren hitza gizon egina).

O Jinko egia zirena, egin nazazü bat zureki(n), karitate beti iraünen düanean.

Debeiatzen (256) nüzü ardüra gaüza hanitxen entzütez eta irakurtzez : zütan düzü nik nahi düdan eta desiratzen düdan gaüza oro.

Isil bite dotorak oro, mütü bite kreatürak oro zure aitzinean : zü baizik ez dakidala ihor mintza.

3. Zonbatenez norbait bere beitan sartzenago beita, eta bere bihotzean sinpletzenago, ha(i)nbatenez gaüza haboro, eta handiagorik entelegatzen dü pena gabe : zeren eta zelütik entelegüaren argia ükeiten beitu.

Ezpiritü xahü, simple eta fermo bat ez da hanitx lanetan barreatzen : zeren eta oro Jinkoaren ohoretan egiten beitätü, eta iseiatzen beita, berauri so daudean gaüzetarik libratürrik, pausüan jartera.

Zerk haboro destorbatzen eta kexaerazitzen zütü, eziez zure bihotzeko erortokidüraren (257) aski hilerazi gabeak ?

Gizon perestü eta debot batek, kanpolan egin behar dütüanak, aitzinetik bere beitan ikusten eta alkarren ondoan egiteko bere(i)zten dütü.

Eta h(ai)ek ez düe inklinazione biziosaren nahikünte(e)tara erakarten, bena berak plegaerazitzen dütü hurak arrazu xüxenaren manüala.

Nork dü borroka azkarrago bat, eziez bere büriaren goitzera (258) iseiatzen denak ?

Gure egitekorik handienak izan behar lüke gure büriaren goitzea, eta egün oroz giren beno indartsüago gertatzea, eta honean profeitü zonbaiten egitea.

4. Mündü hontako gaüza konplitüenek orok badüe zonbait eskaztarzün bereki(n) nahastekatürrik, eta gure ezpiritüazko ikuste(e)k orok badüe zonbait ülüntarzün.

Zihauren ezagütze ümila Jinkoaganako bide segürago bat düzü, eziez barna beno barnago jakite(e)n txerkatzea.

Ez da ogenik (259) eman behar jakiteari, edo zernahibeita gaüzaren ezagütze sinpleari, zoin beraurtan dagoelarik hon beita, eta Jinkoaren manüak ezarria : bena kontzentzia (+) hon bat eta bizitze bertütos bat betiere hobea-go dira.

²⁵⁶ debeiatü : aspertu, enoatu.

²⁵⁷ erortokidüra : erorkortasuna.

²⁵⁸ goitü : garaitu/tü.

²⁵⁹ ogen : hobena, hutsa, errua.

(+) Kontzentzia da gizonak bere barnean eta ariman düan ezagütze bat, zoinek erakusten beiteio egiten düan, edo egin behar düan gaüza hon edo gaixto dela.

Bena nola haboro beitera jakiteari, eziez bizitze honari estekatzen direnak, hartakoz ardüra inganatzan dira, eta kasi(k) profetitürük batere edo apür baik ez düe jardiesten.

5. O balüe hainbeste arranküra bizioen gainetarik idokitzeko eta bertütearen h(ai)en plazan ezarteko, nola beitiue galto berririk egiteko, ez leite popüliuan hainbeste gaixtozeria eta (+) eskandal izan, ez eta (e)re komentüetan hainbeste laxükeria.

Gaüza següra da azken jüdiziozko egünean ez zaigüla galtatü izanen zer irakurtü dügün, bena bai zer egin dügün ; ez zoinen ontsa mintzatü giren, bena bai zoinen debotki bizi izan giren.

Erradazü, non dira orai, bür(ü)zagi eta jaun bizi zireno ontsa ezagütü züntüan hurak oro, eta fama handi bat bere(n) jakiteaz jardietsi züenak ?

Beste(e)k orai zitizüe h(ai)en kargüak, eta ez zikit (260) h(ai)en orimenterik badüenez. Bizi zireno üdüri züzün zerbait zirela, eta orai hitzik ez dizü ihork h(ai)etzaz erraiten.

6. Ala beita laster igaraiten mündüko gloria ! Jinkoak baletsa h(ai)en bizitzea jakitearen araur izan lizan ! Ordüan zikezüen ontsa irakurtü eta ikasi.

Zonbat dira mündüan jakite bano (261) batez galtzen direnak, zoinek Jinkoaren zerbütüaz axolik ez beitiue.

Eta ümil beno lehenago handi izatea haütatzen beitiue : hartakoz bere(n) pentsamentüetan ke bat bezala ezdeüstüren dira.

Nork ere karitate handi bat beitiü, hura da egiazki handi.

Nor ere bere beitan txipi beita, eta ohorearen goratarzüna ezdeüstentako etxekitzen beitiü, hura da egiazki handi.

Nork ere lürreko gaüzak oro gorotza (262) bezala etxekiten beitiütü, Jesü Krist irabaz dezan amore(a)gatik, hura da egiazki zühür.

Eta ontsa da egiazki jakitos, nork ere bere borontatea ützerik, Jinkoarena egiten beitiü.

IV. KAPITÜLÜA

Egin behar diren gaüzetan, zer aitzinetik ikusi behar den.

1. EZ da behar ele ez pentsamentü orori bere sinestea ezarri, bena gaüzak behar dü lüzaz eta abisamentüeki(n) Jinkoaren eretzean pezatü.

(+) Eskandala da edo besteri, edo berauri bekatü egiteko bidearen erakustea edo hartzea, eta etsenplü eta hitz gaixtoetzaz bekatüala erorerazitzea.

²⁶⁰ ez zikit (etzikit) : ez dakit.

²⁶¹ bano : hutsala.

²⁶² gorotz : animalien ongarrria.

(H)elas ardüra ihork sinesten eta erraiten dü ehikiago (263) gaizkia eziez hona besterentako, hainbeste gira flakü !

Bena jente konplitüek ez dütüe ehiñera sinesten ele erraileak oro, zeren beitakie gizonaren flakütarzüna gaizkialat ekarri, eta bere eletan aski hüskor (264) dela.

2. Zühürtze handi bat da egin behar diren gaüzetan ez arinegi izatea, eta berauren sendimentüetan ez gogorki egoitea.

Hari so dagoen püntü bat da orano zoin-nahibeita gizonen ele(e)n ez sinestea, eta entzün eta sinetsi dütüan gaüzen ez besteri ber(e)hala arrerraitea.

Har (e)zazü zure kontseilüa gizon zühür eta kontzentzia maite düan bateki(n) : eta nahiago zirela zihaur beno hobeago batek erakusten deitzün gaüzer, eziez zihaurk ediren dütüzüner jarraiki.

Bititze honak gertaeraziten dü gizona zühür Jinkoaren eretzean, eta hanitx gaüzatan jakintsü.

Zonbatenez gizona bere beitan ümilago eta Jinkoari manentago (265) izaten beita, ha(i)nbatenez zühürrago date (266) bere egiteko orotan, eta bakea hobeki ükenen dü.

V. KAPITÜLÜA

Eskriptüra saintaren irakurtzeaz

1. Egia, ez ele(e)n edertarzüna, eskriptüra saintan behar da txerkatü.

Egin izan den ezpiritü berean irakurtü ere behar dü eskriptüra saintak.

Eskriptüra saintan profeitüa lehenago, eziez elestaren goratarzüna behar dügü txerkatü.

Hain gogo honez behar dütügü irakurtü lib(ü)rü debotak eta sinpleak, nola goraki eta jakitereki(n) egin izan direnak.

Ez dezazüla izkiribazalearen famari sorik egin, ala jakite txipitako ala handitako izan den, bena egiaren beraren amorioak irakurtzera erakar zitzala.

Ez dezazüla galta nork hori erraiten düan, bena gogo emazü zer erraiten den.

2. Gizonak igaraiten dira, bena Jinkoaren egiak beti iraüten dü ; Jinkoa hanitx maneraz mintzatzen zaigü ihoren bereizkeriarik egin gabe.

²⁶³ ehihiago : errazkiago, aisago.

²⁶⁴ hüskor : huts egitera ekarria.

²⁶⁵ manent : obediente, esanekoa.

²⁶⁶ date : izanen da, izango da.

Hanitxetan eskriptüra saintaren irakurtzean, gure sobera jakin-nahiak nahasten gütü, noiz ere osoki entelegatü eta xehe ikertü nahi beitätü sinpleki sinetsi behar gütükean gaüza.

Nahi badüzü profetitürik jardietsi, irakur ezazü ümilitate, sinplizitate eta fede oso bateki(n), nahi üken gabe jagoiti (267) jakitos baten fama.

Galta eta entzün itzazü gogo honez saintüen hitzak deüs erran gabe, zaharren erranak ez zaitzüla desplazent : ezi arrazurik gabe ez dütüzü erran izan.

VI. KAPITÜLÜA *Estekamentü gaixtoetzaz.*

1. Zernahibeita gisaz, gizonak zerbait gaixtoki desiratzen badü, ber(e)hala bere beitan erreüs bilakatzen da.

Ürgüilütsüa eta abariziosa seküla(n) ez dira pausüan jarten ; ezpiritüz aldiz praube eta ümil direnak, bake handi batetan daude.

Nor ere ez beita orano bere bürüari osoki hil, ber(e)hala tentatü eta garaitü izaten da gaüza txipi eta txar elibatetan.

Ezpiritü flakü eta zerbait gisaz aragiaren nahikünt(e)tara erortoki dena, nekez daite lürreko desiretarik osoki solta ; eta hartakoz ardüra dütü tristeziak h(ai)etarik hürrüntzen denean, koleratzen ere da arinzki nahi düana egiten ez zaionean.

2. Bena desiratzen düan gaüza ükeiten badü, ber(e)hala kontzentziaren teiü (268) ükeiteak sor (269) eta pezü (270) gertaerazitzen dü, zeren eta jarraiki beita bere pasioneari, zoinek ez beiteio ajütürik emaiten bake txerkatzen düanaren ükeiteko.

Arren pasione(e)r bühürtzez, eta h(ai)ek nahi ez düena egitez edireiten da bihotzeko egiazko bakea.

Ez da arren bakerik gizon aragiari eta kanpoko gaüzer enjogi den baten bihotzean, bena bai deboziona eta gaüza ezpiritüalak dütüanarenean.

²⁶⁷ jagoiti : jagoitik, aurrerantzean, gaurdanik.

²⁶⁸ teiü : zikina.

²⁶⁹ sor : soraioa.

²⁷⁰ pezü : astuna, pisu handikoa.

VII. KAPITÜLÜA

Esparantxa banoari eta goratarzünari ibesi egiteaz.

1. Banitatoso da gizonetan edo kreatüretan bere esparantxa ezarten düana. Ez düzüla ahalkerik Jesü Kristen amore(a)gatik besteren zerbütüxüan izatez, eta mündü hontan praube üdüritzez.

Ez düzüla zihaurtan konfidantxarik, bena Jinkoatan ezar ezazü zure esparantxa.

Egizü zütan dena, eta Jinkoak zure borontate hona sokorritüren dizü.

2. Ez ziteala fida zure jakitean, ez zoin-nahibeita gizonen adrezian (271), bena bai lehenago Jinkoaren grazian, zoinek ümilak ajütatzen beitütü, eta bere(n) bürietan fidatzen direnak apaltzen.

Ez ziteala glorifika zure aberastarzünetan, hanitx balin badüzü, ez eta (e)re zure adiskide(e)tan poteros direlakoz, bena Jinkoatan, zoinek gaüzak oro emaiten beitütü, eta berauren emaita gaüza ooren gainetik desiratzen beitü.

Ez ziteala handi zure korpitzaren handitarzünaz edo edertarzünaz, zoin eritarzün txipi batek gastatzen eta itsusten beitü.

Ez dezazüla bihotzean har kontentamentürik zure adreziaz edo ezpiritü ükeiteaz, beldürrez desplazer egin dezazün Jinkoari, zoini zor beitütüzü zük düütüzün hontarzün natüralak oro.

3. Ez düzüla uste besteak beno hobe zirela, beldürrez gaiztoago baten iganen zitean Jinkoaren aitzinean, zoinek beitakitza gizonaren barnean diren gaüzak oro.

Ez ziteala ürgüilütsü zure obra honetzaz, zeren gizonenak ez bezalako beitira Jinkoaren jüjamentüak : zeren eta hanitxetan gizoner plazer egiten düan gaüzak, desplazer egiten beiteio.

Zerbait honik balin badüzü, beste(e)k badüela hobeagorik sinets ezazü, amore(a)gatik ümilitatea begira dezazün.

Damürik ez düzü ükenen beste ooren pean zure büriaren ezartez, bena jar bazinte bakoitz baten ere gainetik, galtze handi bat egin zinero.

Arima ümil bat gozatzen da bake iraüpos batez, bena ürgüilütsüaren bihotzean ardüra daude jeloskeria eta kolera.

²⁷¹ adrezia : trebezia, trebetasuna.

VIII. KAPITÜLÜA
Nabastarre handiegier ibesi egiteaz.

1. Ez dezazüla zure gogoa hüts norinahibeita, bena egitzü zure egitekoak jente zühürreki(n), eta Jinko beldürtieki(n).

Bekanki izan zite jente gazte(e)ki(n) eta herriz kanpokoeki(n).

Aberatsak ez itzazüla lausenka, eta handien aitzinean ez ziteala ager plazereki(n).

Ümileki(n) eta simple(e)ki(n), deboteki(n) eta perestüeki(n) izan zite ardüra, eta honeala erakarten düen gaüzetzaz mintza zite.

Emazte zonbaiteki(n) ez ziteala nabasi izan, bena komünean (272) emazte perestüak oro Jinkoari itzazü gomenda.

Jinkoareki(n) berareki(n) eta haren aingürüeki(n) nabasi izatea desira ezazü, eta gizonen ezagützeari ihes egizü.

2. Orentako karitate üken behar da, bena ez da hon ororeki(n) nabasi izatea.

Heltzen da zonbait aldiz per(t)sona ezagütü ez den batek düan fama hon bat, eta ezagütü den bezain sarri, ikusteak greützen beigütü.

Uste dügü zonbait ordüz beste(e)r plazer egiten dügüla h(ai)e(n)ganat joaiteaz, eta ordüan hasten gira h(ai)er haboro desplazer egiten, zeren gure gaixtokeriak hobeki ezagützen beitütüe.

IX. KAPITÜLÜA
Obedientziaz, eta besteren pean izateaz.

1. Gaüza handi bat da obedientzian egoitea, gehien baten pean bizitzea, eta bere бүр(ü)zagi ez izatea.

Hanitzex segurago da gehiengoan beno, besteren manüpean egoitea.

Hanitz jente daude obedientzian, bortxaz lehen eziez amore honez, eta h(ai)ek pena soferitzen düe, eta arinzki murmuzeiatzen dira.

Eta ez düe ezpiritüaren libertatea jardietsiren, Jinkoaren amore(a)gatik, bihotz oroz, besteren petiko izatez kontent ez badira.

Lasterka zite horrat eta honat, ez düzü paüsia edirenen, gehien baten gobernüaren izate ümilaren pean baizik.

Hobeki izan usteak eta leküen kanbioak hanitz jente inganatü dütü.

²⁷² komünean : arruntean, usaian.

2. Egia da batbedera bere sendimentüaren arau, gogo honez gobernatzen dela, eta ekarriago dela bere sendimentüko direnenganat.

Bena Jinkoa gureki(n) bada, bortxatü gira zonbait ordüz gure sendimentüaren eiztera, bakearen ükeitea dela kausa.

Nor da aski zuhür, ororen osoki jakiteko ?

Ez ziteala arren sobera fida zure sendimentüari, bena ikas ezazü beste(e)nari behatzen (273) gogo honez.

Hon bada zure sendimentüa, eta hura eizten badüzü Jinkoaren amore(a)gatik, eta beste bati jarraikiten bazira, hantik haboro profeitü idokiren düzü.

3. Ezi entzün dizüt ardüra erraiten kontseilüari behatzea eta haren hartzea segürago dela, eziez emaita.

Hel ahal daite orano batbederaren sendimentüa hon den : bena seinale da ihor ürgüilütsü eta bürü gogor dela, besteren sendimentüari behatü nahi ez denean, noiz ere arrazuak eta gaüzak hala nahi beitüe.

X. KAPITÜLÜA

Ele soberari gogoia emaitaaz.

1. Hürünt zite ahalaz gizonen herotsetarik : ezi mündüko egitekoetan sartzeak nahasten dizü ihor azkarki, nahibada intentziona xahü bateki(n) erabil ditean.

Ezi banitatearen teiarzüna (274) eta esklabogoa berehala harrerazi(t)zen digüzüe.

Ontsa nahi nikezü hanitxetan isilik egon nin(t)zan, eta gizonen artean ez nintzan izan.

Bena zeren hain gogo honez mintzatzen gira, eta alkarreki(n) elestatzen, kontzentziari ogenik egin gabe bekanki (h)ar(t)zara isilik egoiteala ützültzen girenen gaine(a)n.

Hain gogo honez elestatzen gira, zeren eta alkarren elestetarik, alkarren kontsolaziona txerkatzen beitügü, eta gure bihotza, hanitx pen(t)samentü suertez sortatürük dagoena, arintüxe nahi beigünüke.

Gozo handi bat hartzen dügü noiz ere mintzatzen beigira, edo pentsamentüan igaraiten beitütügü gihaurk hanitx maite edo desiratzen dütügün gaüzak, edo gure kontre ez direla borogatzen dütügünean.

²⁷³ behatü : adi egon, entzun.

²⁷⁴ teiarzüna : zikintasuna.

Bena (h)elas deüs irabazi gabe ardürago : ezi kanpotiko kon(t)solazione horrek damü handi bat eretxekiten deio zelütik bihotzeala jiten denari.

Hartakoz iratzarririk eta otoitzetan egon behar dügü, beldürrez tenpora profeitürük gabe igaren dezagün.

Konbeni edo hon bada mintzatzea, errazü honeala erakar diroan gaüza zonbait.

Üsantxa gaixtoak, eta gure profeitüaz arrankürarik ez ükeiteak, mihia ezaxolatüki erabilerazitzen deigü.

Hargatik orogatik, gaüza ezpiritüalez debotki elestatzeak (275) profeitü ezpiritüalean ajütü handirik emaiten dü : orotan gainti, noiz ere bihotzez eta ezpiritüz Jinkoari bardin jüntatürük daudeanak elestatzen beitira.

XI. KAPITÜLÜA

Bakearen jardiesteaz, eta profeitatzeko zeloaz.

1. Bake handi batez goza ahal ginteke, ez bagünü nahi beste(e)k erraiten eta egiten dütüen gaüzetaz, eta guri so ez daudeanetzaz bihotza oküpatürük etxeki.

Nola tenpora lüzaz bakean egoiten ahal da besteren egitekoetan sartzen dena, kanpotiko horrat-honatak txerkatzen dütüana ? Apür edo bekanki bere beitan sartzen dena ?

Dohatsü dira sinpleak, zeren bake handi bat ükenen beitüe.

2. Nolaz saintüetarik zonbait hain debozisionean barna, eta zelüko gaüzen hain ikusle hon izan dira ?

Zeren eta iseiatü izan beitira lürreko desirkünthe orotarik, nekez bada nekez, bere(n) bürüen soltatzera, eta hortakoz bihotz osoz Jinkoari jüntatürük zaudealarik, bere(n) kontzentziari so zaudean gaüzer trebükürük (276) gabe gogoia eman üken ahal beitüe.

Gü gihauren pasionetzaz sobera arranküratzen gira, eta gaüza igaraiten diren elibatez sobera penatan jarten.

Bekanki orano bizio bakoitx bat osoki garaitzen dügü, eta egün oroz profeitü zonbaiten egiteko sürük ez dügü hartzen, hartakoz epel eta hotz baratzen gira.

²⁷⁵ elestatü : elekatu.

²⁷⁶ trebükü : behaztopoa.

3. Osoki gure bürüer hil baginte, eta bihotzean ez bagünü nahaskürarik batere, ordüan gintzake zelüko gaüzak goza ahal, eta ezpiritüa h(ai)e(n)ganat goititürrik etxekitea zer den, zerbait gisaz boroga.

Gure berhaztapogürrik (277) handiena eta oro da, zeren ez giren pasionetarik eta nahikünt(e)tarik soltatzten, eta zeren ez giren iseiatzen saintüen bide honean ebiltera.

Nahi ez dügün zombait gaüza txipi ere heltzen zaigünean, sobera sarri (278) korajea galtzen, eta mündüko kon(t)solazionetarat gogoa ützültzen dügü.

4. Güdükan egoitera gizon korajos elibat bezala iseia baginte, Jinkoaren sokorria gütan gaina zelütik jaisten düda gabe boroga giniro.

Ezi Jinkoa, zoinek gihauri gerla egiteko bideak emaiten beiteizgü, garait ditzagün amore(a)gatik, prest da bere(n) bürüer gerla egiten eta haren grazian esparantxa ezarri düanen ajütatzera.

Kanpotiko gaüzen eta zeremonien begiratzean baizik gure errelijionearen profitüa ezarten ez badügü, gure deboziona sarri akabiren da.

Bena, eskriptürak dioian bezala, dügün egotx zainela (279) aizkora kolpea, amore(a)gatik gure pasione(e)tarik xahatürrik arimen bakea goza dezagün.

5. Urte oroz bizio bakoitx bat zainetarik idoki (280) bageneza, sarri konplitü gerta ginteke.

Bena orai ardüra kontrarioa borogatzten dügü, gisa batez non honealat ützültzen hasten girenean, hobeago eta xahüago edireiten beigira, eziez hanitx urte debozionatean igaren ondoan.

Emendatü behar lüke egün oroz gü beitan debozionatearen eta profitüaren süiak ; bena orai hanitx üdürirtzen zaigü dela norbaitek lehen sü hartarik begiratzen ahal badü apür bat.

Bortxa apür bat hatsarrean gure bürüer egin bageneza, gero gaüzak oro ehiki eta algarreki(n) egin ahal gintzake.

6. Gaüza üsatüen eiztea greü (281) zaigü, bena greüago da orano bere borontateari bühürtzea.

Bena gaüza txipiak eta ehia gaitzen ez badütüzü, noiz goitüren düütüzü gaitzagoak (282) ?

Bortxa ezazü hatsarrean zure enjogidüra, eta ahatz ezazü zure kostüma gaixtoa, beldürrez gida zitzan emeki emeki nekezia handiago batetara.

²⁷⁷ berhaztopagü : behaztopagia, behaztopagunea.

²⁷⁸ sarri : laster, berehala

²⁷⁹ zain (iz.) : erroa, sustraia.

²⁸⁰ idoki : kendu.

²⁸¹ greü : nazka.

²⁸² gaitz : nekea, neketsua.

O ezagüt bazeneza zoinen bake handia zihauri, eta beste(e)r zoinen alagrantzia handia eman ziniroan zure bürüaren ontsa gobernatzez, uste dit profetü ezpiritüalaren arranküra haboro bazünükeala.

XII. KAPITÜLÜA.

Gaiüza nabi ez dütiügüinen beltzearen abantailak.

1. Hon da guretako zombait greütarzün üken dezagün zombait aldiz, eta hel dakigün nahi ez dügün gaüzarik ; zeren hanitxetan gizona bere beitan sarrazitzen beitüe, ezagüt dezan amore(a)gatik mündüan desterratürik dela, eta ez dezan bere esparantxa hanko gaüzetan ezar.

Hon da zombait ordüz üken dezagün gure sendimentüen kontre joaiten direnetarik, eta gützaz sineste txar düenatarik, zombat ere gure intenzioeak eta egitateak hon beitera. Hoiiek ardüra ümiliaerazitzen gütiüe eta banaloriatik (283) begirutzen.

Ezi noiz ere gizonak gützaz peretxü apür egiten beitüe, eta gütan ez sineste honik hartzen, ordüan Jinkoa gure bihotzeko jakiletako (284) hobeki txerkatzen dügü.

2. Hartakoz gizonak behar lüke gisa batez Jinkoatan bermatü, non ez lüan behar besteren kon(t)solazione hanitx txerkatü.

Noiz ere borontate honetako gizon bat türbüratü (285), tentatü, edo pentsamentü gaixtoez atakatü beita, ordüan ezagützen dü Jinkoaren beharra handiago düala, zoin gabe beita ez diroala (286) honkirik batere egin.

Tristetzen da, hasperen egiten dü, eta orazione erraiten ere badü ordüan, soferitzen dütiän miserie(n)gatik.

Ordüan debeiatzen da lüzazegi bizitzeaz, eta desirutzen lüke hiltzea jin lekion, amore(a)gatik arima korpitzetik solta ledin, eta Jesü Kristeki(n) izan.

Ordüan orano ontsa ezagützen dü segurantxa, eta bake oso bat mündüan ezin izaten ahal dela.

²⁸³ banaloria : banitatea, hantukeria.

²⁸⁴ jakile : lekukoa, testigua.

²⁸⁵ türbüratü : nahasi, nahasdura bat jasan.

²⁸⁶ diro : dezake.

XIII KAPITÜLÜA.
Tentazioneen apaisatzeaz.

1. Mündüan bizi gireno, ez giteke türbürarzün (287) eta tentazione gabe izan ahal.

Hartakoz Job saintüaren lib(ü)rüan irakurten dügü, gizonaren lürren gaineko bizitzea tentazione bat dela.

Hori dela kausa, batbederak bere tentazione(e)tan gaine(a)n, arranküar-eki(n) izan behar lüke, eta goaitan egon orazionetan : beldürrez debrüak, zoin-ek ez beitu seküla lorik egiten, eta üngürü üngürü beitabila, nor ire(n)ts ahal diroan, ediren dezan inganatzeko artea.

Ez da hain debot, ez hain saintü denik, zoin-ek ez dütüan zonbait ordüz bere tentazioneak, eta h(ai)etarik erras (288) gabe ezin izaten gira.

2. Tentazioneak hargatik gizonaren ezinago abantailos ardüran (289) izaten dira, nahibada greügarri zaitzon eta penagarri, zeren h(ai)etzaz ümiliatzen, xahatzen eta jakintsützen beita.

Saintüak oro türbürarzün eta tentazione hanitxetarik igaren izan dira, eta h(ai)etarik profetitü idoki üken düe.

Eta tentazioneak ezin süstengatü ahal üken dütüenak, erori izan dira, eta galdü sekülakoz.

Ez da komentü hain saintüririk, ez lekü hain bazterrik, non tentazioneak edo penak ez diren edireiten.

3. Gizona bizi deno, ez da erras tentazionetarik solt izanen ; zeren eta bekatü orijinalaren kozüan sortü girenen gaine(a)n, gihaureki(n) karreiatzen beituügü tentazione(e)n ütürbürüa.

Tentazione edo türbürarzün bataren joaitareki(n), beste bat jiten da, eta beti ükenen dügü zerbait soferitzeko : ezi gure dohatsütärzünaren hontarzüna galdü dügü.

Hanitxek tentazione(e)r ihesi egitea txerkatzen düe, eta h(ai)etara doloroskiago erorten dira.

Iseiaz beraz ezin garaitzen dütügü ; bena pazen(t)ziaz eta egiazko ümilitateaz, etsaiak oro beno azkarrago gertatzen gira.

4. Axaletik baizik hürüntzen ez denak, herroa (290) idoki gabe, apür profetatüren dü ; tentazioneak ber(e)hala ützüliren zaitzo, eta lehen beno gaizkiago edirenen da.

²⁸⁷ türbürarzün : nahasdura.

²⁸⁸ erras : arras, oso,osoki.

²⁸⁹ ardüran : usu, maiz.

²⁹⁰ herro : erroa.

Hobekiago goitüren dütüzü (Jinkoaren sokorriareki(n) batean) emeki emeki pazen(t)ziareki(n) eta lüzaz egürükiteareki(n), eziez zihauren bürüaren kontre gogortzen eta bühürtzen zirelarik.

Ardüra kon(t)seilü har ezazü tentatü zirenean, eta ez dezazüla gogorki trata tentazioneaz atakatü dena : bena kon(t)sola ezazü, zihauri egin lizak(e)ien nahi zünükean bezala.

5. Tentazione gaixtoen ororen hatsarrea (291) da gure ezpiritüaren kambiamentüa, eta Jinkoa beitan konfidantxa apürren ükeitea.

Zeren eta, hala nola itsas mareak ontzi bat horrat honat erabilten beiti, gobernari (292) gabe denean, gisa ber(r)ean, tentazioneak hanitx gisaz iharrausten dü bere desein hona eizten düan gizon bat.

Süiak borogutzen (293) dü bürdüina, eta tentazioneak gizon jüstoa.

Hanitxetan ez dakigü zer dirogün, bena tentazioneak erakusten deigü zer giren.

Horre(n)gatik gogo handi batetan egon behar da, orotan gainti, tentazionearen hatsarrea ; zeren ehikiago etsaia goitü izanen beita, ezpiritüaren bortan sartzera ihola ere eizten ez bada, bena hela erran düan bezain sarri, alartzetik (294) kanpo jarri behar zaio.

Hartakoz zahar batek erran üken dü hatsarreak bara itzak ; berantegi erremedioa adelatzen dük, noiz ere lüzakeria handiez gaitzak zahartü beirateke.

Ezi lehenik ezpiritüala jiten da pentsamentü simple bat, gero imajinazione azkar bat, azkenekoz plazera, zotükü gaixtoa, eta baimentoa.

Eta manera hortan etsai gaixtoa osoki sartzen da, hari hatsarrea musik (295) eman gabez.

Eta zonbatenez lüzazago hari müs emaitera ihor laxatzen beita, ha(i)nbatenez flaküago egün oroz bere beitan gertatzen da, eta etsaia haren kontre poterosago (296).

6. Batz(ü)ek, konbertitzen hasten direnean, tentazionerik gaitzenak soferitzen dütüe, beste(e)k azkentzean, beste zombait aldiz bizi diren tenpora orotan h(ai)etzaz hunkiak dira.

Aski arinzki zombait tentatü izaten dira, Jinkoaren zühürtarzünak, eta Jinkotarzünak konpostatü (297) düan bezala, zoinek gizonen heinak eta merexi-

²⁹¹ hatsarre : hasiera, hastapena, hastea.

²⁹² gobernari : lema.

²⁹³ borogü : froga, proba, egiaztabidea.

²⁹⁴ alartze : atearen behealdeko harmaila.

²⁹⁵ müs (eman, üken) : eskusatu, ezin etorria adierazi.

²⁹⁶ poteros : boteretsua, ahaltsua.

²⁹⁷ konpostatü : ordenatu, antolatu, taxutu, txukundu.

mentüak pezatzen beitätü, eta gaüzak oro aitzinetik xüxen ezarten, bere haütatüen salbaerazitzeko.

7. Hartakoz esparantxa ez dügü behar galdü tentatü girenean : bena ha(i)nbatenez sü habororeki(n) Jinkoa otoitü behar dügü, amore(a)gatik plazer gütüan gure tentazionean ürgaitzi, zoinek segürki, Jondane Pauleren erranaren araur, tentazionea garaitezaren beiteigü, haren süstengatzeko indarrak emaiten deizgülarik.

Ümilia ditzagün arren gure arimak Jinkoaren esküpean, tentazione eta türbürarzün orotan ; zeren eta ezpiritüz ümilak salbatüren eta goratüren beitätü.

8. Tentazione(e)tan eta türbürarzünetan zer den gizona ageri da ; zonbat profetitü düan, eta h(ai)etan mereximentüa handiago da, eta bertütea hobeki agertzen da.

Ez da miraküllü gizon debot eta süz beterik bada, gaitzik senditzen ez düan tenporan : bena pazient bada gaitzean denean, profetitü handi baten esparantxa(n) izanen da.

Tentazione handietarik zonbaitek begiratzen dütüe bere(n) büüak, eta tentazione egün oroz heltzen diren txipietan ardüra eizten dütüe garait eta : amore(a)gatik ümiliatüririk, behinere bere(n) beitan konfidantzarik ezar ez ezen tentazione handietan, hain gaüza txipietan erorten direnen gaine(a)n.

XIV. KAPITÜLÜA.

Jüdikamentü temerarioari (298) ihesi egiteaz.

1. Zihaurganat begiak ützüül itzazü eta gogoia emazü, besteren obrak jüdika (299) ez ditzatzün.

Besteren jüdikatzean gizona banoki tribailatzen da, eta ardürago hüts eta bekatü benial egiten dü : bere büüaren jüdikatzean aldiz eta xehe (300) iker-tzean, beti abantailoski tribailatzen da.

Gaüzak bihotzean dütügün bezala, h(ai)etzaz ordinariozki gure jüjamtüa ekarten dügü : ezi gure amorio propi ütziak, egiaz jüjatzea ehiñera galera-zitzen deigü.

Jinkoa balitz betiere desirküntearen inten(t)ziona xahüa, ez ginteke hain ehiñera nahas, beste(e)n gure sendimentüen kontre joaiteaz.

²⁹⁸ temerario (jüjamentü) : oinarri gabeko iritzia.

²⁹⁹ jüdikatu : hitzez jüjatü, kritikatu/tü.

³⁰⁰ xehe : xeheki, xehero.

2. Bena ardüran zerbait gihaur beitan gorderik bada, edo kanpotik jiten zaigü, zoinek bereganat tiratzen beigütü.

Hanitxek, egiten dütüen gaüzetan, bere(n) бүriak gordailüz txerkatzen dütüe jakin gabe.

Üdüri da orano bake hon batetan daudeala, gaüzak h(ai)en gogara joaiten direno : bena nahi ez düen bezala heltzen badira, ber(e)hala sütan jarten dira eta tristetzen ere bai.

Aski ardüra aharrak (301) jaikiten dira adiskideen eta herritarren, (er)reljijsosen eta deboten artean, sendimentü batetako ez direlakoz.

3. Kostüma (302) zaharra nekez ihork eizten dü, eta ez dü plazerik hartzen berak, ikusten düan beno hürünago joanerazi dezen.

Zure arrazu(e)n gaine(a)n, edo zure adrezian (303) haboro bermatzen bazira, eziez Jesü Kristen bertüteari zor düzün obedientzian, bekanki eta berant zirade gizon argitü bat, zeren Jinkoak nahi beitü arima osoki haren pean jar dadin, eta arrazu ooren gainetik, amorio süz bete batez goiti dadin.

XV. KAPITÜLÜA

Amorior egin izan diren obretzaz.

1. Mündüko gaüza orogatik, eta noren-nahibeita maite ükeiteagatik, ez da behar gaizkirik batere egin ; bena obra hon hasiak eitzu behar dü zombait ordüz penarik gabe, edo hobego batetara kanbiatü, beharrean denari honki (304) egiteagatik.

Ezi horren egiteak obra hona ez dü galtzen, bena bai hobego batetara kanbiatzen.

Kanpotiko obrak karitatea gabe deüs ere ez du balia ; bena karitatearekin egiten diren gaüzak oro zombait-nahibeita txipi eta mesperetxatü diren, abantailos gertatzen dira.

Ezi Jinkoak gogo haboro emaiten dü zombait amoriorekin ihork obra egiten düan, eziez obrari berauri.

2. Hanitx maite düanak hanitx egiten dü, hanitx egiten dü ontsa egiten düanak, eta ontsa egiten dü komünaren (305) hona bere borontatea beno lehen egin nahi düanak.

³⁰¹ aharra : kalapita, liskarra.

³⁰² kostüma : usaia, ohitura.

³⁰³ adrezia : trebezia, trebetasuna.

³⁰⁴ honki (iz.) : ongia.

³⁰⁵ komün (iz.) : denak ; komunaren ona : denen ongia.

Hanixetan üdüri da karitatea bera dela, eta beitate aragiaren inspirazüna (306) : zeren naturaren enjogidüra, gihauren borontate propia, paküaren (307) ükeiteko esparantà, eta gure korpitzen aisaren nahiküntea bekanki gure obretarik hürrüntü nahi beitera.

3. Egiazko karitate osoa düanak, deüsetan ez dü bere büria txerkatzen ; bena besterik ez dü desiratzen, baizik ere gaüzak oro Jinkoaren glorialako izan ditean.

Ihori ere ez dü inbidiarik ekarten, zeren bere alagrantzariak batere ez beitü maite, eta bere beitan ez beita nahi alageratü, bena Jinkoatan gaüza hon ororen gainetik dohatsü izatea desiratzen dü.

Ez dü sinesten ihorganik hontarzünik batere jiten dela, bena bai oro osoki Jinkoaganik, zoinenganik üturbürü batetarik bezala turrustaz jaisten beitera, eta zointan saintüak oro gozamen handireki(n) finalki pausatzen beitera.

O nork ere beilüke egiazko karitate hartarik txinka (308) bat, ezagüt liro düda gabe lürreko gaüzak oro banitatez beterik daudeala.

XVI. KAPITÜLÜA.

Besteren mensdüren (309) honesteaz.

1. Gizonak pazienki behar dütü egari (310), bere beitan edo beste(e)tan, ezin xüxentzen dütüan gaüzak, Jinkoak beste zombait xüxentarzün eman diroan arteo.

Pentsa ezazü heltübada (311) hola hobe dela zure borogatzeko, eta zure pazentziarentako, hura gabe gure mereximentüak balio apürretako direlako.

Behar düzü hargatik pena horietarik soltatzegatik Jinkoa otoitü, plazer zütüan sokorritü, amore(a)gatik eztiki egar ahal ditzazün.

2. Noiz ere norbait, behin edo berritan abisatü izanez geroz, ez beita behatzen, eitzazü harekin debadiorik (312) üken gabe ; bena oro Jinkoaren esküetan ezar itzazü, amore(a)gatik ohoratü izan dadin, eta haren borontatea konplitü haren zerbütuxari orotan ; harek bazikizü ontsa gaizkien honealat ützülerazitzen.

³⁰⁶ inspirarzün : inspirazioa, goiargia, goiarnasa.

³⁰⁷ pakü : pagua, paga, ordaina, saria.

³⁰⁸ txinka : txinparta, pindarra.

³⁰⁹ mensdüra : mensa (iz.), eskazia, gabezia.

³¹⁰ egari : jasan ; erabili.

³¹¹ heltübada : beharbada.

³¹² debadio : eztabaida, liskarra.

Iseia zite besteren mensdüren eta zernahibeita flakeziaren süstengatzera, zeren zihaurk ere hanitx beitzü beste(e)k (h)onetsi behar deizüenik.

Ez badirozü zure büria ezar zihauerek nahi zünükean bezala, nola üken dirozü beste bat zihaturen gogarako ?

Besteak gogotik nahi gintikezü mensdürarik gabe, eta hare(n)gatik gihau-renetzaz ez gütüzü bilainzten (313).

3. Nahi günüke beste(e)k bere(n) faltetan gaztigü garratzik üken lezen, eta gihaurk gure(e)tan ezin (h)onesten dizügü batere.

Besteren libertate sobera ez zaigü eder, eta hargatik ez zaigü hon müsik üken dezagün galtatzen dügün gaüzan.

Nahi dügü besteak tinkatürik eginbide(e)n xedeaz egon ditean, eta gihaurk ezin (h)onesten dügü bortzarik batere egin dizagüen.

Hortik arren ezagün da klarki, zoinen bekanki pezatzen dügün gure pro-tsimoa (314) gihaur bezala.

Oro balira konplitü, zer günüke Jinkoaren amore(a)gatik beste(en)ganik soferitzeko ?

4. Bena orai Jinkoak gisa batez gaüzak ezarri dütü, non-nahibeita ikas dezagün bata bestearen kargen egarten : zeren ez beita ihor ere maküla gabe, ihor ere karga gabe, ihor ere besteren mengoa ez denik, ihor ere beretako aski zühür denik ; bena behar dügü alkar egari, alkar kontsolatü, alkar sokorritü, alkarri erakutsi, eta alkar abisatü.

Gaineran deüsek ere ez dü hobeki ezagüterazitzen zoinen handi den ba-tbederaren bertütea, nola desdixatü izateak.

Ezi jin beharrek ez düe gizona flakaerazitzen, bena nolako den erakusten.

XVII. KAPITÜLÜA *komentüetako bizitzeaz.*

1. Ikasi behar düzü zure büriari hanitx gaüzatan bühürtzen, bestekila nahi badüzü bakea eta jünto izatea begiratü (315).

Ez dea gaüza apürra komentüetan edo alkarreki(n) bizitzeko jüntatzen direneki(n) egoitea, eta han berean, plainitzeko arrazurik eman gabe, hil arteo fidelki iratütea ?

³¹³ bilaizi : biluzi.

³¹⁴ protsimo : aldeko (kantüko) laguna, lagun hurkoa.

³¹⁵ begiratü : zaindu.

Dohatsü da han berean bizitze hon bat karreiatü düana, eta azkentze hon bat üken düana.

Nahi bazira behar den bezala egon, eta bertütean aitzina joan, zure büria bidejant (316) bat eta desterratü bat bezala etxeki ezazü lürren gaine(a)n.

Nahi badüzü bizitze saintü bat karreiatü, behar düzü Jinkoaren amore(a)gatik, ero beitzina bezala izan.

2. Arropak eta koroak apür baliotako dira, bena bizitzeko maneren kanbioak eta pasioeen osoki hilerazitzeak egiazko fraidea egiten dizüe.

Nork ere Jinkoaz beraz eta bere arimaren salbamentüaz kanpo, zerbait besterik txerkatzen beitü, harek ez dü türbürarzün eta dolore baizik edirenen.

Bakean ere ezin lüzaz egoiten da, txipienik eta beste ororen petiko izatera iseiatzen ez dena.

3. Zerbütatzeko jin zira, eta ez gobernatzeko : jakin ezazü soferitzeko eta tribailatzeko deitü izan zirela, eta ez elestetan tenporaren igaraiteko, eta auher (317) izateko.

Komentüetan arren gizonak borogatü izaten dira, hala nola ürrea labe bero batetan.

Han ihor ez dauke, bihotz osoz Jinkoaren amore(a)gatik ümiliatü nahi ez balin bada.

XVIII KAPITÜLÜA.

Aita Saintüen etsenplüetzaz.

1. So egin ezazü aita saintüen etsenplü bizier, zointan egiazki konplitü izatea eta (er)relijionearen goratarzüna hainbeste argireki(n) ageri beitira, eta ikusiren düzü zoinen apür eta kasi(k) ezdeüs den zer ere gük egiten beitügü.

(H)elas zer da gure bizitzea, h(ai)enarekilan bardintzen bada !

Jesüsen saintüek eta adiskide(e)k Jinkoa zerbütatü üken düe gosean eta egarrian, hotzean eta pikarraitarzünean (318), traibailüan eta einetzean (319), beiletan eta baruretan, mihizko eta ezpiritüzko orazione saintüetan, hanitx fal(t)sün kargü eta mesperetxü igurzten (320) züelarik.

³¹⁶ bidejant : bidaiaria, bidekaria.

³¹⁷ auher : alferra.

³¹⁸ pikarrai : biluzik.

³¹⁹ ein(h)e : akitu, nekatu, unatu.

³²⁰ igurtzi : torratu, ferekatu.

2. O zonbat türbürarzün pezürük soferitü düen Apostolüek, Martirek, Konfessore(e)k, Birjinek, eta beste Jesü Kristen hatzer jarraiki nahi izan direnek orok !

Ezi arimak mündü hontan hüğü (321) üken dütüe, bizitze eternaleko begira litzen amore(a)gatik.

Ala betüe aita saintüek desertüan bizitze hersia eta praubea karreatü ! Ala beitiue soferitü tentazione lüzerik eta penosik ! Ala beitera etsaiaz ardüra izan eskerniatü ! Ala beitiue Jinkoari eskentü orazione üsürük eta süz beterik ! Ala beitiue penitentzia garratzik egin ! Ala beitiue zelo (322) eta sü handirik üken profetitü ezpiritüalarentako ! Ala beitiue gerla bortitzik egin bere(n) bizioen hezteko ! Ala beitiue Jinkoaganat inten(t)ziona xahüa eta xüxena üken !

Egünaz tribailatzen ziren eta gaüak orazionetan igaraiten zütüen : zonbat ere tribailatzen zireno ezpiritüzko orazionetik ez beitziren eküratzen (323).

3. Bere(n) tenpora oro profetibleki enplegatzen züen, eta orenak oro Jinkoaren otoitzeko llabür üdüritzen zeitzen.

Zelüko gaüzen ezpiritüz ikustez gozatzen ziren, eztitarzünaren handitarzünak ahatzerazitzen zeien korpitzaren süstengatzeko mengoa züen hazkürüaren hartzea.

Adio erraiten züen aberastarzünar, kargüer, ohore(e)r, eta askazier (324) orori : mündütik ez züen deüs desiratzen ; penareki(n), bizitzeko behar ziren gaüzak hartzen zütüen ; dolüreki(n) mengoa züenean ere korpitza sokorritzen züen.

Praube ziren arren lürreko gaüzetan, bena ezinago aberats grazian eta bertüetan.

Kanpotiko gaüzak oro ments zütüen, bena barnea graziaz eta zelüko konsolazionez beterik züen.

4. Mündüaren etsai ziren, bena Jinkoaren ezinago adiskide.

Bere(n) büriak ezdeüs bezala üdüritzen zeitzen, eta mündü honek mespretxatzen zütüan : bena Jinkoaren aitzinean prezios eta maitagarri ziren.

Egiatzko ümilitatean egoiten, obedientzia simple batetan bizitzen, eta karitateaz eta pazentziaz lagüntürük ziren : hartakoz bertüetan egün oroz aitzina joaiten ziren, Jinkoaganik grazia handirik jardiesten züelarik.

(Er)reljioser orori etsenplütako eman izan dira, eta haboro korajatü (325) behar gütüe bizitze ezpiritüalean borogü (326) egiteko, eziez epelen hanixtarzünak gure laxükerietan egonerazitzeko.

³²¹ hüğü : higuina.

³²² zelo : kartsutasuna.

³²³ eküratü : gelditu.

³²⁴ askazi : ahaidea.

³²⁵ korajatü : kuraia eman, adorea eman.

³²⁶ borogü : froga, proba, egiaztabidea.

5. O zoinen handi zen (er)reljiosen ororen Jinkoaren zerbütatzeko süia, h(ai)en izate saintüaren hatsarreen !

O zonbat deboziane züen orazionean ! Zonbat inbeia, zoinek hobeki bertütearen besarkatzeko ! Ala h(ai)en egitatea beitzen ontsa konpostatü ! Zonbat erakutsi züen orok apalmentü eta obedientzia bere(n) gehienen manüpean !

Eitzi deizgüen herexak jakile dira orano, hurak zirela gizon egiazki saintü eta konplitü zirenak, zoinek, bere(n) bürüen kontre gerla korajoski egiten züelarik, mündüa hoinpetan ezarri beitzüen.

Orai aldiz handitako igaraiten da bere xedearen kontre deüs egiten ez düana, eta pazentziareki(n) haütatü düan heina süstengatzen ahal düana.

6. A gure tenporako hoztarzüna eta laxükeria ! Hain sarri hürürünt gitean lehen günüan deboziane süz betetik ; eta gure einetzeak eta laxütarzünak bizitez debeiaerazi gitzan.

Jinkoak baletsa, deboten hanitx etsenplü ikus(i) ondoan, gure bertütean aitzinatzeo desira lo ez lagoon ardüra.

XIX. KAPITÜLÜA.

Fraide edo (er)reljios hon batek egin behar düütian obretzaz.

1. Fraide edo (er)reljios hon baten bizitzeak behar dü bertüte orotzaz edertürük izan, amore(a)gatik bere barnetik izan dadin, kanpotik gizoner üdürützen zaien bezala.

Eta arrazureki(n) hanitxeh behar dü barnetik izan bertütosago, eziez kanpotik üdürü beita : zeren Jinkoak gure barnea ikusten beitä, eta behar beitägü, non-nahibeita giren, haren lotsa ezinago ümil bat üken, eta aingürü elibat bezain xahü haren aitzinean ebili.

Egün bakoizkal (327) arraberritü behar dügü gure desein hona, eta emendatü gure debozionearen süia, egün lehenik hasten beigina bezala salbamentüzko bidean sartzen.

Erran behar deiogü : ajüta nezazü, ene Jinko Jauna, zihaurk eman deita-zün desein honean eta zure zerbütü saintüan ; emadazü grazia, egün behar den bezain ontsa has ahal nadin, zeren oraidrano nik egin düdanak ez beitä deüs balia.

2. Honkiaren egiteko bizitarzün handi bat üken behar dü, (gure bertütean aitzina joaiterean eta borontate honaren araur), bide hartan aitzinatü nahi denak.

³²⁷ bakoizkal : bakoitzeko.

Desein honik eta handirik hartzen düanak, hüts ardüra egiten badü, zer izanen da bekanki eta arinzki hartzen dütüanetzaz ?

Hanix gisaz hargatik heltzen zaigü gure desein honaren üztea, eta gure obra hon kostümatüetarik mendre(e)nean hüts egitea, zerbait damü gabe nekez heltzen da.

Jüstoen desein hona bermatzen da lehenago Jinkoaren grazian, eziez beren zühürtarzünean : zeren zernahibeita egiteko har dezen, Jinkoatan beütie beti bere(n) konfidantxa.

Erran komün bat da gizonak deseina hartzen düala, eta Jinkoak harez plazer düana egiten, eta ez dela gizonaren bidea haren poterean.

3. Debozione üsatü zonbait ordüz ihork üzten badü, obra hon bat egin dezan amore(a)gatik, edo bere anaiaren abantaila dela kausa, ehiñera gero (h)ar(t)zara hartzen ahal dü.

Bena arimaren debeiarzünez edo laxükeriaz ihork ehiñera eizten balin badü debozione hura, borogatüren dü falta aski handi bat dela, eta damü hanitik ükenen düala. Gure iseiak zonbat-nahibeita diren, hanix gaüzatan orano falta txipietara eroriren gira.

Behar dügü hargatik beti zonbait desein segürik hartü, eta prin(t)zipalki behaztapogü handienak emaiten deizgüen bizioen kontre.

Behar dütügü txerkatü eta konpostatü gure barnean eta kanpoan igaraiten diren gaüzak : zeren konbeni beita gure profetitü ezpiritüalaren, batak eta besteak xüxen izan ditean.

4. Ezin bazinte mementokal zure bürüaren ezagützean sar, sar zite aments zonbait aldiz, eta gütienetik egünean behin, erran nahi beita goiz(e)an edo arratse(a)n.

Goiz(e)an har itzazü zure desein honak, arratse(a)n iker ezazü zure kontzentzia, nolako izan diren egün hartan zure hitzak, obrak eta pentsamentüak : zeren heltübada hanitxetan zure Jinkoa eta protsimo lagüna h(ai)etan ofen(t)satü beütükezü.

Armak har izatzazü gizon kurajos batek bezala debrüaren gaixtokerien kontre, eta ehiñerago bridatüren dütüzü aragiaren enjogidürak oro.

Ez zaudeala seküla deüs egin gabe, bena edo irakur ezazü, edo izkiriba, edo otoi mihiz edo ezpiritüz, edo zerbait komünaren hon denik egizü.

Hare(n)gatik korpitzaren tribailüek ezagützereki(n) egin behar düe, eta orok ez dütüe bardinzki hurak hartü behar.

5. Komün ez diren gaüzek ez düe kanpoan erakutsi behar : ezi segürago da gihauri so daudean gaüzen segretki egitea.

Gogoa emazü, hargatik, herabezi (328) ez ziren komünaren gaüzetan, eta ziharenetan agüdo : bena zure eginbideari so daudean gaüza manatüak osoki

³²⁸ herabezi : herabetia, herabetsua.

eta leialki egin düttükezünean, tenpora haboro baratzen bazaizü, sar zite zihaur beitan, zure debozitoneak galtatzen düan bezala.

Ez ditake oro gaüza batetan tribaila : bena bata baten, bestea beste(e)n abantailosago da.

Tenporaren ontsa jitearen araur, debozitone(e)n kanbiatzeak ere plazer egi-ten deigü ; zeren gozo haboro edireiten beitätü batetan besta egünez, eta beste(e)tan astegünez.

Batz(ü)en beharra dügü tentatü girenean, eta beste(e)na bakean eta pau-süan girenean.

Batz(ü)etan gure pentsamentüaren etxekitea dateke gure gogoko, triste girenean, beste(e)tan aldiz Jinkoaren alagrantziaz gozatzen giratekeanean.

6. Besta handien jiteari, arraberritü behar dira debozitone honak eta sain-tüen sokorria sü habororeki(n) galtatü.

Bestatik bestala hartü behar düttügü gure desein honak, ordüan mündü hontarik jalki eta eternitateko bestan sartü behar beigünü bezala.

Hartakoz tenpora saintü h(ai)etan behar dügü arrankürareki(n) adelatü, debotkiago maniatü (329), eta gure eginbidea oro hersikiago konplitü, ber(e)hala gure tribailüen soldata Jinkoaganik üken behar beigünü bezala.

7. Eta lüzatzen badü guri haren emaitea, sinets dezagün ez girela aski ontsa adelatü, eta ez dügüla merexitzen orano gloria hain handi, tenpora sei-nalatüan gü beitan agertüren den hura : gitean arren iseia hiltzeala hobeki ade-latzera.

Dobatsü da zerbüt-xaria (dio Lükas ebanjelistak) zoin bere bü(r)ü)zagiak jin date-keanean iratzarririk edirenen beitätü, segürtatzen zütüet bere hontarziün ooren gainetik ezarre-raziren düala.

XX. KAPITÜLÜA.

Isiltarzünaren eta ibor gabe izatearen amorioaz.

1. Txerka ezazü zure bizitzearen xehe ikertzeko tenpora propi (330) bat, eta Jinkoak egin deitzün hontarzünetzaz orit zite ardüra.

Eitz itzazü berrikeriak, irakur ezazü gaüza bihotzaren dolüminez, egite-koz beno hobeki betatzeko hon direnak.

Zure büria soltatzen badüzü elesta soberakinetarik, horrat-honat auher-retan joaitetarik eta mündüan berri lasterkatzen direnen entzütetik, edirenen düzü tenpora aski propirik, ezpiritüzko otoitzetan egoiteko.

³²⁹ maniatü : erabili, egari.

³³⁰ propi : aldekoa, egokia, gai dena.

Saintüen handienak, gizonen konpainietarik, ahal ziteanean, hürüntzen ziren, eta haütatzen züen Jinkoaren segretki zerbütatzea.

2. Norbaitek erran üken dü : gizonen artean izan nizan ordü oroz, gütiago gizon etxerat ützüli izan niz. Hori da ardüra borogatzen dügün gaüza bat, noiz ere elesta lüze(e)tan laket beigira.

Ehiago da erras isilik egoitea, eziez ele(e)tan hütsik ez egitea.

Ehiago da etxe(a)n gorderik egoitea, eziez kanpoan bere büüaren behar den bezala begiratzea.

Nor ere arren bizitze ezpiritüalaren jadiestera iseiatzen beita, harek Jesü-seki(n) behar dü gizonen biltzarrünetarik hürüntü.

Ihor ez da segürantzareki(n) agertzen, gorderik gogo honez egoiten dakiana baizik.

Ihor ez da segürantzareki(n) mintzatzen, plazereki(n) isilik egoiten dena baizik.

Ihor ez da segürantzareki(n) besteren gehien jarten, beste(e)n pean gogotik egoiten dakiana baizik.

Ihork ez dü segürantzareki(n) manürik emaiten, besteri ontsa obedient izaten ikasi düanak baizik.

3. Ihor ez da segürantzareki(n) alageratzen, kontzientzia hon baten jakilegoa bere beitan düana baizik.

Saintüen segürantza hargatik, beti Jinkoaren lotsaz beterik izan da.

Eta zonbat ere grazia eta bertüte handiez argitü beitziren, ez züen gütiago arranküra eta ümilitate bere(n) beitan.

Gaixtoen segürantza aldiz, ürgüilütik eta bere(n) büüetan düen sinestetik jalkitzen da, eta azkenean beren inganiotan ützültzen da.

Ez dezazüla seküla mündü hontan har segürantza oso bat, zonbat ere fraide hon baten edo ermita debot baten üdüria beitzü.

4. Ardüra gizonek hobe(re)nik uste zütüenak, galdü izateko danjerik handianean izan dira, konfidantxa handiegia bere(n) büüetan züelakoz.

Hartakoz hanitxen hobeago da ez ditean osoki tentazionerik gabe izan, eta h(ai)en atakarzünak sendi ditzen, beldürrez ürgüilüala eror ditean, edo ere sobera nabasiki (331) kanpotiko kontsolazione(e)tarat oker ditean.

O behinere alagrantzia igaraiten den bat txerka ez liroana, behinere mündü honez kasürik egin gabe legoena, ala beiliro bere kontzientzia honik begira !

O nork ere ken belitzake arranküra banoak oro, eta salbamentüko eta zelüko gaüzetan baizik ezarten ez lüana, Jinkoatan bere esparantxa oro pausatzen düalarik, ala beiliro harek bake eta pausü handi bat goza !

³³¹ nabasiki : hurbiltasun ausartez.

5. Ihork ez dü merexitzen zelüko kontsolazionea, ikasten ez badü bihoz-toiki zer den barnetiko dolümena.

Nahi badüzü bihotzealadrano sarrerazi zure dolümena, sar zite zihaur beitan, eta aparta itzazü mündüko herotsak (332), eskriptüra saintak dioan bezala : *Züen obe(e)tan iratzarririk etxeke ezazüe bibotzeko dolümena*. Zure xoxan (333) barne(a)n edirenen düzü kanpoan hanitxetan gal ziniroana.

Xoxa ardüra han egoitez ezti gertatzen da, gaizki aldiz begiratzen denean, debeiaerazitzen gütü ; honealat ützültzen hasten zirenean, ardüra han egoiten bazira, eta hura ontsa begiratzen badüzü, geroalat maitagarri zaitezü, eta edirenen düzü han kontsolazione ezinago maitagarri den bat.

6. Arima debotak profeitutzen dü isilik eta pausüan dagoelarik, eta ikasten dütü eskriptüra saintaren segretüak.

Han edireiten dütü nigarren turrustak, zointzaz gaü oroz bere бүрүа xahatzen eta garbitzen ahal beiti, amore(a)gatik bere krezalearen ha(i)nbate-naz adiskideago gerta ahal dadin, zonbatenez mündüko herots orotarik хүрүнago egoiten beita.

Nor ere otean (334) bere ezagünetarik eta adiskide(e)tarik хүррүнтzen beita, hare(n)ganat Jinkoa bere aingurieki(n) hüllantüren da.

Hobe da gorderik egoitea, eta bere arimaz arranküra ükeitea, eziez harez kasürik egin gabe miraküllü egitea.

Gaüza laüdable bat da bekanki kanporat jalkitea, bere бүрүären ez erakustea, eta beste gizonen ikusi nahirik ez ükeitea.

7. Zeren ikusi nahi düzü ezin jüstoki ükeiten ahal düzün gaüza ? Mündüa igaraiten da, eta haren desirküntek.

Aragiaren inbeiek paseiaerazitzen gütüe, bena oren bat igaren denean, zer hantik ekarten düzü, kontzentziaren pezütarzün bat eta bihotzaren barreiarzün bat baizik ?

Jalkite alagera batek ützültze triste bat ardüran erakarten dü, eta arrats argi batek biharamün goiz ülün bat.

Gisa berean, aragiaren alagrantziak oro eztiki sartzen dira, bena azkenean usukiten (335) düe eta hilerazitzen.

Zer ikus dirozü beste(e)tan, heben ikus ez dirozünik ? Haur düzüla zelüa eta lürra eta elementak oro, ezi h(ai)etarik gaüzak oro egin izan dütüzü.

8. Zer beste(e)tan ikus ahal dirozü, ekiaren pean lüzaz iraüten ahal dünik ?

³³² herots : harrabotsa, hotsa, azantza, zarata.

³³³ xoxa : etxola, txabola.

³³⁴ otean : ote ?

³³⁵ usuki : ausiki, ausiki egin.

Uste düzü heltübada aseziatüren (336) zirela, bena hortara ezin heltzen ahal zira.

Gaüzak oro zure aitzinean ikus zintzakean ordüan, zer lizate bista bano bat baizik ?

Goiti itzazü zure begiak Jinkoaganat, eta otoi ezazü parka ditzan zure bekatüak eta zure laxükeriak.

Eitz itzazü gaüza banoer, eta zure gogoa etxeki ezazü Jinkoak eman deitzün manüer.

Zerra ezazü zihaurtan gaina zure bihotzeko borta (337), eta dei ezazü zihaurganat Jesüs zützaz maitatüa.

Egon zite hareki(n) zure xoxan, zeren ez beitüzü beste(e)tan hain bake handi bat edirenen.

Jalki izan ez bazina, eta ez bazünüan deüs ere berrietarik ikasi, hobekiago egon zinantean bake hon batetan : bena berrien ikasten plazer hartzen hasiz geroz, hantik behar dizü zure bihotzak türbürarzün zonbait soferitü.

XXI. KAPITÜLÜA.

Bihotzeko dolümenaz.

1. Nahi bazira debozioanean aitzina joan, Jinkoaren lotsa bihotzean üken ezazü, eta ez zurebürüari sobera libertate eman : bena brida itzazü zure zentzüak oro, eta ez ziteala enjogi izan erokeriazko alagrantzietara.

Kostüma zite bihotzeko dolümenaren maite ükeitera, eta edirenen düzü debozionea.

Bihotzeko dolümenak agerazitzen digüzü hanitx hontarzün, laxükeriak ber(e)hala galerazitzen beiteizgü.

Estonagarri da nola gizona seküla mündü hontan osoki alageratzen ahal den, ontsa ezagützen badü bere desterrüaren leküa, eta zonbat danjerez üngüratürrik dagoen haren arima.

2. Gure bihotzeko arintarzünak eta gure petxen (338) laxükeriaz honesteak, ez deizgü üzten senditzera arimaren doloreak ; hartakoz ardüra banoki erri (339) egiten dügü, nigar jüstoki egin behar günükean tenporan.

Ez da, ez libertate egiazkorik, ez alagrantzia honik, kontzentzia xahü Jinkoaren lotsa düanean baizik.

³³⁶ aseziatü : asebeta.

³³⁷ borta : atea.

³³⁸ petxa : hutsa, akatsa.

³³⁹ erri : irria.

Dohatsü da barreiarzünaren erakarleak apartatzen, eta bere bihotza dolümen saintü batez biribilkatzen ahal düana.

Dohatsü da bere kontzentzia teiützen eta pezützen düen gaüzak oro bere ganik hürrüntzen düüana.

Korajoski gerla egin ezazü, kostüma hon batez gaizto bat garaitüren düzü.

3. Balin badakizü gizonen eizten, h(ai)ek zü eitziren zütüe nahi düzüna-
ren egitera.

Besteren egitekoetzaz ez dezazüla har ezagützerik, eta jente handienetzaz phürü ez düzüla arranküarik.

Zihauren gaine(a)n etxekazü beti begia eta beste per(t)sona maite düütüzü-
nak oro beno lehen oriterazi ezazü zure büriüa bere eginbideaz (340).

Ez ziteala triste gizonen süstengüaren üken gabez, bena hasperen egin ezazü, zeren ez ziren gobernatzen Jinkoaren zerbütxari batek eta fraide debot batek behar lükean bezainbeste argireki(n) eta hontarzüneki(n).

Ardüran hobeago eta segürago da gizonak ez düan mündü hontan kontsolazione hanitx, prin(t)zipalki aragiari so daudeanetarik.

Gihaurk dügü falta ez badütügü zelükoak ükeiten, edo bekanki borogaten badütügü : zeren kanpotiko banoak ez beitütügü osoki eizten, ez eta ere bihotzeko dolümena txerkatzen.

4. Ezagüt ezazü ez düzüla merexitzen zelüko kon(t)solazionea, bena bai lehenago türbürarzün hanitx.

Noiz ere gizona bihotzeko dolümenean osoki sartü beita, ordüan mündü haur oro greügarri eta karats zaio.

Gizon perestü batek, dolümenean sartzeko eta nigar egiteko aski beharüne edireiten dü.

Ezi ala dezan bere büriüa iker, ala bere protsimoa ikus, badaki heben ihor ezin bizitzen dela türbürarzün zombait gabe, eta zombatenaz hersikiago bere büriüa ikertzen beitü, ha(i)nbatnaz dolümena handiago düke.

Gure bihotzeko dolümenaren eta hasperen jüstoan beharüneak dira gure bekatüak eta bizioak, zointzaz gisa batez üngüatüririk beigaude, non bekanki pentsamentüan zelüko gaüzak etxekiten ahal beitü(tü)gü.

5. Orit bazinte ardürago hiltzeaz, eziez biziaren lüzetarzünaz, düda gabe sü habororeki(n) honealat ütüzil zinteke.

Bihotzean ere erabil bazintza ifernüko edo pürgatorioko jin behar diren penak, uste dit gogo honez tribailüa eta dolorea süstenga zintiroala, eta garraztarzünen baten ere lotsarik ez zünükeala.

³⁴⁰ eginbide : betebeharra, eginbeharra, obligaziozkoa.

Bena zeren gaüza hoiek bihotzealat ez beitira igaraiten, eta orano maite beitütügu eztitarzünak, hartakoz hotz eta osoki herabezti (341) egoiten gira.

6. Hanitxetan ezpiritüaren flakeziak korpitz miserable haur plainierazitzen dü hain arinzki.

Otoi ezazü arren ümilki Jinkoa, eman dizazün bihotzeko dolümenaren ezpiritüa, eta errazü profetareki(n) : *Haz nazazü, Jauna, nigarren ogiaz, eta nigarrak bere(n) doian edanerazi izadatzü.*

XXII. KAPITÜLÜA.

Gizonaren miserien ezaüteeaz.

1. Non-nahibeita ziren, norat-nahibeita joan zitean, miseriaz beterik zira, Jinkoaganat ez bazira ützültzen.

Zeren nahasten zira, egitekoak zure gogara (342) joaiten ez badira ? Nor da gaüzak oro berak nahi dütüan bezala dütüana ? Ez zü, ez ni, ez eta ere lürren gaine(a)n gizonik batere.

Ez da mündü hontan gizonik, pena edo türbürarzün gabe denik, lizan (343) ordean (344) errege edo aita saintü.

Zoin da hobekien dena ? Düda gabe Jinkoagatik zerbait soferi ahal diroana.

2. Hanitx flakük dioie : so egizüe zoinen bizitze hona karreiatzen düan gizon harek ; zoinen aberats, zoinen handi, zoinen poteros eta gora den.

Bena goiti ezazü zure gogoaz zelüko hontarzünatarat, eta ikusiren düzü hon tenporal hoiek ez direla deüs ere, ezin irauten düela, eta plazer beno haboro pena emaiten düela ; zeren ezin seküla arranküra eta lotsa gabe gozatü izaten beitira.

Ez da gizonaren dohatsütarzüna hon tenporalen mükürri (345) gaintika ükeitea, bena aski dü bere doiaz (346).

Egiatzko miseria bat da lürren gaine(a)n bizitzea.

Zonbatenaz gizona bizitze ezpiritüalari estekatüago (347) nahi beita, ha(i)nbatenaz mündü hontako bizitzea karatsago gertatüren zaio ; zeren

³⁴¹ herabezti : 1 herabea dena, herabetia, uzkurra. 2 alferra.

³⁴² gogara : gustura.

³⁴³ lizan : balitz.

³⁴⁴ ordean : ordea : *errege edo aita saintü balitz ere.*

³⁴⁵ mükürri : mukuru, mükürri (*Zub.*).

³⁴⁶ bere doia : behar duena soilik.

³⁴⁷ estekatü : lotu, esteki (*Zub.*).

hobeki senditüren beitätü, eta klarkiago ikusiren bere bihotz gastatüaren petxak.

Ezi jatea, edatea, beilatzea, lotzea, pausatzea, tribailatzea eta gainerako naturaren beharrünen pean izatea, egiazki miseria bat da, eta tristezia bat per(t)sona baten, zoin gogotik solt nahi belizate izan bekatü orotarik.

3. Eta egiazki mündü hontan, korpitzaren beharrüneak pezü handi bat dira gizon saintüki bizi nahi denarentako.

Hartakoz profetak Jinkoa otoitzen dü plazer düan h(ai)etarik soltatü, erraiten deiolarik : *Libra nezazü Jauna ene beharrünetarik.*

Bena desditxatü dira bere(n) miseria ezagützen ez düenak, eta desditxatüago orano bizitze miserable eta gastatü hau maite düenak.

Ezi hainbeste zonbaitek hura besarkatzen düe, (zonbat ere nekez bizitzeko gaüzak tribailatzez, edo amoina galtatzez ükeiten beitätü(e)ie), non heben beti bizi ahal balite, ez beilükeie Jinkoaren erresumaz axolik batere.

4. O arima infidel eta zentzügabeak, zoin lürreko gaüzetan hain barna beitaude, non ez beitätü gozorik hartzen aragiaren gogarako diren gaüzetan baik.

Bena miserableak orano bere(n) azkentzean senditüren düe garrazki zoi-nen txar edo ezdeüs den h(aie)k maite üken düen gaüza.

Saintüek eta Jesü Kristen adiskide debotek orok aldiz, ez düe gogorik eman aragiari plazer egiten züen gaüzer, ez eta ere mündü hontan fama handi züener, bena h(ai)en inten(t)ziona eta esparantxa oro, benoz beno benozago eternitateko hontarzünetarat hedatzen zen.

H(ai)en desira oro goiti igaiten (348) zen, gaüza ezin ikus eta beti iraün behar düenatarat, beldürrez mündü hontako gaüzen amorioak pe hontarat tira litzan.

5. Ez dügüla nahi bertütean aitzinatzeke esparantxa galdü, ene anaie maitea, orano badüzü tenpora, eta tenorea hon düzü.

Zeren nahi düzü biharamüneala igorri zure desein hona ? Jaiki zite, eta istantean has zite, eta errazü : orai düzü zerbaiten egiteko, orai düzü gerla egiteko tenpora, orai düzü honealat ützültzeko oren hona.

Noiz ere penetan eta türbürarzünetan beitzira, ordüan düzü zerbaiten merexitzeko tenpora.

Behar düzü sütik eta huretik igaren, arrafreskoa (349) üken beno lehen.

Zihauri bortxa egiten ez badüzü, ez düzü bizioa garaitüren.

³⁴⁸ igan : igo, goiti joan.

³⁴⁹ arrafresko : freskaldi berria.

Korpitz erorkor haur karreiatzen dügüno, ez giteke izan bekatürik gabe, ez eta ere bizi debeiarzün eta dolore gabe.

Gogo honez har giniro miseria orotarik pausüa : bena bekatüaz galdüz geroz inozentzia, lürrean ezin ükeiten dügü egiazko dohatsütarzüna.

Hartakoz pazentzia üken behar dügü, eta egürüki Jinkoaren miserikordia, inikitate haur igaren arteo, *eta biziak hiltzea ire(n)ts dezan arteo.*

6. Ala beita gizonen flakezia handi, eta beti bizioetarat erortoki !

Egün kobesatzen (350) dütüzü zure bekatüak, eta bihar (h)ar(t)zara egiten dütüzü bekatü ber(r)ak.

Orai hartzen düzü gogoa emaiteko desein hona, eta oren baten bürüan ari zira deseinik batere hartü ez beitzünü bezala.

Arrazureki(n) arren gihaur ümiliatzen ahal gira, seküla banitaterik hartü gabe, hain erorkor eta lerrakor (351) girenen gaine(a)n.

Laxükeriak ere galerazitzen ahal deizü graziaren moianez (352), nekez, tribailü handireki(n) jardietsi günüan gäüza.

7. Zer izanen da gützaz azkentzean, hatsarretik gora hain epel girenean ?

Ala beigira desdütatü, hola pausüalat nahi bagira arrimatü, bakea eta segürantxa beigünü bezala ! Zonbat ere gure bizitze orotan saintütarzünaren herexarik ez beita batere ageri.

Ontsa beharra günüke orano berriz erakuts lizagüen bizitze hona, komenütetan sartü berrier bezala, jakiteko balizateanez gure honealat kanbiaerazitzeko zerbait esperantxa, edo guri bertütean zonbait profeitü handiagoren eragiteko.

XXIII. KAPITÜLÜA.

Hiltzearen ardüra gogoan ükeiteaz.

1. Tenpora llabürretan barne(a)n zurekilankoak egin dikezü ; so egin ezazü eia nola ziren zihaur beitan : egün gizona ageri da, eta bihar ez, eta begien aitzinetik jalkiz geroz, gogotik ere ber(e)hala jalkiten da.

Ala beita gizonaren bihotza lanpüts (353) eta gogor, oraiko gäüzer baizik ez dezan gogorik eman, eta jin behar direnak ez ditzan hobeki ikus !

Egün hil behar bazünü bezala gobernatü behar zünüke, zure obra eta pentsamentü orotan.

³⁵⁰ kobesatü : konfesatu.

³⁵¹ lerrakor : labainkorra.

³⁵² moian : bitartekoa.

³⁵³ lanpüts : kamutsa.

Ez zünüke hiltzearen lotsa handirik, zure kontzentzia xahü bazünü.

Hiltzeari beno, bekatüer ihesi egitea hobe lükezü.

Egün prest ez bazira, nola zirate bihar, biharko egüna ez düzu segür, eta zer dakizü eia zuretako datekeanez.

2. Zer profeitü da lüzaz bizitzea, honealat apür ü(t)zültzen bagira ?

(H)elas ! Bizitze lüze batek ez dütü beti gure faltak hertzen, bena bai ardüran emendatzen.

Jinkoak baletsa egün bakoitz batez ontsa bizi izan ginen mündü hontan !

Hanitzek honealat ützüüz gerozko urteak kontatzen dütüe, bena hobetü direla hargatik ez da ha(i)nbat ezagün.

Zonbat-nahibeita ikaragarri den hiltzea, heltübada damügarriago dükezü lüzaz bizitzea.

Dohatsü da bere hiltzearen orena betiere begien aitzinean etxekiten düana, eta egün oroz ontsa hiltzera adelatzen dena.

Ihor ikusi badüzü behinere hiltzen, orit zite bide beraurtarik behar dükezüla igaren zük ere.

3. Goiz(e)an uste üken ezazü ez zirela arratsealat heltüren.

Eta arratsa jin datekeanean, ez düzüla uste biharamen goizeala heltüren zirela.

Izan zite arren betiere prest, eta bizi zite gisa batez non hiltzeak ez zitza uste gabea atzaman.

Hanitz sübitoki eta inprobiski hiltzen dira, ezi Jinkoaren semeak, gütienik ihork uste düanean, jin behar dü.

Azken oren hura jin datekeanean, beste sentimentürik ükeiten hasiren zira zure bizitze igarenaz, eta dolore handi bat ükenen düzü zure ezaxolatarzün eta laxükeria orotzaz.

4. Ala beita dohatsü eta abisatü orai bizitzerat iseiatzen dena, hiltzeko orenean ediren nahi lizatean bezala !

Ezi mündüaren osoki mesperetxatzeak, bertüte(e)tan aitzina joaiteko desirkünte süz beteak, gäüzen xede honean ezarteko amorioak, penitentziaren tribailüak, obedientziala ber(e)hala prest izateak, bere büriüz kasürik ez egiteak, Jesü Kristen amore(a)gatik zernahibeita gaitzen soferitzeak, emanen deie hiltze hon baten egiteko konfidantxa handi bat.

Osagarritan zireno, hanitz obra hon egiten ahal düzü ; bena eritü ziratekeanean, ez zikit zer eginen ahal düzün.

Apür eritarzünetik hobetzen dira, orobat bidaje hanitxetan dabiltzanak, bekanki saintützen dira.

5. Ez dezazüla konfidantxarik har zure adiskide(e)tan eta askazi hüllanetan, ez eta ere geroalat igor zure salbamentüa : zeren zük uste düzün beno lehen ahateren beitzira gizoner.

Hobe da orai, ordüa hon deno, bilküra (354) egitea, eta zelüalat zombait obra honen aitzina igortea, eziez besteren sokorrian esparantxa ükeitea.

Ez balin badüzü orai zure büriaren arranküarik, nork ükenen dü gero zuretako ?

Orai dira memento ezinago preziatüak, orai dira salbamentüko egünak, orai da tenpora guretako hon dena.

Bena (h)elas dolü eragingarri da ez dezazün hobeki enplega tenpora, zointan bizitze eternala merexi ahal beitziniro !

Jinen düzü ordüa, zointan egün bat edo oren bat desira beitziniro honealatz ütültzeko, eta ez zikit ükenen düzünez.

6. Eia bada ene maitea, ikus ezazü zoinen danjer handitik, eta zoinen lotsa ikaragarritik libra dirozün zure büria, orai lotsan eta hiltzearen beldürrean bizitzen zirelarik.

Iseia zite orai gisa batez bizitzera, non hiltzeko orenean lotsa beno haboro alagrantzia üken ahal dezazün.

Ikas ezazü orai mündüari hiltzen, ordüan has zitean Jesü Kristeki(n) bizitzten.

Ikas ezazü orai gaüza güzien orenen mesperetxatzen, ordüan Jesü Kriste(n)ganat trebükü gabe joan ahal zitean.

Orai penitentziaz gaztiga ezazü zure korpitza, orduan konfidantxa segür bat üken ahal dezazün.

7. A eroa, zeren pentsatzen düzü lüzaz biziren zirela, egün segürrik batere ez düzünen gaine(a)n.

Ala beitira hanitx bizitze lüzean inganatü izan direnak, eta uste gaberik, arimak korpitzetarik jalki zaitzenak !

Zonbatetan entzün düzü erraiten, halakoa arma kolpü (355) batez hil izan dela, holakoa ito dela, batak lekü gora batetarik eroririk, büria hautse züala, besteari jaten zelarik hatsa jalki zeiola, eta besteak jokatzen zelarik, bere azken hatsa tiratü züala.

Batak süiaz, besteak armetzaz, besteak üzürriaz (356), besteak ohoinkeriaz, mündü hontarik bestealatz joan izan dira, eta hala orenen azkentzea hiltzea da, eta gizonen bizia itzal bat bezala, ber(e)hala igaraiten da.

8. Nor zützaz oritüren (357) da zü hil ziratekeanean, eta nork Jinkoa otoitüren dü zuregatik ?

³⁵⁴ bilküra : pilaketa, metatzea, bilketa.

³⁵⁵ kolpü : kolpea.

³⁵⁶ üzürri : izurria.

³⁵⁷ igaran : pasatu.

Egizü, egizü orai, ene maitea, egiten ahal düzüna oro : zeren ez beitakizü noiz hilen ziren, ez eta ere zer hil ondoan jarraikiren zaizün.

Tenpora düzüno bil itzazü aberastarzün hiltzen ez direnak.

Salbamentüaren baizik ez dezazüla pentsamentürik üken, ez eta ere arranküarik Jinkoaren gaüetzaz baizik.

Egitzü orai adiskideak, saintüak ohoratzen eta h(ai)en obrak imitatzen dütüzularik, amore(a)gatik bizitze hontarik jalki ziratekeanean, h(ai)ek egoite eternalean batzarre hon bat egin dizazüen.

9. Bidejant bat eta arrotz bat bezala lürren gaine(a)n zure büria etxeki ezazü, eta mündüko egitekoetan axolik üken behar ez düan bat bezala.

Begira ezazü zure bihotza arranküarik gabe, Jinkoaganat goititürik, zeren ez beitüzü heben egoite beti iraünen düan bat.

Harat zure otoitzeak eta egün oroz egiten dütüzün hasperenak eta nigarrak igor itzazü, amore(a)gatik zure arimak, hil ondoan, Jinkoaganat dohatsüki igaraitea (358) merexi dezan, halabiz.

XXIV. KAPITÜLÜA.

Azken jüjamentüaz eta bekatore(e)n penetzaz.

1. So egizü gaüza orotan zure azken(t)zeari, eta zer gisaz egonen ziren jüje (358) garratz baten aitzinean, zoinentako ez beita deüs estalirik, zoin presentez ez beita apaisatzen, eta zoinek ez beitü ga(i)xotzen direnez kasürik egiten, bena jüsto dena jüjatüren beitü.

O bekatore ero eta ezinago miserable (h)izana ! Zer ihardetsiren dük Jinko hire bekatüak oro dakitzanari, ikara (h)agoenean gaine(a)n gizon kexü (359) den baten aitzinean ?

Zeren ez dük aitzinetik ikusten ez dela ihor azken jüdizioko egünean bes-teren ez ga(i)xotzeaz ez süstengatzeaz baliatüren, bena batbedera aski karga handia datekeala beraurentako.

Orai hire tribailüa balios dük, hire nigarra Jinkoak honetako hartüren dik, hire hasperenari behatüko dük, eta hire doloreak arima sendotüren eta garbitüren deik.

2. Egiatzki pazient den gizon batek, heben pürgatorio handi eta balios bat igaraiten dü, noiz ere laidoen (h)onestareki(n) haboro dolore beitü besteren gaixtokeriaz, eziez bere laido hartzeaz, zoinek berauri gaizki egile(e)n Jinkoa

³⁵⁸ jüje : epailea.

³⁵⁹ kexü : haserre.

gogotik otoitzen beitu, eta bihotzetik faltak parkatzen, zoinek parkamentü esketzeko berankeriarik ez beitu egiten, zoin ekarriago beita beste(e)r dolü egitera eziez bere büüaren kexaerazitzera, zoin bere büüari bortxa egiten düalarik, iseiatzan beita ezpiritüaren nahikünt(e)tara aragiaren osoki erakar-tera.

Hobe da orai bekatüen xahatzea eta bizioen trenkatzea, eziez gero xahatzeko eiztea.

Egiatzki gure büriak inganatzan dütügü aragiaren dügün amorio gaixtoaz.

3. Zer besterik sü harek ire(n)tsiren dü, zure bekatüak baizik ?

Zonbatenaz hobeki orai zure büüari manüak egiten beitätüzü, aragiaren nahikünt(e)r jarraikiten zirelarik, ha(i)nbatenez lüzazago penetan izanen zira, eta erre izateko sügei habororen biltzen ari zira.

Zertan ere gizonak bekatü egin beituke, hartan berean garrazkiago gazti-gatü izanen da. Han herabeztiak süzko aküilü elibatez aküilatü izanen dira, eta gormantak (360) gose eta egarri handi batez eskerniatü.

Han lütsüriosak (361) eta plazeren maitazaleak pike hurtüz eta sofre ürrintzüz flanbatü izanen dira, eta hor (362) errabiatü elibatek bezala, dolorearen handiz, txanpa (363) eginen düe inbidiosek.

4. Biziorik ez date batere, bere pena suertea ez dükeanik.

Han ürgüilütsüak ahalkez hurtüren dira, eta abariziosak (364) praubezia ezinago miserable batek tinkatürrik etxekiren dütü.

Han oren bakoitz baten pena mingarrago date, eziez heben ehün urteren penitentzia ezinago garratza.

Han damnatüek ez düe ükenen ez päüsürrik, ez kontsolazionerik batere : heben aments (h)ütsarte zonbait ihork zonbait ordüz ükeiten dü, eta adiskide(e)n kon(t)olazionetzaz gozatzen da.

Orai arranküra eta dolümen zure bekatüetzaz üken ezazü, amore(a)gatik azken jüdizioko egünean, zelüalat joan behar düeneki(n), segürantzan izan zitean.

Ezi, ordüan jüstoak koraje handi bateki(n) agertüren dira, dolore eta pena soferierazi deienen kontre.

Orai ümilki besteren jüjamentüen (365) pean dagoena, ordüan agertüren da beste(e)n jüjatzeko.

³⁶⁰ gormant : sabelkoia.

³⁶¹ lütsürios : lizuna.

³⁶² hor : txakurra, zakurra.

³⁶³ txanpa : zaunka, txakurraren oihua.

³⁶⁴ abarizios : zekena, zikoitza.

³⁶⁵ jüjamentü : epaia.

Ordüan praubeak (366) eta ümilak konfidantxa handi bat badüke, eta ürgüilütsüa kantu (367) orotarik ikaratüren da.

5. Ordüan ageri izanen da Jesü Kristen amore(a)gatik ero eta mesperetxatü izan dena zela egiazko mündü hontako zühürra.

Ordüan türbürarzün pazentziareki(n) soferitüak plazer eginen dü, *eta ini-kitateak ez dü aboa idekiren*.

Ordüan jente debotak alageratüren dira, eta gaixtoak tristetüren.

Ordüan alageratürenago da ihor aragiaren peniten(t)ziaz heziz, eziez beti boxi (368) honez hazi üken balin balü.

Ordüan beztimenta txarrak eder dirateke, eta ederrak ülün.

Ordüan laüdatürenago düzü xoxa txipi txar bat, eziez gaztelü ürrestatü bat.

Ordüan pazentzia fermo batek haboro plazer eginen dü, eziez mündüko potere orok.

Ordüan goratürenago da obedien(t)zia simple bat, eziez mündü hontako finaziak (369) oro.

6. Ordüan alageratürenago dü kontzentzia xahü eta hon batek, eziez filofiafaren jakite barnak.

Ordüan haboro pekatüren dü aberastarzünen mesperetxüak, eziez mündü hontako jente(e)n ororen tresaurak (370).

Ordüan haboro kon(t)solazione dükezü Jinkoaren ontsa otoitüz, eziez zure korpitzaren boxi honez haziz.

Ordüan haboro plazer dükezü isilik egonez, eziez ele hanitx erranez.

Ordüan haboro balia dizezüe obra saintüek, eziez hitz ederki erranek.

Ordüan bizitze hersia eta penitentzia garratza maitagarriago dükezü, eziez lürreko plazerak oro.

Ikas ezazü orai min txipien soferitzen, ordüan handiagotarik libratü ahal zitean.

Heben lehenik boroga ezazü zer soferi dirozün gero. Ezin badirozü hain min txipirik süstenga, nola soferitüren ahal dütüzü tormentü eternalak ?

Hain soferitze txipiak orai erreüserazitzen bazütü, zer eginen düe ordüan ifernüko penek ?

Ezin egiazki bi alagrantzia ükeiten ahal düzü, mündü hontan plazer har-tzea, eta gero Jesü Kristeki(n) errege izatea.

³⁶⁶ praube : pobrea, behartsua.

³⁶⁷ kantu : kantoia.

³⁶⁸ boxi : poxia, apurra.

³⁶⁹ finazia : maltzurkeria.

³⁷⁰ tresaur : tresora, altxorra.

7. Egün hontaradrano beti ohoretan eta plazeretan bizi izan balin bazina, zer profetü h(ai)etarik idoki ziniro, instant (sic) hontan hiltzea hel balekizü ?

Oro dira arren banitate, Jinkoaren maite ükeitea eta haren zerbützatzea salbü.

Ezi, zoinek ere Jinkoa bera bihotz oroz maite beitü, harek ez dü lotsarik ez penen, ez azken jüjamentüaren, ez ifernüaren : zeren amorio konplitüak Jinkoaganat segürantzareki(n) hüllanterazitzen beigütü.

Bena ez da miragarri hiltzearen eta Jinkoaren jüjamentüaren lotsa badü bekatüan orano laket denak.

Hon düzü hargatik, amorioak ezin orano gaizkitik hürrünterazitzen bazütü, aments ifernüko lotsak baraerazi zitzan.

Bena Jinkoaren lotsaz kasürik egiten ez düana, ez da tenpora lüzaz honean egonen ahal, bena debrüaren lazoetara labürzki eroriren da.

XXV. KAPITÜLÜA

Gure bizitze oren gaizkitik honealat ützültzeaz.

1. Jinkoaren zerbützüan goaitan (371) beitzina bezala, eta arranküareki(n) bizi zite, eta fraide bazira, orit zite zeitera jin ziren, eta zeren mündüa kitatü düzün.

Ez zünüana hori egin Jinkoareki(n) bizitzeko, eta gizon espiritüal bat gerta zintean amore(a)gatik ?

Üken ezazü arren zure profetüarentako sü handi bat, zeren tenpora lla-bürretan barne(a)n, zure tribailüen paküa ükenen beitüzü ; eta ez dükezü haboro zure üngürünetan, ez lotsarik, ez dolorerik.

Apür bat orai tribailatüren zira, eta edirenen düzu pausü handi bat, edo hobeki erraitera alagrantzia beti iraünen düan bat.

Leialki eta süreki(n) zure eginbideak egiten badütüzü, ez düzü düdarik Jinkoa leial eta aberats izanen dela, zuri haien paküaren emaiteko.

Behar düzü esparantxa hon bat üken heltüren zirela zelüko gloriala, bena ez düzü behar segürantzarik hartü, beldürrez herabezti edo ürgülüsü gerta zitean.

2. Gizon bat behin lotsaren eta esparantzaren artean, erreüski (372) düda batez, zeri egon leitean ezin haütatüz, ardüra zagoelarik eskerniatürrik, triste-ziaz akabirik, aldi batez eliza batetan altare baten aitzinean belaurikatü-

³⁷¹ goaitan : zain, aiduru (haidürü) egon.

³⁷² erreüski : urduriz.

rik (373), orazionetan jarri izan zen, zioalarik bere beitan pentsamentüz : o nik orai baneki ene azkentzealadrano honean iraün behar düdala ; eta ber(e)hala Jinkoaren ihardestea bere bihotzean entzüten dü holaxe : eta hori bazeneki, zer egin nahi zünüke ? Egizü orai ordüan egin nahi zünükeana, eta segürantza oso batetan izanen zira.

Eta ber(e)hala kon(t)solatürrik eta azkartürrik, Jinkoaren borontate sain-tüaren pean jarri izan zen, eta haren düda horrat honat zarabilana baratü izan zen.

Ez züan nahi üken kürioski txerkatü gero jin behar zeionaren jakitea ; bena haboro arranküra üken züan jakiteko zer zen Jinkoaren borontate hona, eta hari plazer egiten zeiona, bere obra hon ororen hasteko eta akabatzeko.

3. Jinkoatan ükezü esparantxa, eta egizü honki, dio profetak, *zaude lürren gaine(a)n, eta hazi izanen zira haren aberastarzünetzaz.*

Gäüza batek hanitx jente bere profetürrik eta kanbiamentü debot bateta-rik hürrünterazitzen dütü, zoin beita nekez baizik ezin egiten denaren lotsa, eta bere bürüaren garaitzeko hartü behar den pena.

Eta egiazki zoin ere korajoskiago iseiitzen beitera greü zaitzen, eta h(ai)ek nahi bezala ez diren gäüzen garaitzera, h(ai)ek beste(e)k beno haboro profetü bertütetik idokitzen düe.

Ezi zonbatenaz gizonak bere bürüa garaitzenago eta ezpiritüz hilerazitze-nago beitä, ha(i)nbatenaz hobeki Jinkoaren bidean joaiten da, eta grazia han-diago baten ükeitea merexitzen dü.

4. Bena orok ez düe bardin indar bi gäüza horien egiteko.

Hare(n)gatik orogatik, zelo egiazko batez hunkirik denak, nahibada düan pasione haboro, hobeki bertütean profeitätüren dü, eziez obra honetarat hotz denak, nahibada düan izate ontsa xedatü bat.

Bi gäüza bereziki hon dira honeala ützülerazitzeko : bere bürüaren indar-reki(n) soltatzea enjogidüra gaixtoak okerrerazi nahi lükean gäüzatik, eta zoin ere hontarzünen ihork haboro mengoa beitä, hari sü handireki(n) jarraikitea.

Zer ere beste(e)tan hanitxetan itsusi beitä(i)zü, h(ai)etarik hürruntzera eta zihaturen korajoski begiratzera iseia zite.

5. Lekü orotan zure profetüa ediren ezazü, gisa batez non, etsenplü hon zonbait ikusten edo entzüten düzünean, h(ai)er jarraikiteko süz beta zitean.

Zerbait gaixtorik ikusten badüzü, gogoia emazü hainbeste egin ez dezazün, edo zonbait ordüz egin balin badüzü, lehen beno lehen hartarik xahatzera iseia zite.

Besteren falter zük gogoia emaiten düzün bezala, beste(e)k ere zure(e)r bere(n) aldian gogoia emaiten dizüe.

³⁷³ belaurikatü : belaunikatu.

Ala beita ezti eta maitagarri fraide debot eta süz bete(e)n, bere(n) xedea ontsa begiratzten düenen ikustea !

Ala beita triste eta greügarri bide gaixtoan doatzanen ikustea, zoinék ez beitätüe begiratzten h(ai)en izateari so daudean xedeak !

Ala beita damügarri bere izateari so daudean gaüzen laxükeriaz üztea, eta arranküarik ihork üken behar ez lükeanetarat bere gogoaren ezartea !

6. Orit zite hartü düzün desein honaz, eta begien aitzinean üken ezazü Jesü(s) k(ü)rü(t)zifikatü izan denaren imajina.

Ontsahahalkez betatzen ahal zira ikusirik Jesü Kristen bizitzea, zeren ez düzün orano haboro iseiü egin haren gisa bizitzeko, zonbat ere tenpora lüzaz Jinkoaren bidean izan beitzira.

(Er)reljios gogoä eta debozione handireki(n) salbazalearen bizitze eta pasione ezinago saintüan bere ezpiritüa etxekiten düanak, han aseziareki(n) edirenen dütü gaüza hon eta behar dutüanak oro, eta ez dü behar Jesüsez kanpo deüs hobea gorik txerkatü.

O Jesüs k(ü)rü(t)zifikatü izan dena gure bihotzeala jin baledi, ala beigintzake bertan ikas gaüza jakin behar dütügünak oro !

7. (Er)reljios debot batek manü emaiten zeitzonak oro ontsa hartzen eta egiten dütü.

(Er)reljios hotz eta ezaxolatü batek türbürarzünen gaine(a)n dü, eta kantü orotarik hersidüräz (374) üngüratürük dago, zeren ez beitätü barnetiko kon(t)solazioea, eta ez beitzeio sori (375) kanpotikoaren txerkatzea.

(Er)reljios bere xedetik kanpo bizi dena, hanitx faltatara eror ahal daite.

Laxükeriala eta aisala (376) ekarri dena, beti hersidüretan izanen da, zeren batz(ü)ek edo beste(e)k desplazer eginen beiteie.

8. Nola egiten düe hainbeste beste (er)reljiosek, zoin aski hersiki bizi beitätira bere(n) komentüko xedearen pean ?

Bekanki jalkiten beitätira, ihor ikusi gabe bizitzen, praubeki hazten, oihal lodiz beitätzen, hanitx tribailatzen, apür mintzatzen, lüzaz beilatzten (377), goizik jaikiten, orazioneak emendatzen, ardüra irakurten, eta gaüza orotan xüxenki bere(n) xedea begiratzten beitätü.

So egin ezazü (+) kapü(t)xi, kordolies eta beste komentü suertetako fraide(e)r eta serorer, nola gaü oroz jaikitzen diren, Jinkoaren laüdorioen kantatzeko.

³⁷⁴ hersidüra : herstura.

³⁷⁵ sori : zilegi, haizu.

³⁷⁶ aisa (hemen iz.) : aiseria, aisezia (Zub.), aietasuna, erosotasuna.

³⁷⁷ beilätü : gaubeilatu, gaua xuritu.

(+) Beste (er)reljios suerte elibaten plazan kapü(t)xi eta kordolies ezarri izan da, zeren gure herriko populü xeheak hoiek hobeki ezagützen beitätü eziez orijinalean izentatü direnak (378).

Hartakoz, itsusi lükezü zü herabezti izan zintean hain obra saintü batetan, hainbeste (er)relijios Jinkoaren laüdorioen kantatzen hasten direnean.

9. O beste gaüzarik egiteko ez bagünü, gure Jinkoaren aho eta bihotz oroz laüdatzea baizik !

O mengoarik ez bazünü ez jateko, ez edateko, ez lorik egiteko, bena ahal zenezan beti Jinkoa laüda, eta debozinezko gaüzetan baizik ez zintean egon : ordüan hanitxez dohatsüago zinante, eziez orai korpitzari, zernahibeita behar dela kausa, manüen egiten ziaudeano.

Jinkoak baletsa halako beharrik ez lizan, eta arimak behar lütüan errekeiteak gogoan üken gintzan, zoin (h)elas aski bekanki gozatzen beitütügü !

10. Gizona kreatürari bateri ere kon(t)solazionerik ez galtatzeko püntüala heltü denean, ordüan lehenik Jinkoaren ontsa gozatzen hasten da, zernahibeita gisaz egitekoak egin ditean.

Ordüan ez dü ez gaüza handiak alageratüren, ez txipiak tristetüren ; bena bere konfidantxa osoa Jinkoatan ezarten dü, zoin beita haren oroa (379) orotan, eta zoini ez beita deüs galtzen, ez hiltzen, bena gaüzak oro harentako bizitzen dira, eta haren manüala ber(e)hala obedient dira.

11. Orit zite beti zure azkentzeaz, eta tenpora galdüa ez dela berriz ützültzen.

Ez dütüzü seküla bertüteak jardietsiren, arranküra handirik ükenez eta ontsa gogoia emanaz baizik.

Laxatzen hasten bazira, be(r)ehala gaizki edirenen zira.

Debozioneari aldiz emaiten bazira, edirenen düzü bake handi bat, eta zure pena arinago senditüren düzü, Jinkoaren grazia eta bertütearen amorioa dela kausa.

Gizon debot eta arrahein (380) bat gaüza ororen egitera prest da.

Haboro pena dü bizioen eta pasione(e)n kontre indarkatzeaz, eziez korpitzaren lanetzaz izerterazitzeaz (381).

Falta txipier ihesi egiten ez düana, handietara emeki emeki eroriren da.

Arratse(a)n betiere alagera izanen zira, balioski egüna enplegatü badüzü.

³⁷⁸ orijinal : jatorrizkoa.

³⁷⁹ oro(a) : dena, guzia.

³⁸⁰ arrahein : arduratsua, arretatsua, artatsua.

³⁸¹ izertü : izerditu.

Zihauren egitate(e)tan gaine(a)n gogoa handi bat emaiten düzularik, zure bürüa koraja eta abisa ezazü, eta zernahibeita den beste(e)tzaz, ez ziteala ziharentako ezaxolatü izan.

Zonbatenaz bortxa haboro zure bürüari eginen beitüzü, ha(i)nbatenaz bizitze honean profetatürenago düzü. Halabiz.

Leben libürüaren akabantza.

JESU KRISTEN IMITAZIONEAREN BIGERREN LIB(Ü)RÜA

AHOLKÜ BERE BEITAN GIZONA SARERAZITZEN DÜANA.

LEHEN KAPITÜLÜA.
Ezpiritüzko bizitzeaz.

1. *Zibaureek beitan düzüe Jinkoaren erresuma*, dio Jaunak, ütüzl zite bihotz oroz Jinkoaganat, eta eitz ezazü mündü miserable hau, eta zure arimak edirenen dizü pausüa.

Ikas ezazü kanpotiko gaüzen mesperetxatzen eta barnetikoer zure gogoaren emaiten, eta ikusiren düzü Jinkoaren erresuma zu beitarara jinen dela.

Ezi Jinkoaren erresuma da *Espiritü saintüan gozatzen dügiin bakea eta alagrantzia*, zoin *gaixtoer emaiten ez beita*.

Jesüs jinen düzü zü beitarara, bere kon(t)solazionea erakusten deizülarik, zure barnean harek merexi düan egongia adelatzen badeiozü.

Harek maite düan gloria eta edertarzüna oro barnetikoa da, eta han dütü bere plazerak hartzen.

Ardüra bisitatzen dü bere beitan gogoa etxekiten düan gizona, hareki(n) elestatzen da eztiki, hura kon(t)solazionez betatzen dü, bake handi batez gozaerazitzen dü, eta balakatzen adiskidegoa osoki estonagarri den bateki(n).

2. Eia bada arima fidela, espos saintü hari adela ezazü zure bihotza, zü beitarara jiteko eta zütan egoiteko üken dezan hontarzüna.

Ezi holaxe dio : *nork ere ni maite beinai, ene bitzak begiratüren dütü, eta hare(n)gana jinen gira, eta hura beitan gure egoitea eginen dügiü.*

Idekazü arren Jesüsi zure bihotzeko borta, eta beste(e)r orori zerra ezazü.

Jesüs dükezünean, aberats zirate, eta hura bera aski dükezü. Hura dükezü zuri gaüza behar dütüzünen ororen emailea, zure egitekoen fidelki egilea, gisa batez non beharrik ez beitukezü gizonetan esparantzarik hartzearen.

Ezi gizonak bertan kanbiatzen dira, eta ber(e)hala hüts egiten düe, bena Jesü Kristek tenpora orotan iraüten dü, eta gure kantüan dago fermoki ürren-tzealadrano.

3. Ez da behar konfidantxa handirik ezarri gizon erortoki eta herioari ezin ezkapirik egiten ahal düenetan, zombat-nahibeita zerbütü egile diren eta maite dütügiin, ez eta ere tristezia handirik hartü, zombait ordüz zerbait gure kontre egiten edo erraiten badüe.

Egün zure alte direnak, bihar zure kontre izaten ahal dütüzü, eta egün zure kontre direnak bihar zure alte : aizea bezala ardüra kanbiatzen dütüzü.

Ezarzü zure konfidantxa oro Jinkoatan, hura biz zure lotsa eta amorioa oro. Harek zuregatik ihardetsiren dizü, eta zure hobe diren bezala eginen zitizü.

Ez düzü heben betiereko egoite bat ; non-nahibeita ziren, arrotz eta bidejant zira, eta ez düzü behinere pausürik ükenen, ez bazira barna beno barnago Jesü Kristi jüntatzen.

4. Zeren heben horrat honat soz zaude, haur ez denen gaine(a)n zure pausüzko leküa ? Zelüan izan behar dizü zure egongiak, eta lürreko gaüzer orori so egin behar düzü igaraitez bezala.

Badoatzü gaüzak oro, eta zü h(ai)ekilan

Gogoia emazü h(ai)ekilan esteka ez zitean, beldürrez har eta gal zitzen.

Biz Jinkoatan zure pen(t)samentüa eta bihotza tai(ri)k gabe Jesü Kriste(n)ganat zure otoitzea.

Ez balin badirozü zelüko gaüza goretan zure ezpiritüa etxeki, pausa zite Jesü Kristen pasionean, eta egon zite gogo honez haren zauri sakratüetan.

Ezi debotki hersatzen bazira Jesüsen zaurietara eta h(ai)en herexa prezio-setara, zure türbürarzünean senditüren düzü indar handi bat, eta ez düzü axola handirik ükenen gizonen mesperetxützaz, eta mardaileriazko eleak chiñera igurtziren dütüzü.

5. Jesü Krist ere mündüan izan da gizonetzaz mesperetxatü, eta bere behar ordüririk handiengan ezagünek eta adiskideek eitzi züen, laidoz beterik zen tenporan.

Jesü Kristek soferitü nahi üken dizü eta mesperetxatü izan, eta zü bentüratzen zireia norbaitez plainitzera ?

Jesü Kristek etsaiak eta gaizki mintzazaleak üken zitizü ; eta zük oro nahi dütüzüa adiskide eta honki egile üken ?

Gaitzik batere jiten ez bazaizü, nola jardietsiren düzü zure pazentziaren koroa ?

Deüs ere nahi ez düzünik soferitzen ez badüzü, nola izanen zira Jesü Kristen adiskide ?

Soferi ezazü Jesüseki(n) eta Jesüsen amore(a)gatik, hareki(n) izan nahi bazira.

6. Sartü bazina behin ontsa Jesüsen bihotzean, eta gozatü bazünü haren amorio süz betetik apür bat, ordüan ez zünüke axolik ziharen ontsa edo gaizki izateaz : bena alagera zinteko lehenago laido deitzüenetzaz, zeren Jesüsen amorioak gizonari bere бүрүa mesperetxaerazitzen be(i)teio.

Jesüsen eta egiaren maitazale bere beitan dagoena, eta nahikünte gaixto orotarik solt dena, Jinkoaganat trebüküririk gabe ützültzen, ezpiritüz bera beno gorago joaiten, eta gozozko pausü batetan izaten ahal da.

7. Nork ere gaüzak diren bezala, eta ez dioien edo uste düen bezala gozaten beitütü, hura egiazki zühür da, eta Jinkoaganik lehenago, eziez gizone(n)ganik, etxekiten dü bere jakitea.

Jinkoaren bidean joaiten, eta kanpotiko gaüzez kasü apür egiten dakianak, ez dü lekürrik txerkatzen ez tenporarik egürükitzen debozinezko obren egiteko.

Gizon debota bere beitan ber(e)hala sartzen da, zeren ez beita seküla kanpotiko gaüzetarat osoki barreatzen.

Kanpo-lanak edo tenpora apür baten enplegüak ogenik ez deio egiten, bena gaüzak jiten diren bezala hartzen dütü.

Bere barnea xüxen eta honeala ekarri düanak ez dü axolik gizonen jesto miragarri eta gaixtoetzaz.

Gizona ez da türbüratzen ez barreatzen, besteren egitekoen ezagützean sartzen den bezainbat baizik.

8. Bihotza xüxen eta ontsa xahatürrik badüzü, gaüzak oro honetara eta profütütara ützülekiditzü.

Orano osoki zihauri hil eta lürreko gaüzetarik soltatü ez zirelako, hartakoz hanitx gaüzak desplazer egiten deizüe, eta ardüra türbüratzen zütüe.

Kreatüren amorio tei(ü)ak bezainbeste, deüsek ere ez dü gizonaren bihotza makülatzen eta nahasten.

Kanpotiko kon(t)solazioneak akazatzen (382) badütüzü, zelüko gaüzak ezpiritüz ikusiren ahal dütüzü, eta barnetiko alagrantziaz ardüra gozatüren zira.

II. KAPITÜLÜA.

Jinkoaren manüpean ümilki jartez.

1. Ez dezazüla kasürrik egin nor zure alte edo kontre den jakitez, bena egin ezazü zure eginahala oro, Jinkoa zureki(n) den (383) zük egiten dütüzün gaüza orotan.

Üken ezazü kontzentzia hon bat, eta Jinkoak ontsa begiratüren zütü.

Ezi ihoren ere gaixtokeriak ezin gaizkirik egiten dü Jinkoak ajütatü nahi düanari.

Isilik egoiten eta soferitzen balin badakizü, ikusiren düzü düda gabe Jinkoaren sokorria.

³⁸² akazatü : ohiltü, haizatu, uxatu, kanporatu.

³⁸³ den : izan dedin.

Berak bazikizü zure libratzeko tenorea eta manera, eta hartakoz zure bürüa haren esküetan ezarri behar düzü.

Jinkoari da eman ajütatzea eta ahalke orotarik libratzea.

Ardüran ezinago hon da, guri ümilitatearen hobeki begiraerazitzeko, beste(e)k jakin eta sala ditzen gure faltak.

2. Noiz ere gizona bere falte(n)gatik ümiliatzen beita, ordüan ehiki besteak apaisatzen, eta haren kontre kexü direnak gaüza apürrez kontentatzen dütü.

Jinkoak ümila süstengatzen eta libratzen dü, eta kon(t)solatzen dü, ümilareki(n) jüntatzen da, ümilari graziak aseziareki(n) emaiten dütü, eta mündü hontan apalerazi ondoan, bere glorialat iganerazitzen dü.

Ümila, ahalkearen har ondoan, bake aski hon batetan egoiten da, zeren ez mündüan, bena bai Jinkoatan bere konfidantxa ezarten beitü.

Ez düzüla uste debozitionean aitzina zoazala, besteak oro beno apürrago zure bürüa etxekiten ez badüzü.

III. KAPITÜLÜA.

Gizon perestü bakea maite düanaz.

1. Zihaur egon zite lehenik bakean, eta gero besteak hartan ezar(r)iren ahal dütüzü.

Gizon bakea maite düan batek haboro hontarzün egiten dü, eziez jakitos handi batek.

Bere pasione(e)r enjogi den gizonak, hona ere gaizkiala ützültzen dü, eta gaizkia ehiñera sinesten.

Bakea maite düan gizon perestü batek, gaüzak oro honeala ützültzen dütü.

Bake honean denak ez dü ustekeria gaixtorik ihortzaz hartzen, bena hanitx halako ustekeriak eskerniatzen düe pausürrik eta kontentamentürrik gabe dena, eta bera bake gabe da, eta besteak ez dütü ützi nahi pausüan.

Ardüra, erran behar ez düan gaüza erraiten dü, eta gaüza konbeni litzeikeiona egiteko ützen dü.

Beste(e)k zer egin behar lük(e)ien ikusten dü, eta berak egin behar lütükean gaüzer begiak zerratzen dütü.

Zihaurentako arren lehenik üken ezazü ontsalako (384) inbeia hori, eta gero zure protsimo lagüneala ere heda ahal dirokezü jüstoki.

2. Ontsa badakizü zure egitate(e)n estaltzen eta h(ai)er üdüripen hon emaiten, eta besteren estalgüneak ez dütüzü nahi hartü.

³⁸⁴ ontsa (iz.) : ongia.

Jüstoago lükezü zihaurk zure bürüa sala zenezan, eta zure anaiaren estal-güneak har zintzan.

Nahi badüzü beste(e)k egar zitzen, zük ere hurak egar itzazü.

Ikusazü zoinen hürün ziren orano egiazko karitatetik eta ümilitatetik, zoinek bere bürüaren kontre baizik ez beitaki kexatzen.

Ez da gaüza handi bat jente honeki(n) eta eztiaki(n) bakearen ükeitea, ezi naturalki hori mündü ororen gogara da, eta batbederak gogo honez bakea eta amorioa etxekiten dü bere sendimentüko diren jente(e)kilan.

Bena jente gogorreki(n) eta gaixtoeki(n), deüsen ere axol ez düeneki(n), eta gure kontre direneki(n) bakean bizitzea da grazia handi bat, eta gizon bertütos eta korajos bati ontsa daukon egitate laüdable bat.

3. Badirade zombait jente bere(n) beitan bakea begirutzen beitüe, eta beste(e)kilan ere bakez bizitzen beitira.

Beste zombait aldiz, berek ez beitüe bakerik, eta besteak ez beitütüe bakean üzten, hurak beste(e)n greügarri dira, bena bere(n)tako greügarriago beti.

Beste zombait ere badira, zoin bere(n) beitan bakean beitaude, eta besteak bakeala erakartera iseiatzen beitira.

Eta hare(n)gatik, gure bakeak orok behar dü, bizitze triste hontan, ezarri lehenago ümilki soferitzean, eziez gük nahi ez dütügün gaüzen ez senditzean.

Zoinek ere beitaki hobeki soferitzen, harek ükenen dü bake handiago bat. Hura da bere bürüaren garaitzale, mündüaren bür(ü)zagi, Jesü Kristen adiskide, eta zelüko primü.

IV. KAPITÜLÜA.

Bihotzaren xahütarzünaz eta inten(t)zionaaren sinpletarzünaz.

1. **Bi** hegalez gizona lürreko gaüzetarik goititzen da, erran nahi beita xahütarzünaz eta sinpletarzünaz.

Sinpletarzünak behar dü izan inten(t)zionaean, xahütarzünak bihotzean : sinpletarzüna goiti doa Jinkoaganat ; xahütarzünak Jinkoa besarkatzen dü, eta gozatzen.

Bihotzeko desirkünte gaixtoetarik solt balin bazira, egitate honek batek ere ez deizü ezpiritüa nahasiren.

Jinkoaren plazera eta protsimoaren abantaila baizik ez badüzü desiratzen eta txerkatzen, gozatüren düzü bihotzeko libertatea.

Bihotza xüxen balin bazünü, kreatürak oro bizitzearen mirail eta lib(ü)rü saintü baten zerbütxa lekiditzü.

Ez da kreatüra hain txipi eta txar denik, zoinek Jinkoaren hontarzüna ez düan erakusten.

2. Bihotzetik perestü eta xahü bazina, gaüzak oro ikus eta ontsa entelega zintzake baragailürük (385) gabe.

Bihotz xahüa zelüala igaiten da, eta ifernüala jaisten.

Batbederak bere bihotzeko sendimentüen araur, kanpotiko gaüzen jüdikamentüak (386) ere egiten dütü.

Mündüan balin bada alagrantzirik, hura düda gabe, bihotz xahüa düan gizonak gozaten dü.

Eta ihon ere bada türbürarzünik eta penarik, hura kon(t)zentsia gaixtoak hobeki senditzen dü.

Hala nola бүрдüina süian ezarriak erdoila galtzen beitü eta bera gorritzen beita, orobat gizon Jinkoaganat osoki ützültzen dena bere hozkeriatik bilainzten da, eta gizon berri batetara kanbiatzen.

3. Noiz ere gizona hozten hasten beita, ordüan lan txipi batek lotsatzen dü, eta gogo honez kanpotiko kon(t)solazioea hartzen dü.

Bena noiz ere bere бүрүaren osoki garaitzen eta Jinkoaren bidean gizonki ebilten hasten beita, ordüan gütiago kontü egiten dü lehen greü zeitzola senditzen zütüan gauzetaz.

V. KAPITÜLÜA.

Bere бүрүaren ezaгүйтээз.

1. Gure бүрүetan sobera sineste ezin har dirogü, zeren grazia eta entelegüa ardüra ments beitütügü.

Argi apür da gü beitan, eta dena ere ber(e)hala galtzen dügü gure laxükeriaz.

Ardüran ere ez dügü gogoarik emaiten, zoinen handi den gure bihotzeko ütsütarzüna.

Hanitxetan gaizki egiten dügü, eta gaizkiago gure falta estali nahi günüke.

Pasioneak zombait ordüz zotükaerazitzen (387) gütü, eta uste dügü zelo bat dela.

Besteren falta txipietan zerbait erraiteko edireiten dügü, eta gihahren handiak isilik eizten dütügü igaraitera.

³⁸⁵ baragailü : oztopoa, traba.

³⁸⁶ jüdikamentü : jujamendu, epai morala, kritika.

³⁸⁷ zotükatü : igitü, higitu, mugitu.

Aski bertan borogatzen eta pezatzen dügü zer beste(en)ganik soferitzen dügün : beste(e)k zonbat gureganik soferitzen düen ez dügü gogoarik emaiten.

Nork ere bere egitateak xüenki eta jüstoki peza beilitiro, ihortzaz ez liro jüdikamentü gaixtorik egin.

2. Gizon egiazki debot den batek, bere arimaren arranküra beste oren gainetik ezarten dü, eta nork ere bere bürüari gogoa ontsa emaiten beitü, hura ehiki beste(e)tzaz isilik egoiten da.

Ez zira seküla egiazki debot izanen, besteren egitekoetan gaine(a)n isilik egoiten ez bazira, eta zihaurganat bereziki so egiten ez badüzü.

Jinkoaganat eta zihaurganat zure gogoa osoki ezarten balin badüzü, kanpoan ikusten dütüzün gaüzek apür hunkiren (388) zütüe.

Non zira zihaur beitan ez zirenean ? Eta zihaturen bürüa eitzirik, gaüzak oro lasterkatü ondoan, zer profeitü idoki düzü ?

Bakea eta Jinkoareki(n) jünto izatea nahi badüzü, behar dütüzü, beste gaüzak oro mesperetxatürrik, zihaurtan gaine(a)n beti begiak etxeki.

3. Hartakoz profeitü handirik jardietsiren düzü, zure bürüa arranküra tenporalik batere gabe etxekiten badüzü.

Hanitx faltatara eroriren zira, gaüza tenporalez sobera peretxü egiten badüzü.

Ez zaizüla deüs handirik, deüs gorarik, deüs ederrik, deüs maitagarririk, Jinkoa bera edo Jinkoari so daudean gaüzak baizik.

Ezdeüs bezala etxeki ezazü kreatüren zonbaite(n)ganik jiten zaizün kon(t)solazionea oro.

Arima Jinkoa maite düan batek, haren eretzean beste gaüzak oro mesperetxatzen dütü.

Jinko eternala bera, lekü orotan edireiten dena, eta oro betatzen dütüana da arimaren kon(t)solazionea eta bihotzeko egiazko alagrantzia.

VI. KAPITÜLÜA.

Kontzentzia hon baten alagrantziaz.

1. Gizon perestü baten gloria da kontzentzia hon baten jakilegoa. Ükezü (389) kontzentzia hon bat, eta ükenen düzü beti alagrantzia.

³⁸⁸ hunki : hunkitu, ukitu.

³⁸⁹ ükezü : ukan ezazu, eduki ezazu.

Kontzentzia hon batek hanitx gaüza soferi diro, eta gaitzen artean beti alagera da.

Kontzentzia gaixtoa, beti lotsaz eta arrankürüz beterik dago.

Deüs ez badüzü sendi ontsa ez denik zure bihotzean, zaude pausü ezti batetan.

Ez ziteala zure honki eginez baizik alagera.

Gaixtoek ez düe jagoiti egiazko alagrantziarik, eta bihotzeko bakea ez dakie zer den, *zeren gaixtoek ez beitüe bakerik, dio salbazaleak.*

Eta erraiten balin badüe : bakean gira, ez dira gütera jinen gaitzak, eta nor bentüratüren da guri damürik egitera ? Ez ditzazüla sinets : zeren Jinkoaren kolera bat-batetan jaikiren beita, eta h(ai)en egitateak ezdeüsetara bilatüren (390) beitera, eta h(ai)en pentsamentüak osoki galdüren.

2. Penetan glorifikatzea ez da greügarri maite düanarentako, ezi hola egitea da Jesüsen kürützean glorifikatzea.

Gizonek alkarganik hartzen, edo alkarri emaiten düen gloria llabür da.

Tristeziak lagüntürik da beti mündüko gloria.

Jente perestüen gloria beren kontzentzietan da, eta ez gizonen laüdoriotan. Jüstoan alagrantzia, Jinkoaz eta Jinkoatan da, eta h(ai)en kontentamentüa egiatik jiten da.

Nork ere egiazko gloria eternala desiratzen beitü, mündü hontakoaz ez dü axolik.

Eta klarki ageri da zelüko gloria ez düala maite, nork ere mündü hontakoa txerkatzen beitü, edo ez beitü bihotzetik mesperetxatzen.

Laüdoriotzaz eta mesperetxüetzaz kasürik egiten ez düanak, bihotzeko pausü handi bat badüke.

3. Kontzentzia xahü düana, kontent ehiñera eta bakez izanen da.

Ez zira laüdoriot(e)n)gatik saintüago izanen, ez mesperetxüe(n)gatik txar-rago.

Zirena zira, eta Jinkoaren aitzinean ziren beno handiago ezin izaten zira.

Gogoia emaiten badüzü zer ziren zihaur beitan, ez düzü axolik ükenen gizonek zütaz erraiten dütüen ele(e)tzaz.

Gizonak ikusten dü begitarrea, Jinkoak aldiz bihotza. Gizonak ikusten dütü egitateak, eta Jinkoak pezatzen inten(t)zionateak.

Arima ümil baten seinalea da ontsa beti egitea, eta bere büriaz peretxü apür ükeitea.

Xahütarzün handi baten eta bihotzeko konfidantxaren seinalea da kreatüretarik batetarik ere kon(t)solazionerik ez nahi ükeitea.

³⁹⁰ bilatü : bilakatu (kasu honetan).

4. Gaüza ageri bat da, kanpotik beretako jakilegoarik txerkatzen ez düana, bere бүрүia Jinkoari osoki eman düala.

Ezi, Jondane (391) Paulek dioana, ez da bere бүрүia goratzen düana peretxatü, bena bai Jinkoaz gora ezarri dena.

Gizon egiazki debot den baten izaria da Jinkoareki(n) bere beitan ebiltza, eta kanpotiko gaüzen nahikünterik ez ükeitea.

VII. KAPITÜLÜA.

Jesüsen gaüza ororen gainetik maite ükeite(a)z.

1. Dohatsü da zer den Jesüsen maite ükeitea entelegatzen düana, eta Jesü-sengatik bere бүрүären mesperetxatzea.

Maitea maiteagatik ützi behar da, zeren Jesüs gaüza ororen gainetik maitatü izan nahi beita.

Kreatüraren maitatzea inganios eta kanbios da, bena Jesüsen maitatzea fidel eta iraüpos.

Kreatürari estekatzen dena, erorkorrareki(n) eroriren da ; bena Jesüs besarkatzen düana, azkartüren (392) da betierekoz.

Maita ezazü eta adiskidetako begira, beste orok ützi ere, ützi ez zütüana ez eta ere zure azkentzean galtzera.

Egün batez, nahi bazira eta ez, oroganik kentü behar dükezü.

2. Bizian eta hilean zaude Jesüsen kantüan, eta beste(e)k orok hüts eginik ere, ezin hütsik egiten ahal deizünaren ajütü fidelari gomenda zite.

Gisa hontako düzü zure maitearen propitajea, non ez beütü nahi lagün arrotzik bereki(n) üken ; bena bera, besterik gabe, nahi düzü zure bihotzaren бүр(ü)zagi izan, eta hartan jarri, errege bat bere tronoan jarten den bezala.

Bazeneki kreatüra orotarik zure bihotzaren hüsten, Jesüs zureki(n) gogo honez egon litezü.

Zernahibeita konfidantxa, Jesüs gabe, gizonetan ezarri düzün, oro galdürik bezala edirenen düzü.

Kanabera aize orotarat plegatzen den batetan ez zitela ez fida, ez berma, zeren aragia oro belharra bezala beita, eta haren gloria oro belharraren lilia bezala eroriren beita.

3. Bertan tronpatü izanen zira, gizonen kanpotiko itxürari baizik ez badüzü sorik egiten.

³⁹¹ jondane : jondoni (santu handi bakar batzuei ematen zaien titulua).

³⁹² azkar : indartsua.

Ezi zure kon(t)solazionea eta irabazia beste gizonetan txerkatzen badüzü, ardürago damü jardietsiren düzü.

Jesüs gaüza orotan txerkatzen badüzü, hura edirenen düzü segurki.

Zihauren бүрүа aldiz txerkatzen badüzü, hura ere edirenen düzü, bena zure galgarritako.

Ezi gizonak Jesüs txerkatzen ez balin badü, bere бүрүари haboro damü eretxekiren dü, eziez mündüak orok eta bere etsaiek egin ahal beilitziroie.

VIII. KAPITÜLÜA.

Jejüsekilako adiskidegoa nabasiaz.(393)

1. Jesüs gureki(n) denean, oro ontsa doazgü, eta deüs ez zaigü üdüritzen nekerik ; Jesüs aldiz gureki(n) ez denean, oro greügarri zaizgü.

Jesüs bihotzean mintzatzen ez zaigüean, kon(t)solazioneak apür balia dikezü ; bena hitz bakoitx bat Jesüsek erraiten badü, kon(t)solazione handi bat borogatüren dügü.

Maria Maidalena ez zena ber(e)hala nigarrez egon zen lekütik jaiki, Martak erran zeionean : heben düzü бүр(ü)zagia, eta deitzen zütü.

Ala beita oren dohatsüа, Jesüsek nigarretarik ezpiritüzko alagrantziala deitzen düana !

Ala beitzira idor eta gogor, Jesüs gabe ! Ala beitzira бүрү arin eta bano, zerbait Jesüs gabe desiratzen balin badüzü !

Ez deia hori zuretako damü handiagoa, eziez mündüа oro gal bazeneza ?

2. Zer, Jesüs gabe, mündüak emaiten ahal deizü ?

Jesüs gabe izatea da ifernü karats bat, Jesüseki(n) izatea aldiz paradüsü ezti bat.

Jesüs gureki(n) bada, etsaiek batek ere ez deizü ogenik eginen ahal.

Jesüs edireiten düanak, edireiten dü tresaur balios bat, eta beste hon (394) ororen gainetik den hon bat.

Eta Jesüs galtzen düanak, ezinago hanitx galtzen dü, eta haboro eziez mündüа oro gal baleza.

Ezinago praube da Jesüs gabe bizi dena, ezinago aldiz aberats hareki(n) ontsa dena.

³⁹³ nabasi (izond.) : ausarta.

³⁹⁴ hon (iz.) : ondasuna.

3. Jakite handia da Jesüseki(n) bizitzen jakitea, eta abitamentü handi bat haren ontsa begiratzea.

Izan zite ümil eta bakezko, eta Jesüs izanen düzü zureki(n).

Izan zite debot eta pausüzko, eta Jesüs egonen düzü zureki(n).

Jesüsi bertan ihesi eragiten, eta haren grazia galtzen ahal düzü, nahi bazira kanpotiko gaüzetarat okertü.

Eta hari ihesi eragiten badeiozü, eta hura galtzen balin badüzü, norganat hersatüren zira, eta ordüan nor zure adiskidetako txerkatüren düzü ?

Adiskide bat gabe, ezin ontsa bizitzen ahal zira, eta Jesüs besteak oro beno lehen adiskide ez balin badüzü, ezinago triste eta erreüs izanen zira.

Ezdeüski arren (395) gobernatzan zira, harez beste(e)tan fidatzen edo alageratzen bazira.

Lehenago haütatü behar lizate mündüaren ororen kontre ükeitea, eziez Jesüsen ofen(t)satzea.

Biz arren Jesüs kario zaitzün ororen artean zützaz bereziki maitatü.

4. Besteak oro Jesüsen amore(a)gatik maitatü izan bite, Jesüs aldiz beraurren amore(a)gatik.

Jesü Kristek berak bereziki maitatü izan behar dü, zeren adiskide orotarik hobe(re)na eta fidelena edireiten beita.

Jesüse(n)gatik eta Jesüsetan maita itzazü zure etsaiak, hala nola zure adiskideak, eta otoi ezazü orogatik, amore(a)gatik orok ezagüt eta maita dezan.

Ez dezazüla jagoiti (396) desira bereziki laüdatü edo maitatü izatea, zeren ez beita hori eman Jinkoari baizik, zoinek ez beitä bere pare (397).

Ez düzüla nahi ihork bere bihotza zützaz oküpatürük üken dezan, ez eta ere zük ziharena ihoren amorioaz ; bena Jesüs den zütan eta gizon perestü orotan.

5. Ükezü bihotz xahü baten libertatea, kreatüren estekamentürük batere gabe.

Behar düzü bilaizirik izan, eta Jinkoaganat bihotz xahü bat üken, nahi bazira Jinkoareki(n) egon, eta nahi badüzü borogatu zoinen ezti den.

Eta egiazki ez zira püntü hortarat heltüren, haren graziak ez bazütü aitzinetik ürgaizten eta bereganat tiratzen, amore(a)gatik gaüza orotzaz bilaizirik, h(ai)er adio erran ondoan, zihaur hareki(n) beraureki(n) jünta zitean.

Ezi noiz ere Jinkoaren grazia gizonaren beitarra jiten beita, ordüan gaüza ororen egiteko indarrean jarten da, eta noiz ere grazia hura hürrüntzen bei-

³⁹⁵ arren : beraz.

³⁹⁶ jagoiti : aitzinara, aurrerantzean.

³⁹⁷ pare : parekoa, berdina.

tzaio, ordüan praube eta flakü bilatzen da, eta nolaerebait gisaz, gaztigatü iza-teko eitzia da.

Ez dü behar hare(n)gatik deskorajatü, ez esperantxa galdü ; bena Jinkoa-ren borontateari eztiki egon, eta heltzen zaitzon gaüzak Jesü Kristen amore(a)gatik igurtzi ; zeren negütik landa üda jiten beita, gaiären ondoan egüna ützültzen beita, eta irazarriaren (398) ondoan zohardia (399).

IX. KAPITÜLÜA.

Kon(t)solazione ororen gabezia.

1. Ez da gaitz Jinkoaren kon(t)solazioea düanaren, gizonenaren mesperetxüa.

Gaüza handia da eta ezinago handia, ha(i)nbat gizonen, nola Jinkoaren kon(t)solazionerik gabe izatea, eta Jinkoaren ohoreagatik, bihotzeko idortar-zünaren gogo honez soferitü nahi ükeitea ; deüsetan ere bere büriären ez txerkatzea, ez eta ere propitaje honer sorik egitea.

Miraküllü deia graziaren jiteareki(n) debot eta alagera bazira ? Oren hura ororen desiragarri lizate.

Jnkoaren graziak egarten düana, aski eztiki zamalkatzen (400) da.

Eta miraküllü deia potere oro düanaz egari eta gida ezinago handiaz gidatü denak ez dezan bere karga sendi ?

2. Gogo honez hartzen dügü kon(t)solazione zonbait, eta nekez gizona beraurtzaz bilaitzen da.

Jondane Laurenti martirak, bere apezareki(n), mündüa garaitü züan : zeren mündüan maitagarri üdüri ziren gaüzak oro mesperetxatü beitzütüan, eta pena gabe soferitü beitzüan Sixta aita Saintüaganik, zoin ezin haboro maite beitzüan, Jesü Kristen amore(a)gatik bere(i)zi izatea.

Kreazalearen arren amorioak gizonaganako amorioa garaitü zizün, eta gizonen kon(t)solazionearen leküan, haütatü üken zizün Jinkoaren borontate saintüa.

Ikas ezazü zük ere, Jinkoaren amor(a)gatik, zonbait adiskide maite eta behar zünükeanaren eizten.

³⁹⁸ irazarri (iz.) : euri eta kazkabar ekaitza.

³⁹⁹ zohardi (iz., *Zub.*) : zeru izartsua ; nik beti gauazko entzun izan dut zaharragoetarik, haatik orain egunaz delarik ere derabilte zuberotar gazteagoek.

⁴⁰⁰ zamalkatü : zaldi gainean ibili.

Eta ez ziteala triste noiz ere adiskide batek eizten bazütü, dakizünen gain(e)a)n orok azkenean algarganik bere(i)zi izan behar dügüla.

3. Ontsa eta lüzaz gizonak behar dü bere büriari gerla egin, haren osoki garaitzen eta bere desirkün(e)n ororen Jinkoaganat eramaiten ikasi beno lehen.

Noiz ere gizona bere bürian bermatzen beita, ehiñera kanpotiko kon(t)solazione(e)tara erorten da.

Bena egiazko Jesüsen maitazalea eta bihoztoiki bertüte(e)r jarraikilea, halako kon(t)solazione(e)tara ez da erorten, eta holako gozozko eztitartzünik ez dü txerkatzen : bena nahiago dü hartü indarka handirik, eta Jesü Kristen amore(a)gatik soferitü tribailü gogorrik.

4. Noiz ere arren Jinkoak ezpiritüzko kon(t)solazione bat emanen bei-teizü, goza ezazü esker handireki(n) : bena ezagüt ezazü Jinkoaren hontarzün bat dela, zük merexi ez düzün bat.

Ez ziteala handi, ez sobera alagera, ez zihaurtan banoki fida : bena üken düzün hontarzünaz ümiliago zite zure egitate orotan, oren hura igarenen eta tentazionea jarraikiren denen gain(e)a)n.

Kon(t)solazionea galdü dükezünean, ez dezazüla ber(e)hala esperantxa gal, bena egüruki ezazü ümilitatereki(n) eta pazentziareki(n) zelüko bisita, Jinkoak düanen gain(e)a)n poterea zuri kon(t)solazione handiago baten (h)ar(t)zara (401) emaitetkoa.

Jinkoaren bidea borogatü düenentako, hori ez da gaüza berri bat, ez üsatü ez den bat : zeren graziareki(n), eta hura gabe izatea, aldika (402) saintü handietan eta profeta noizbait(e)koetan ediren izan beita.

5. Hartakoz errege profetak graziareki(n) zenean, zioian : *erran düit ene ase-zian, ez niz seküla zotükatüren.*

Bena grazia joan zeinean, borogatürrik zer den hura gabe, berriz dio : *Ützüli düzü zure begitarte eneganik, eta türbüratü izan nüzü.*

Hare(n)gatik orogatik, ez dü esperantxa galtzen, bena lehiatükiago Jinkoa otoitzen dü, dioalarik : *Jauna, ene oibüak zureganat goititüren ziti, eta ene orazioneak Jinkoari eskentüren.*

Azkenean bere orazionearen frütüa eramaiten dü, eta aitortzen entzüna izan dela, dioalarik : *Jaunak entzün nai, eta nitzaz üken dü pietate (403) ; Jauna ger-tatü da ene ajütazalea.*

Bena zertan ? *Kanbiatü deitazü, dio, ene plainüa alagrantziala, eta boztarioz üngü-ratü naizü.*

⁴⁰¹ arzara : hartzara, berriz.

⁴⁰² aldika : aldizka.

⁴⁰³ pietate : errukia, urrikia (kasu honetan).

Hola saintü handiak izan balin badira, ez dügü behar esparantxa galdü, zonbat-nahibeita flakü eta praube giren, aldikatzen bagira behin berotarzünean, eta gero hoztarzünean, espiritü saintüa, bere borontate honaren araur, jiten eta joaiten denen gaine(a)n : hartakoz Job saintuak dio : *argitzean bisitatzzen düzü gizona, eta ber(e)hala ere bai borogatzen.*

6. Zertan arren esperantzarik har ahal dirot, edo nortan fidatü behar dü, Jinkoaren miseriakordia handian eta zelüko graziaren esparantxan baizik ?

Ezi ükenik ere eneki(n) gizon saintü, edo fraide debot, edo adiskide fidelik, nüan ordüan pietatezko (404) lib(ü)rü edo ezkiribü ederrik, edo himno eta kantika maitagarririk : apür profetitü horietarik orotarik idoki niro, apür goza nintzake, graziaz bilaizirik eta nihauren praubezian eitzirik balin banintz.

Ordüan sendogarririk hobe(re)na lizate pazentzia, eta Jinkoaren borontate saintüan nihauren ezdeütea.

7. Seküla ez dü ihor ediren, zonbat-nahibeita (er)reljios eta debot zen, bere graziaren gabeziak zonbait aldiz üken ez düüanik, edo debozionearen apürtzea (405) senditü ez düanik.

Ez da saintürik batere, zonbat-nahibeita argitü edo gora altxatü izan den, lehen edo gero tentazione üken ez düanik.

Ezi zonbait türbürarzünen Jinkoagatik softeritüz baizik, ez da ihor haren ezpiritüzko ezagütze gorala heltzen ahal.

Kon(t)solazione gerotik jinen denaren seinalea denen gaine(a)n, aitzinetik jiten den tentazionea.

Hartakoz zelüko kon(t)solazionearen promesa eman izan da tentazioneak borogatü düüaner. *Bitoria eramanen düanari*, dio eskriptürak, *zübain bizia dadükaretik emanen düit jatera.*

8. Gaineran, zelüko kon(t)solazione hura emaiten da, amore(a)gatik gizona azkarrago izan dadin gaitzen süstengatzeko.

Tentazionea orano jiten da, beldürrez batbedera bere honki eginez hant (406) eta ürgülütsü dadin.

Debrüa ez dago lo, eta aragia ez da orano hil : hori dela kausa, tai(ri)k gabe, gerla egitera adela zite : zeren eskuin eta exker, behinere pausatzen ez diren etsaiak beütütüzü.

⁴⁰⁴ pietate : debozioa (beste kasu honetan).

⁴⁰⁵ apürtze : gutitzea.

⁴⁰⁶ hantü : puztu.

X. KAPITÜLÜA.

Jinkoaren graziari zor den ezagützeaz.

1. Zeren txerkatzen düzü pausüa, tribailatzeko sortü zirenen gaine(a)n ?

Adela zite pazentziaren lehenago, eziez kon(t)solazionearen ükeitera, eta boztarioa beno nahiago düzüla kürütxea karreatü.

Balizatea mündüan daudeanetarik ihor, kon(t)solazionea eta ezpiritüzko alagrantzia gogo honez har ez liroanik, betiere üken ahal baleza ?

Ezi ezpiritüzko kon(t)solazioneak, mündüko eta aragiaren plazer orenen gainetik dira.

Mündüko plazerak segürki, edo bano dira, edo ahalketzün, ezpiritüzkoak aldiz onest (407) eta maitagarri, bertüte(e)tarik sortürrik, eta Jinkoaz ezpiritü xahüer isuririk.

Bena zelüko kon(t)solazione horietzaz, ez daite ihor nahi lükean beza(i)nbat goza, zeren tentazione gabe izateak ez beitü lüzaz iraüten.

2. Gainetiko bisitari ogen handi bat egiten dü gogoaren libertate fal(t)süak, eta bere бүрүatan konfidantxa handiren ükeiteak.

Jinkoak ontsa egiten dü kon(t)solazionearen graziaren emaiteaz, bena gizonak gaizki, orenen Jinkoari esker handireki(n) ützüli gabez.

Eta hartakoz graziaren hontarzünak ez dira gureganat jiten, zeren emai-leari ez beitügü ezagützerik erakusten, eta ütүrbүрүalat ez beitütügü oro ütү-lerazitzen.

Ezi grazia beti zor da, eskerrak behar den bezala emaileari, eta ürgüülү-tsüari idoki izanen zaio ümilari komünzki emaiten dena.

3. Ez düт nahi bihotzeko dolümena kentzen düan kon(t)solazionea, ez eta ere ürgüülүala eramaiten düan ezpiritüzko ikustea.

Ezi gora dena oro ez da saintü, ez ezti dena oro hon, eta desirak oro ez dira xahü, ez kario direnak oro Jinkoari maitagarri.

Gogo honez hartzen (+) düт grazia, ümilago eta lotsorrago ediren nadin amore(a)gatik, eta nihauren бүрүaren eiztera adela nadin hobeki.

Jinkoaren grazia eta haren gabezia zer den ikasi düana ez da bentüratüren hontarzünik batere bere бүрүari emaitera, bena aitortüren dü lehenago praube eta bilaizi dela.

⁴⁰⁷ onest : zintzoa, prestua, ondradua.

(+) Grazia da zelüko dohain bat, zointzaz espiritü saintüak gure entelegüari argi bat eretxekiten beitü, edo so saintü gure borontatean pizten düan bat, guri honkiaren eragiteko, zoin hura gabe ez beigüiro egin.

Jinkoari Jinkoaren dena emazü, eta zihauri zure dena : erran nahi beita Jinkoari esker emazü grazia eman deizünaz, eta ezagüt ezazü falta zurea dela, eta harek merexi düan pena zük zor düzüla.

4. Jar zite beti lekürük apalenean, eta emanen zaizü gorena : ezi gorenik ez düzü apalena gabe.

Jinkoaren aitzinean saintürük handienak, bere(n) beitan txipienik dira : eta zombatenaz ümilago beitera, ha(i)nbatenez glorian handiago dirateke.

Egiaz eta zelüko gloriar beterik direnek, banaloriaren ez düe axolik batere.

Jinkoatan bermatürük eta azkartürük daudeanak, ürgülüsü ihola ere ezin izaten ahal dira.

Eta Jinkoari hontarzün üken dütüenak oro emaiten dütüenak, ez düe alkarganik gloriarik txerkatzen, bena Jinkoaganik den gloria nahi düe, eta desiratzten ere badüe Jinkoa h(ai)etan, eta beste saintü orotan, gaüza ooren gainetik laüdatü izan ledin, eta hartara doatza beti.

5. Hontarzünük arren txipienaz ükezü ezagütze, eta merexitüren düzü handiagorik ükeitea.

Txipiena, handiena bezala har ezazü, eta txarren üdüri zaizezüna, dohain preziatü bat bezala.

Emailearen handitarzünari so egiten balin bada, harek eman gaüzetarik bat ere ez da txipi edo txar üdürütüren. Ezi Jinko ezinago handiak emaiten düan gaüza, ezin txipi izaten ahal da.

Penak eta azote kolpeak eman litzagün ordüan, eskerreki(n) hartü behar güntüke : zeren guri heltzera eizten dütüan gaüzak oro, gure salbamentüagatik egiten beitätü.

Nork ere Jinkoaren grazia begiratü nahi beitätü, ükenaz behar dü ezagützea karreiatü, eta idokiaz ez kexatü.

Otoi beza ützüldakion, eta izan ümil eta abisatü gal ez dezan.

XI. KAPITÜLÜA.

Jesüsen kürütxearen maitazale(e)n apürtarzünaz.

1. Jesüsek orai badü bere erresumaren maitazale hanitx, bena bere kür(ü)txearen karreiazale apür.

Badü kon(t)solazionearen desirazale hanitx, bena türbürarzünaren apür.

Hanitx mahaineko, apür barurarentako lagün edireiten dü.

Hanitx nahi dira hareki(n) alageratü, eta apürrek hare(n)gatik zerbait soferitü.

Jesüsi hanitx jarraikiten dira ogiaren haustealadrano, eta apür pasioneko kalitziaren edatealadrano.

Hanitxek haren miraküllüak ohoratzen dütüe, eta apür dira haren kürütxearen laidoari jarraikiten direnak.

Hanitxek Jesús maite düe, gaitzik heltzen ez zaieno.

Hanitxek hura laüdatzen eta benedikatzen düe, zombait kon(t)solazione hare(n)ganik ükeiten düeno.

Bena Jesús gordatzen bazaie, edo apür bat eizten balin badütü, edo murmuzeiatzen (408), edo deskorajutzen (409) dira.

2. Bena Jesús Jesüse(n)gatik, eta ez beste zombait kon(t)solazione(n)gatik maite düenek, türbürarzünean eta bihotz hersidüran (410) hain ontsa nola kon(t)solazionerik handiñean, hura benedikatzen düe.

Eta nahi ez leien (411) ordüan eman kon(t)solazionerik, hare(n)gatik orogatik, hura beti laüda liroie, eta hari beti eskerrak eman.

3. Ala beütü indar handia Jesüsen amorioak, nahasirik ez denean gihauren abantaila edo amorio zombaitzez !

Kon(t)solazioneak beti txerkatzen dütüenak, ez direia lanik pakü gabe egin ez liroienak üdüri ?

Nori ere gogoia beti bere edo abantailan, edo irabazian etxekiten beütüe, ez deia klarki ezañün ez Jesüsen, bena bere(n) бүrien maitazale direla ?

Non edirenen da Jinkoa dohain (412) zerbütatü nahi düan bat ?

4. Arraroki (413) edireiten da norbait gisa batez debozionario emanik, non orotzaz bilaizi den.

Ezi nork edirenen dü egiatzki ezpiritüz praube den bat, eta kreatüra orotarik pikarraitü den bat ? Hürrün eta mündüaren bazterrean da harek bezainbeste balio düana.

Püntü hortara heltzeko gizonak, emanik ere lütüan honak oro, orano ez lizate deüs.

Eta eginik ere penitentzia handi bat, orano apür lizate.

Eta jardietsirik ere jakiteak oro, orano hürrün lizate.

Eta ükenik ere bertüteak oro, eta debozione ezinago süz bete bat, orano hanitx ments (414) lüke : erran nahi beita gaüza bat, zoinen ezinago behar handi bat beütü.

⁴⁰⁸ murmuzeiatü : murmuzikatü, mamar egin.

⁴⁰⁹ deskorajatü : kuraia galdu, adorea galdu.

⁴¹⁰ hersidüra : herstura.

⁴¹¹ ez leien : (*Eta kontsolazionerik eman nabi*) ez balie.

⁴¹² dohain (adlag.) : dohainik, kitorik, urririk.

⁴¹³ arraroki : bakan, bakanki.

⁴¹⁴ ments : eskas, falta.

Zer da hura, gaüzer orori adio (415) erranik, bere büria eitz dezan, eta osoki beraurtzaz bilaiz dadin, eta deüs ere berauren amorio(a)gatik ez dezan etxeki ?

Eta egin ondoan egin behar zütüala ezagützen zütüan gaüzak oro, uste üken dezan deüs ere ez düala egin ?

5. Ez dezan kasü handirik egin, zeren balio handitako igaraiten ahal den, bena egian erran dezan zerbütxari ezdeüs bat dela, egiak berak dioian bezala : *manatü izan zaitzüen gaüzak oro egin dütükezüenean, errazüe : zerbütxari ezdeüs elibat gira.*

Ordüan egiazki ezpiritü praube eta bilaizi izaten, eta profetareki(n) erraiten ahal dü : *nihaurtü niz eta bobetü.*

Eta hare(n)gatik bere büriaren eta gaüzen ororen eizten, eta lekürük apalenean jarten dakiana beno ez da ihor aberatsagorik, ihor poterosagorik, ez haboro libertate düanik.

XII. KAPITÜLÜA.

Kürütxe saintüaren errege bideaz.

1. Elesta haur hanitxi gogor eta gaitz üdüritzen zaie : *eitzazü zure büria, goiti ezazü zure kürütxea, eta jarraiki zite Jesüsi.*

Bena hanitxex gaixtoago date azken hitz honen entzütea : *aparta ziteie maradikatüak eneganik sü eternalealat.*

Ezi nor ere orai gogo honez behatzen eta kürütxearen hitzari jarraikiten beitira, h(ai)ek ez düe ordüan lotsarik ükenen entzün dezen eternalcki damnatü direla.

Kürütxe honen seinalea date zelüan, Jesüs jauna jüjatzera jiten datekeanean.

Ordüan kürütxearen zerbütxariak, zoinek bere(n) bizitzea Jesü Krist k(ü)rü(t)zifikatü izan denaren araur karreatü beitüe, jüjeari hüllantüren dira konfidantxa handi bateki(n).

2. Zeren arren lotsa zira kürütxearen goitizera, zointzaz ihor zelüalat joaiten beita ?

Kürütxean da salbamentua, kürütxean bizitzea, kürütxean etsaietarik begiratü izatea ; kürütxean da zelüko eztitarzünaren isuria, kürütxean entelegüaren indarra, kürütxean ezpiritüzko alagrantzia : kürütxean da bertüte(e)n ekoizpena eta saintütarzünaren konplitü osoki izatea.

Ez da arimaren salbamentürük, ez bizitze eternalaren esperantxarük, kürütxean baizik.

⁴¹⁵ adio : agur (despeditzean).

Goiti ezazü arren zure kürütxea, eta jarraiki zite Jesüsi, eta joanen zira bizitze eternalealat.

Jesüs aitzinetik joan zaizü, karreiatzen züalarik bere kürütxea, eta zuregatik kürütxean hil izan düzü, amore(a)gatik zük ere zure kürütxea karreia eta kürütxean hiltzea desira dezazün.

Zeren eta hareki(n) hiltzen bazira, hareki(n) ere biziren beitzira. Eta penetan lagüntzen badüzü, glorian ere parte ükenen beitüzü.

3. Kürütxearen maite ükeitean, eta hartan hiltzean dago arren gure abantaila oro : eta ez da beste biderik bizitzealal joaiteko, eta bihotzeko bakearen ükeiteko, kürütxe saintüaren eta egün oroz ezpiritüz hiltzearen bidea baizik.

Norat-nahibeita zoaza, eta txerka itzazü nahi dütüzün gaüzak oro, eta ez düzü edirenen kürütxe saintüaren bidea beno goragorik alde gainean, ez següragorik alde pean.

Xüxent eta arranja itzazü (416) gaüzak oro ziharen nahiaren eta ikustearen araur, eta edirenen düzü behar dükezüla betiere gogotik edo bortxaz zerbait softeritü, eta hala kürütxea beti edirenen düzü.

Ezi edo korpitzean dolore senditüren düzü, edo badükezü ezpiritüzko türbürarzün zombait softeritzeko.

4. Aldi batean Jinkoak eitziren zütü, bestean zure protsimoak kexaeraziren zütü, et haboroz haboro zihauri ardüran greü izanen zira.

Eta ez düzü erremediorik, ez kon(t)solazionerik zü libratüren edo arintüren ahal zütüenik : bena behar düzü softeritü, Jinkoak plazer düan arteo.

Ezi Jinkoak nahi dizü penak kon(t)solazionerik gabe softeritzen ikas dezaüzün, amore(a)gatik haren esküpean jar zitean, eta penek ümilago izaten erakuts dizazüen.

Ihork ere hain bihotzetik ez dü Jesü Kristen pasionea senditzen, nola haren penak üdüririk softeritzera heltü zaionak.

Kürütxea arren beti haidürü düzü, eta lekü orotan egürükiten zütü.

Norat-nahibeita laster egin dezazün, ez dirozü hari ihesirik egin, zeren zoin-nahibeita lekütarat joan zitean, zihaurk zurebürüa karreiatzen beitüzü, eta han beti edirenen beitüzü.

Ützül zite goiti, ützül zite behera, joan zite kanporat, jin zite barnealat, eta lekü horietan orotan edirenen düzü kürütxea : hartakoz pazentzia behar düzü beti zureki(n), nahi badüzü bihotzeko bakea üken, eta koroa eternala merexitü.

5. Gogo honez kürütxea ekarten balin badüzü, harek ere zü egariren zütü, eta gidatüren azkentze desiratü hartara, non softeritzeak akabiren beitzira, zombat ere heben beti iraünen beitzira.

⁴¹⁶ arranjatü : antolatu/tü, akomeatu.

Gogoz garaiti (417) ekarten badüzü, zihaturen karga emendatzen baizik ez düzü, eta ororen бүрiан egari behar düzü.

Kürütxe bat apartatzen badüzü, beste bat düda gabe edirenen düzü, eta heltübada pezüagorik.

6. Uste düzü ezkapiren zirela, gizonek batek ere ihesirik ezin egin düan gaüzari ? Izan deia saintürrik mündüan, kürütxe edo türbürarzün gaberik ?

Jesü Krist gure salbazaleak, bizi zen tenporan, oren bat ez zizün igaren softeritü gabe : behar zizün (ziozü berak) Jesü Kristek softeritü eta hiletarik piztü, eta hala zelüko glorian sartü.

Eta zük, nola beste biderik txerkatzen düzü errege bide haur baizik, zoin beita kürütxe saintüaren bidea ?

7. Jesü Kristen bizitzea oro kürütxe eta martirio izan düzü, eta zük zurean paüsia eta alagrantzia txerkatzen dütüzü.

Tronpatzen zira, tronpatzen, penen softeritzeaz kanpo besterik deüs txerkatzen badüzü ; zeren bizitze hilkor hau miseriaz beterik beita, eta kürütxez üngüratürrik.

Eta ha(i)nbatenaz ihork beste(e)k beno haboro bertütean profieitatü dü, zonbatenaz kürütxe garratzagorik ediren üken beitä ; zeren amorioak emendaerazitzen beiteio bere desterrüaren pena.

8. Hare(n)gatik orogatik, gisa hortan hanitx maneraz dolorez hunki izan dena, ez da zonbait kon(t)solazioneren arinmentxa gabe : zeren ezagützen beitä bere kürütxearen softeritzeak abantaila handi bat emaiten deiola.

Ezi gogo honez haren pean jarten denari, penen pezütarzüna oro zelüko kon(t)solazionearen konfidantxala kanbiatzen zaio.

Eta zonbatenaz dolorez aragia flakatzengo beita, ha(i)nbatenaz ezpiritüa barneko graziaz azkartzenago da.

Eta zonbait ordüz, ha(i)nbeste indar hartzen dü türbürarzünen eta gaitzen amoriotik, nahi lükealakoz zerbait üdüripen Jesü Kristen kürütxeareki(n) üken, non dolore eta türbürarzün gabe ez beilizate nahi izan, uste düanen gaine(a)n ha(i)batenaz Jinkoari maitagarriago izanen dela, zonbatenaz haboro eta garratzagorik haren amore(a)gatik softeritüren ahal beitä.

Ez da hori gizonaren bertütea, bena bai Jesü Kristen grazia, zoin hainbeste egin beitäro aragi flakü hontan, non ezpiritüari has eta maitaerazitzen beiteio, natüralki beti hügü eta hastio düan gaüza.

9. Ez da gizonaren indarrari eman kürütxearen egartea, kürütxearen maitatzea, korpitzaren gatzigatzea, eta esklabajearen (418) pean ezartea, ohore(e)r ihesi egitea, laidoen gogo honez softeritzea, bere бүрiанen mesperetxatzea, eta beste(e)tzaz mesperetxatü izan dadin nahi ükeitea, egiteko

⁴¹⁷ gogoz garaiti : gogoz gairi, gogoz kontra.

⁴¹⁸ esklabaje : esklabotza, esklabotasuna.

gaizki eginen altetarzünik (419) gabe, bere damüeki(n) hartzea, eta mündü hontako honetan emendiorik ez desiratzea.

Zihauri baizik sorik egiten ez badüzü, ezagütüren düzü deüs holakorik ez dirozüla.

Bena Jinkoatan ezarten badüzü zure konfidantxa, zelütik jaitsiren zaizü indarra, eta mündüa aragiareki(n) zure manüpean jarriren dütüzü.

Ez düzü etsaien ere, ez debrüaren lotsarik ükenen, fedez armatürük eta Jesü Kristen kürütxeaz zeinatürük (420) bazira.

10. Adela zite arren Jesü Kristen zerbütxari hon eta leial bat bezala, zure salbazalearen kürütxearen bihoztoiki karreiatzera, zoin zureganat züan amorioak kürütxean itzaerazi beütü.

Adela zite orano soferitzera bizitze miseriazko hontan heltzen diren gaüzak eta nahi bageak (421) oro, zeren hala beitzirateke, non-nahibeita (422) ziren, eta hala edirenen beütüzü, zoin-nahibeita (423) lekütan gorda zitean.

Hala baizik ez daite ihor izan, eta gaitzen soferitzeari eta doloreari ihesi egiteko erremedioa düzü ziharen bürüaren pazentziareki(n) süstengatzea.

Edan ezazü gogo handireki(n) salbazalearen kalitzia (424), haren adiskide izan nahi bazira, eta hareki(n) parterik ükeitea desiratzen badüzü.

Eitz itzatzü kon(t)solazioneak Jinkoaren esküetan, berauri hobekienik üdürütüren zaion bezala egin dezan.

Bena zü adela zite türbürarzünen soferitzera, eta sinets ezazü hurak direla zure kon(t)solazionerik handienak : zeren mündü hontako soferitze(e)k orok ez beütie merexitzen ahal gero jinen den gloria, zihaurek oro soferi ahal zintzakean ordüan.

11. Türbürarzünaren ezti eta Jesü Kristen amore(a)gatik, gozo honetako edireiteko püntüala heltü ziratekeanean, ordüan uste üken ezazü ontsa doazüla : zeren lürren gaine(a)n paradüsü bat ediren beütükezü.

Soferitzea greügarri zaizüno, eta hari ihesi egitea txerkatzen düzüno, gaizki izanen zira, eta zureganik apartatü nahi zünükean türbürarzüna jarraikiren zaizü lekü orotarar.

12. Adelatzen bazira behar den bezala soferitzera eta hiltzera, berehala hobeki edirenen zira, eta bakea ükenen düzü.

Altxatü izan zinen ordüan Jondane Paulereki(n) hirurgarren zelüadranon, ez zinante hargatik segür nahi ez zünüan gaüzarik ez zünükeala soferi-

⁴¹⁹ altetarzün : aldetasuna.

⁴²⁰ zeinatü (zeinhatü) : zeinatu, aitaren egin.

⁴²¹ nahi bage (iz.) : nahigabea.

⁴²² non nahibeita : non-nahi, nonahi, edonon.

⁴²³ zoin-nahibeita : zein-nahi, zeinahi, edozein ; gaur *Zub.* zoin-nahi, zoinahi.

⁴²⁴ kalitzia (kalitzea ?) : kaliza.

tzeko. Erakutsiren deiot (dio Jesüsek) zonbat ene izenagatik behar düan soferitü.

Soferitzea baizik arren ez zaizü baratzen, Jesüsen maite ükeitea, eta haren tai(ri)k gabe zerbütatzea plazent bazaizü.

13. Jinkoak baletsa Jesüsen izenaren ohoretan zerbaiten soferitzea merexi zünüan ! Ala beilekidizü bara banagloria handi bat, zoinen handi lizate saintüen ororen boztarioa eta zoinen abantailos protsimoari honealako eman zini-roan etsenplüa !

Ezi orok pazentzia gomendatzen düe, zonbat ere apürrek baizik ez beitüe nahi soferitü.

Zerbaitñi Jesü Kristen amore(a)gatik behar zünüke gogo honez soferitü, hainbeste jentek gaitzagarik mündüarentako soferitzen düenen gaine(a)n.

14. Segür izan zite egün oroz hiltzen den bizitze bat behar düzüla karreiatü. Eta zonbatenez haboro batbedera bere büriari hiltzen beita, ha(i)nbatenez hobeki Jinkoareki(n) bizitzen hasten dela.

Ez ditzake ihork zelüko gaüzak entelega, gaitzen soferitzera, Jesü Kristen amore(a)gatik, ez badadi senbert (425).₂

Deüs ere ez da Jinkoari maitagarriagorik, ez eta ere zure mündü hontan hobeagorik, eziez gogo honez Jesü Kristen amore(a)gatik soferitzea.

Eta häütia bazünü, behar zünüke lehenago, Jesü Kristen amore(a)gatik, gaitzen soferitzea desiratü, eziez kon(t)solazione hanitxex solajatü izatea : Jesü Kristen haboro üdüri beitzünüke, eta hobeki saintüen ororen araur bizi beitzinteke.

Ezi gure mereximentüa eta gure izatearen profemitüa ez dago eztitarzünen eta kon(t)solazione(e)n hanixtarzünean, bena bai lehenago gaitzen eta türbürarzünen handienen soferitzean.

15. Ezi zerbait hoberik edo abantailosagorik gizonaren salbamentüaren izan balitz, eziez soferitzea, Jesü Kristek segürki hitzez eta etsenplüz erakutsi zükean.

Ezi hari jarraikiten diren dizipüluer, eta beste jarraiki nahi zaitzoner orori, klarki gomendatzen dü kürütxearen ekarte, dioialarik : *norbait ene ondoan jarraiki nabi bada, eitz beza bere büriaren arranküra, goiti beza bere kürütxea, eta jarraiki bekit.*

Ororen irakur eta xehe iker ondoan, har biz h(ai)etarik idoki behar den azken arrazua.

Behar dügüla hanitx türbürarzünetan igarenik Jinkoaren erresuman sartü.

Bigerren lib(ü)rüaren akabantza

⁴²⁵ senbertü : konfiantzaz norbaiti lotu, jarraiki.

JESÜ KRISTEN IMITAZIONEAREN
HEREN LIB(Ü)RÜA.

Barnetiko kon(t)solazioneaz
Irakurzaleari.

*Nola lib(ü)rü haur izkiribatü izan beita Jinkoaren eta arima fidelaren, edo bür(ü)zagia-
ren eta zerbütxariaren artean igaraiten den elesta bat bezala, ontsa gogoia eman bebar dü ira-
kurzaleak, noiz bür(ü)zagia, noiz zerbütxaria mintzo diren ; bestela ez liro entelega, ez hitzen
zentzua, ez lib(ü)rü honen izkiribazale debotaren deseina. Hartakoz letera honek, B,
bür(ü)zagiaren elesta seinalatüren dü, eta beste honek Z, zerbütxariarena.*

LEHEN KAPITÜLÜA

Jesü Kristek arima fidelari barnetik etxekiten düan elesta.

1. z. Behatüren niz Jinkoak ene bihotzean erranen dütüan hitzer.

Dohatsü da arima, Jinkoa bere beitan mintzatzen entzütten düana, eta haren ahotik kon(t)solazionezko hitz bat ükeiten düana.

Dohatsü dira Jinkoaren hitzaren herots txipia entzütten düen beharriak, eta mündü hontako ele gaixtoer gogarik emaiten ez düenak.

Dohatsü dira osoki beharri, kanpoan herots egiten düan botzari beno lehen, egia barne(a)n erakusten düanari behatzen direnak.

Dohatsü dira begiak, kanpoko gaüzer zerratürrik, eta barnekoer ontsa ide-
kirik daudeanak.

Dohatsü dira barneko gaüzak ontsa ikusten dütüenak, eta egün orozko debozinez ontsa beno ontsago (426) zelüko segretüen ezagützeko adelatzer
iseiatzen direnak.

Dohatsü dira Jinkoareki(n) tenporaren igaraitez alageratzen direnak, eta mündüko baragailü orotarik bere(n) bürüak bilaitzen dütüenak.

Ezagüt eta goza itzazü gaüza horik, ene arima, eta zerra itzazü zure zen-
tzüen bortak, amore(a)gatik entzün ahal dezazün zer Jinko Jaunak dioian zure bihotzean. Hoiek dütüzüla zure maiteak erraiten deitzün hitzak.

2. B. Ni nüzü zure salbamentüa, zure bakea, eta zure bizia.

Egon zite ene kantüan, eta bakea edirenen düzü. Eitz itzazü gaüza igarai-
ten direnak oro, eta txerka itzazü eternitatekoak.

Zer dira gaüza tenporalak oro, inganagarri baizik, eta zer hon ükeiten düzü kreatüretarik orotarik, krezaleaz eitzia bazira ?

⁴²⁶ ontsago : hobeki.

Bilaizirik arren gaüza orotzaz, zure krezalearen gomendüan jar zite, arima plazent (427) eta leial bat bezala, amore(a)gatik egiazko zelüko izatea jardiets ahal dezazün.

II. KAPITÜLÜA.

Otoitzen dü Jinkoa, bere bibotzean mintzatzen entzün dezan.

1. Z. **Mintza zite Jauna, zeren beba beitaüzü zure zerbüt(x)aria. Zure zerbüt(x)aria nüzü ni, emadazü entelegüa, jakin ditzadan amore(a)gatik zure manü saintüak.**

Plegaerazi ezazü ene bihotza zure hitzetarat ; biauri (428) nitara zure elesta, zohart-ihitz bat bezala.

Noizbait Israelitkoek Moisarri erraiten züen : *mintza zakizgü zü, eta bebatüren gütüzü, ez dakigüka mintza Jinkoa, beldürrez hil gitean.*

Ez zütüt nik hala otoitzen, Jauna, ez hala, bena lehenago ümilki eta desir handireki(n) süplikutzen, Samüel profetareki(n) : *mintza zite, Jauna, zeren beba beitaüzü zure zerbüt(x)aria.*

Ez dakidan eni mintza Moisa, edo beste zonbait profetetarik : bena zü lehenago mintza zakitzat, Jinko Jauna, profeta ororen argizalea eta inspirar-zün h(ai)er emalea ; zeren zihaurk hurak gabe ezin hobeki jakintsützen ahal benaüzü ; h(ai)ek aldiz zü gabe ez beitüe profetitürik batere idokiren.

2. Egiala, hitzen herotsa egiten ahal dizüe, bena ez graziaren emaita.

Ederki mintzo dütüzü, bena zü isilik zaudeano, bihotza ez dizue gortzen. Leterak emaiten zitizüe, bena zük zentzua erakusten. Misterioak agertzen zitizüe, bena zük segretüen entelegüa idekitzen.

Manüak ezagüterazitzen zitizüe, bena zük h(ai)en konplitzeko ajütüa emaiten.

Bidea erakusten dizüe, bena zük hartan ebilteko indarrak ükenerazitzen.

H(ai)ek kanpotik baizik ez dizüe deüs egiten, bena zük bihotzak argitzen eta jakintsützen dütüzü.

H(ai)ek kanpotik ihiztatzen dizüe, zük aldiz frütü erakarteko bertütea emaiten düzü.

Haiek hitzez oihü eta herots egiten dizüe, zük aldiz entelegüari entzütea emaiten.

3. Ez dakidan arren eni Moisa mintza, bena zü bai, ene Jinko Jauna, egia eternala, beldürrez hil eta frütü gabe gerta nadin, barnetik gortü izan gabe, kanpotik baizik ez banü abisürik.

⁴²⁷ plazent : atsegina, goxoa.

⁴²⁸ biauiri : etor bedi, jin bedi.

Beldürrez orano jüjatü izan nadin zure hitzaren entzünez, konplitü gabe, ezagütüz maitatü gabe, eta sinetsiz begiratü gabe.

Mintza zakitzat arren, ene Jinko Jauna, zeren beha beitaüzü zure zerbüt(x)aria, ezi zük dutüzü bizitze eternalaren hitzak.

Mintza zakitzat ene arimaren kon(t)solatzeko, ene bizitze ororen kanbiae-razitzeko, eta zihauri laüdorioro, gloria, eta beti iraünen düan ohorearen emai-teko.

III. KAPITÜLÜA.

Ümilitatereki(n) behar direla Jinkoaren hitzak entzün, eta hanitxek ez dütüela aski pezatzen.(429)

1. B. Beha zite, ene semea, ene hitzer, hitz ezinago eztiak beitira, eta mündü hontako filosofo eta zühür ororen jakitearen (430) gainetik.

Ene hitzak bizitze eta ezpiritü dira, eta ez düe behar gizonen zentzüaz pezatü izan.

Ez dütüzü behar zure plazer banoala ekarri, bena isilik entzün, eta begi-ratü ümilitate eta bihotzko desir oso bateki(n).

Z. Dohatsü da, Jauna, zük jakintsützen düzüna, eta zure legea erakusten deiozüna, amore(a)gatik zure eztitarzüna txestaerazi diazozün bere tristezie-tan, eta lürren gaine(a)n eskerniatüa (431) ez dadin izan.

2. B. Nik jakintsütü düüt, dio Jaunak, profetak hatsarretik gora eta orai ere orano orori mintzatzen niz tai(ri)k gabe : bena hanitx ene botzari gogor dira, eta gor.

Haboro dira mündü honi gogo hobez behatzen direnak, eziez Jinkoari : ehiñerago jarraikiten bere(n) aragiaren nahikünteari, eziez Jinkoaren plazer honari.

Mündü honek ez dü gaüza txipi eta iraüpos ez direnik baizik hitzemaiten, eta hare(n)gatik lehia handireki(n) hura zerbüt(x)atü izaten da : nik aldiz hit-zemaiten deitzüet gaüza ezinago handiak eta eternalak, eta gizonen bihotzak herabeen sartüririk daude.

Nor da ene zerbüt(x)üan eta obedientzian gaüza orotan hainbeste arrankü-rareki(n) dagoena, nola mündüaren eta mündüko handienenean beitago ? *Abalkez burt zite Sion, dio itsasoak*, eta zeren arrazua galtatzen badüzü, haur düzüla, beha zite.

⁴²⁹ pezatü : pisatu.

⁴³⁰ jakite : jakitatea, jakintza, jakinduria.

⁴³¹ eskerniatü : eskarniatu, penarazi.

⁴³² iraüpos : iraunkorra.

Badütüzü bide lüzean ontsa laster egiten düenak elizako benefizio txipi baten ükeiteko, eta hanitxek hoina bortxa behin lürretik goititzen dizüe bizitze eternalaren jardiesteko.

Badoatzü irabazi txar baten ondoan, nontik hura ükenen düen ; luis bate(n)gatik, zombait ordüz, ahalkeizügarriki (433) prozeskatzen düütüzü gaüza ezdeüs bate(n)gatik, eta promes txipi bate(n)gatik gaüaz eta egünaz einetzearen lotsarik ez dizüe.

3. Bena (h)elas ! Hontarzün ezin kanbiatzen den batentako, irabazi ez preziotan ezarten den batentako, ohore ezin handiago den batentako, eta gloria ezin mügarik ez ürrentzerik ükeiten ahal düan batentako, eine apür baten hartzeak ihor herabeztitzen dü.

Ahalke zite arren zerbütxari herabeztia eta plainütsüa, zeren hurak bere(n) perdizioneala prestago diren, eziez zü bizitze eternaleala.

Hurak haboro alageratzen düütüzü banitateagatik, eziez zü egiagatik.

Egiazki bere(n) esparantxak zombait aldiz inganatzen zitizü, bena ene promesak ez dizü ihor inganatzen, ez eta ere nitan fida dena hütsik eizten joaitera.

Ene hitza etxekiren dü, erran düdana konplitüren dü azken ürrentzealadrano, ene amorioan fidel egonen denari.

Ni niz jente perestüer orori pakü emailea, eta deboten ororen azkarki borogazalea.

4. Ezkiriba itzatzü zure bihotzean ene hitzak, eta ardüra h(ai)etan etxek ezazü zure gogoa ; ezi h(ai)en mengua handi bat ükenen düzü tentatü ziratekean tenporan.

Bisitaren egüean ezagütüren düzü irakurtean ezin entelegatzen düzüna.

Bi gisaz kostümatü dit ene haütatüen bisitatzera, erran nahi beita tentazioneaz eta kon(t)solazioneaz.

Eta bi lekziona egün oroz irakurten ditiet, bata h(ai)en bizioen kontre kexatzen nizalarik, bestea bertüteen emendatzera korajatzen dütüdalarik.

Nork ere ene hitzak dakitzalarik, mesperetxaten beitütü, harek ükenen dü azken egüean jüje garratz bat.

5. Z. O ene Jinko Jauna, zü zira ene hontarzüna oro ! Eta nor niz ni, zureki(n) bentüra nadin mintzatzera. Ni nüzü zure zerbütxari ezinago praube bat, har mesperetxatü bat, hanitxex praubeago eta mesperetxatüago, eziez beitakit, eta bentüra beineinte erraitera.

Orit zite hargatik, Jauna, ezdeüs nizala, deüs ez düdala, eta deüs ez dirodala !

⁴³³ ahalkeizügarriki : ahalkegarriki.

⁴³⁴ baratü : gelditu (kasu honetan).

Ez dügü zü baizik honik, jüstorik eta saintürrik, zük düütüzü potereak oro, zük emaiten eta betatzen düütüzü gaüzak oro, hütsik eizten ez düüzularik bekatorea baizik.

Orit zite zure pietate ükeitetzaz, eta beta ezazü ene bihotza zure graziaz, ez düzünen gaine(a)n nahi zure obrak hütsik bara ditean.

6. Nola nihauren бүрүя softeritzen ahal düт miseriazko bizitze hontan, zure miserikordiak eta graziak azkartzen ez banaie ?

Ez dezazüla ütüzül zure begitartea eneganik, ez dezazüla lüza zure bisita ; ez dizadazüla idoki zure kon(t)solazionea, beldürrez ene arima lür *hur gabez sekati bat* bezala gerta dadin.

Jauna, erakuts ezadazü zure borontatearen egiten ; erakuts ezadazü zure aitzinean ümilki eta behar den bezala bizitzen ; zeren zü beitzira ene zühürtarzüna, zük ezagutzen beinaizü nizan bezalakorik, eta mündü hau egin beno lehen, eta nihaur mündüala sortü gabe ezagütü beinündüzün.

IV. KAPITÜLÜA.

Egian eta ümilitatean, Jinkoaren aitzinean bizi behar dela.

1. B. Ene semea, egian ebil zite, ene aitzinean, eta txerka nazazü beti, zure bihotzaren sinpletarzünean.

Atakarzün (435) gaixtoetarik begiratü izanen da, nor ere egian, ene aitzinean ebilten beita, eta egiak soltatüren dü inganazale(e)tarik, eta gaixtoen mardailetarik.

Egiak libratzen bazütü, egiazko libertateaz gozatüren zira, eta ez düzü gizonen ele banoetaz axolik ükenen.

Z. Hori egia düzü Jauna, hel bekit, otoi, zük diozün bezala. Zure egiak jakintsü nazan, harek begira nazan, eta ürrentze hon batetaradrano hartan iraünerazi dizadan.

Harek libra nazan ber desirkünte gaixto orotarik, eta gaizkialat doen amoriotik, zureki(n) ebiliren nüzü, bihotzeko libertate handi bateki(n).

2. B. Nik erakutsiren deizüt (dio egiak) gaüza jüstoak eta ene gogarako direnak.

Orit zite zure bekatüetzaz dolümen eta bihotz-min handireki(n), eta ez düzüla (436) seküla uste zerbait zirela, zure obra honak direla kausa.

Egiazki bekatore zira, hanitx pasioneren pean, eta h(ai)etzaz üngüratürrik.

⁴³⁵ atakarzün : eraso, oldarra.

⁴³⁶ ez düzüla uste : ez dezazula uste izan (ukan).

Zihaurtzaz ezdeüiseala zoaza betiere, bertan erorten, bertan goitü (437) izaten, bertan nahasten, eta bertan laxü gertatzen zira.

Ez düzü glorifikaerazitzen ahal zütüan gaüzarik batere, bena bai zure бүрүа hanitx mesperetxaerazi behar deizüenik : zeren hanitxez flaküago beit-zira eziez entelega ahal beitirozü.

Ez dakizüla arren egiten düzün gaüzetarik bat ere handi üdüri.

Ez düzüla uste badela deüs handirik, deüs preziosik, deüs miragarririk, deüs fama handitakorik ; badela deüs gorarik, deüs laüdatü eta desiratü ihork behar düanik, eternitateko gaüzak baizik.

Biz egiа eternala zure gogoko, beste(e)n ororen gaintetik, eta zure zihaturen ezdeüstarzün handiak bihotza hunki diazazüla mingarki (438).

Ez dezazüla deüsentako ere hainbeste lotsa üken, deüs ere hain güti onets, deüseri ere hainbeste ihesi egin, zoina zure bekatüer, zoinek haboro dolore erakarri behar beiteizüe eziez zernahibeita (439) gaüzaren galtzeak.

Ez dira zonbait ene aitzinean egiазko bidean joaiten, bena berritzepen ikasi nahiaz eta süperbiaz (440) gidatürik, ene segretüak jakin nahi dütüe, eta Jinkoaren gaüza gorak entelegatü, bere(n) бүрүiak eta salbamentüа gibealelat eizten dütüelarik.

Bere(n) süperbiak eta ikasi nahiak hanitx tentazionetara eta bekatütara erorerazitzen dütü, ni h(ai)en ajütari ez nizalakoz.

4. Jinkoaren jüjamentüen lotsa üken ezazü, eta potere oro düanaren kole-rak ikaraerazi zitzan ; ezinago gora denaren obrak ez ditzazüla iker, bena zihaturen inikitateak xehe txerka itzazü, zonbat gaüzatan hüts egin düzün, eta zonbat hontarzün egiteko laxükeriaz eitzi dütüzün.

Bere(n) deboziona zonbaitek lib(ü)rüetan baizik ez düe erakusten, beste(e)k imajinetan, beste(e)k kanpotiko seinale eta figüra zonbaitetan.

Ardüra ahoan naie zonbaitek, bena bihotzean apürretan.

Badira beste zonbait, entelegüа düelarik argitürik eta bihotza garbitürik, beitoatza beti hatsalbotürik (441) eternitateko gaüzetarat, zoini neke beitzaiе lürreko gaüzetzaz mintzatzen entzüteа, natüra bere beharretan penareki(n) zerbütхatzen beituе : eta h(ai)ek düe borogutzen zer egiaren ezpiritüak erraiten deien.

Zeren erakusten beiteie lürreko гаүzen mesperetхatzen eta zelükoen maitatzen, mündüaz kasürik ez egiten, eta egün eta гаү oroz zelüaren desiratzen.

⁴³⁷ goitü : garaitu (biak derabilzki Maisterrek).

⁴³⁸ mingarki : saminki

⁴³⁹ zernahibeita : zernahi, edozer.

⁴⁴⁰ süperbia : hantustea, harrokeria.

⁴⁴¹ hatsalbo : hatsantua, hatsanditua.

V. KAPITÜLÜA.

Jinkoaren amorioak egiten dütüan gaüza miragarriez.

1. Z. Benedikatzen zütüt zelüko aita, Jesü Krist ene Jaunaren aita, zeren ene praubeziaz oritzeko hontarzüna üken düzün.

O miserikordien aita, eta kon(t)solazione ooren Jinkoa, esker deizüt, zeren kon(t)solazionerik batere merexitü gabe, zure kon(t)solazioneaz zonbait aldiz azkartzen beinaizü.

Benedikatzen eta glorifikatzen zütüt beti, zure seme bakoitzareki(n) eta (e)Spiritü saintü kon(t)solazaleareki(n), jinen diren tenpora ororentako.

Heia, Jinko Jaun ene maitazale saintüa, zü ene bihotzeala jin ziratekeanean, ene barnea oro boztarioz beteren düzün.

Zü zira ene gloria eta ene bihotzaren boztarioa, zü zira ene esparantxa ; zuregana hersatzen nüzü ene türbürarzünezko egünean.

Bena nola orano amorioan flakü eta bertütean hüskor beiniz, hartakoz mengua düt zük azkar eta kon(t)sola nazazün : (t)ziauri (442) arren ene bisitazera, eta erakuts itzadatzü zure jakite saintüak.

Solta nazazü ene pasione gaixtoetarik, eta sendo ezazü ene bihotza desirkünte gaizkialat daramen orotarik, amore(a)gatik barnetik sendotürik eta ontsa garbitürik, zure maitatzeko propi, soferitzeko azkar, eta honean iräüteko fermo izan ahal nadin.

3. B. Gaüza handia da amorioa, hontarzün erras baliosa, zoinek baizik ez beitü pezü dena arintzen, eta desbardin diren gaüzak bardin egarten (443).

Ezi egarten dü pezü dena pezütarzünik gabe, eta karats diren gaüzak oro ezti eta gozatsü edirenerazitzen dütü.

Jesüsen amorio indartsüak obra handien egitera bulkatzen dü, eta hobe(re)n diren gaüzen konplitzera erakarten.

Alte gainean izan nahi da amorioa, eta ez dü nahi mündü hontako gaüza apalek batek ere han baraerazi dezen.

Solt izan nahi da amorioa, eta mündü hontako desirkünte orotarik hürün, beldürrez haren barnetiko soa (444) ülünt dadin ; beldürrez orano zonbait abantaila tenporalek zerbaít nahasküra eman diazen, edo damü zonbait tek plegaerazi dezen.

Amorioa beno deüs ere ez da eztiagorik, deüs ere azkarragorik, deüs ere goragorik, deüs ere hedatüagorik, deüs ere maitagarriagorik, deüs ere beteagorik, deüs ere hobeagorik, zelüan ez lürrean : zeren Jinkoaganik sortü beita

⁴⁴² tziauri : zatoz.

⁴⁴³ egari : jasan.

⁴⁴⁴ so (iz.) : begirada.

amorioa, eta ez beitate Jinkoatan baizik pausa, gaüza kreatü izan diren ooren gainetik.

4. Maite düana beti boztarioan dabila lasterrez, hegaltaz ; solt da, eta deüsek ere ez dü baratzen.

Oro ooren emaiten dütü ; oro orotan edireiten dütü ; zeren ezinago handi den bakoitzean, gaüza ooren gainetik pausatzen beita, zointarik hontarzünak oro isuri bat bezala jiten beitera.

Ez dü gaüza emanari sorik (445) egiten, bena emaileaganat, gaüza ooren gainetik ützültzen da.

Amorioak ardüran ez dü baragailürrik batere ezagützen, bena haren herakia (446) badoa bara ahal liroioren gaüzzen ooren gainetik.

Amorioak ez dü pezütarzünik senditzen, tribailüak ez zaitzo penos ; ahal diroan beno haboro egin nahi lüke, ez dü ezin eginen gaine(a)n soltantxarrik galtatzen, zeren uste beitä gaüzak oro ehi eta sorü zaitzola.

Hon da arren gaüza ororentako, eta hanitx eragiten dü, maite düanak hütsik egiten eta korajea galtzen ez badü.

5. Amorioa iratzarririk dago, eta lo dagoelarik ere ez da lotzen ; tribailatzeak ez dü einetzen (447), tinkatzeak ez dü hersatzen, lotseriak ez dü nahastzen ; bena goiti doa sügar bizi bat bezala, eta deüsek ere baratü gabe, orotan gainetik igaraiten da.

Maite düanak badaki zer erran nahi düan lenguaje honek.

Oihü handi bat da Jinkoaren beharrientako, arima süs bete batek dioianean : ene Jinkoa, ene amorioa, zü oro enetako, eta ni oro zuretako.

6. Z. Larga nazazü amorioan, bihotzaren erditik gogutzen ikas dezadan zoinen ezti den maitatzea, eta amorioan hurtzea eta igerikatzea.

Amorioak har nazala, haren bizitarzünak nihaur beno gorago boztarioz joanerazitzen naialarik.

Kanta dezadan amoriozko kantikoa, zuri zelüalat, ene maitea, jarraiki nadin, boztariozko amorioak ene arima zure laütorioetan engoxaerazi dezan.

Maita zitzadan nihaur beno haboro, eta nihaur ez zure amore(a)gatik baizik : bai aldiz zü egiazki maite zütüenak oro, zütan, amoriozko legeak, züganik bere argia ükeiten düanak, manü ükeiten düan bezala.

7. B. Amorioa laster (448) da, egiati (449), debot, ezti, eta maitagarri : hura azkar da, pazient, fidel, abisatü, lüzaz iraüle (450), korajos, eta ez seküla berauren txerkazale.

⁴⁴⁵ so egin : begiratu, behatu (*Lap. eta Naf.*).

⁴⁴⁶ heraki : (iz.). Irakia, irakitan dagoena.

⁴⁴⁷ eine (*einbe*) : akitu, nekatu, unatu.

⁴⁴⁸ laster (izond.) : zalua, agudoa.

⁴⁴⁹ egiati (izond.) : egiazalea.

⁴⁵⁰ iraüle : iraunkorra.

Ezi zertan ere norbaitek bere bürüa txerkatzen beiti, hartan berean amorioa galtzen dü.

Amorioa orotarat so egile da, apal da eta xüxen : ez da laxü, ez arin, ez gaüza banoer gogoia emaile ; sobre (451) da, kasto, fermo, pausüzko, eta zentzü orotan ontsa begiratü (452).

Amorioa gehienen manüpean eta obediendzian egoile da, berauri txar eta mesperetxagarri da, Jinkoari debot eta esker emaile, hartan beti esparantxa eta konfidantxa ezarten düalarik ; are (453) gütienik Jinkoa gozatzen düan denboran, zeren ez beita amorioan bizitzerik dolore gabe.

8. Gaüza ororen soferitzera, eta bere maitearen borontatearen egitera prest ez denak, ez dü merexitzen maitazalearen izenaren ükeitea.

Maite düanak behar düti, bere maitearen amore(a)gatik, gaüza gaitz eta karats direnak oro gogo honez besarkatü, eta hare(n)ganik ez dü behar hür-rüntü, nahi ez dütiän gaüzen jiteagatik.

VI. KAPITÜLÜA.

Egiazko maitazalearen borogatzeaz.

1. B. Ene semea, ez zirade orano maitazale azkar eta abisatü bat.

Z. Nolaz Jauna ?

B. Zeren eta zük nahi ez zünükean gaüza txipi batek, hasi dütüzünak eitzerazitzen beiteitzü, eta sobera süreki(n) kon(t)solazionea txerkaerazitzen.

Maitazale azkar bat fermo dago tentazione(e)tan, eta etsaiaren ele inganiosetan ez dü sinisterik ezarten : hala nola bere gogara doazkon gaüzetan plazer egiten beiteiot, orobat desplazerik ez deiot egiten, nahi ez düan bezala joaiten zaitzoenetan.

2. Maitazale abisatü batek ez dü hain so egiten maite düanaren emaiteari, nola emailearen amorioari.

Haboro peretxatzen dü amorioa eziez profetiüa, eta emaiten zaitzon gaüzak oro beno preziatüago zaio bere maitea.

Maitazale noble bat ez da gaüza emanean, bena bai nitan eman ororen gainetik pausatzen.

Ez dükezü oro galdü, nitzaz edo ene saintüetzaz nahi zünükean bezain sendimentü honik ez ükenik ere zonbait aldiz.

⁴⁵¹ sobre : jan edanetan zuhurra.

⁴⁵² begiratü (izond.) : zaindua.

⁴⁵³ are : oraino gehiago, edo hainbat gutiago.

Bihotzean zombait ordüz senditzen düzün gozoa eta ezttarzüna, presenteko graziaren obra düzü, eta aitzinetiko zelüko plazeren txestailü (454) bat, zointan ez beita behar sobera bermatü, zeren joaiten eta jiten beita.

Bena bertüte eta mereximentü handi baten seinalea da, ezpiritüaren zotükü gaixto jiten direnen kontre egitea, eta debrüaren gaizkiala erorerazitzeko egiten dütüan iseien mesperetxatzea.

3. Ez zitzela arren nahas eta deskoraja, zernahibeita gaüzatan gaine(a)n, jiten zaitzün üdüripen araur gabe(e)k.

Begira ezazü fermotarzün azkar bat, eta Jinkoaganat inten(t)ziona xüxen bat.

Ez dükezü üdüripen bat, zure ezpiritü zombait aldiz bat-batetan zelüalat igaiten balin bada, eta gero ber(e)hala ützültzen ohiko bihotzaren inoxenkerietara.

Ezi hurak erakarten dütüzün beno lehen, bortxaz softeritzen dütüzü ; eta desplazer egiten deizüeno, eta h(ai)en atakatzera iseiatzen zireno, ez dükezü zuretako perdiziona bat, bena bai mereximentü bat.

4. Jakin ezazü ezi etsai zaharrak egin ahala oro egiten düala, zuri zure honealako desirküntearen galerazitzeko ; eta deboziona orotarik, erran nahi beita saintüen ohoratzetik, ene pasione saintüaren gogotik ez ützetik, bekatüen orimentxa honetik, zihauren bihotzaren begiratzetik, eta bertütean aitzina joaitetik hartü düzün desein fermotik hürrünterazitzeko.

Saldoa pentsamentü gaixto (455) erakarten deizü, debeiaerazi eta izi (456) zitzan amore(a)gatik, eta zure orazionetik eta irakurte saintütik apar-
taerazi zitzan.

Desplazent ziozü kofesione ümila, eta ahal baleza komüniazzetik ere baraerazi zintzake.

Ez dezazüla sinets, ez eta ere harez axolik üken, zombat-nahibeita ardüra hedatü deitzün inganizko lazoak.

Noiz ere gaüza gaixtoak eta teiak ezpiritüala erakarten beiteitzü, igor itzazü beraurganat. Erran ezazü : abiloa ezpiritü teia, ahalke (h)adi misera-blea, abiloa hi teiüz, holako gaüzak ene beharrietara erakarten dütüanean.

Aparta (h)adi eneganik inganazale ezinago gaixtoa, ez dük ükenen nitan parterik : bena Jesüs dükek eneki(n), gerla egile azkar bat bezala, eta hi baratüren (h)iz ahalkez beterik.

Nahiago nük hil, eta pener orori ene büria prestatü, eziez hiri behatü.

⁴⁵⁴ txestailü : dastatzekoa.

⁴⁵⁵ saldoa pentsamentü : pentsamendu saldoa, andana.

⁴⁵⁶ izitü : izutu.

Isil (h)adi, mütü (h)adi, ez nitzaik haboro behatüren, zonbat ere hanitx stürlünkü emaiten be(i)teitak.

Jinkoa da ene argia eta ene salbamentüa, noren lotsa izanen niz ?

Lizan erdian armada bat ene kontre prestatürrik, ene bibotzak ez dü lotsarik ükenen : Jinkoa da ene ajütüa eta ene salbazalea.

Gerla egizü soldado hon batek bezala : eta zure flakeziak zonbait aldiz erorerazitzen bazütü, har ezazü indar lehenekoak beno handiagorik, ene grazia handiago batetan fidatzen zirelarik, eta ontsa begira zite banaloriatik eta süperbiatik.

Hori dela kausa, hanitx jente egiatik herratzen dira, eta ütsümentü kasi(k) ezin sendotzen den batetara zonbait aldiz erorten.

Süperbios bere(n) bürüetan sobera konfidantxa eroki hartzen düenen erorte haur, zerbütxa bekizü betiere goaitan eta ümilitatean zure bizierazitzeko.

VII. KAPITÜLÜA.

Ümilitatearen begiraren pean graziaren estaltzeaz.

1. B. Hobeago eta segürago düzü zuretako, ene semea, estal dezazün debozionearen grazia, hartzaz ez zitean handi, ez hanitx mintza, ez hura hanitx peza ; bena behar düzü lehenago zure bürüa mesperetxatü, eta lotsa izan zük merexitü gabe eman izan zaizüla.

Ez da behar sobera bürüneriareki(n) (457) debozione ber(e)hala gaizkiala ützültzen ahal denari estekatü.

Grazian zirenean orit zite hura gabe zoinen praube eta miserable kostümatü düzün izatera.

Bizitze espiritüalaren profeitüa ez diagozü solamentz (458) kon(t)solazionearen graziaren ükeitean, bena orano haren idokitzearen ümilki, pazientki, eta bere bürüaz kontürrik batere egin gabe (h)onestean, gisa batez non ez zitean laxa orazionearen estekamentütik, eta ez ditzazün ütüz erras galtzera beste obra egitera üsatü züntüanak.

Bena gogo honez zütan dena egin dezazün hobekien ahal edo uste düzün bezala, eta ez zitean osoki laxa, idortarzün edo erreüstarzün ezpiritüan senditzen düzüna kausa.

⁴⁵⁷ bürüneria : tema, setakeria, hisia, egozkorkeria, bürütuskeria.

⁴⁵⁸ solamentz : bakarrik, bakoizki.

2. Ezi (459) hanitx jente badira gaüzak bere(n) gogara joaiten ez zaitzen besain sarri (460), erreüs edo laxü gertatzen beitura.

Gizonaren bidea ez da beti haren poterean, bena Jinkoari da eman haren gidatzea eta kon(t)solatzea plazer düanean, plazer düan beza(i)nbat eta plazer düanari üdüri zaion beza(i)nbat, eta ez haboro.

Zonbait bere(n) bürüer gogoa apür emaile, debozione soberak galerazi üken dütü, zeren ahal ziroien beno haboro egin nahi üken beitu, izartü (461) faltaz bere(n) apürtarzüna, eta nahiago izanez lehenago jarraiki bere(n) bihoztaren süiari, eziez arrazuaren jüjamentüari.

Eta Jinkoari plazent zeion beno haboro banoki egin nahi üken düelakoz, hartakoz grazia galdü üken düe.

Zelüaladrano goratü nahi izan direnak, praubetü izan dira, eta txarretako ützi : amore(a)gatik ümiliatürik eta praubetürik ikas dezen, ez bere(n) hegalatzaz hegaltatzen, bena bai ene hegaletan esparantxa hartzen.

Jinkoaren bidean orano berri eta deüs ikasi gabe direnak, ez balin badira zühürren kon(t)seilüaz gobernatzen, ehiñera inganatü eta galdü izaten ahal dira.

3. Nahiago balin badira bere(n) sendimentüari jarraiki, eziez beste zerbait dakienak sinetsi, h(ai)entako azkentzea lotsagarri izanen da, bere(n) sendimentü hartütik gibeltü nahi ez badira.

Bekanki (462) bere(n) bürüak beste(e)r ümilki gobernatzera eizten dütüe beraurtzaz pakü direnek, eta zühür direla uste düenek.

Hobeago da zühürtarzün apür bat ümilitateareki(n) eta entelegü txipi bateki(n), eziez jakite(e)n le(i)ze (463) handiak banaloriareki(n).

Hobe düzü zuretako gütiago düzün, eziez hanitx, superbioserazi ez zit-zan.

Ez da aski zühürki gobernatzen, bere bürüa osoki alagrantzari emaiten düana, ahazten düalarik bere leheneko praubezia, eta Jinkoaren lotsa kastoia, zoin beldür beita grazia eman izan zaiona gal dezan.

Ez dü orano bertütearen gozoa zer den aski ezagützen, gaitzen edo zerna-hibeita sterlünküren (464) tenporan aski esparantxa gabe gobernatzen denak, eta behar lükean konfidantxareki(n) bere pentsamentüak eta orimentxak eneganat hedatzen ez dütüanak.

⁴⁵⁹ ezi : ezen.

⁴⁶⁰ bezain sarri : bezain laster.

⁴⁶¹ izartü : neurtu.

⁴⁶² bekanki : bakanki.

⁴⁶³ leze : leizea.

⁴⁶⁴ sterlünkü : esterlünküa, ezbeharra, nahigabe larria.

4. Nor ere bakean denean, següregi izan nahi beita, hura atakarzünen tenporan bihotz apalegi eta lotsorregi ediren izanen da.

Bazeneki betiere txipi eta ümil zihaur beitan egoiten, eta zure ezpiritüaren ontsa apaltzen eta gobernatzan, ez zinteke hain laster danjereala (465) eta bekatüala eror.

Kon(t)seilü hon bat zuretako düzü, debozionearen süa ezpiritüan piztü zaikezünean, pentsa dezazün zihaur beitan zer ziratekean argi haren joan ondoan.

Hori heltü datekeanean, gogoan etxeki ezazü (h)ar(t)zara argia ützültzen ahal dela, zoin tenpora apür baten idoki üken beität, amore(a)gatik zü abisatüago izan zintean, eta nihauren gloria hobeki ediren nezan.

5. Abantailosago düzü ardüran holaxe borogatü izatea, eziez gaüzak beti zure gogara nahi bezala bazüntü.

Ezi mereximentüen hontarzüna ez dago kon(t)solazione edo zelüko ikuste habororen ükeitean, ez eskriptüran jakitos izatean, ez lekü gorago batean ezarri izatean, bena bai egiazko ümilitatearen fundamenean, zelüko karitateaz beterik izatean, Jinkoaren ohorearen, nahaspillarik gabe, eta osoki txerkatzean ; bere büriaren ezdeüsentako etxekitean eta haren egiazki mesperetxatzean eta plazer ükeitean, zeren beste(e)z mesperetxatü eta ümiliatü den lehenago, eziez ohoratü.

VIII. KAPITÜLÜA.

Jinkoaren aitzinean bere büriaren txarretako igarenerazitzeaz.

1. z. *Mintzatüren niza ene Jaunari, hauts eta errauts baizik ez nizanen gaine(a)n ?*

Deüs haboro ene büriä etxekitzen badüt, haur zirela zü, ber(e)hala ene kontre, eta ene inikitateek egiazko jakilegoa bat ekarten düe, eta haren kontre ez naite joan.

Bena nihauren büriä txarretako eta ezdeüs batentako hartzen badüt, nihauren peretxü propi orotarik bilaizten balin baniz, eta nizan bezala erraus-ten baniz, badikezüt zure grazia ajütari, eta zure argia ene bihotzealat hüllantüren (466) düzü ; eta zonbat-nahibeita txipi den nihauren düdan peretxüa, ene ezdeüstarzünean itoren eta galdüren düzü sekülakoz.

Han erakusten naizü nihuri zer nizan, zer izan nizan, eta zer püntütara jin nizan : zeren ezdeüs beiniz, eta ez beinekian.

⁴⁶⁵ danjer (*danger*) : arriskua.

⁴⁶⁶ hüllantü : hurrandu, hurbildu.

Nihauri eitzia baniz, haur nizala ezdeüs eta oro flakezia : so lehiatü bat aldiz egiten badeitazü, ber(e)hala azkartzen eta alagrantzia berri batez betatzen nüzü.

Eta ontsa estonatzen (467) nüzü nola hain tenpora llabürretan solajutzen (468) eta hain eztiki besarkatzen naizün, ni nihauren pezüak beti behera bulkatzen naiana.

2. Hori zure amorioaren obra düzü, zoin nik deüs egin bage (469), enegant jiten beita hainbeste beharretan sokorritzen naialarik, pasü (470) gaixtoenatarik ere begirutzen, eta egiaren erraitera, ezin konta ditakean gaitzetarik soltatzten naialarik.

Nihauren бүрүären gaizki maite ükenez, nihaur galdü izan nüzü, eta zure zihauren txerkatzez eta xahüki maitatzez, zu ediren zütüt, eta nihaur ere bai, eta zureganako amorioak nihauren ezdeüstarzünean barna beno barnago sarrazazi nizü.

Zeren zük enetako, o ezinago ezti zirena, nik merexi beno haboro hontarzüin beitzüzü, eta esparantxa ükeitera, edo zuri galtatzera bentüra neitean beno hanitzez haboro.

3. Benedikatü zirela, ene Jinkoa, zeren zonbat ere hontarzünik ez beität merexi, hare(n)gatik zure largo eta hon izate mügagabeak tai(ri)k ez beität seküla hartzen, ezagützerik karreiatzen ez düaner ere, eta zureganik hürrüntü direner honki egiteko.

Ützül gitzazü zureganat, amore(a)gatik üken dezagün ezagützea, izan gitean ümil eta debot ; zeren zü beitzira gure salbamentüa, gure bertütea eta gure azkartarzüna (471).

IX. KAPITÜLÜA.

Gaiüzek orok Jinkoaganat, azken ürrentzealat (472) bezala, joanerazi behar düela.

1. B. **Ene** semea, egiazki dohatsü izatea desiratzen badüzü, nik behar dit izan zure azken müga.

Inten(t)ziona honek xahatüren dizü zure bihotza, zoin beraurganat eta kreatüretarat ardürago okertürük beitagö.

⁴⁶⁷ estonatü : harritu/tü.

⁴⁶⁸ solajatü : arindu, eztitu (lana, mina).

⁴⁶⁹ bage : gabe.

⁴⁷⁰ pasü (phasü) : hesiko pasarte.

⁴⁷¹ azkartarzüin : indarra.

⁴⁷² ürrentze : amaiera, bukaera.

Ezi zure bürüa zer baitetan txerkatzen badüzü, ber(e)hala gaizki edireiten eta idortzen zira.

Oro arren eneganat lehenik, eta bürütik erakar itzazü, zeren ni beinüz gaüzak oro eman deitzüdana.

Pausüz ikus itzazü oro bederakarka (473), hontarzün ezinago handitik jalkiak bezala ; eta hartakoz orok eneganat bere(n) ütübürüalat bezala erakarri behar dizüe.

2. Eneganik, ütürri bizi batetarik bezala, txipiak eta handiak, praubeak eta aberatsak, hur bizi bat hartzen düe ; eta nor ere ene zerbütüan gogo honez eta bolontarioki jarten beitira, h(ai)ek grazia graziarentako ükenen düe.

Nor ere aldiz nitarik kanpo glorifikatü, edo hon propi zombaitetan alageratü nahi beitateke, hura egiazko alagrantzian eta bihotzeko plazer langoan ez da izanen ; bena hanitx gisaz nahasküretan eta hersidüretan izanen da.

Ez düzü behar arren deüsere hontarzünik zihauri eretxeki, eta ez dezazüla bertütea zoin- nahibeita gizoni eman, bena oro Jinkoari, zoinen sokorria gabe deüs ere ez beitü gizonak.

Nik oro eman zitit, nik zirena oro nahi zütüt, eta garraztarzün handi bateki(n) eskerrak galtatzen zitit.

Haur da egia, zointzaz gloriaren banitatea akazatzen beita.

Eta behin zelüko grazia eta egiazko karitatea sartzen badira bihotz baitan, han ez dateke ez inbidiarik, ez bihotz hersidürarik, eta amorio propia ez da bür(ü)zagitüren.

Ezi Jinkoaren karitateak oro garaitzen dütü, eta arimaren indarrak oro largetzen.

Ontsa zühür bazira, nitan baizik ez zira alageratüren, nitan baizik ez düzü esperantzarik ükenen ; zeren *Jinkoa bera baizik ez beita ibor honik*, zoinek gaüza ooren gainetik laüdatü eta benedikatü izan behar beitü.

X. KAPITÜLÜA.

Gaüza ezti bat dela, mündüa mesperetxatürük, Jinkoaren zerbütüan izatea.

1. Z. Oräi (h)ar(t)zara mintzatüren nitzazü, Jauna, eta ez nüzü isilik egonen ; mintzatüren nüzü ene Jinkoaren, ene Jaunaren, ene errege zelüan denaren beharrietara.

⁴⁷³ bederakarka : bederazka, bakarka, banaka.

Ala beita handi, Jauna, zure lotsa düenen, begirutzen düzün eztitarzünaren hanixtarzüna, bena zer zira zü maite zütüenentako ? Zer bihotz osoz zerbüttxatzen zütüenen ?

Ihola ere ezin erraiten ahal den bezalako düzü zure ezpiritüz ikustearen eztitarzüna, zoin maite zütüener largoki emaiten beitzü.

Orotan gainti erakutsi deitazü zure karitatearen eztitarzüna, ezdeüs nintzalarik egin üken naizünean, eta zureganik hürrün herratürük nanbilanean, zihaurganat erakarri naizünean, zerbütxa zintzadan amore(a)gatik, eta zure maite ükeiteaz manü eman deitazünean.

O amorioaren ütürri ezin agort daiteana, zer erranen düt zützaz ?

Nola ahaztera ützen ahal zütüt, nitzaz oritzeko hontarzüna üken düzünen gaine(a)n, nihaurk orano ene arima teiü eta gal ondoan ?

Pietate üken düzü zure zerbüttxariaz, ihontik ere esparantxa ükeiten ahal züan beno haboro ; eta zure grazia eta adiskidegoa erakutsi deitzozü harek ihola ere merexi züan beno hobeki.

Zer grazia honen ordari (474) emanen deizüt ? Ezi ez düzü orori eman izan gaüzak oro eitzirik mündü honi adio erraitea, eta komentüetako bizitzearen besarkatzea.

Gäüza handi bat deia zü zerbütxa zitzadan, beste kreatürak oro zure zerbüttxazera bortxatü direnen gaine(a)n ?

Ez zitazü üdüri izan behar zure zerbüttxatzea gaüza handi bat dela ; bena lehenago üdüri zitazü gaüza handi eta miragarri bat dela üken dezazün hontarzüna, hain praube eta merexi gabe bat har dezazün zure zerbüttxaritako, eta jünta dezazün zure maite(e)kılan.

3. Nik dütüdan gaüzak, eta zure zerbüttxatzeko emaiten deitazün moldea, oro zureak dütüzü.

Bena hare(n)gatik zure aldian, zük ni haboro zerbüttxatzen naizü, eziez nik zü.

Hoiek dütüzüla zelüa eta lürra gizonaren zerbüttxüko kreatü dütüzünak, prest beitaude, eta egün oroz egiten beitzü zük manü emaiten deiezüna.

Bena hori gaüza apürra düzü ; aingürüak ere orano gizonaren zerbüttxüko bere(n) heinean ezarri dütüzü.

Horik oro beno haboroago dena düzü aldiz zihaurk düzün gizonaren zerbüttxatzeko hontarzüna, eta hari hitzemaitea zihaturen bürüa emanen deiozüla.

4. Zer emanen deizüt egin deiztatzün hontarzün hoioren orentako ? Ah zerbütxa ahal bazintzat ene menteko egün oroz !

Ah egün bakoitx batez ere zerbütxa ahal bazintzat zük merexi düzün bezala !

⁴⁷⁴ ordari : ordaina, ordainez.

Egiazki zük merexi dütüzü zerbütüak oro, ohoreak oro, eta laütorio eternal bat.

Egiazki zü ene Jauna zira, eta ni zure zerbütüxari praubea, ene indar oroz zü zerbütüxatü behar züntükedana, eta zure laütorioetan seküla debeiarzünik hartü behar ez nükeana.

Hala nahi dit, hala desiratzen dit ; bena nik ments dütüdanen ororen süplitzeko (475) ükazü hontarzüna.

5. Ala beita ohore eta gloria handia zure zerbütüxatzea, eta zure amore(a)gatik beste gaüza ororen mesperetxatzea !

Ezi nor ere gogotik zure ezinago saintü den zerbütüxüaren pean jarten beirtira, h(ai)ek ükenen dizüe grazia handi bat.

Nor ere zure amore(a)gatik, aragiaren plazer orotarik hürüntü beirtirake, h(ai)ek edirenen dizüe espritü saintüaren ezinago ezti den kontsolioa.

Nor ere zure izenetan bide hersian jarten beirtira eta müdüko arranküretzaz bilaizi beirtirake, h(ai)ek jardietsiren dizüe ezpiritüzko libertate handi bat.

6. O Jinkoaren zerbütüxü eder eta maitagarria, zoinek gizona saintützen eta libertatean ezarten beitä.

O (er)relijiosen izatearen mitilgoa sakratüa, zoinek gizona ezarten beitä aingürüen pare, Jinkoaren apaisazale (476), debrüen lotsaerazizale, eta arima fidel orori laüdable.

O zerbütüxü besarkatü eta beti desiratü behar günükeana, zointzaz merexitzen beitä ihork hontarzün ezinago handia, eta jardiesten alagrantzia beti iraünen düana.

XI. KAPITÜLÜA.

Behar dütüala ibork bere bihotzeko desirak ontsa ikertü, eta xüxentü.

1. B. Oraidrano ontsa ikasi ez dütüzün hanitx gaüza behar dütüzü, ene semea, orai ikasi.

Z. Zoin dira hurak, Jauna ?

B. Zure bihotzeko nahiküntea osoki eni plazent den bezala ezar dezazün, ez zitean izan zure bürüaren maitazale, bena ene borontatearen egitera sü handireki(n) iseia zitean.

⁴⁷⁵ süplitü : ordezkatu, hutsunea bete.

⁴⁷⁶ apaisazale : baketzalea, eztizalea.

Ardüra zure nahikün(e)k gortzen (477) eta pusatzen (478) zütüe ; bena gogoa emazü eia ene ohoreak, ala zihaturen abantailak haboro bulkatzen zütüan.

Ni nizala kausa bada, kontent izanen zira, nola-nahibeita gaüzak jinerazi ditzadan ; bena zerbait zihaturen profetitük estalirik balin bada, harek nahas-küraz eta pezütarzünez betatzen zütü.

2. Gogoa emazü arren, sobera konfidantxa har ez dezazün aitzinetik, ene gogorik jakin gabe hartü zünüan desirkün(e)tean, beldürrez gero dolü dakizün, edo lehen plazer egiten zeizün gaüzak, eta hobeago ustez lehiatüki egin nahi zünüan, gerotik desplacer egin dizazün.

Ezi ez dizü behar ihork jarraiki bihotzeko desir hon üdüri diren orori, ez eta ere hargatik ber(e)hala akazatü gaixto üdüri direnak ere.

Hon da zombait ordüz estekamentü eta desirkün(e)te honen ere bridatzea, beldürrez h(ai)en üsüegi (479) jiteak ezpiritüa barreaerazi dizazün, edo zure aski begiratü izan gabeak, besteak bekatüala erorerazi ditzan, edo orano beste(e)n zuri bühürtzeak, zihaur nahas eta erorerazi zitza.

3. Zombait ordüz (480) aldiz, behar da bortxareki(n) eta korajereki(n) aragiaren nahikün(e)n kontre bühürtü, eta ez gogorik eman zer nahi düan, edo zer ez düan nahi, bena eginahala oro egin, amore(a)gatik nahi bada eta ez, ezpiritüaren pean izan dadin.

Eta gaztigatü (481) eta esklabajean egoitera bortxatü behar dü, gaüza orotara prest izan dadin arteo, eta ikas dezan arteo apürrez pairatzen, gaüza arrunten maitatzen, eta berauri plazent ez zaionaz ez murmuzeiatzen.

XII. KAPITÜLÜA.

Pazentziaren bere püntüala ezarteaz, eta aragiaren nabikün(e)n kontre borrokatzeaz.

1. Z. Eskierki (482), ene Jinko Jauna, pazentziaren ontsa mengoa handia dizüt : ezi nik nahi ez düdanik hanitx gaüza, ene mentean (483) heltzen zitadazü. Ezi zernahibeita gisaz, bakearen ükeitera iseia nadin, ez ditezü ene bizitza gerla eta dolore gabe izan.

⁴⁷⁷ gortü : *du* ad. Goritu : zinez berotu, argitsu egin arte.

⁴⁷⁸ pusatü : bulkatu, bultzatu.

⁴⁷⁹ üsü : usu, maiz, sarritan.

⁴⁸⁰ zombait ordüz : zenbait aldiz, kasu batzuetan.

⁴⁸¹ gaztigatü : zigortu.

⁴⁸² eskierki : eskuarki, segurki.

⁴⁸³ mente : denbora.

B. Hala düzü, ene semea, bena ez dit nahi tentazionerik gabe den, edo nahi ez düan gaüzarik borogutzen ez düan bake bat txerka dezazün.

Bena ordüan berean, uste üken dezazün bakea edirenen düzüla, noiz ere hanitx türbürarzün suertez (484), eta hanitx nahi ez düzün gaüzaz borogatü beitzirateke.

2. Erraiten badüzü ez dirozüla hanitx soferi, nola ordüan soferitüren düzü pürgatorioko süia ?

Bi gaitzetarik txipiagoa ihork behar dizü beti haütatü.

Amore(a)gatik arren eternitateko süplizio gero jinen direner ihesi egin ahal dezazün, iseia zite, Jinkoaren amore(a)gatik, oraiko gaitzen pazentzia handi bateki(n) soferitzera.

Uste düzüa mündü honi estekatürik daudean gizonek, deüs edo apür baik ez düela soferitzeko ? Ez ziniro bat ediren, txerka zintzan ordüan mündü hontako aiseziak.

Z. Bena aments badizüe plazer hanitx, eta bere(n) nahikeriak egiten ziti-züe, eta hartakoz apür senditzen zitizüe bere(n) türbürarzünak.

3. B. Nahi dit dütüen gogoala jiten ahal zaitzen gaüzak oro : bena zonbat tenporaz uste düzü iräünen düela ?

Mündüan asezia direnak, kea bezala galdüren dütüzü, eta plazer igarenez ez dizüe orimentxarik batere ükenen.

Haboroz haboro lürrean direno ere, ez dütüzü h(ai)etzaz gozatzen karastarzün eta lotsa gabe.

Ezi zoin gaüzatan ere beraurien plazera edireiten beitüe, hartarik berauririk ardüra dolorearen penak ükeiten zitizüe ; eta hori jüstoki heltzen ziezü, amore(a)gatik behar ez den gisa bere(n) plazerak txerkatzen, eta h(ai)er jarraikiten direnak, h(ai)etzaz ahalke eta karastarzün gabe ez ditean goza.

4. Ala beitira plazer hurak, direnak oro, labür, faltsü, gaixto, eta ahalkezün.

Bena hare(n)gatik, h(ai)etarik jiten diren nahaskürak eta ütsümentüak ez deitze ützen ezagützera ; bena abere mütü elibat bezala, badoatza arimaren perdizioneala, bizitze gastatü honen plazer txipi bat dela kausa.

Ez zoazala arren, ene semea, zure aragiaren nabikünte(e)n ondoan (485), eta gibel zite zibauren borontatik. . . Alagera zite Jinkoatan, eta emanen deitzü zure bibotzaren galtoak (486).

⁴⁸⁴ suerte : mota.

⁴⁸⁵ ondoan : *hemen* ondotik, atzetik, gibeletik.

⁴⁸⁶ galto : galdea.

5. Ezi egiazki alageratü nahi bazira, eta kon(t)solio largorik eneganik üken, mündüko gaüzak mesperetxatzen eta lürreko plazerak oro zihaurganik hürürntzen dütüzularik, benedikatü izanen zira, eta kon(t)solio largorik emanen zaizü.

Eta zonbatenez hürürntürenago beitzira kreatüra ororen kon(t)solazionetik, ha(i)nbatenez nitan edirenen düzü eztiagorik eta azkarragorik.

Bena ez zira ber(e)hala h(ai)etara heltüren, zonbait tristezia eta zure bürüaren kontre zonbait borroka soferitü gabe. Jarriren zaizü aitzinean kostüma zahar, zütan herroak barna egin dütükean bat, bena hobea batez goitüren düzü.

Murmuzeiatüren dizü aragiak, bena ezpiritüaren debozione süz beteaz bridatüren düzü.

No(i)zbaiko süge zaharrak territatüren (487) eta kexaeraziren zütü, bena orazioneaz ihesi derezatüren (488) düzü ; bestalte ontsa tribailatzeaz sarküra handi bat zerratüren deiozü.

XIII. KAPITÜLÜA.

Jesü Kristen etsenplüala, zerbütüxari ümil batek üken bebar düan obedientziaz.

1. B. Ene semea, nor ere obedientziatik jalkitzera iseiatzen beita, harek bere bürüa graziatik jalkierazitzen dizü, eta nork ere hon berezi bat üken nahi beitü, harek galtzen dütü komünak.

Bere gehienaren (489) pean bolontarioki eta gogo honez jarten ez denak erakusten dü ez dela orano osoki aragiaren bür(ü)zagitü, bena ardüra ostikatak (490) emaiten deitzola, eta murmuzeiatzen zaiola.

Ikas ezazü arren zure gehienaren pean bertarik (491) jarten, zük nahi düzüneala plegaerazi nahi badüzü zihauraren aragia.

Ezi bertanago (492) ihork garaitzen dizü kanpotiko etsaia, barnetiko debozionea eskerniatü ez bada.

Ez düzü etsai greügarriagorik ez gaixtoagorik zure arimaren, eziez zihaur beitzira, ezpiritüareki(n) bakean ez zireno.

⁴⁸⁷ territatü : zirikatu.

⁴⁸⁸ derezatü : drezatu/tü, hezi, zuzendu.

⁴⁸⁹ gehien (iz.) : buruzagia.

⁴⁹⁰ ostikata : ostikada, ostikoa.

⁴⁹¹ bertarik : bertan, berehala.

⁴⁹² bertan : berehala.

Behar düzü zure bürüaren egiazko mesperetxü oso bat hartü, aragia eta odola beno azkarrago izan nahi balin bazira.

Sobera zure bürüa behar ez den bezala maite düzülakoz orano, hartakoz ikaratzen zira besteren borontatearen osoki egiteaz.

2. Bena gaüza handia deia, zü errauts ezdeüs baizik ez zirenen gaine(a)n, Jinkoaren amore(a)gatik, beste gizon baten esküpean jarten bazira ? Ni nizarik potere oro düana, eta goren gorenik dena, gaüzak oro ezdeüsetarik egin düütüdana, zure amore(a)gatik gizonaren pean ümilki jarri nizanean ?

Besteak oro beno ümilago eta apalago jarri nüzü, amore(a)gatik zük zure süperbia ene ümilitateaz garait zenezan.

Ikas ezazü errauts zirena obeditzen. Ikas ezazü ümiliatzen, lür eta lohi zirena, eta beste(e)n ororen hoinpetan izaten.

Ikas ezazü zihaturen borontatearen ez egiten, eta noren-nahibeita manüpean jarten.

3. Kexa zite zihaturen kontre, eta ez dezazüla ütüz ürgüilüaren hankürotxa (493) zütan bizitzera ; bena hain txipi eta ororen petiko erakutsazü zure bürüa, non oro zure gaisetarik ebil ahal ditean, eta karriketako lohia bezala, hoinpetan erabil zitzen. Zer dükezü plainitzeko, o gizon ürgüilütsüa ?

Zer düzü, bekatore teia, zuri mehatxü egile(e)n kontre erraiteko düzüna, hainbestetan Jinkoa ofen(t)satü eta ifernüa merexitü düzüna ?

Bena parkatü deizü ene begiak, zeren zure arima ene aitzinean prezios izan beita, amore(a)gatik ezagüt zenezan ene amorioa, eta ene honki eginer karreia zenezan beti zure ezagützea (494).

Eta amore(a)gatik beste(e)n pean eta ümilitatean tai(ri)k gabe jar zintean, eta pazentziareki(n) zuri eginen zeitzüen mesperetxüak soferi zintzan.

XIV. KAPITÜLÜA.

Behar düela Jinkoaren jüjamentü estaliek lüzaz pezatü izan, gibahren obra bon uste(e)k ürgüilütsüerazi ez gitzen amore(a)gatik.

1. z. Entzünerazitzen deiztadatzü, Jauna, zure jüjamentüak, irur(t)ziri (495) herots bat bezain azkarki ; ene ezürak lotsaz eta ikaraz betatzen düütüzü, eta ene arima izieri (496) handi batetan diagozü.

⁴⁹³ hankürotxa : hantura (hanküra) txikia.

⁴⁹⁴ ezagützea karreiatü : errespetatu.

⁴⁹⁵ irurziri : irurtziria, ortzia.

⁴⁹⁶ izieri : izualdia, izua.

Baniagozü espantatürik (497), eta ikusten dit zelüak ere ez direla xahü zure aitzinean.

Aingürüer parkatü ez badüzü h(ai)en gaixtokeriaren ediren ondoan, zer izanen da nitzaz ?

Izarrak zelütik erori dütüzü, eta nik, errauts baizik ez nizanen gaine(a)n, zer esparantxa ükenen düt ?

Obrak laüdable (498) zütüela üdüri züenak erori izan dütüzü lekürük apaleneala, eta ikusi zitit aingürüen ogiaren jaleak, urde(e)ntako ziren magitxen (499) jatez plazer hartzen.

Ez düzü arren saintütarzünik batere Jauna, zük zure esküa zihaurganat tiratzen badüzü.

Ez düzü zühürtarzün profetablerik, zure gobernüa baratzen bada.

Ez düzü azkartarzün hon denik, zük sünstengatü gabe eizten badüzü.

Ez düzü xahürtarzün segürük, zük hura begiratzen ez badüzü.

Ez düzü gure begiratzea deüsentako ere hon, zure begira saintüak sokorritzen ez bagütü.

Ezi gihauri eizten bagütüzü, erorten eta galtzen gütüzü, zützaz aldiz bisitatüak bagira, jaikiten eta bizitzen gütüzü.

Egia düzü kanbiakor girela, bena zük fermotzen gütüzü, eta epeltzen girenean, zük berotzen gütüzü.

3. Ala beitüt nik nihaurtzaz sendimentü ümilik üken behar ! Ala beitüt ezdeüs uste üken behar, dela zerbait hontarzünen üdüripen düdena !

Ala beitüt nik apal beno apalago jarri behar, Jauna, zure jüjamentüen le(i)ze handiaren pean, zointan edireiten beitüt ni besterik deüs ez nizala, ezdeüs eta ezdeüs baizik !

O pezü termainü (500) gabea ! O itsaso ezin igaraiten dena ! Zointan nihaurtzaz deüs besterik ez beitüt edireiten, baizik ere osoki ezdeüs nizala.

Non date (501) arren ene gloriaren estalgünea ? Non ene bertütean hartü nüan konfidantxa ?

Banalaria (502) oro ire(n)tsi düzü, zure nitan gaineko jüjamentüen barnatarzünean.

4. Zer dira gizonak oro zure aitzinean ? *Lürrezko pitxerrak bere(n) egilearen kontre glorifikatüren direia ?*

⁴⁹⁷ espantatü : harritu/tü.

⁴⁹⁸ laüdable : laudagarria, goresgarria.

⁴⁹⁹ magitxa : leka, teka (*Zuh*), haziaren estalkia.

⁵⁰⁰ termainü : epea.

⁵⁰¹ date : izanen da, izango da.

⁵⁰² iretsi : irentsi, gainditu, gaintitü.

Gizon, zoinen ere bihotza egian Jinkoaren manüpean beitago, nola ele banoetzaz ügüülütsütüren ahal da ?

Mündüak orok ezin goratzen dizü egiak bere pean apalerazi düana ; eta bere esparantxa fermoki Jinkoatan ezarri düana, ez düzü zotükatüren mündü ororen laüdorioe(n)gatik.

Ezi laüdazale hurak berak ezdeüs dütüzü, eta bere(n) ele herotsa bezala galdüren dütüzü, *Jinkoaren egia aldiz badiagozü betierekoz.*

XV. KAPITÜLÜA.

Nola egon eta mintzatü behar den gaüza desiratzen abal diren orotan.

1. B. Ene semea, holaxe mintza zite gaüza orotan : Jauna, zure plazera balin bada, egin bedi hori hola.

Jauna, zure ohorea hala bada, egin bedi hori zure izenetan.

Jauna, ikusten badüzü eni konbeni dela eta hon dela enetako, honesten badüzü, ordüan emadazü grazia, hartaz zure ohoretan zerbütxa ahal nadin.

Bena ezagützen badüzü enetako gaixto datekeala, eta arimaren salbamentüaren ez datekeala hon, halako desirküntekak idok itzazü eneganik.

Ezi desirküntekak oro ez dütüzü ezpiritü saintüaganik, zonbat ere gizonari xüxen eta hon üdüritzen beitzaitzo.

Ez düzü ehi (503) egiaren klarki ezagützea, ala ezpiritü honak ala gaixtoak gaüza baten edo beste baten desiratzera bulkatzen zütüan, ala orano zihaturen ezpiritüak hartara erakarten zütüan.

Hanitx jente azken ürrentzean tronpatü (504) izan dira, zoin hatsarrear üdüri beitzen ezpiritü honaz bulkatüak zirela.

2. Hartakoz zer ere ezpiritüala desiragarrik jiten ahal beita, harek behar dü desiratü, eta galtatü Jinkoaren lotsareki(n) eta bihotzeko ümilitateareki(n) ; eta orotan gainti, ziharek borontaterik üken gabe, eni oro eitzi behar düzü erraiten düzularik :

Jauna, zük badakizü nola den hobekienik ; haur edo hura egin bedi, zük plazer düzün bezala.

Emazü plazer düzüna, plazer duzün beza(i)nbat, eta plazer düzünean.

Egizü eneki(n) dakizün bezala, eta zihauri plazentenik, eta zure ohorearen hobekienik den bezala.

⁵⁰³ ehi : aisà, aisita, erraza.

⁵⁰⁴ tronpatü : enganatu, nahasi.

Ezar nazazü plazer düzün leküan, eta nitzaz egizü plazer düzüna, libertate oso bateki(n).

Zure esküetan nüzü, ütüzül nazazü horrat-honat üngürüan.

Haur nüzüla zure zerbüttxaria, orotara prest nizana, nihauren bizitzerik zuretako baizik ez düdane(a)n gaine(a)n desiratzen ; bena hura ontsa, eta zük merexi düzün bezala enplega dezadan, zihaurk ürgaitz nazazü.

3. z.. O Jesüs, ezinago hon eta ezti zirena, emadazü zure grazia, amore(a)gatik eneki(n) den, eneki(n) tribaila dadin, eta eneki(n) azken ürrentzealadrano iraün dezan.

Desiraerazi eta nahi ükenerazi ezadazü betiere zuri maitagarrienik eta plazentzenik zaizün gaüza.

Zure borontatea enea den, eta enea beti zureari jarraiki dadin, eta bake ezinago hon batetan hareki(n) izan nadin.

Zük nahi düzüna düdan nahi, zük nahi ez düzüna ez düdan nahi, eta ez düdan potererik nahi, edo ez nahi ükeiteko zük nahi, edo nahi ezdüzüna baizik.

4. Mündüan diren gaüzer orori hiltzeko grazia galtatzen deizüt, eta gizonen artean ez ezagütü, eta bai mesperetxatü izatea zure amore(a)gatik maita dezadan.

Pausa nadin zütan gaüza desiratzen dütüdan ooren gainetik, eta ene bihotza zütan bakean izan dadin.

Zü zira bihotzeko egiazko bakea eta pausü bakoitza : zütarik kanpo oro neke eta greügarri dütüzü. Lotüren eta pausatüren nüzü bake hartan berean, erran nahi beita zütan, zoin beitzira hontarzün eternala eta ezinago handi dena, halabiz.

XVI. KAPITÜLÜA.

Jinkoatan beraurtan behar dela txerkatü egiazko kon(t)solioa.

1. z. Ez dit heben egürükiten, bena bai beste mündüan zer ene kon(t)solazionetako desira edo pentsa ahal beitirot.

Nütüan ordüan nihaurk mündüko kon(t)solazioneak oro, eta plazerez oro goza ahal nendin ordüan, gaüza segür bat düzü ez niroala iraün ahal lüzaz.

2. Hortik ageri düzü ez dirozüla, o ene arima, ediren kon(t)solazione eta alagrantzia oso bat Jinkoatan baizik, zoinek praubeak kon(t)solatzen eta ümilak sokorritzen beitätü.

Egürürükazü apür bat, egürükazü, o ene arima, Jinkoaren promesa, eta ükenen düzü zelüan hontarzün ooren bilküra.

Oraiko gaüzak sobera behar ez den bezala desiratzen badütüzü, zelükoak eta eternitatekoak galdüren dütüzü.

Hon tenporaletzaz zerbütxa zite, eta eternitatekoak desira itzazü.

Ez düzü hon tenporalik, zü osoki asezia ahal zitzakeienik, zeren ez beitzira kreatü izan h(ai)en gozatzeko.

3. Hon kreatü izan direnak oro züntüan ordüan, ez zinteki izan ahal dohatsü : bena zure dohatsütarzüna oro diagozü Jinkoatan, gaüzen ooren krezalean.

Ez düzü dohatsütarzün hura, mündü honen maitazale eroek uste eta läüdatzen düen bezala, bena Jesü Kristen zerbüttxari fidelek egürükiten düen bezala, eta arima xahüek, zombait ordüz, gozatten düen bezala, zoinen pentsamentüak oro zelüetan beitaude.

Gizone(n)ganik jiten den kon(t)solazionea oro, bano eta llabür da.

Egiak bihotzean borogaerazitzen deigün kon(t)solazionea da dohatsüa eta egiazkoa.

Gizon debotak lekü orotan bereki(n) karreatzen dü Jesü Krist bere kon(t)solazalea eta erraiten deio : sokorri nazazü, ene Jesús Jauna, tenpora eta lekü orotan.

Biz haur ene kon(t)solazionea : kon(t)solazione(e)n ooren gabeziaren gogo honez nahi ükeitea.

Eta zure kon(t)solazionea faltatzen bazait, zure borontatea eta ene borogatzeko emaiten deitadazün gaztigüa zerbütxa dakidan ene kon(t)solazionerik handienarentako.

Ezi zure kexatzea ez düzü betierekoz, ez eta ere zure mehatxüa eternitatekoz.

XVII. KAPITÜLÜA.

Gure arrankürek orok Jinkoatan ezarri behar düela.

1. B. Ene semea, eitz nazazü zütan nahi düdanaren egitera : nik bazikit zer den hon zuretako.

Gizon ziren bezala, zure pentsamentüak jiten zaitzü, eta zure sendimentüak hanitx gaüzatan, gizonen emurak (505) kon(t)seilatzen deitzüen bezala dütüzü.

Z. Jauna, zük diozüna egia düzü, zük enetako düzün arranküra handiago düzü, eziez nik nihaurentako üken ahal niroana oro.

Ezi nork ere bere arranküra oro zütan ez beitü ezarten, hura erorkor dükezü.

⁵⁰⁵ emur : umore ona edo txarra.

Jauna, nitzaz egizü plazer düzüna, ene borontatea zureganat xüxen eta fermo egon dadin ber.

Ezi nitzaz eginen düzüna oro, hon baizik ezin izaten ahal düzü.

2. Plazer badüzü ülünpean izan nadin, zirela benedikatü ; eta plazer badüzü argian izan nadin, zirela berriz benedikatü ; ene kon(t)solatzeko hon-tarzüna balin badüzü, zirela benedikatü ; eta nahi badüzü türbürarzünean izan nadin, zirela orobat (506) betiere benedikatü.

B. Ene semea, holaxe egon behar düzü, eneki(n) ebili nahi balin bazira.

Hain lehiatü izan behar düzü softeritzeko, nola alageratzeko.

Hain gogo honez behar düzü izan mengoatü eta praube, nola ükentsü eta aberats.

3. Z. Jauna, nitan gaina erakarriren dütüzün penak oro, zuregatik gogo honez softeritüren zitit.

Bardinzki hartü nahi zitit zure eskütik hona eta gaitza, ezta eta karatsa, alagera eta tristea ; eta zuri eskerrak eman eni heltzen zaiztan gaüza orotzaz.

Begira nazazü bekatü orotarik, eta ez nüzü lotsa izanen herioaren, ez ifer-nüaren.

Sekülakoz egoitz (507) eta biziaren lib(ü)rütik ken ez nazazün ber, nitan gaina jinen diren türbürarzünek orok ez ditazüe damürik eretxekiren.

XVIII. KAPITÜLÜA.

Mündü hontako miseriek behar düela pazentzia ezti bateki(n) softeritü, Jesüsen etsenplüala.

1. B. Ene semea, ni zure salbamentüagatik zelütik jaitsi nüzü, zure miserietzaz kargatü izan nüzü, ez bortxaz, bena amorioz, amore(a)gatik pazentzia ükeiten ikas zenezan, eta mündü hontako miseriak maugrenaje (508) gabe softeri zintzan.

Ezi ene lehen sortzepearen orenaz geroz kürütxean hil arteo, ez ditazü dolorearen softeritzeak hütsik egin.

Gaüza tenporaletarik ments handirik üken dit, hanitx plainü nitzaz ardüra entzün dit, ahalkeak eta laidoak ezteki softeritü zitit, ene honki eginen esker gaixtoa, ene miraküllüen blasfemioak, eta ene erakuste honen aküsantxa (509) faltsüak üken zitit.

⁵⁰⁶ orobat : berdin, halaber.

⁵⁰⁷ egoitzi : egotzi, bota, jaurtiki.

⁵⁰⁸ maugrenaje : marmarra, murmuzikà.

⁵⁰⁹ aküsantxa : akusazioa, salaketa.

2. z. Jauna zure mentean pazient izan zirenen gaine(a)n, orotan gainti zure aitaren manüaren konplitzean, jüsto düzü ni bezalako bekatore miserable batek zure borontatearen araur, pazientki bere bürtia soferi dezan, eta plazer düzün arteo, bizitze gastatü honen karga bere salbamentüagatik karreia dezan.

Ezi zonbat ere oraiko bizitzearen karga pezü ihork senditzen beitü, hare(n)gatik orogatik zure graziaren potereaz mereximentü handitako gertatü düzü, eta flaküen ere, zure etsenplüari eta zure saintüen hatzer jarraikiten direlarik, süstengagarriago eta baliosago.

Hanitzez ere kon(t)solagarriago düzü, eziez noizbait beitzen lege zahar-rean, noiz ere zelüko borta zerratürrik beitzagoen, eta zelüalako bidea ere ülü-nago üdüri beitzen, hain jente apürrek hanko erresumaren txerkatzeko arran-küra hartzen züenen gaine(a)n.

Ordüan jüsto zirenak ere ez zitakezün salba zure pasionea beno lehen, eta ez zitakezün sar ahal zelüko erresuman, zük zure heriotze saintüa konpli arteo.

3. z. O zonbat esker ez deizüt zuri eman behar, zeren üken düzün hon-tarzüna eni, eta arima fidel orori, erakusteko hain bide xüxen bat eta hon bat, zure eternitateko erresumalat joaiteko.

Ezi zure bizitzea, gure bidea düzü, eta pazentzia saintüaren moianez, joai-ten gütüzü zureganat, zoin beitzira gure koroa.

Aitzinetik etsenplüa eman eta erakutsi ez bazeneigü, nork lüke zuri jarrai-kiteko arranküra ?

(H)elas, zonbat lirateke hürün eta gibelean bara litakeanak, ikus ez balitze zure etsenplü ederrak.

Hare(n)gatik orogatik epel gïaudetzü, hainbeste miraküllüren eta peredi-küren entzün ondoan ; zer lizate ez bagünü hain argi handi bat zuri jarraiki-teko ?

XIX. KAPITÜLÜA.

Goitzarrenen (510) honesteaz, eta nor egiazki pazient den borogatzeez.

1. B. Zer da zük diozüna, ene semea, akaba bite zure plainüak ene eta beste saintüen pasionea ontsa ikusi ondoan.

Ez zira orano bortxakatü zure odola isur arteo.

Gaüza apürra düzü zük soferitzen düzüna, parrean (511) ezarten ba-lin badüzü hainbeste soferitü düenekilan, zoin hain azkarki tentatü, hain

⁵¹⁰ goitzarren : laidoa.

⁵¹¹ parrean : parean.

mingarki hiratü (512), hainbeste gisaz borogatü eta eskerniatü izan beirtira.

Behar düttüzü arren beste(e)n garratzagoak ezpiritüala erakarri, zihaturen txipiñiak arinzkiago soferi ditzazün amore(a)gatik.

Eta ez bazaitzüzü üdüri txipiñi direla, gogoaz emazüzü zure pazentzia gabeak hala üdürieraz ez ditzatzün.

Bena ala diren txipi, ala diren handi, iseia zite ororen pazientki igurztera.

2. Zonbatenaz hobeki h(ai)en igurztera adelatzen beitzira, ha(i)nbatenaz zühürkiago gobernatzun zira, eta haboro merexitzen düzü, arinzkiago ere penak egariren düttüzü, kostümatzen zirelarik h(ai)en korajoski hartzera.

Ez dezazüla erran : ez ditzakezüt hoiak holako gizon bate(n)ganik honets, eta holako gaüzarik nik ez dit behar soferitü, ezi damü handi bat egin ditzazü, eta jagoiti pentsamentüala jin ez zaiztan gaüzak mütürrean eman ditzadatzü : beste bate(n)ganik aldiz, gogo honez soferitüren zikit, soferitzeko direla üdüri zaizkedanak.

Arrazu gabe da pentsamentü hori, zoinek ez beittü gogoarik emaiten pazentziaren bertütari, ez norenganik paküa ükenen düan : bai aldiz bere beittan lehenago ikusten zoin diren goitzarren hartüak eta egileak.

3. Soferitü nahi ez düanak berauri üdüri beza(i)nbat, eta plazer düanaganik baizik, ez dü egiazko pazentzia.

Bena egiazki pazient denak ez dü gogoarik emaiten, ala bere gehienak, ala bere bardinak, ala bera beno apalagoak, ala gizon saintü batek, ala gaizkiala eman batek soferierazitzen deion.

Bena bardinzki Jinkoaren eskütik esker handireki(n) hartzen dü, zerbait gaitz heltzen zaionean, zonbat-nahibeita handi den, nornahiganik beita, eta zonbat-nahibeita ardüra jin dakion, eta oro uste dü irabazi handi bat dela harentako.

Zeren eta deüs ere Jinkoaren eretzean, zonbat-nahibeita txipi den, haren amore(a)gatik ihork soferitü düanean, mereximentü gabe ezin izaten beita.

4. Izan zite arren zoinü gabe güdükalako prest, bitoria nahi badüzü eraman.

Debadio gabe ezin jardiesten düzü pazentziaren koroa.

Nahi ez badüzü soferitü, ez zira nahi izan koroatü.

Koroatü aldiz izatea desiratzen badüzü, gerla egizü bihoztoiki, soferi ezazü pazientki.

Ez da ihor tribailü gabe pausüala heltzen, ez eta ere güdüka gabe bitoria ihork jardiesten.

⁵¹² hiratü : ahuldu, ahitu.

z. Natüralki ezin egiten dela üdüritzen zeitan gaüza gerta bekit, Jauna, ehi, zure graziaren moianez.

Badakizü zük apür soferitzen ahal düdala, eta gaitz txipi baten jiteak ber(e)hala korajea galerazitzen deitadala.

Gerta bekit maïtagarri eta desiragarri, zure amore(a)gatik, zernahibeita türbürarzünen soferitzea, ezi soferitzea eta zuregatik eskerniatü izatea ezinago balios düzü ene arimarentako.

XX. KAPITÜLÜA.

Gibauren flakütarzünaren aitortzeaz, eta mündü bontako miserietaz.

1. Z. Aitortüren dit, nihauren kontre, ene gaixtokeria ; aitortüren deizüt, Jauna, ene flakütarzüna.

Hanixetan gaüza txipi bat dükezü, ni bihotz gabetzen eta tristetzen naiana.

Hartzen dizüt borontate korajos izateko ; bena tentazione txipi bat jin den bezain sarri, hersidüra handi batetan edireiten nüzü.

Gaüza erras txar den bat dükezü, zonbait ordüz, tentazione gaitz bat erakarten deitadana.

Eta noiz ere, senditzen ez düdan denboran, uste beitüket segür nizala apür bat, ordüan edireiten dizüt ene бүрү aize txipi batez hüllañi goitürük zonbait aldiz.

2. Ikusazü arren, Jauna, ene apaltarzüna eta ene бүрү oroz ezagützen düzün erorkor izatea.

Ükezü pietate, eta idoki nazazü lohitik, barna sar ez nadin, eta han eroririk, ihontik ajütürük gabe egon ez nadin.

Horrek diztatzü ardüra lotseriak emaiten, eta ni zure aitzinean ahalke-tzen ; zeren nizan hain erorkor eta flakü ene pasione(e)n kontre bühürtzeko.

Zonbat ere ez beitüt osoki emaiten baimentoa, halarik ere pezü eta greügarri zitazü h(ai)en hersiki jarraikitea, eta hanitx nüzü debeiatzen hola güdükan bizitzez egün oroz.

Hantik ene flakütarzünaren ezagützeala jiten nüzü, zeren hanitxeh ehi-kiago sartzen beitira betiere imajina eta figüra itsusiak, eziez jalkiten.

3. O Israelen ezinago poteros ziren Jinkoa, arima fidelen honeala erakarlea, so bat egizü zure zerbütxiaren penari eta doloreari, eta ürgaitz ezazü egi-nen dütüan gaüza orotan.

Azkar nazazü zelüko indarraz, beldürrez gizon zaharrak, erran nahi beita aragi miserable ezpiritüaren pean orano ontsa jarri ez denak, gainea har dizadan, zoinen kontre güdükatü behar beitügü, bizitze miseriaz bete hontan gireno.

(H)elas, nolako den bizitze haur, non türbürarzün eta miseria baizik ez beita ! Non oro lazoz eta etsaiez beterik beitira !

Ezi türbürarzün edo tentazione baten joaitereki(n), beste bat jiten da, eta sordei dena orano, lehen etsaia goitü gabe, besteak saldoz jiten zaizgü egürükiten ez dütügülarik.

4. Eta nola ihork maitatzen ahal dü bizitze hainbeste karastarzün düana, hainbeste kalamitateren eta miseriaren pean dagoena ?

Bizitze ere nola deitzen ahal da, hainbeste heriotze eta gaitz erakarten ahal düana ?

Eta hare(n)gatik maitatüa da, eta hanitxek hartan plazer handia txerkatzen düe.

Ardüra mündüaren kontre ihork erraiten dü inganazale eta bano dela, bena hare(n)gatik ihork nekez eizten dü, zeren aragiaren nahikünte(e)k sobera gainea hartü beitüe.

Gäüza batz(ü)ek haren maitatzera, beste(e)k haren mesperetxatzera erakarten düe.

Mündüaren maite ükeitera erakarten düe aragiaren eta begien desirak eta izate honen süperbiak ; eta haren mesperetxatzera, eta hartaz debeiarzün hartzera aldiz, pena eta miseria h(ai)er jüstoki jarraükiten direnek.

5. Bena (h)elas ! Plazer gaixtoak ezpiritü mündüari enjogi dena garaitzen dü, eta uste dü elorri pünten artean badirela plazerak : zeren ez beitü ez ikusi, ez gozatü Jinkoaren eztitarzüna eta bertütearen barnetiko edertarzüna.

Bena zoinek ere mündüa osoki mesperetxatzen beitüe, eta iseiaitzen beitira Jinkoaren legearen araur bizitzera, h(ai)ek ezagützen düe zelüko eztitarzün, egiazki mündüari ihesi egile(e)r hitzeman izan dena, eta klarkiago ikusten düe zoinen itsuski mündüa herratzen den, eta zonbat gisaz inganatü izaten.

XXI. KAPITULÜA.

Jinkoatan paüsatü behar dügüla, bontarzün eta dohain ororen gainetik.

1. Z. Jinkoatan beti pausatüren zira ene arima, gäüza orotan, eta h(ai)en ororen gainetik, zeren hura beita saintüen paüsü eternala.

O Jesüs ezinago ezti eta maitagarri zirena, onets ezazü zütan haboro pausa nadin eziez kreatüra orotan, haboro eziez osagarrian eta edertarzünean, haboro eziez ohore eta gloria orotan, haboro eziez potere eta kargü orotan, haboro eziez jakite eta ezpiritü zorrotzarzün orotan, haboro eziez aberastarzün eta adrezia orotan, haboro eziez alagrantzia eta boztario orotan, haboro eziez fama hon eta laüdorio orotan, haboro eziez eztitarzün eta kontsolio

orotan, haboro eziez esparantxa eta hitzemaite orotan, haboro eziez mereximentü eta desirkünthe orotan.

Zihaur nahiago zütüdan, eziez hontarzün eta dohain eman, edo isur ahal ditzakezüdanak oro, eta ezpiritüak har edo sendi ahal litzakean alagrantziak eta boztarioak oro.

Hitz batez erraitera, ez nadin pausa, ez aingürüetan, ez arkanjelüetan, ez zelüko armada orotan, ez eta ere gaüza ikusten edo ezin ikusten ahal direntan, ez zü, ene Jinkoa, ez ziren gaüzatan batetan ere.

2. Zeren zü, ene Jinko Jauna, gaüza ororen gainetik ezinago hon, ezinago gora, ezinago poteretsü beitzira, zük zihaurtan badütüzü behar diren gaüzak oro, ezinago bete, ezinago ezti, ezinago kon(t)solazale zira.

Zü baizik ez düzü ezinago eder eta maitagarri denik : zütan düzü, gaüza ororen gainetik, ohore eta gloria ezinago handia ; zütan edireiten dütüzü, izaten ahal diren bezain ontsa, hontarzünak oro alkarreki(n), eta beti izan dütüzü, eta izanen ere bai.

Eta hala zer ere, zihaurtzaz kanpo, eman beitzinirot, edo zonbat-nahibeita argi erakuts edo hitzeman zinizadan, hurak oro ez lütükezü aski, zihaur ikusi edo osoki gozatü gabe.

Ene bihotza ezin egiazki pausatzen denen gaine(a)n, ez osoki aseziatzen zihaurtan baizik, zure gaüza emanak eta kreatürak oro beno gorago joaiten delarik.

3. O Jesü Krist ene espos ezinago maitea, maitazale ezinago xahüa, kreatüra ororen bür(ü)zagia, nork emanen deitzat egiazko libertatearen hegalak zureganat hegaltatzeko, eta zütan pausatzeko.

O noiz eman izanen zait, ene Jinko Jauna, zoinen ezti ziren osoki ikustea eta gozatzea ?

Noiz zureki(n) jüntatüren niz hain osoki non, zureganako amorioaren handitarzünak nihaurenganako sendimentüa galerazi dizadan, amore(a)gatik zü goza zitzadan, zentzüer eman ez den bezala, eta orok ezagützen ez düen gisa batez.

Orai aldiz hasperen ardüra egiten dit, eta ene desdixatü izatea doloreki(n) karreiatzen.

Zeren miseriazko lekü hontan hanitx gaitz jiten beitira, zoinek ardüra errebelatzen (513), tristetzen eta ülüntzen benaie : ardüra ene ezpiritüa arranküran, barreiarzünear eta bere(n)ganat tiratzen düelarik, nahaspillan etxekiten beiteitade(e) ; eta hori dela kausa, zureganat ezin hüllantzen nüzü trebükü gabe, ez eta ere gozatzen besarka maitagarri zelüko ekoiliarrer tai(ri)k gabe emaiten dütüzünetzaz.

⁵¹³ errebelatü : herratü, bidea galdurik ibili.

4. O Jesüs, gloria eternalaren argi ederra, arima heben desterratürrik dagoenaren kon(t)solioa, zü beitan diagozü ene ahoa, botzik gabe, eta ene isilik egoitea mintzatzen zaizü.

Noiz arteo berantzen dü ene Jinkoak enegant jitea ?

Biaigü bere praubeño hone(n)ganat, eta alagera beza, heda beza bere esküa, eta solta miserable haur bere hersidüra orotarik.

(T)ziauri, (t)ziauri, zeren zü gabe ez beita ez egün, ez oren maitagarririk, zeren zü beitzira ene alagrantzia, eta zü gabe hüts beita ene mahaina.

Miserable nüzü, eta presontegi batetan beinin(t)z bezala bürdüinaz kargatürrik, zure presentziaren argiaz kon(t)sola nazazün arteo, eta zure begitarte maitagarria erakusten deitazülarik, libertatea eman dizadazün arteo.

5. Beste(e)k zure plazan txerka bitze(e) plazer dütüen gaüzak oro : bena eni deüs bestek ez ditazü egiten ez eginen plazerik, zük baizik, ene Jinkoa, ene esparantxa eta salbamentü eternala.

Ez nüzü isilik egonen, ez eta ere otoitzetik baratüren, zure grazia ützüldakidan eta zü bihotzean mintza zakiztadan arteo.

B. Haur nüzüla ni, haur nüzüla zure kantüan, deitü naizülakoz ; zure nigarrek eta zure arimaren desirak, zure ümilitateak eta bihotzeko dolümenak ützülerazi eta jinerazi nizüe zureganat.

6. Z. Eta erran dizüt : deitü zütüt, Jauna, eta zützaz gozatzea desiratü dizüt, nagoelarik prest zure amore(a)gatik beste gaüza ororen hürrün apartatzera.

Ezi zük lehenik iratzarri naizü, zihaturen txerkaerazitzeko.

Zirela arren benedikatü, Jauna, zeren hontarzün hau zure zerbütxiaren üken düzün, zure miserikordiaren hanixtarzünaren araur.

Zer dü haboro zure aitzinean erraitekorik zure zerbütxiarik, baizik ere han ontsa ümilia dadin, beti oritzen delarik bere inikitateaz eta ezdeüstarzünaz.

Ezi ez düzü zü üdüririk, zelüan eta lürrean egin dütüzün gaüza miragarri orotan.

Ezinago hon dütüzü zure obrak, jüjamentüak egiati, eta gaüzak oro zure probidentziak dütüzü gobernatü.

Biz arren zuretako laüdorío eta gloria, o aitaren zühürtarzüna ; laüda eta benedika zitzela ene ahoak, ene arimak, eta kreatüra orok alkarreki(n).

XXII. KAPITÜLÜA.

Jinkoaren hanitx gisatako bonki eginen orimentxaz.

1. Z. Idekazü, Jauna, ene bihotza zure legean, eta erakuts izadazü zure manüetan ebilten.

Emadazü zure borontatearen ezagützea, eta oriteraz izadatzü, apalmentü eta ezagütze handi bateki(n), noiz beste ororeki(n) nahasteka, noiz nihuri bereziki egin deiztadazün hontarzünak, amore(a)gatik gero behar diren esker-rak eman ditzazüdan.

Bena bazikit eta aitortzen dit ez dirodala, mendre(e)n mendre(e)naren ere, behar den eskerrik eman.

Honki egin deiztazünak oro beno txipiago nüzü, eta ontsa so egiten düdanean zure handitarzünari, hartan berean ene ezpiritüa galtzen düzü.

2. Ariman eta korpitzean dütügün gaüzak oro, kanpotik edo barnetik, naturalki edo zelütik gozatzen dütügünak oro, zuri honki eginak dütüzü, eta h(ai)ek ere erakusten dizüe zü honki egile saintü eta hon zirela, eta zureganik dütügüla honak oro.

Eta zonbat ere batak haboro, besteak apürrago üken beitü, hargatik oro zureak dütüzü, eta zü gabe, ezin ihork ükeiten ahal dizü mendre(e)n mendre(e)na.

Haboroago üken düana ez ditezü bere mereximentüaz glorifika, ez beste(e)n gainetik jar, ez eta ere gütiago düanari trüfarik egin : zeren bere bürüari apürrenik emaiten düana, eta eskerretan ümilenik eta debotenik dena beita hobe(re)na eta handiena.

Eta bere bürüa besteak oro beno txarrago eta mereximentü gabeago etxekiten düana beita propiena (514) hontarzün handiagorik jardiesteko.

3. Hargatik gütiago üken düanak ez dü behar tristetü, ez kexatü, ez haboro düanari inbidiarik ekarri, bena zuri lehenago so egin, eta zure hontarzüna ezinago haboro laüdatü, zeren hain largoki, hain dohain eta hain gogo honez, ihoren bere(i)zkeriarik gabe, zure graziak emaiten dütüzün.

Oro zureganik dütüzü, eta hartakoz orotan laüdatü izan behar düzü.

Badakizü zer konbeni den batbederari eman dakion, eta ez düzü guri eman zerentako batak apürrago, besteak haboroago üken düan jüjatzea, bena bai zuri, zük izartürük beitütüzü batbederaren mereximentüak.

4. Hartakoz, ene Jinko Jauna, honki egin handi bat bezala etxekiten dizüt ez ükeitea gaüza kanpotik, eta gizonen sendimentüaren araur, laüdorío eta gloria emanerazitzen düenatarik, gisa batez non, batbederak bere bürüaren ezagütü ondoan, ez beitü solamentz behar pezütü, tristetü eta deskorajatü, bena bai lehenago kon(t)solatü eta alageratü hanitx, zeren zük, ene Jinkoa, zure adiskidetako eta mixkanditako haütatü beitütüzü praubeak eta ümilak, eta mündü hontzaz mespretxatü direnak.

Jakile dütüzü zure Apostolüak berak, zoin mündü orotako gebien ezarri beittütüzü.

⁵¹⁴ propi : egokia.

Bizi izan dütüzü mündüan plainürrik gabe, ümil eta simple zirelarik, maleziarik eta finaziarik gabe, gisa batez non, *zure izenaren goitzarren soferitzeaz alageratzen beitziren*, besarkatzen zütüelarik gozo handireki(n) mündüak hügüen zütüan gaüzak.

5. Deüsek ere arren ez dizü hain alageratü behar zü maite zütüana, eta zure honki eginen ezagützeala, nola zure borontatearen hartan konplitü izateak, zure eternitateko plazer honaren araur.

Hainbestetaradrano horrek kontent eta kon(t)solatü izan behar dü, non hain gogo honez txipienik izan nahi beita, nola beste batek handienik izatea desira beiliro.

Hain kontent eta bakezko lekürrik apalenean nola gorenean, eta hainbeste plazer hartü behar dü apür eta mesperetxatü izateaz, eta famarik ez ükeiteaz, nola beste(e)k beitüe mündüan ohoratü eta handitako igaraiteaz.

Ezi zure borontateak eta zure ohorearen amorioak beste(e)n oren gainetik izan behar dizüe, eta haboro kon(t)solazione eta plazer eman behar diezü, eziez hontarzün jadanik üken edo gero üken behar dütüanek orok.

XXIII. KAPITÜLÜA.

Bake handi bat erakarten düen laur gaüzak.

1. B. Ene semea, orai erakutsiren deizüt bakearen eta egiazko libertatearen bidea.

Z. Egizü, Jauna, erran düzün bezala, zeren horren entzüteak plazer eginen beiteit.

B. Iseia zite, ene semea, besteren lehenago, eziez zihaturen borontatearen egitera.

Haüta ezazü beti apürrago eziez haboro ükeitea.

Txerka ezazü beti lekürrik apalena, eta beste(e)n pean izatea.

Desira eta otoi egizü beti Jinkoaren borontatea zütan osoki egin izan dadin.

Hola datean gizona sartüren da bakean eta paüsian.

2. Z. Jauna, zure elesta llabür honek badizü bere beitan ontsatarzün hanitx. Erraiteko txipi düzü, entelegüz aldiz handi, eta ekoizpenez aberats.

Ezi leialki begira ahal balin baneza, nahaspillak ez likezü behar nitan hain ehiki sortü.

Ezi ene bürüa bake gabe, edo pezütürrik senditzen düdan ordü oroz, edireiten dizüt zük erakutsi gaüzetarik hürrüntü nizala.

Bena zük potereak oro beitätüzü, eta arimaren profeitüa beti maite beitätüzü, emenda ezazü nitan zure grazia, amore(a)gatik zure erranak konpli, eta ene salbamentüa egin ahal dezadan.

3. *Ez ziteala, ene Jinko Jauna, niganik bürrünt, ene Jinkoa, sokorri emaiteko so bat egidazü*, ene kontre xutitü (515) direnen gaine(a)n hanitx pentsamentü suerte, eta ene arima dolorez betatzen düen lotseri(a) handiak.

Nola h(ai)etarik igarenen niz minik hartü gabe ? Nola akazatüren düüt ?

B. Ni, dio Jaunak, zure aitzinetik joanen nüzü : nik apaltüren zitit banitatosak, nik idekiren zitit presontegiko bortak, eta segretüen gaüza estaliak erakutsiren deitüt.

Z. Egizü, Jauna, erraiten düzün bezala, eta zure aitzinetik ene pentsamentü gaixtoak oro ihesi joan diteala.

Ene esparantxa eta kon(t)solazione bakoitxa düzü zuri ene türbürarzün orotan hersatzea, zütan konfidantxa hartzea, zure bihotzaren erditik otoitzea, eta zure kon(t)solazionearen egürükitea.

4. Argi nazazü, ene Jesús hona, barnetiko argiaren leinürüaz (516), eta idok itzazü ene bihotzaren egongütik ülüntarzünak oro.

Bara itzadzazü ene barreiarzünak, nahi bada hanitx diren, eta ezdeüsetara erakar itzazü eni bortxa egin nahi deitade(e)n tentazioneak.

Bataila (517) zite azkarki enegatik, eta bortxa itzazü abere gaixtoak, erran nahi dit desirkünte plazeretarat enjogi direnak, amore(a)gatik zure potereak bakea eman diazadan, eta zure laüdorioa largoki erantzün dezadan zure korte saintüan, erran nahi beita kontzentzia xahü batetan.

Emazü zure manüa aize(e)r eta erauntsier, errazü itsasoari, pausa (h)adi, eta aize beltzari, ez dezala aizerik egin, eta izanen düzü pausü handi bat.

5. Igorrazü (518) zure egiaren argia, amore(a)gatik lürra argi dezan, zeren ez beiniz lür hüts, deüse(re)n hon ez den bat baizik, zük argi nezazün arteo.

Jaitsierazi ezazü gagnetik zure grazia, zelüko ihitzaz (519) busta ezazü ene bihotza, isur itzazü debozionearen hurak lür gainaren trenpatzeko (520), eta hari frütü ezin hoberik erakarteko.

Goiti ezadzazü ezpiritü bekatüen pezüak apalerazi deitadan haur, eta ene desira oro zelüko gaüzetan egoneraz izadzazü, amore(a)gatik zelüko izariaren eztitarzüna gozatüz geroz, ahalke nadin lürreko gaüzetaz pentsamentürik ükeiteaz.

⁵¹⁵ xutitü : zutitu.

⁵¹⁶ leinüru : (argi) izpia, distira.

⁵¹⁷ batailatü (da) : gudukatu.

⁵¹⁸ igorri : bidali.

⁵¹⁹ ihitz : ihintza.

⁵²⁰ trenpatü : busti.

Altxa nezazü eta solta kreatüra ororen ezin iraünen düan kon(t)solazione-tik : zeren ez beita gaüza kreatü izan denik batere, eta ene arima osoki pau-saerazi eta kon(t)sola diroanik.

Jünta nazazü zuri amorioaren ezin soltatzen den oropiloaz (521) : zü zihaur aski zirenen gaine(a)n maite zütüanaren, eta zü gabe beste gaüzek orok deüs ere balio ez düenean.

XXIV. KAPITÜLÜA.

Ez dela behar sobera jakin-nabireki(n) besteren bizitzea txerkatü.

1. B. Ez ziteala, ene semea, izan jakin-behar h(ai)etarik, ez dezazüla üken arranküra behar gaberik.

Zer doazü halako edo holako gaüzan ? Zük ez düzü eni jarraikitea baizik.

Ezi zer doazü, ala hura holako edo halako den, ala haur hola edo hala goberna eta mintza dadin ?

Beste(e)tzaz ihardesteko beharrik ez düzü, bena zihaturen kontüak behar-türen zaitzü eman ; zeren arren h(ai)en akodiñetan (522) sartzen zira ?

Haur nüzüla ni, ororen ezagützalea, eta ekiaren pean egiten diren gaüzen ororen ikuslea : bazikit zer gisaz batbedera den, eta zer düan bihotzean, zer nahi düan, eta zertara doen haren inten(t)ziona.

Orok arren eni eitzi behar dizüe : zü aldiz begira zite bake hon batetan, eta eitzazübürüa akodiñaz beterik düana, h(ai)etan nahi beza(i)nbat egoitera.

Eginen edo erranen dütüan gaüzak oro, jinen zitzozü beraurtan gaina, zeren ni ezin inganutzen beinai.

2. Izen handi baten itzalaz, jente hanitxen adiskidegoaz eta gizonen maitetazün bereziaz ez düzüla axolik.

Ezi gaüza horiek bihotzeko barreiarzün eta ülüntarazün handiak erakarten zitizüe.

Plazer har nirozü zuri ene hitzen erraitez eta gaüza estalien erakustez, ontsa goaita bazeneza ene jitea, eta zure bihotzeko borta ideki bazinizat.

Izan zite gogoa emaile eta orazione erraile, eta gaüza orotan zurebürüa ümilía ezazü.

⁵²¹ oropilo : korapiloa.

⁵²² akodiña : lan txiki estekatzailea, buruhaustea.

XXV. KAPITÜLÜA.

Zertan dagoen bihotzeko bake osoa eta egiazko arimaren profeitua.

1. B. Ene semea, nik erran dit : bakea eizten deizüt, ene bakea emaiten deizüt, bena ez mündüak emaiten düan bezala.

Orok bakea desiratzen düe, bena orok egiazko bakeari so daudean gaüzetzaz ez düe arranküra hartzen.

Ene bakea dago bihotzetik ezti eta ünble (523) direneki(n), zure bakea aldiz izanen düzü pazentzia handi batetan.

Eni behatzen eta ene botzari jarraikiten bazira, bake handi batez gozatüren ahal zira.

Z. Zer eginen düt arren ?

B. Gaüza orotan gogoa emazü. Zer egiten edo zer erraiten düzün, eta zure inten(t)ziona oro eni nihauri plazer egitera erakarzü, eta nitzaz kanpo ez dezazüla deüs desira, ez txerka.

Ez dezazüla orano besteren erranez edo eginez jüjamentü temeraririk egin, eta zuri fidatü ez deitzüen egitekoetan ez ziteala sar ; eta hala ez zira hanitx ez ardüra nahasiren.

2. Bena türbürarzünik seküla ez senditzea, eta bihotzeko edo korpitzeko erreüstärzünik batere ez ükeitea, ez da mündü hontan ihork ükeiten ahal düan gaüza bat, bena bai pausü eternalean.

Ez düzüla arren uste egiazko bakea ediren düzüla, penarik batere senditzen ez düzülakoz ; ez oro ontsa doatzala ihor zure kontre ez delakoz ; ez eta ere ezin hobeki zirela, gaüzak oro zure gogara heltzen direlakoz.

Ez dezazüla orano sinisterik har zerbaüt handirik badüzüla, edo bereziki maitatüa zirela, debozione eta eztitarzün handi batetan zirelakoz ; zeren eta gaüza horiek ez beitüe ezagüterazitzen egiazko bertütearen maitazalea, eta h(ai)etan ez beitago gizonaren profeitua eta hontarzüna.

Z. Zertan arren Jauna ?

B. Zurebürüaren bihotz oroz Jinkoaren borontateari eskentzean, eta zure diren gaüzzen, badira txipi, badira handi, badira oraiko, badira eternitateko, ez txerkatzean.

Gisa batez non kanbiamentürik batere gabe, honak eta gaitzak oro pezü beraurtan pezatzen dütüzularik, eni eskerren emaiten betiere egon zitean.

Hainbeste indar eta pazentzia esparantxan badüzü, non barnetiko kon(t)solazionearen gal ondoan, zure bihotza handiagorik softeritzera adela dezazün, eta zihaurenbürüa hain xahü etxekiten ez badüzü, non uste zünüan hain gaüza handirik ez zünükeala behar softeritü.

⁵²³ ünble: umila, apala.

Bena ni, nik egiten dütüdan gaüza orotan jüsto eta saintü bezala laüdatzen banaizü, ordüan ebilten zira egiazko bakearen bide xüxenean, eta esparantxa segür bat badükezü ikusiren düzüla ene begitartea alagrantzian.

Heltzen ahal balin bazira zure bürüaren osoki mesperetxa(t)zealadrano, jakin ezazü ezi ordüan, zure hebe(n)ko izateak ükeiten ahal düan bezain bake oso batez gozatüren zirela.

XXVI. KAPITÜLÜA.

Ezpiritü libertateaz gozatzen denaren goratarzünaz, zoin ihork merexitzen beitü orazioneaz leben, eziez irakurtzeaz.

1. Z. Jauna, gizon osoki perestü den baten lana düzü, ezpiritüaren beti zelüko gaüzetan estekatürrik etxekitea, eta hanitx arranküraren artean, kasi arranküra gabe izatea : ez herabeziaren gisala, bena ezpiritü libertateaz gozatzen denaren bere(i)zkeria batez, kreatürari bateri ere behar ez den gogo batez estekatü izan gabe.

2. Süplikutzen zütüt, ene Jinko ezinago saintü zirena, mündü hontako arranküretarik begira nazazün, h(ai)etan sobera sar ez nadin, korpitzaren behar hanitxetarik, plazerak abantaila har ez dizadan, eta arimaren trebükü orotarik, tristeziek korajea galerazi ez dizaden.

Ez ziozüt begira nezazün gaüza mündüko banitateak, pasione handireki(n), txerkatzen dütüanetarik, bena solta dezazün zure zerbütixariaren arima, hiltzearen maradik(a)zioneaz (524) orori komün diren miserietarik, zoinek sortatzen eta gibeltzen beitü ezpiritüaren, nahi lükean ordü oroz, libertatean sarrerazitzetik.

3. O ene Jinkoa, eztitarzün ezin erraiten zirena, karats edireneraz izadazü aragiaren kon(t)solazionea oro, zoinek hürürntzen beinai eternitatekoen amoriotik, eta bereganat gaizki tirarazten, presenteko hon, plazer egiten düan zonbait dela kausa.

Ez nazan, o ene Jinkoa, aragiak ez odolak garait ; ez nazan mündüak ez haren gloria llabürak ingana ; ez nazan debrüak ez haren finaziak (525) erorerazi.

Emadazü bühürtzeko indarra, soferitzeko pazentzia, iraüteko fermotarzüna.

⁵²⁴ maradikziona : madarikazioa.

⁵²⁵ finazia : maltzurkeria.

Emadazü, mündü hontako kon(t)solazione(e)n ororen plazan, zure ezpiritü ezinago ezti denaren berekadüra : eta aragiaren amorioaren leküan, jine-raz izadazü zure izen saintüaren amorioa.

4. Ezpiritü debozionearen süiaz beterik den batentako, pezü handi bat düütüzü jatea, edatea, beztitzea, eta gainerako korpitzaren süstengatzeko behar diren gaüzak.

Emadazü grazia holako beharrünetzaz ahülki eta doiaz zerbüttxatzekoa, eta desirkünthe handiegietzaz ez eskerniatü izatekoa.

Ez düzü ororen eiztea lege, zeren natürak behar beitä süstengatü izan ; bena zure lege saintüak ez dizü honesten behar beno haboro eta haboroenik plazer egiten düenen txerkatzea ; ezi aragia ezpiritüaren kontre altxa litezü.

Akodiña hoiaren artean, zure eskü saintüak otoi gida eta argi nazala, deüs soberarik nitan izan ez dadin.

XXVII. KAPITÜLÜA.

Gibauren amorio propiak ezinago gibeltzen gütüala hontarzün ororen gainetik denaganik.

1. B. Ene semea, behar düütüzü oro eman, deüs ere zihaurtarik begiratü gabe, ororen ükeiteko.

Jakin ezazü zihaturen amorio propiak (526) haboro damü egiten deizüla, eziez beste mündüko gaüzak batek ere.

Amorio eta enjogidüra düzünaren araur, haboro edo apürrago zoin-nahibeita gaüzari estekatzen zira.

Zure amorioa xahü balin bada, simple eta ontsa xedatürrik, deüsen ere ez düzü estekamentürrik ükenen.

Ez dezazüla desira sorü ez den gaüzaren ükeiteta ; ez düzüla nahi üken zihaur zoinütsützen (527), edo barnetiko libertatea galerazitzen ahal deizüna.

Gäüza estranje (528) bat düzü nolaz bihotz osoz ez ziren eni egiten, desiratzen edo ükatzen ahal düütüzün gaüza ororeki(n).

2. Zeren tristezia bano batez zure osagarria mendretzen düzü, eta arranküra behar gabez einetzen zira ?

Egon zite fermoki ene plazer honari, eta ez düzü damürrik batere soferitüren.

⁵²⁶ amorio propi : norberaren estimua, autoestimua.

⁵²⁷ zoinütsütü : kezka bete, arranguraz kargatu.

⁵²⁸ estranje : arraroa, bitxia.

Haur edo hura txerkatzen badüzü, hor edo heben izan nahi bazira, zure ontsa izatearen edo plazer honaren hobeki jardiesteko, ez zira seküla pausüan izanen, ez arranküra gabe ; zeren gaüza orotan edireiten beita zerbait ments, eta lekü orotan norbait ihork kontre beiti.

3. Ez dizü arren zernahibeita kanpotiko gaüzaren akisitzeak (529) edo doblatzeak pausüa emaiten, bena bai lehenago haren mesperetxatzeak, eta bihotzetik zainetaradrano idokitzeak.

Eta horrek entelegatü behar dü, ez solamentz diharüaren eta aberastarzünen akisitzeak, bena orano ohorearen txerkatzeak eta laütorio banoaren desiratzeak, zoin mündüareki(n) igaraiten beitira.

Leküak ez dizü ihor azkartzen, ments denean ezpiritüaren deboziona ; eta bake kanpotik txerkatü harek ez dizü hanitx iraünen, bihotzean fundamena pausatürrik ez badü, erran nahi beita nitan bermatzen ez bazira, egongüz kanbiatzen ahal zira, bena ez hobetzen.

Ezi heltüren edo hartüren düzün lehen okasionean, edirenen düzü ihesi egin zeneion gaüza, zerbait habororeki(n).

4. Z. Bortitz nazazü, ene Jinkoa, espiritü saintüaren graziaz.

Emadazü barnetiko debozionaeren ontsa azkartzeko bertütea, eta ene bihotzaren zernahibeita gaüza txar edo preziosen desirkünthe hanitx suerteta-koetarik hestekoa, eta arranküra bano eta hersidüra orotarik libratzekoa : h(ai)er orori so egitea, gaüza igaraiten diren elibati bezala, oritüren nizalarik nihaurk ere h(ai)ekilan igaren behar düdala.

Zeren deüs irauposik (530) ez beita ekiaren pean, non oro beitira banitate eta ezpiritüaren eritarzün ; ala beita zühür gisa hortan gaüzak ikusten dütüana.

5. Emadazü, Jauna, zelüko zühürtzia, ikas dezadan zure, gaüza ororen gainetik, txerkatzen eta edireiten, zure, gaüza ororen gainetik, gozatzen eta maitatzen, eta gainelatikoen diren bezala entelegatzen, zure zühürtarzünaren xedearen araur.

Emadazü grazia lausenkazaleari ezagützereki(n) ihesi egitekoa, eta ene kontre doenaren pazentziareki(n) honestekoa.

Zeren haur beita zühürtze handia, hitzen aize orogatik ez zotükatzea, eta lausenkari gaixtoer beharriaren ez perestatzea : ezi gisa hortan akabiren dü ihork segürki bide hasia.

⁵²⁹ akisitü : ondasuna bildu, harez jabetu, haren jabe egin.

⁵³⁰ iraupos : iraunkorra.

XXVIII. KAPITÜLÜA.
Mardaileren (531) mibien kontr.

1. B. Ene semea, ez ziteala kexa norbaitek zützaz sendimentü gaixtorik balin badü, eta zük gogo honez entzüten ez dütüzün gaüzarik erraiten balin badü.

Zük zihaurtzaz sendimentü gaixtoagorik üken behar düzü, eta sinetsi ihor ere ez dela zü beno flaküagorik.

Zihauren barnean paseiatzen bazira, ez düzü kasü handirik eginen hegal-taz igaraiten diren eletzaz.

Jakite handi bat düzü batzarre gaixtoetan isilik egoitea, eta bihotzez eneganat ützültzea, eta gizonen jüdikamentü(e)n)gatik bere gontzetarik ez jalkitea.

Ez dagoela zure bakea gizonen mihietan, ezi ala ontsa ala gaizki mintza ditean, zü zirena zirateke ; non da egiazko bakea, eta egiazko gloria ? Ez deia nitan ?

Nork ere ez beitü desiratzen gizoner plazer egitea, eta h(ai)er desplacer egitearen ez beitü lotsarik, hura bake handi batez gozatüren da.

Bihotzaren erreüstarzünak eta zentzüen barreiarzünak oro jiten dira amorio gaixtotik eta lotsa banotik.

XXIX. KAPITÜLÜA.

Nola, türbürarzünaren jiteareki(n), Jinkoak otoitü eta benedikatü izan behar düan.

1. Z. Biz, Jauna, zure izena tenpora orotan benedikatü, zeren nahi üken düzün tentazione eta türbürarzün haur nitara jin ledin.

Ez zirozüt hari ihesirik egin, bena bortxatü nüzü zuri hersatzera, amore(a)gatik ajüta nezazün, eta honetara ützülerazi dizadazün.

Jauna, orai türbürarzüanean nüzü, eta ene bihotza ez diagozü ontsa, zeren hanitx eskerniatzen beinai presenteko pasioneak.

Eta orai, o ene aita maitea, zer erranen düt ? Hersidürek ustegabeen hartü nizüe, salba nazazü oraidanik.

Bena tenore hontara jin izan nüzü, amore(a)gatik zü glorifikatü izan zintean, eta ni zützaz libratü izan nendin, ontsa ümiliatü izan ondoan.

Jauna, ükezü ene libratzeko hontarzüna : ezi zer egin ahal dirot, miserable nizana, eta norako niz zü gabe ?

⁵³¹ mardaila : gaitz errana, gaitzesana ; mardailer : gaitz erralea.

Emadazü, Jauna, aldi hontan ere pazentzia, ürgaitz nazazü, ene Jinkoa, eta ez dit lotsarik ükenen, zonbat-nahibeita kargatü izan nadin.

Eta orai nik hoi en artean zer erranen dü t ?

Jauna, zure borontatea konpli bedi : ezi nik türbürarzünak eta kargak merexitü zikit.

Behar zikit segurki soferitü, Jinkoak baletsa pazentziareki(n) lizan irazarri haur igaren, eta tenpora hobe bat jin arteo.

Bena zure eskü potere oroz beteak ahal zirozü tentazione haur eneganik idoki eta haren builta hert (532), osoki eror ez nadin, hala nola ardüra egin beiteitazü, ene Jinko maitea, miserikordiaz betea.

Eta kanbiamentü hori, enetako gaitz den bezain ehi dükezü zure beso poteretsüaren.

XXX. KAPITÜLÜA.

Jinkoaren sokorriaren galtatzeaz, eta graziaren (h)ar(t)zara ükeiteko konfidantxaz.

1.B. Ene semea, ni nüzü Jauna, türbürarzünaren egünean indar emalea.

Ontsa ez ziratekeanean, (t)ziauri eneganat.

Deüsek ere ez dizü zelüko kon(t)solazionea hala trebükatzen, nola berantegi otoitzealat ützültzeak.

Ezi ene otoitzen ontsa gogoa emaiten düzülarik hasi beno lehen, txerkatzen düzü hanitx kon(t)solazione, eta kanpotiko gaüzetan zure plazerak hartzen dütüzü.

Eta hori dela kausa gaüzak oro profeitü apürretako dütüzü, gogoa eman dezazün arteo ni nizala nitan esperantxa hartzen düenen soltazalea, eta ez dela nitarik kanpo ez sokorri azkarrik, ez kon(t)seilü honik, ez erremedio iräüposik.

Bena orai, hats har (533) ondoan, irazarriaren (534) gerotik, ene miserikordien argian sendo zite, zeren hüllan beiniz (dio Jaunak) amore(a)gatik gaüzak oro, ez solamentz osoki, bena orano бүрүтеала (535) gaintika arraberri ditzadan.

2. *Badeia deüs enetako nekerik ?* Edo, ala nin(t)zate üdüri erraileari, eta ez egileari ?

⁵³² hert : hertu/tü.

⁵³³ har : hartu/tü.

⁵³⁴ irazarri (iz.) : ekaitza, euri eta kazkabar erauntsi azkarra.

⁵³⁵ бүрүтеала (*bürütala*) : nasaiki, zabalki.

Non da zure fedea ? Zaude fermoki eta kanbiamentürik gabe.
Izan zite pazient eta korajos, eta bere tenorean jinen zaizü kon(t)solazio-
nea.

Egürüki nezazü, egürüki, jinen nüzü eta sendotüren zütüt.

Tentazionea düzü zü eskerniatzen zütüana, eta lotseri(a) bano bat zü izie-
razitzen zütüana.

Zer deüs besterik irabazten düzü gero jin behar düen gaüetzaz arranküra
ükeitetik, baizik ere tristezia tristeziari gaine(a)n : *bere maleziaz aski dü egünak*.

Gäüza bano eta gozo gabea da gero jinen diren gaüetzaz nahasküra edo
alagrantzia hartzea, zeren ez beitira heltübada seküla jinen.

3. Gizonari diagozü holako üdüripenezaz inganatü izatea, eta ezpiritü
txipi baten seinalea da etsaiaren gaizkialako atakarzüner bere büriaren hain
arinzki joaitera eiztea.

Ezi harek ez dizü axolik ala egiazko, ala gezürrezko üdüripenezaz ingana
gitzan, ala presenteko gaüzen amorioaz, ala gero jinen direnen lotseriaz lür-
realat egoitz gitzan.

Ez dadila arren zure bihotza nahas, ez eta ere lotsa.

Ükezü nitan sineste, eta ene miserikordian konfidantxa.

Noiz ere uste beitüzü eneganik hürrüntü zirela, ardüran zure hüllanetik
nükezü.

Noiz ere uste beitüzü oro kasi(k) galdü dela, ordüan dükezü irabazirik
handienaren egiteko püntüa.

Ez dükezü oro galdü, gaüza zük ez nahi bezala jinagatik.

Ez düzü behar orai dütüzün sendimentüen araur zure jüjamentüa ekarri,
ez zombait penari, nontik-nahibeita jin dadin, zure ezpiritüa estekatü eta hura
hartü, hantik jalkiteko esperantxa osoki galdü beiliz bezala.

4. Ez düzüla uste osoki eitzia zirela, tenpora boxi (536) baten zombait
türbürarzüin igorri, edo desiratzen zünüan gaüza idoki deizüdalako ; ezi hola
ihor igaraiten düzü zelüetako erresumalat.

Eta düda gabe haboro konbeni zaizü, eta ene beste zerbützarier, penez
borogatüak izan ziteien, eziez oro züen nahiala bazüntüe.

Nik bazikitüzüt pentsamentü estaliak, ezagützen dit hanitx konbeni dela
zure salbamentüaren zombait ordüz gozo gabe eitzia izan zitean, beldürrez
gaüzen ontsa joaiteak goraerazi zitzen, eta plazerak uste ükenerazi dizazün ez
zirena bazirela.

Behin eman düdana idokiten ahal dit, eta (h)ar(t)zara emaiten plazer
düdanean.

⁵³⁶ boxi : poxia, apurra.

5. Eman dükedanean enea dükezü, idoki dükedanean ez dikezüt zurea hartü, zeren gaüza hon emanak eta zelüko dohainak (537) oro eneak beitira.

Eizten badeizüt jitera zonbait pena, edo zernahibeita gaüza kontre denik, ez ziteala kexa, eta ez dezazüla bihotza gal : nik ber(e)hala solajatzen ahal zütüt, eta zure pena alagrantiatara kanbiaerazitzen.

Halarik ere hola egiten deizüdanean, jüsto nüzü, eta peretxü handitako.

6. Ontsa zühür bazira, eta egian so egiten badüzü, gaitzek ez zütüe behar jagoiti tristerazi hain koraje apürreki(n), bena lehenago alageraerazi, eta eskerren emaitera erakarri.

Hobeki erraitera, uste behar zünüke zure alagrantzia bakoitxa dela, zeren dolorez hunkitzen zütüdanean ez deizüdan parkatzen.

Erran nizün ene dizipülü maite(e)r : *ene aitak maite üken naian bezala, nik ere züek maite zütüet* ; hargatik ez nitizün hurak igorri mündüko alagrantiatara, bena bai debadio handietara, ez ohoretara bena mesperetxüetara, ez auherkeriala bena tribailüala, ez pausüala bena pazentziareki(n) batean hanitx honkiren egitera : orit zite, ene semea, hitz hoietzaz.

XXXI. KAPITÜLÜA.

Kreatüren ororen eizteaz, kreaazalea ediren abal dadin amore(a)gatik.

1. Z. Jauna, grazia handiago baten beharra ontsa badit orano, heltü behar badüt ihork, ez kreatürak batek ere, ezin destorbatzen (538) ahal naian püntüala.

Ezi zerbaitek etxekiten naiano, ez nitezü libertatereki(n) zureganat hegaltza.

Erraiten züanak : *nork emanen deitzat hegaltak, etxeurzoari bezala, zureganat hegaltatzeko eta züitan pausatzeke, desiratzen züan libertatereki(n) hegaltatzea.*

Begi simple bat beno pausüagorik deüs badea ? Eta lürrean deüs desiratzen ez düana beno libertate hobe batez gozatzen denik ?

Behar dizü arren ihork kreatürak oro beno gorago joan, bere bürüa osoki eitzü, eta ezpiritüa zelüalat goitüririk etxekiten düalarik, ikusi zük ororen kreaazaleak, kreatüreki(n) deüs ere üdüririk ez düzula.

Eta ez bada ihor kreatüra orotarik soltatzen, ez daite libertatereki(n) zelüko gaüzer esteka.

⁵³⁷ dohain : emaitzak.

⁵³⁸ destorbatü : eragotzi, trabatu/tü, oztopatu.

Hartakoz ezpiritüz zelüalat so egile apür edireiten da, zeren apürrek beitakie bere(n) bürüen osoki bere(i)zten kreatüra eta gaüza galdü izan behar düen hoietarik.

2. Hortara ez daite ihor hel, grazia handi, arima goiti eta bera beno gorago joanerazi diroian baten moianez baizik.

Eta gizona ezpiritüz goititzen, kreatüra orotarik soltatzten, eta Jinkoa-reki(n) jüntatzen ez balin bada, harek düüanek eta dakitzanak oro balio apürretako dira.

Hontarzün eternal müga gabeaz kanpo, zerbait handirik etxekiten düana, lüzaz bere txipitarzünean lürrareki(n) josirik egonen da.

Jinkoa ez diren gaüzak oro ezdeüs dira, eta ezdeüentako kontatü behar düe.

Desbardintarzün handi bat da Jinkoak argitzen düan gizon debot baten zühürtziaren, eta eliza gizon jakitos eta estüdioala ekarri den baten jakit(e)aren artean.

Gainetik Jinkoaren isuritik jiten den jakite haur hanitxez baliosago da, eziez gizonaren ezpiritüak penareki(n) jardiesten düana..

3. Hanitx badira zelüko gaüzen ezpiritüz ikustea desiratzen beilük(e)ie, bena hartara heltzeko behar diren gaüzen egitera ez dira iseiatzten.

Haboroenik hantik hürrüntzen gütüan gaüza bat da, gure gogoaren kanpotiko gaüzetan, eta gure zentzüetara erorten direnetan ezartea, gihauren bürüaren penaerazitze osoaz axolik üken gabe.

Ez dakit zer erran nahi den, zoin ezpiritük bulkatzen gütüan, zer den gure deseina : üdüri da jente deboten igaraiten girela, eta hare(n)gatik hainbeste pena eta arranküra hartzen dügü gaüza txar igaraiten baizik ez diren elibatez ; gihauren barnetikoetzaz aldiz, nekez eta bekanki, gihaur beitan osoki sartürik, oritzen gira.

4. (H)elas ! Gihaur beitan apür bat sar ondoan, bagoatza kanporat, gure obrak balantza degüt (539) batetan pezatü gabe.

Ez dizügü gogoarik emaiten non daudean apaltürik gure desirak, ez eta ere nigarrik egiten gaüza ororen teiütürik ikustez.

Egiazki aragi orok teiütü üken züan bere bidea, hartakoz jarraikiten zen dilübio handiari.

Gure barnetiko enjogidüra arren hanitx teiütü izan denen gaine(a)n, teiü dirateke bada eta ez hantik jiten diren egitateak, zoinek barnetiko indarraren gabezia erakusten beitüe.

Bihotz xahütik jiten da bizitze honaren frütüa.

539 degüt : txarra, eskasa.

5. Nork zer eta zonbat egin düan, ihork galtzen dü : bena zoinen bertüte handiak eragin deion jakiteko, ez dü hainbeste arranküra.

Xehe ihork galtzen dü izan denez korajos, aberats, eder, jakintsü edo izkiribazale, kantazale, tribailari hon ; bena apürrek dioie : zoinen ezpiritüz praube den, zoinen pazient eta ezti, eta zoinen debot eta barnetiko den.

Natürak gizonaren kanpotiko gaüzer so egiten dü, grazia barnetikoetara ützültzen da.

Hura ardüra inganutzen da, honek Jinkoatan dü esparantxa, inganatu ez izateko.

XXXII. KAPITÜLÜA.

Bere bürüaren eizteaz, eta desirkünte gaixto orotarik bilaizteaz.

1. B. Ez dirokezü, ene semea, libertate erras hon den bat goza, zure bürüa osoki eizten ez badüzü.

Bürdüinak hoinetan beilütüe bezala dütüzü bere(n) bürüez pakü, eta h(ai)en maitazale direnak, nahiküntez eta berri ikasi beharrez beterik daudeanak, horat-honat joaileak, zoinek bere(n)tako garratz ez diren gaüzak txerkatzen beitütüe, eta ez Jesü Kristenak, heltüren ez den gaüza ardüra bere beitan ajargatzen (540) eta konpostatzen (541) düelarik.

Ezi Jinkoaganik jalkiten ez diren gaüzak oro galdüak izanen dira.

Orit zite hitz labür ezinago konplitü den honez ; eitz itzazü oro, eta edirenen dütüzü oro, dereza ezazü inbeia, eta ükenen düzü pausüa.

Egia hori ardüra ezpiritüan erabil ezazü, eta konplitü dukezünean, enteleгатüren dütüzü gaüzak oro.

2. Z. Jauna, ez düzü hori egün baten lana, ez haur txipien tsosteta bat ; bena hitz llabür hortan diagozü fraide hobe(re)nen izaterik saintüena.

B. Ene semea, saintüen bidea zoin den ezagüt ondoan, ez düzü behar hantik gibeltü, ez eta ere deskorajatü ; bena lehenago behar düzü territatü izan gaüzarik hobe(re)nen egitera, edo gütienetik desiratü zure hasperenetzaz h(ai)e(n)ganat hüllantzea.

Nahi nikezü hala lizan zureki(n) eta heltü zinen zure bürüaren ez maitazale izateko püntüala, eta ene eta nik aitatako eman deizüdanaren borontateari xahüki egon zintean : ordüan ezinago ene gogara zinateke, eta zure bizitzea bakean eta boztarioan igaren litezü.

⁵⁴⁰ ajargatü : geroa zer izanen den asmatzera saiatu.

⁵⁴¹ konpostatü : ordenatu, antolatu, taxutu, txukundu.

Badüzü orano hanitx gaüza eizteko, zoin ez badeiztatzü osoki emaiten, ez beitzüü galtatzen düzüna jardiesten.

Kon(t)seilatzen zütüt eros dizadazün ürre süz betea, aberats zitean amore(a)gatik, erran nahi beita zelüko zühürtzia, lürreko gaüzak oro hoinpe-tan ezarten dütüana.

Eitzazü gibealeat lürreko zühürtzia, gizonen eta zihauren düzün balakü ororeki(n).

3. Erran deizüt erosi behar züntüala gaüzarik txarrenak, preziatü eta balios gizonen jüjamentüan direnen plazan.

Ezi üdüri düzü egiazko zelüko zühürtzia erras txar, txipi eta kasi(k) aha-tzerik dela ; harek ez dizü goratarzüna, ez lürrean handi izatea : ala beitera hanitx haren ahoz laüdazaleak, bena hare(n)ganik hürrün dago h(ai)en bizi-tzea ; hura da orotara ere harri preziatü hanitxi gorderik dagoena.

XXXIII. KAPITÜLÜA.

Gure bihotzaren kanbiakor izateaz, eta Jinkoaren azken inten(t)ziona üken behar dügünaz.

1. B. Ene semea, ez dezazüla sinets orai beitan düzün desirküntea, sarri beste batetara kanbiatüren zaizü.

Bizi zireno, nahi gaberik ere, erortoki izanen zira kanbiamentüari, gisa batez non edirenen beitzütüe aldi batean alagera, bestean triste, orai bakean, gero nahaspillan ; noiz debot, noiz debozionerik gabe, zonbait ordüz estü-dioari emana, bestordüan herabezti, orai pezü, aurkixe (542) arin.

Bena zühürra eta ezpiritüz ontsa ikasia, gaüza kanbiakor horien ooren gainetik xuti(k) (543) dago, gogoarik eman gabe zer bere beitan senditzen düan, eta zoin altetarik kanbiamentüaren aizea jiten den ; bena haren ezpiri-tüaren inten(t)ziona (+) osoa dago nontik zerbait profeitü idokiren düan, harek desiratzen düan azken püntüala heltzeko.

Ezi gisa hortan egonen ahal da beti ohikoa, deüsetan okertü gabe, bere inten(t)zionaeren soa eneganat tai(r)ik gabe, hainbeste suertetako gaüza hel-tzen direnen artean, hedatzen düalarik.

⁵⁴² aurkixe : laster.

⁵⁴³ xüti (adlag.) : zutik, xütik.

(+) Inten(t)ziona da borontatearen desein bortitz bat, zoinek bulkatzen beitu bere deseinatü düan püntüala heltzeko mengua dütüan moianetzaz zerbütatzera : hala nola paradüsüa irabazi nahi düana zerbütatzen beita orazionaeren, amoinaren, sakramentüen ajütüaz, moian bere deseinatü düan püntüala heltzeko, ezin igaraiten den elibatez bezala.

2. Gaineran, zonbatenaz xahüago izanen beita inten(t)zionearen begia, ha(i)n batenaz fermokiago irazarri hoi en artean ihor ebiliren da.

Bena hanitx gaüzatan, inten(t)zione xahüaren begia ülüntzen da : ezi bertan ihork so egiten dü batzen zaion zombait gaüza eder eta maitagarri zaioni.

Ezi arraroki edireiten da bere txerkü propiaren belzküratik osoki xahü denik.

Hola noizbait Jüdioak jin izan ziren Marta eta Mariagana, ez solamentz Jesüsen amore(a)gatik, bena orano Lazaroren ikusteagatik.

Xahatü behar dizü arren inten(t)zionearen begiak, amore(a)gatik simple eta xüxen izan dadin, eta beste moianak oro beno haratago enegnat hedatü.

XXXIV. KAPITÜLÜA.

Maite düanaren gozoko dela Jinkoa gaüza orotan, eta orenen gainetik.

1. z. Haur dela, ene Jinkoa eta ene oroa, zer nahi dü t haboro, eta zer dirot dohatsüagorik desira ?

O hitz eztia eta gozatsüa ! Bena Jinkoa, eta ez mündüa eta mündüan direnak, maite düüanarentako.

Ene Jinkoa, ene oroa, entelegatzen düanarentako aski da erranik, eta horren ardüra arra erraitea hon eta eder zaio maite düanari.

Ezi zü hüllan zirelarik, oro maitagarri dü tüzü : bena zü hürrün zirelarik, oro greügarri.

Zük bihotza pausüan ezarten dü tüzü, zük bakea eta alagrantzia emaiten dü tüzü.

Zük sendimentü honak, gaüza orenen gaine(a)n, harrerazitzen dü tüzü, eta zihaur orotan laüdaerazitzen : zü gabe deüsek ez zirozü lüzaz plazerik egin ; bena deüs maitagarririk eta gozo honetakorik izatekoz, zure graziaren presentziaz eta zure zühürtziaren gatzaz gazitü izan behar dizü.

Zer ez dü hon edirenen, zü bere gozoko zütüanank ?

Eta zü gozatzen ez zütüanaren, zer izanen ahal da maitagarririk ?

Mündüko zühürak eta aragiaren gozoari jarraikiten direnak, zure zühürtzian galtzen dü tüzü, zeren han hanitx banitate, heben aldiz hiltze baizik ez beita edireiten.

Bena ageri dü tüzü egiazki zühür direla zuri jarraikiten direnak, mündüko gaüzak mesperetxatzen, eta aragia nahi ez dü tüzüan gaüzetara erakarten düelarik : zeren banitatetik egialat eta aragitik ezpiritüalät igaraiten beitira.

H(ai)en gozoko dü tüzü Jinkoa, eta zer ere hontarzün kreatüretan edireiten beitüe, oro bere(n) krezalearen laüdorioetarät igarenerazitzen ditüzüe.

Bena ontsa eta ontsa hürün da krezalearen gozoa, kreatürarenetik eter-nitatekoa, tenporarenetik argi kreatü ez denarena, argi piztü izan denarenetik.

3. O argi beti iraüten düzüna, argi piztüak oro beno gorago zirena, igorrazü zelütik ene bihotzeko xokoak oro ikertzen ahal dütüan iñazia (544).

Xaha, alagera, argi eta pitz ezazü ene ezpiritüa bere potere(e)ki(n), alagrantiako boztarioetan zureki(n) estekatüririk egoiteko.

O noiz jinen da oren dohatsü eta desiragarri hura, amore(a)gatik zure presentziak asezia nazazün, eta ziren enetako oro orotan.

Hura jin dakidan arteo, ez düzü ene alagrantzia oso izanen.

Orano (h)elas nitan bizi düzü gizon zaharra, ez düzü osoki k(ü)rützifikatü, ez düzü erras hil.

Orano ezpiritüaren kontre, bazitizü desirkünte azkarrak, barnetik gerla egiten dizü, eta arimaren erresuma ez dizü pausüz eizten.

4. Bena zü itsasoaren poterearen бүр(ü)zagi beitzira, eta haren builtak ematzen beitütüzü, jaiki zite, ajüta nezazü.

Harat-honat itzazü gerla nahi düen jenteak, errauts itzazü zure indarraren potereaz.

Ager itzazü, otoi, zure miraküllüak, erakutsazü zure besoaren indarra, zeren ez beitüt beste esperantzarik, ez norganat hersa, zureganat baizik, ene Jinko Jauna.

XXXV. KAPITÜLÜA.

Tentazionearen kontre ez dela segürantzarik bizitze hontan.

1. B. Ene semea, ez zira seküla segür izanen mündü hontan, bena bizi zireno, zelüko armen beharra ükenen düzü betiere.

Etsaien artean zaude, eta exker eta esküin atakatzen zütüe.

Ez bazira arren pazentziaren armaz lekü orotarik zerbüttxatzen, ez zira lüzaz egonen zauririk hartü gabe.

Bestalte, nitan zure bihotza ihorat baztertü gabe ez badüzü ezarten, borontate xahü bateki(n) gaüza ooren ene amore(a)gatik soferitzeko, ez dirozü h(ai)en süiaren bizitarzüna süstenga, ez eta ere hel ahal zelüko ekoi-larren koroala.

Behar düzü arren korajoski gaüza horien ooren artetik igaren, eta indar azkar batez zure kontre diren gaüzak garaitü.

⁵⁴⁴ iñazi (*iñbazi*) : tximista.

Ezi garaitzalearen düzü mana : herabeztiaren aldiz, ez düzü baratzen hanitx miseria baizik.

2. Mündü hontan txerkatzen badüzü pausüa, nola ordüan heltüren zira pausü eternaleala ?

Ez düzüla orai nahi üken pausü hanitx, bena bai pazentzia handi bat.

Txerka ezazü egiazko bakea, ez lürren gaine(a)n, bena zelüan, ez gizonetan, ez beste kreatüretan, bena Jinkoatan beraurtan.

Jinkoaren amore(a)gatik behar düzü gogo honez gaüza orori soina paratü (545), erran nahi beita tribailüer eta dolore(e)r, tentazione(e)r, eskernioer, erreüstarzüner, beharrüner, flakezier, goitzarrener, ahalke(e)r, gaztigüer (546) eta mesperetxüer.

Horik oro bertütearen hon dira, horiek Jesü Kristen aperendiza zertako den borogutzen düe ; horiek zelüko koroaren pezak alkargana jüntatzen dütüe.

Nik emanen düt pakü eternal bat tribailü llabür batentako, eta gloria mügagabe bat ahalke bertan igaraiten den batentako.

3. Uste düzüa zelüko kon(t)solazioneak beti ükenen dütüzüla zure nahia-
ren araeala ?

Ez zitizüe hala üken ene saintüek betiere, bena bai destorbüak (547) handirik, eta hanitx gisatako tentazioneak, eta eskernio handiak.

Bena pazentziareki(n) bere(n) büriak süstengatü zitizüen, Jinkoatan haboro fidatü izan beitziren eziez beraurietan, zakielarik mündü hontako soferitze(e)k ez züela aski potere gloria eternalaren merexitzeko.

Nahi zünükea zük ber(e)hala üken, beste hanitxek bortxa hanitx nigarren ondoan, eta tribailü handiez geroz üken züena ?

Egürükazü Jinko Jauna, gizonki manea zite, koraje har ezazü, ez ziteala mesfida, ez eta ere hebentik aparta ; bena ere ez düzüla dolürik zure korpi-
tzari eta arimari, bihoatz(a) zernahibeita türbürarzünetara eine gabe, Jinkoaren gloriagatik.

Nik ezinago gizenki ordaria emanen dit ; ni zureki(n) nükezü, zure tür-
bürarzün orotan.

⁵⁴⁵ soina paratü (*pbaratü*) : sorbalda eman, sorbaldaz jarri.

⁵⁴⁶ gaztigü : zigorra.

⁵⁴⁷ destorbü : eragozpena, traba.

XXXVI. KAPITÜLÜA.
Gizonen jüdikamentü banoen kontre.

1. B. Ene semea, Jinkoatan ezarzü fermoki zure bihotza, eta gizonen jüjamentüaren ez düzüla lotsarik, zure kontzentziak minik egiten ez deizün tenporan.

Hon düzü gisa hortan soferitzea, eta ez düzü hori greügarri izanen bihotz ümil batentako, ez eta ere Jinkoatan haboro eziez bere beitan fidatzen denarentako.

Hanitxek hanitx gaüza erraiten dizüe, eta hartakoz sineste apür ihork h(ai)etan ezarri behar dizü.

Bestalte orori gogara egitea, ez düzü egiten ahal den gaüza bat.

Zonbat ere Jondane Paule Jinkoatan ororen gogara, eta oro ororen izatera iseiätü beitzen, hare(n)gatik orogatik ez deüsentako kontatzen zizün gizonetzaz jüjatü izatea.

2. Aski ahal ziroan, eta beraurtan zen beza(i)nbat egin züan beste(e)n honealat erakarteko eta salbaerazitzeko ; bena ezin gibeltü ahal üken züan beste(e)tzaz zonbait aldiz ez jüjatü edo mesperetxatü izatea.

Hartakoz oro eitzi zütüan Jinkoari, zoinentako deüs ez beita estalirik, eta bühürtü izan zen pazentzia eta ümilitatereki(n), gaizki mintzo, edo orano bere(n) pentsamentü bano eta hüskorretzaz, gaüzak oro nahi zütüen bezala bantatzen zütüenen kontre.

Hare(n)gatik zonbait ordüz ihardetsi üken zizün, beldürrez flaküer bere isilik egoiteaz (+) eskandal eman lezan.

3. Nor zira, gizon hil behar düan batentako lotsa üken dezazün ? Egün balin bada, bihar ez dükezü ageri.

Jinkoaren ükezü lotsa, eta ez düzü ükenen beldürrik gizonen izierientako.

Zer potere dü zütan ele gaixto erraiten edo goitzarren egiten deizünak ? Bere bürüari haboro damü eziez zuri eretxekitzen dizü, eta nornahibeita den, Jinkoaren jüjamentüari ezin ihesirik egiten ahal dizü.

Ükezü zük Jinkoa begien aitzinean, eta zure keremendetzaz (548) ez dezazüla debadiorik txerka.

Üdüri bazaizü presentean garaitzen zütüela, eta merexi ez düzün ahalkea soferitzen düzüla, ez ziteala hargatik kexa, ez eta ere pazentzia gabeaz zure koroa hert.

(+) Eskandala heltzen da eta dago, noiz ere ihork beste baten egitatetik okasione hartzen beitiü gaizkiaren egiteko, edo berak bere egitateaz beste bati emaiten beitiü bekatüala erorteko okasionea.

⁵⁴⁸ keremende : keremenda, oinazea, kurrinka, zinkurina.

Bena lehenago zelüalat goiti itzazü begiak ni beitarra : nik badit poterea zure ahalke eta goitzarren orotarik idokitekoa, eta batbederari bere obren araur paküaren emaitetako.

XXXVII. KAPITÜLÜA.

Bere bürüaren Jinkoari osoki eta pürki emaitetaz, bihotzeko libertatearen jardiesteko.

1. B. Ene semea, eitzazü zure bürüa, eta ni edirenen naizü.

Egon zite haütakeriarik eta zihaurganako bere(i)zkeriarik gabe, eta beti irabaziren düzü.

Ezi zure bürüa Jinkoari (h)ar(t)zara ez hartzekotan, eman dükezün bezain sarri, grazia handiago bat ükenen düzü.

Z. Jauna, zonbatetan emanen deizüt ene bürüa, eta zoin gaüzatan eitziren düüt ?

B. Betiere, eta oren oroz, gaüza txipietan hain ontsa nola handietan, deüs ere ez dit bere(i)zten, bena orotan bilaizirik ediren nahi zütüt.

Bestela nola ziteke izan enetako, eta ni zuretako, ez bazaude barnetik eta kanpotik zure borontate propi orotarik bilaizirik ?

Zonbatenez bertanago (549) hori eginen beitüzü, ha(i)nbatenez hobe-kiago izanen zira, eta zonbatenez osokiago eta egiazkiago, ha(i)nbatenez eni plazer haboro, eta zihaurk irabazia handiago eginen düzü.

Zonbaitek bere(n) bürüak Jinkoari emaiten dütüe, bena zerbait bere(n)tako bere(i)zten düelarik ; ezi ez dira osoki Jinkoatan fidatzen ; hartakoz bere(n) bürüen arranküra handirik begiratzen düe.

Beste zonbaitek aldiz, ber(e)hala bere(n) bürüak osoki eskentzen dütüe, bena gero tentazioneak hunki dütüanean, ohiko gaüzetara ützültzen dira, hartakoz ez düe bertüean aitzinatzerik egiten.

H(ai)ek ez düe jardietsiren egiazko bihotzeko libertatea, ez eta ere ene adiskidegoa maitagarriaren grazia, aitzinetik bere(n) bürüen emaitetako osoa eta egün oroz h(ai)en oberendatzea (550) egiten ez badüe ; zeren hori gabe ez beititeke, ez orai, ez gero eneki(n) jünta, ez nitzaz goza.

3. Hainbestetan erran eta (h)ar(t)zara erraiten deizüt, eitzazü zure bürüa eta oberenda izadazü eni, eta gozatüren zira barnetiko bake handiaz.

Emazü oro orogatik, deüs ez dezazüla txerka, deüs ez dezazüla galta, zaude nitan xahüki eta fermoki, eta ni ükenen naizü.

⁵⁴⁹ bertan : berehala.

⁵⁵⁰ oberendatü : oparitu/tü.

Bihotzeko libertatea badükezü, eta ülünpeak ez zütü hartüren.

Hortan bira (551) zure iseiak, zure otoitzeak, zure desirak ; amore(a)gatik zihaturen bereziki deüs ükeitetik bilaiz ahal zitean, eta pikarra (552) Jesüs pikarra denari jarraiki zitean, zihaturen hil, eta harentako bizi zitean eternitate batez.

Ordüan galdüren eta ezabatüren dütüzü üdüripen banoak oro, nahasküra injüstoak oro, eta arranküra soberakinak oro.

Ordüan orano joanen da lotsa handiegia, eta amorio behar ez den bezalako hilen.

XXXVIII. KAPITÜLÜA.

Kanpotiko gaüzen gobernü bonaz, eta danjeretan Jinkoari bersatzeaz.

1. B. Ene semea, zoin-nahibeita lekütan edo egitatetan ziren, nolako-nahibeita izan dadin zure kanpotiko lana, behar düzü arranküra handi bat üken barnetiko libertatearen begiratzeko eta zihaturen бүр(ü)zagi izateko, amore(a)gatik gaüzak oro zure pean diren, et zü ez h(ai)enean.

Ziren zure egitate(e)n бүр(ü)zagi eta gobernari, ez zerbütxari eta esklabo.

Bena lehenago egiazko israelita berezi bat bezala, igaren zite Jinkoaren haurren zortealat eta libertatealat.

Zoin presenteko gaüzen gainetik beitaude, eternitatekoak hobeki ikus ditzten.

Zoinek begi exkerraz igareiten diren gaüza hoier so egiten beituë, esküinaz aldiz zelükoer.

Zoin gaüza tenporalek ez beituë bereganatzen, h(ai)er estekaerazitzeko, bena bai h(ai)ek gaüza tenporalak, h(ai)etzaz enplegü hon baten egiteko, Jinkoak xüxentü üken dütüan bezala, eta langile ezinago handiak, deüs behar ez denik bere kreatüan eizten ez düanak ezar(r)i dütüan bezala.

2. Zernahibeita gaüzaren heltzeari orano egoiten ez bazira kanpotiko itxurari, eta ikusi eta entzün dütüzün gaüzak ez badütüzü aragiari so dagoen begi batez ikertzen, bena sartzen bazira ber(e)hala tabernaklean Moisa-reki(n), zernahibeita akodiñatan gaine(a)n, Jinkoaren borontatearen jakiteko : entzünen düzü zombait ordüz zelüko ihardestea, eta hantik jalkiren zira hanitx presenteko gaüza eta gero jin behar düenatarik ikasirik.

⁵⁵¹ bira : izan bitez.

⁵⁵² pikarra : biluzik.

Ezi Moisa beti tabernakleala hersatü izan zen, düda emaiten edo galto egiten zeienen klarki ezarteko ; eta orazionearen ajütüala laster egin üken züan, danjeretik eta gizonen gaixtokeriatik libratü izateko.

Zük ere orobat hersatü behar düzü zure bihotzaren xokoala, Jinkoaren baimentoaren sü handireki(n) galtatzeko.

Ezi hartakoz irakurten düzü Josüe eta Israelen haurrak gabaonitez inganatuak izan zirela, zeren aitzinetik ez beitzüen Jinkoaren gogoia jakin, bena ele eztien sobera sineskor izanez, h(ai)en debozione fal(t)süak tronperiala (553) erorerazi zütüan.

XXXIX. KAPITÜLÜA.

Erreüs ibor ez dadin izan egitekoetan.

1. B. Ene semea, ene esküetan eitz ezazü beti zure akodiña, nik bere sasu(i)an ezar(r)iren dit behar den bezala.

Egürükazü nik xüxent dezadan, eta hantiko profeitüa borogatüren düzü.

Z. Jauna, aski gogo honez gaüzak oro zuri eizten deitzüt, zeren ene pen(t)tsamentüak profeitü apür idoki beitiro.

Jinkoak baletsa ez nendin esteka gero jin behar düen gaüzer, eta zure borontate honari berankeriarik gabe oberenda nezan ene büriüa.

2. B. Ene semea, gizonak desiratzen düan gaüza zonbait, ardüra bere gogoan bortizki erabilten dizü ; bena hura jardietsi düan bezain sarri, beste sendimentürik hartzen hasten düzü : zeren bihotzeko desirak, gaüza beraurtan gaine(a)n, ez beitiro iraüpos, bena lehenago batetik besteala joanerazitzen beitiro.

Ez düzü arren gaüza apürra, gaüzarik txipienetan ere, bere büriüaren eiztea.

3. Gizonaren egiazko profeitüa dago bere büriüaren osoki eiztean, eta hala sartzan dena, libertate eta segürantza handi batetan dateke.

Bena etsai zaharra hontarzün ororen kontre doena, tentazione emaitetik ez da baratzen : bena gaü eta egün lazo gaixtorik hedatzen ari da, ustez h(ai)etan gogoarik emaiten ez düana atzamanen düan.

Zaudezteie iratzarririk eta otoitzetan, dio Jaunak, tentazionean sar ez ziteien.

XL. KAPITÜLÜA.

Gizonak beraurganik deüs honik ez düala, eta ez daiteala deüsez ere glorifika.

1. Z. Jauna, zer da gizona, zü hartaz orit izateko, edo zer da gizonaren semea, zük hura bisita dezazün ?

Zer mereximentü üken dü gizonak, zük zure grazia hari eman ziniazon ?

Jauna, zer plainü (554) egiten ahal dü, zük eizten banaizü ? Edo murmuzeiarik (555) jüstoki egiten ahal düta, nik galtatzen deizüdana emaiten ez badeitazü ?

Gezurrik gabe, hain egia pentsa eta erran zirozüt : Jauna, ez nüzü deüs, ez zirozüt deüs, nihaurganik ez dit deüs honik, bena orotan hüts egile nüzü, eta ezdeüsetara noazü beti.

Eta ez banaizü ajütatzen eta barnetik azkartzen, erras epeltzen eta laxatzen (556) nüzü.

2. Zü aldiz, Jauna, beti ohikoa zira, eta bazaude eternitate orotan, beti hon, jüsto eta saintü, ontsa jüstoki eta saintüki gaüzak oro egiten dütüzülarik, eta behar den bezala ezarten, zühürtze miragarri bateki(n).

Bena ni damüala ekarriago nizalako eziez profeitüala, ez niagokezü beti hein batetan, zeren tenpora bezain kanbiakor beiniz.

Halarik ere hobeki edireiten nüzü ber(e)hala zük plazer düzünean, eta zure eskü ajütazalea hedatzen deitazünean : zeren zük ziharek, gizonen sokorririk gabe, ajütatzen ahal beinaizü, eta gisa batez azkartzen, non ene begitarrea ez beita haboro kanbiatüren ; ene bihotza aldiz zureganat ützüüren eta zütan pausatüren beita.

3. Hartakoz ontsa balin baneki gizonen kon(t)solazione ororen eizten, bada debozionearen jardiesteko, bada bortxatü nizan bezala zure txerkatzeko, zeren ez beita gizonik ni kon(t)solatzen ahal naianik : ordüan arrazureki(n), zure graziaren ükeiteko esparantxa har nirozü, eta kon(t)solazione berriaren dohaina dela kausa, boztarioz beta nintezü.

4. Ezkerrak zuri, Jauna, zoinenganik jiten beitzaitzat ene gogara heltzen diren gaüzak oro.

Ni aldiz ez nüzü zure aitzinean banitate eta ezdeüskerria baizik, gizon kanbiakor eta flakü bat baizik.

Nontik arren glorifikatzen ahal niz, edo zeren desiratzen dü famatü izatea ?

Ezdeüsetarik nizalako eia ? Eta hori bera banitate ezinago handi bat da.

⁵⁵⁴ plainü : pleinua, auhena, intzeria.

⁵⁵⁵ murmuzeia : murmuzika, marmarra.

⁵⁵⁶ laxatü : utzi, utzikerian erori.

Egiazki banaloria, üzürri (557) gaixto bat eta banitaterik handiena da, zeren egiazko gloria galerazitzen beiteigü, eta zelüko graziaz bilaizten beigütü.

Ezi noiz ere gizonak berauri plazer egiten beitu, ordüan zuri desplazer egiten dizü : noiz ere gizonen laüdorioen ondoan hatsalbotürrik (558) joaiten beita, ordüan egiazko bertüteak galtzen zitizü.

5. Egiazko gloria eta boztario saintüa düzü zütan, eta ez bere bürüatan glorifikatzea ; zure izen saintüan, eta ez bere bertütean alageratzea ; eta kreatüratan batetan ere zure amore(a)gatik baizik plazerik ez hartzea.

Biz zure izena laüdatü, eta ez enea ; biz zure obra hanitx peretxatü, eta ez enea ; biz zure izen saintüa benedikatü, eni aldiz ez dakidan gizonen laüdorietarik batere eman izan.

Zü zira ene gloria, zü ene bihotzeko boztarioa.

Zütan glorifikatüren eta boztüren nüzü egünak diraüeno ; nihaurtzaz dena beza(i)nbat aldiz, ez batere ene flakezietan baizik.

Txerka beze(e) jüdioek alkarganiko gloria ; nik Jinkoaganik dena baizik ez dit txerkatüren.

Ezi gizonen gloria oro, ohore tenporala oro, mündü hontako goratarzüna oro, zure gloria eternalareki(n) pareiatürrik, ez düzü banitate eta erokeria baizik.

O ene Jinkoa, egia eternala, miserikordia baztergabea, Trinitate adorablea, zuri zihauri biz eman laüdorio, ohore, bertüte eta gloria jinen diren mügagabeko tenpora orotan.

XLI. KAPITÜLÜA.

Obore tenporal ororen mesperetxüaz.

1. B. Ene semea, ez ziteala triste ohorean eta goratarzünean beste(e)n ikustez, zihauren aldiz mesperetxüan eta apaltarzünean izatez.

Eneganat zelüalat goiti ezazü zure bihotza, eta lürren gaine(a)n gizonek egiten deitzüen mesperetxüek ez zütüe tristetüren.

Z. Jauna, ütsümentüan gütüzü, eta banitateak ber(e)hala inganatzen gitizü.

Ontsa ene bürüa ikertzen badüt, ikusten dit seküla kreatüra batek ere ez deitadala ogenik egin, hartakoz ez nitezü jüstoki zure eretzean plaini.

2. Bena zeren ardüra eta mortalki ofen(t)satü beitzütüt, arrazureki(n) kreatürek orok ene kontre armak hartzen zitizüe.

⁵⁵⁷ üzürri : izurria.

⁵⁵⁸ hatsalbotü : hatsantu, hatsanditu.

Eni arren jüstoki diautazü ahalkea eta mesperetxüa ; zuri aldiz ohorea, laü-dorioa eta gloria.

Eta ez balin baniz adelatzen gogo honez nahi ükeitera kreatüra oroz mesperetxatüa, eitzia eta ezdeüsentako osoki hartüa izan nadin, ez zirozüt bihotzeko bakea eta fermotarzüna üken ahal, ez eta ere ezpiritüaren argia jardiets, ez zureki(n) erras jünto izan.

XLII. KAPITÜLÜA.

Gizonetan ez düala behar ezarri gure bakeak.

1. B. Ene semea, zure bakea ezarten badüzü zonbait bizizale lagünetan, alkarreki(n) bizitzen eta sendimentü batetako zireielakoz, kanbiakor eta erreüs izanen zira.

Bena hersatzen bazira beti bizi eta iraüten düan egiala, adiskide baten hür-rüntzeak edo hiltzeak ez zütü tristetüren.

Nitan behar düzü bermatü adiskidearen maitatzeak, eta ene amore(a)gatik maitatü behar düzü nor ere hon üdüritü beitzazü dela, eta mündü hontan ontsa kario beitüzü.

Ni gabe adiskidegoa ez düzü ez iraüpos ; nik oropilatzen ez düdan amorioa ez düzü ez egiazko, ez xahü.

Hola maite dütüzün gizonen estekamentüer gisa batez hil behar düzü, non zütan den beza(i)nbat, desiratzeko beitzünüke h(ai)en lagüngoarik gabe izatea.

Ha(i)nbatenez haboro Jinkoaganat gizona hüllantzen da, zonbatenez hür-rüntzenago beita lürreko kon(t)solazione orotarik.

Ha(i)nbatenez ere gorago Jinkoaganat igaiten da, zonbatenez apalago bere beitan jaisten beita, eta berauri txarrago dela üdüri beitzaio.

2. Bena zonbait hontarzün bere bürüari emaiten düanak, Jinkoaren graziaren bere beitara jiteari baragailü (559) bat ezarten dü, zeren ezpiritü saintüaren graziak beti bihotz ümil bat txerkatzen beitü.

Bazeneki zure bürüaren osoki ezdeüsten, eta kreatüra ororen amoriotik laxatzen eta idokiten, ordüan behar nizezü ene graziaren turrusta (560) zureganat igorri.

Kreature(n)ganat so egiten düzünean, ziharen bürüari idokiten düzü krezalearen soa.

⁵⁵⁹ baragailü : oztopoa, eragozgarria.

⁵⁶⁰ turrusta : zurrusta.

Ikas ezazü, krezalearen amore(a)gatik, zure bürüaren gaüza orotan garaitzen ; ordüan Jinkoaren ezagützeala heltüren ahal zira.

Zonbat-nahibeita txipi den gaüza ihork behar ez den bezala maitatzen düana eta so egiten deiona, bihotza gastatzen deigü, eta hontarzün ezinago handitik gibeltzen gütü.

XLIII. KAPITÜLÜA.

Mündüko jakite banoaren kontre.

1. B. Ene semea, gizonen hitz ederrek eta zorrotzek ez zitzauela hunki ; *ezi Jinkoaren erresuma ez diagozü ele erraitan, bena bertütean.*

Gogoa emazü ene hitzer, zoinek bihotzak süz eta ezpiritüak argiz betatzen beitätüe, dolümena erakarten, eta hanitx gisatako kontsolazionea emaiten beitätüe.

Ez dezazüla jagoiti hitz bat irakur, jakin(t)süago edo zühürrago zure bürüaren üdürierazitzeko.

Iseia zite zure bizioen hilerazitzera, zeren horrek haboro profetitü emanen beiteizü, eziez hanitx püntü gaitz gizonen ezpiritüak penatzen dütüanen eza-gützeak.

2. Hanitx irakurtü eta ikasi dükezünetik landa (561), behar düzü betiere ohiko hatsarreala ützüli.

Ni nüzü gizonari jakitearen erakuslea, eta gizonak erakuts liroan beno entelegü hobeago baten txipier emailea.

Ni mintzo nitzaiona bertan zühürtüren da, eta ezpiritüz hanitx profeitaitüren dü.

Ala beitera desdixatü gizone(n)ganik hanitx gaüza ez dakienik jakin nahi düenak, axol handirik üken gabe zoin den ene zerbüttxatzeko bidea !

Jinen düzü tenpora, zointan agertüren beita Jesü Krist bür(ü)zagien bür(ü)zagia, aingürüen Jauna, irakurtü dütüen gaüzen ororen entzüteko, erran nahi beita batbederaren kontzentziaren ikertzeko.

Ordüan kandera (562) argiz Jerüsaleme ikertüa izanen da, eta ülünpean gorderik egon diren gaüzak agertüren dira, eta arrazonamentüak isiltüren.

Nik instantean goititzen dit ezpiritü apal bat eternitateko egia habororen entelegüala, eziez hamar urtez eskoletan estüdiatü balü.

⁵⁶¹ landa : lekora, kanpo, ondoren, ondotik.

⁵⁶² kandera : kandela.

Nik erakusten dit, ele(e)n herotsik gabe, ustekerien nahaspillarik gabe, ohorearen goratarzünik gabe, arrazonamentüaren debadiorik gabe.

Nik erakusten dit lürreko gaüzen mesperetxatzea, presentekoetan ez gozorik hartzea, eternitatekoen txerkatzea eta gozatzea, ohore(e)r ihesi egitea, eskandalen soferitza, esparantxa ororen nitan ezartea, nitarik kanpo deüsen ez desiratzea, eta gaüza orotan gainetik, ene sü handireki(n) maite ükeitea.

4. Ezi norbaitek, ni bihotz osoz maite ükenez, zelüko gaüzak ikasi dütü, eta miragarri diren gaüzak erraiten zütüan.

Profetitü haboro idoki düzü gaüzen ororen eiztez, eziez gaitz eta gora direnen estüdiatzez.

Bena batz(ü)er erraiten dütü gaüza komünak, beste(e)r bereziak : zombaiti eztiki agertzen niz miraküllüetan eta figüretan ; beste zombaiti aldiz, argitarzün handi batetan, ene misterioak erakusten dütit.

Libür(ü)en lengoajea ororentako orobat da, bena ez düzü oro bardin jakintsützen, zeren ni beinüz egiazen barnean erakuslea, bihotzaren ikerzalea, pentsamentüen entelegazalea, egitate(e)n aitzinaerazizalea, batbederari emaiten düdalarik nihauri üdüritzen zaitan bezala.

XLIV. KAPITÜLÜA.

Kanpotiko gaüzen ezaützean ez düala behar ihork sartü.

1. B. Ene semea, hanitx gaüzatan, deüs ez bazeneki bezala izan behar düzü, eta zihaturen бүрүа etxeki lürren gaine(a)n hilik beitzina bezala, eta zoinentako mündüa oro k(ü)rützifikatüa beita.

Beste hanitx gaüza ere, entzützen ez beitzüntü bezala eitzi behar dütüzü igaraitera, eta gogoan lehenago etxeki bakea begiraerazitzen ahal deitzüenak.

Hobeago düzü gaüza desplazer egiten deizüenatarik begien ützültzea, eta batbederari bere sendimentüaren eiztea, eziez elesta debadioz bete(e)r estekatztea.

Ontsa Jinkoareki(n) bazaude, eta haren jüjamentüari so egiten badüzü, ehiñerago honesten düzü goitü izatea.

2. Z. O ene Jinkoa, zertaradrano jin giren ! Damü tenporal bate(n)gatik, ihork nigar egiten düzü, irabazi txipi bate(n)gatik tribailatzen eta lasterkatzen düzü ; eta galtze ezpiritüal bat ahaztera eizten düzü, berantean ere bortxa (563) orimentxala jiten delarik.

⁵⁶³ bortxa (*hemen* adlag.) : nekez doi-doa, nekez ozta-ozta.

Gogo emaiten dizü profetitürik batere edo apür baizik emaiten ez düan gaüzari, eta ezinago behar düana, arranküaririk gabe iragaitera eizten dizü : zeren gizonak eizten beitu osoki bere bürüa joaitera kanpotiko gaüzetarar, eta ber(e)hala hantik jalkiten ez bada, badiagozü gogo honez h(ai)etan hedatürik.

XLV. KAPITÜLÜA.

Ez düala bebar orok sinetsi izan, eta zoinen ehi den elestetan biüts egitea.

1. Z. Emadazü, Jauna, ene penetan zure sokorria : zeren gizonenganiko salbamentüa bano beita.

Zonbatetan leialtarzünik ez düet ediren, ükenen nüala uste nüan leküan.

Zonbatetan aldiz ediren düet gütienik uste nüan leküan.

Bano da arren gizonetan ezarten den esparantxa ; jüstoan aldiz salbamentüa zütan diagozü, ene Jinko Jauna.

Zirela benedikatü, ene Jinko Jauna, guri heltzen zaizgün gaüza orotan.

Flakü eta kanbiakor gütüzü, ber(e)hala düzü gure inganatu izatea eta kanbiatzea.

Zoin da gizona hainbeste abisamentüeki(n) eta gogoareki(n) bere bürüa begiratzen ahal düana, non ez dakion hel, zombait ordüz, zombait inganiotara eta düdatara erortea ?

Bena zütan fidatzen dena, Jauna, eta bihotz xahü batez txerkatzen zütüana, ez düzü hain ehiñera erorten

Eta erorten balin bada ere zombait türbürarzünetara, zernahibeita gisaz penez üngüratüa izan dadin, zük ber(e)hala idokiren eta kon(t)solatüren düzü : zeren ez beituzü eitziren zütan azken ürrentzealadrano bere esparantxa ezarri düana.

Arraro da adiskide leiala, adiskideari bere penetan batetan ere faltatzen ez zaiona.

Zü zira, Jauna, zü zihaur ezinago gaüza orotan leial zirena, eta zützaz kanpo ez düzü ihor ere hala denik.

3. Ala beitzen zühür arima saintü zioiana : ene ezpiritüa fundatürik eta bortiztürik diagozü Jesü Kristetan.

Hala banintz ni, gizonen lotsak ez nindirozü hain ehiñera erreüs, ez eta ere ele zorrotzez hunki.

Nork dirotza gaüzak oro aitzinetik ikus, edo gero jinen diren gaitzak aparta ? Aitzinetik ikusiek ere ardüan min egiten badüe, zer diroie uste gabe jiten direnek, mingarki (564) zaurt baizik ?

⁵⁶⁴ mingarki : saminki.

Bena zeren ez düt nihauren arranküra haboro üken, miserable nizana ? Zeren orano besteak hain ehiñera sinetsi dütüt ?

Bena gizonak gira, eta ez deüs ere besterik, gizon flaküak baizik, zonbat ere hanitxek uste eta erraiten beitüe aingürüak girela.

Nor sinetsiren düt, Jauna, nor zü baizik ? Zü zira egia inganatzan ez düana, eta ezin inganatü izaten ahal dena.

Haboroz haboro *gizonak oro düütüzü gezürti*, flakü, kanbiakor, erorkor, orotan gainti bere(n) elestetan, gisa batez non nekez ihork sinetsi behar beitü are egiaren itxura düala üdüri düan gaüza.

4. Ala beigütüzü aitzinetiko ikuste handi bateki(n) abisatü gizoner gogoa eman behar günüala, erran deigüzünean *gizonaren etsaiak zirela bere mixkandiak*, eta ez zela behar sinetsi haur düzüela hebertxe, edo hura düzüela hantxe Jesús Jauna, errailea.

Ene kostüz hori ikasi dit, eta Jinkoak detsala eni gogoa haboro harrerazitzeko den, eta ez erokeriala eizteko.

Abisatü izan zite, (dio norbaitek) abisatü izan zite, begira ezazü zihaur beitan nik erraiten deizüdana. Eta ni isilik nagoen tenporan segret uste düdalarik, beraur ez diagokezü isilik segretü galtatü deitadanean, bena bere бүрүa eta ni salatü ondoan, ber(e)hala joan düzü.

Holako gizon elestari eta gogoarik emaiten ez düenatarik begira nazazü, Jauna, h(ai)en esküet(a)rat eror ez nadin, eta halakorik deüs seküla egin ez dezadan.

Ezarzü ene ahoan hitz egiati eta fermo dena, eta hürrünt ezazü eneganik mihi inganazalea.

Ez nirozü sobera gogoa eman ahal nihaurek onetsi nahi ez düdan gaüzari.

5. Ala beita hon eta bakezko bestetzaz isilik egoitea, eta gaüza ororen bardinzki ez sinestea, eta behin entzün ükenaz haboro ez nekez baizik mintzatzeta, apürri bere бүрүaren ezagüterazitza, berauren bihotzaren beti ikusle izatea.

Eta ez hitz ororen erranari kanbiatza, bena desiratza barnetiko eta kanpotiko gauzak oro zure borontatearen plazer honaren araur egin izan ditean.

Ala beita segür, zelüko graziaren ontsa begiratzeko, gizonen aitzineala agertzeari ihesi egitea ! Eta kanpotik peretxü handi emaneraziren deigüela üdüri den gaüzen ez desiratza : bena bizitzez kanbiaerazirik, debozionearen süia emaiten ahal deigüenen arranküra oso bateki(n) txerkatza !

Ala beita hanitxentako gaixto izan, h(ai)en bertütea ezagütü eta laüdatü izan den behar beno lehen !

Ala beita hanitx profetible izan segretki graziaren begiratza bizitze hüskor hontan, zoin dena oro tentazione eta gerla baizik ez beita.

XLVI. KAPITÜLÜA.

Jinkoatan ibork üken behar düan konfidantxaz, gure kontre erraiten diren ele(e)n honesteko.

1. B. Ene semea egon zite fermoki, eta nitan esparantxa üken ezazü. Ezi zer dira eleak, ele baizik ? Badoatzü airean, bena harriak ez zititzüe xehekatzen.

Ogendant bazira, pentsamentüan üken ezazü nahi zirela gogo honez kanbiatü honealat : kontzentziak ez badeizü ogenik ezagüterazitzen, nahi düzüla hori Jinkoagatik gogotik softeritü.

Aski gaüza apürra düzü zonbait ordüz eleak honets ditzazün, ez dirozünen gaine(a)n azote kolpü (sic) handirik softeritü.

Eta zeren hain gaüza txipiak bihotzeala igaraiten zaitzü, orano aragiari enjogi (565) zirelakoz baizik, eta gizoner behar beno haboro gogoa emaiten düzülakoz baizik.

Ezi mesperetxatü izatearen lotsa zirelakoz, zure falte(n)gatik hitzezko gaztigürik ez düzü nahi, eta estalgüne(e)n itzal hotza txerkatzen düzü.

2. Bena hobeki zihauri so egin ezazü, eta ezagütüren düzü mündüa eta gizoner plazer egiteko amorio banoa orano zütan bizi direla.

Ezi noiz ere apaltü eta zure falte(n)gatik ahalketü izateari ihesi egiten beitzü, gaüza segur bat düzü ez zirela egiazki ünble (566), ez egiazki mündüari hil, ez mündüa zuri kürützifikatü.

Bena beha zite ene hitzari, eta ez düzü axolik ükenen gizonen ehün mila hitzentako.

Erran litean ordüan zure kontre, ezinago malezia handi bateki(n), sor ahal litekean gaüzak oro, zer damü egin litzirozüe erras igaraitera eitz bazintza, eta lasto bat beno haboro etxeki ez bazintza ? Bilo bakoitz bat idoki ahal litzirozüeia ?

3. Bena deboziona bihotzean eta Jinkoa bere begien aitzinean ez düana, gaizki egina erakusten düan hitz batek ehiñera ofen(t)satzen dü.

Nitan aldiz fidatzen dena, eta bere jüjamentüari egoitera desiratzen ez düana, gizonen lotsarik batere gabe izanen da.

Ezi ni niz jüjea (567) eta segretüen ororen ezagützalea ; nik badakit gaüza nola igaren den ; nik goitzarren (568) egilea eta softerizalea ezagützen dütit.

⁵⁶⁵ enjogi (izan) : zale (izan), ekarri(a) (izan).

⁵⁶⁶ ünble : umila, apala.

⁵⁶⁷ jüje : epailea.

⁵⁶⁸ goitzarren : laidoa.

Ene jakileareki(n) hitz hura erran izan düzü, ene lixentziareki(n) hori heltü düzü, amore(a)gatik hanitxen bihotzetarik pen(t)samentüak ager litean.

Nik ogendüna (569) eta ogengabea jüjatüren (570) düüt, bena aitzinetik nahi üken düüt borogatü bata eta bestea jüjamentü estali batez.

4. Gizonen jakilegoak (571) ardüra inganatzen dü, ene jüjamentüa egiazko da, egonen da, eta ez da kanbiatü izanen.

Estalirik dago komünzki, eta apürri baizik ez da agertzen gaüza batbede-rarentako : bena seküla ez da inganatzen, ez ez daite ingana, zonbat ere zentzü gabe(e)n begietan ez beita xüxen üdüri.

Eni arren hersatü behar da jüjamentü orotan, eta ez berauren ustekerian bermatü.

Ezi *jüsto*a ez da *nabasiren*, *zernabibeita Jinkoaganik hel dakion*, nahibada zer bait haren kontre erran izan den hartan ez denik, ez dü axol handirik ükenen.

Gisa berean ez dü boztario handirik hartüren banoki, norbaitek arrazu-reki(n) falta gabe dela erakusten balin badüe.

Ezi bere beitan ikusten dizü ni nizala bihotz xokoen ikerzalea, eta ez düdala jüjatzen kanpotiko itxuraren araur.

Ezi hanitxetan gizonen jüjamentüan laüdable edireiten den gaüza, ez date hala ene begietan, bena bai itsusi eta oker.

5. Z. Jinko Jauna, jüje jüsto, azkarra eta pazentziaz betea, gizonen flake-zia eta gaixtotarzüna ezagützen dütüzüna, izan zite ene indarra eta konfi-dantxa oro ; ezi ez dizüt ene kon(t)zentzia bera aski.

Zük badakizü nik ez dakidana, eta hartakoz mehatxü orotan behar nike-zün ümiliatü, eta hurak eztiki soferitü.

Parka itzadazü falta egin dütüdanak, hala gobernatü ez nizan ordü oroz, eta emadazü (h)ar(t)zara haboro soferitzeko grazia.

Ezi hobe düzü enetako zure miserikordia hüts ez daiteana, parkamentüa-ren jardiesteko, eziez ene jüsto izateko ustekeria, kon(t)zentzia gorderik dagoenaren segürantzatan ezarteko.

Zonbat ere deüs ez beitüt ene bürüari sendi, hare(n)gatik ez zirozüt xahü idoki, zeren zure miserikordia gabe, *gizonik batere ez beita zure aitzinean jüsto edire-nen denik*.

⁵⁶⁹ ogen : hobena.

⁵⁷⁰ jüjatü : epaitu.

⁵⁷¹ jakilegoa : lekukotasuna, testigantza, testigutza.

XLVII. KAPITÜLÜA.

Gaiüza greügarriek orok bizitze eternalagatik soferitü behar düela.

1. B. Ene semea, ene amore(a)gatik hartü düütüzün tribailüek ez zitzela deskoraja (572), eta kantu (573) orotarik jiten zaitzün türbürarzünek ez zitzela bihotz apal izanerazi, bena ene hitzemaiteak behar zütü gaiüza heltzen diren orotan azkartü eta kon(t)solatü.

Nik badit nontik zü paka (574), izariak (575) oro beno handiago den gisa batez.

Ez zira lüzaz heben tribailatüren, ez beti dolorez kargatü izanen.

Egürükazü (576) apür bat, eta ikusiren düzü sarri (577) zure gaitzen ürrentzea.

Tenore bat jinen düzü zointan tribailüak eta nahaspillak oro baratüren beitira.

Tenporareki(n) igaraiten diren gaiüzak oro, txipi eta llabür düütüzü.

2. Egiten düzüna egizü ontsa, tribaila zite ene miñatzean (578) eta ni nükezü zure paküa (579).

Izkiriba, irakur, kanta ezazü, egizü hasperen, egon zite isilik, zaude orazionetan (580); soferi itzazü bihoztoiki zure nahiaren kontre jiten diren gaiüzak; bizitze eternalak merexi zitizü horik oro, eta handiagorik.

Jinkoak dakian egün batez jinen düzü bakea; eta ordüan ez dükezü tenpora hartako gaiüez egünik, bena bai argi beti iraünen düan bat, karitate mügagabe bat, bake fermo bat, eta pausü (581) segür bat.

Ordüan ez düzü erranen: *biltzeko korpitz hontarik nork libratüren nai?* Eta ez düzü marrakarik eginen, diozülarik: (h)elas miserable nizana, ala beita ene hebenko egoitea lüzatü! Zeren herioa betierekoz akazatü (582) izanen beita; han badükezü dohatsütarzün deüsetan ere eskazkeriarik ez dükean bat, erreüstarzünik gabe, hanko izale dohatsüen konpain(i)a ezti, eder eta maitagarrian.

3. O ikusi bazüntü zelüan diren saintüen betiereko koroak, zoinen gloria handiaren boztarioan daudean orai ere; zonbat ere noizbait mündü honi üdü-

⁵⁷² deskorajatü : kuraia galdu, adorea galdu.

⁵⁷³ kantu : kantoia.

⁵⁷⁴ pakatü : pagatu, ordaindu.

⁵⁷⁵ izari : neurria.

⁵⁷⁶ egürükü : igurikatu, iguriki, itxaron.

⁵⁷⁷ sarri : laster.

⁵⁷⁸ miñatze : mahastia, mahastioia.

⁵⁷⁹ pakü : pagua, paga, ordaina, lansaria.

⁵⁸⁰ orazione : otoitza, *Zub.* orazionea, otoitzea.

⁵⁸¹ pausü : atsedena.

⁵⁸² akazatü : ohiltü, haizatu, uxatu, kanporatu.

ritzen beitzeion mesperetxüaren peko zirela, eta kasi(k) bizitzea ez düela merexi : düda gabe lürrealadrano apal zinteke, eta nahiago zinanteke oren pean lehenago izan, eziez bakoitz baten gehien (583).

Eta ez zintzake bizitze hontako egün honak desira, bena lehenago alagera zinteke Jinkoagatik doloretan izateaz, eta irabazi ezinago handi bat uste zünüke lizateala gizonen artean ezdeüsentako igaraitea.

4. O goza bazintza gaüza hoiiek, eta zure bihotzean barna beno barnago sar balite ; nola atrebi (584) zinteke, aldi bakoitz batez ere, plainürik egitera !

Bizitze eternalarentako ez direia behar gaüza penosak oro soferitü ?

Ez düzü gaüza txipia Jinkoaren erresumaren grazia, edo irabaztea.

Goiti ezazü arren zelüalat zure begitartea. Haur nüzüla ni, eta ene sain-tüak oro eneki(n), zoinek mündü hontan debadio handirik üken beitiü, orai alagrantzian, orai kon(t)solazionean, orai segurantzian, orai pausüan beitiü, eta izanen ere bai ürrentzerik gabe eneki(n) ene aitaren erresuman.

XLVIII. KAPITÜLÜA.

Eternitateko egünaz, eta bizitze hontako bersidüretzaz.

1. Z. O zelüko ziotatearen (585) egoite ezinago dohatsüa ! O eternitateko egün ezinago argia ! Gaüek batek ülüntzen ez düana, bena egia ezinago handiak argitzen düana ; egün beti maitagarri, beti segur dena, eta kanbiorik batere kontrealat ükeiten ez düana !

O Jinkoak baletsa (586) egün hura jin lizan, eta mündü hontako gaüza tenporalak oro akabi liren !

Egia düzü leinürü beti iraünen düan batez dardeiatürik (587) saintüer argitzen düala ; bena ez lürren gaine(a)n bidejant direner, hürrünetik eta ülün-pez beterik den gisa batez baizik.

2. Bazikizüe zelüko ekoiliarrek (588) zoinen alagrantziaz beterik den hura : hasperen egiten dizüe Evaren haur desterratüek, haur karastarzünez eta debeiarzünez beterik delakoz.

⁵⁸³ gehien : buruzagia.

⁵⁸⁴ atrebitü : ausartu.

⁵⁸⁵ ziotate : hiria, herria.

⁵⁸⁶ baletsa : (on)ets(i) dezala.

⁵⁸⁷ dardeiatü : dirdiratu, arraiak eta izpiak bota.

⁵⁸⁸ ekoiliar : egoiliarra.

Oraiko tenporako egünak txipi eta gaitz, dolorez eta miseriaz beterik dira. Heben gizona hanitx bekatüz teiütürik diagozü, hanitx pasioneren lazoez hartürik, hanitx larderiaz tinkatürik, hanitx arrankürüz beterik, hanitx berri-tzepenez barreatürik, hanitx banitatez nahasirik, hanitx hütsez üngüratürik, hanix tribailüz flakatürik ; tentazione(e)k pezützen dizüe, plazerek indargabetzen, eta praubeziak eskerniatzen.

3. O noiz date gaitz hoiën akabantza ? Noiz bizioen esklabaje miserabletik libratü izanen niz ? Noiz zü zihaurtzaz baizik ez niz oritüren, Jauna ? Noiz zütan aseziareki(n) alageratüren niz ?

Noiz nizate trebükürük batere gabe, egiazko libertatean, ezpiritüaren ez korpitzaren pezütärzünik üken gabe ?

Noiz dateke bake hura, bake nahaspillarik batere gabe datekeana, bake barnetik eta kanpotik, bake alte orotarik fermo izanen dena ?

O ene Jesüs hona ! Noiz nizateke zure ikusten ? Noiz so egitez gozatüren düt zure erresumako gloria ? Noiz ükenen zütüt oro orotan ?

O noiz nizateke zureki(n), eternitate oroz geroz zure maite(e)r adelatü düzün erresuman ?

Eitzia nüzü, praube eta desterratü nizana etsaiaren lürrean, non egün oroz beitira gerla eta desfortüna handiak.

4. Kon(t)sola ezazü ene desterrüa, ezti ezazü ene dolorea, zeren zureganat beitoatza ene desirkünte ororen hasperenak.

Ezi mündüak kon(t)solazionetako emaiten deiztan gaüzak oro, karga bat dütüzü enetako.

Desiratzen dit zure presentziaz hüllan beno hüllanago gozatzea, bena ezin atzamaiten dizüt.

Nahi nüzü zelüko gaüzer estekatü, bena mündü hontako gaüzek eta pasione hilerazi gabe(e)k bere(n)ganat apalerazitzen nizüe.

Ezpiritüz gaüzak oro beno gorago izan nahi nüzü, bena aragiak bortxatzen nizü, nihauren nahiaren kontre, h(ai)en pean izatera.

Gisa hortan desdixatü nizana, nihauren bürüaren kontre gerla egiten dizüt, eta nihuri greü gertatü nüzü, ezpiritüak gaine(a)n, aragiak pean izaria txerkatzen düan tenporan.

5. O zer ez düt ene barnean softeritzen ezpiritüz zelüko gaüzetan nagoe-nean, eta ene otoitzetan aragiaren pentsamentü saldo bat jiten zaitanean ! Ene Jinkoa, ez ziteala eneganik hürrünt, eta zure koleran ez ziteala zure zerbütxiarienganik gibelt (589).

⁵⁸⁹ gibeltü : gibelatu, gibeleratu, atzeratu, atzera egin.

Jalkieraz izazü zure inazia, eta h(ai)en galerazitzeko, igorrazü zure armak, eta etsaiaren itsusmentüak (590) oro ezdeüsetara jinen dütüzü.

Ene zentzüak zureganat bileraz itzazü, ahatzeraz izadatzü (591) mündüko gaüzak oro : emadazü bizioen üdüripen gaixtoen apartatzeko eta mesperetxatzeko grazia.

Sokorri nazazü egia eternala, amore(a)gatik banitate(e)k batek ere ez nazan hunki.

Hel zite zelüko eztitarzüna, eta bihoatz(a) ihesi zure aitzinetik teiarzünak oro.

Parka ezadazü orano, eta heizü nitzaz miserikordia, ene otoitzetan zützaz kanpo, besterik zerbait gogoan düdan ordü oroz.

Ezi egiareki(n) aitortzen dit, barreiarzü handi bateki(n) h(ai)etan üsatü nizala izatera.

Ezi hanitx aldiz, korpitzez txüti(k) edo jarririk nagoen leküan ez nüzü, bena bai lehenago pentsamentüek eramaiten naienean.

Ene pentsamentüa den leküan nüzü, eta ardüra ene pentsamentüa maite düdan gaüzan diagozü.

Natüralki edo kostümaz plazer egiten deitan gaüza, ber(e)hala ene gogoala jiten düzü.

6. Hartakoz zük, egia bera beitzira, agerriz erran üken düzü : *Non ere beita zure tresaura* (592), *ban düzü zure bibotza*.

Zelüa maite badüt, gogo honez zelüko gaüzetan ene pentsamentüa etxekiten dit.

Mündüa maite badüt, mündüko dohatsütarzünetzaz alageratzen nüzü, eta haren desfortünetzaz tristetzen.

Aragia maite badüt, aragiari so daudeanak zikit bürüan.

Ezpiritüa maite badüt, plazer hartzen dit gaüza ezpiritüalen gogoan etxekitez.

Ezi maite dütüdan gaüza orotzaz gogo honez mintzatzen nüzü, eta h(ai)er behatzen, eta halako gaüzen imajinak nihaureki(n) etxerat eramaiten zikit.

Bena dohatsü düzü, Jauna, zure amore(a)gatik kreatürak oro bere bihotzetik idokitzen dütüan gizona, bere bürüari bortxa egiten düana, aragiaren desirküntek ezpiritüaren debozionaaz k(ü)rützifikatzen dütüana, amore(a)gatik kontzentziaren ontsa xahat(ü) ondoan, oberenda dizazün orazione xahü bat ; eta mündüko gaüzen ororen barnetik eta kanpotik akaza ondoan, merexi dezan aingürüen senbladan (593) izatea.

⁵⁹⁰ itsusmentü : itsustasuna.

⁵⁹¹ ahatze : ahantzi.

⁵⁹² tresaur : tresora, altxorra.

⁵⁹³ senblada : biltzarra.

XLIX. KAPITÜLÜA.

*Bizitze eternalaren desiratzeaz, eta barat joaitera iseiatzan direner,
zoinen hontarzün handiak daudean baidürü.*

1. B. Ene semea, borogutzen düzünean gloria eternalaren desirküntea zelütik isurtzen zaizüla, eta korpitzetik jalkitea zure arimak desiratzten düala, amore(a)gatik ene argitarzüna kanbiamentuaren itzalik gabe ikus ahal dezan, zabal ezazü zure bihotza, eta inspirarzün saintü hura besarka borontate oso bateki(n).

Esker ezinago handiak eman itzazü zelüko hontarzünari, zoinek hain mañuski (594) tratatzen beitzütü, hain eztiki bisitatzen, hainbeste süreki(n) korajutzen, eta hainbeste potereki(n) goititzen ere bai, beldürrez zihaturen pezüak lürreko gaüzetarar erorerazi zitzan.

Ezi ez düzü hori zure pentsamentüz edo iseiüz ükeiten, bena bai zelüko graziaren eta Jinkoaren soaren hontarzünetik, amore(a)gatik bertütean ümilitate handi bateki(n) aitzina zitean, eta adela gero jinen diren atakarzünen garaitzera, eta iseia zitean bihotz osoz eni estekatü izatera, eta borontate süz bete bateki(n) ene zerbützatzerä.

2. Ene semea, süia ardüra piztürük diagozü, bena garra kerik gabe ez düzü goiti joaiten.

Orobat zombaitetan desirkünteak zelüko gaüzetarako süz beterik diaudezü, eta hare(n)gatik ez dütüzü aragiaren tentazionerik gabe.

Hartakoz ez dizüe erras xahüki eta pürki Jinkoaren ohoreagatik egiten hainbeste desirküntereki(n) galtatzen deien gaüza.

Holako düzü ardüran zure desira, zoin entelegaerazi beitzüzü hersi jarraitzen zaizüla.

Ezi gihauren abantailaz tonatü den gaüza ez da ez xahü, ez osoki konplitü.

3. Galta ezazü, ez zihauri plazent eta abantailos zaizüna, bena eni plazer eta ohore egiten deitana : zeren ontsa pentsatzen badüzü, behar beitzüzü ene manüaren xüxentarzüna, zure desiraren eta zük desira ahal ziniroanaren gainetik ezarri, eta hari jarraiki.

Ezagützen dit zure desira, eta entzün zitit ardüra egin dütüzün hasperenak.

Nahi zinanteke jadanik izan Jinkoaren haurren gloriaren libertatean : jadanik etxe eternal eta zelüko herri boztarioz beterik den harek plazer egiten deizü, bena ez düzü orano jin oren hura ; badüzü orano beste tenpora bat, erran nahi beita gerlazko tenpora, tribailüzko eta borogatü izateko tenpora.

⁵⁹⁴ mañuski : miserikordiarekin, eskuzabalez.

Desiratzen düzü hontarzün ezinago handiaz bete izatea, bena ez dirozü orai hura jardiets.

Ni nüzü : egürüki nazazü (dio Jaunak) Jinkoaren erresuma jin arteo.

4. Behar düzü orano lürrean borogatü izan, eta hanitx gaüzatan bulkatü.

Emanen zaizü zombait ordüz kon(t)solazionea, bena ez behinere asezia osoa.

Azkar zite arren, eta izan zite indartsü, natürak nahi ez dütüan gaüzen, bada ontsa egiteko, bada soferitzeko.

Gizon berriaz beztitü behar düzü, eta beste gizon batetara kanbiatü.

Ardüra egin behar düzü nahi ez düzüna, eta nahi düzüna orobat eitzi.

Beste(e)r plazer egiten düan gaüzak badizü opütz (595) hon bat, eta zure gogara denak ez dizü aitzinago profemitürük emanen.

Beste(e)n errana entzün izanen düzü, zurea ezdeüsentako hartü izanen düzü ; beste(e)k galtatüa ükenen dizüe, zük aldiz zure galtoa ez düzü jardie-tsiren.

5. Besteak handi dütükezü jente(e)n ahoetan, zützaz aldiz ez dizüe hitzik erranen.

Beste(e)r gaüza bata edo bestea fidatüren dizüe, zü aldiz deüsentako ez zütüe hon edirenen.

Hori dela kausa natüra zombait aldiz tristetüren düzü, eta ez dükezü apür isilik soferitzen badüzü.

Gaüza horietan, eta beste holako hanitxetan, ardüran borogatü izaten da Jinkoaren zerbütxari leiala, zer gisaz bere bürüa ezdeüsten, eta gaüza orotan hezten ahal dükean.

Nekez düzü holako zerbait, zointan hainbeste mengoa ez düzün, zihau- ren bürüari hiltzea, nola ikusten eta soferitzen düzünean, zure borontatearen kontre datekean gaüza zombait, orotan gainti aldiz, manü ükenen düzünean, gaüza desarau eta ez direla hon zuri üdüri zaikezünen egitea.

Eta nola ez beitzira bentüratzen besteren esküpean zaudeano, potere handi-ago bati bühürtzera, hartakoz gaitz üdüri zaizü dela besteren keinürük mendre- neala plegatzea, eta hartan ebiltea, eta zure sendimentü propiaren eiztea.

6. Bena ontsa ikusazü, ene semea, tribailü horien frütüa, h(ai)en bertan akabatzea, eta pakü ezinago handia ; eta hantik ez düzü ükenen kexeriarik, bai aldiz kon(t)solio ezinago azkar bat.

Ezi orai gogotik borontate txipi eizten düzün honen ordari, zelüan beti ükenen düzü zure borontatearen konplitzea.

Ezi han edirenen dütüzü nahi dütüzün gaüzak, edo desira ahal zintzakea- nak oro.

⁵⁹⁵ opütz : emaitza, ondorioa.

Han badükezü hontarzün ooren ükeiteko poterea, h(ai)en galtzeko lotsarik gabe.

Han zure borontateak, eneareki(n) beti jüntatürik, ez dizü deüs besterenik ez berauren berezirik desiratüren.

Han ihor ez zaizü bühürtüren, ihor ez düzü zützaz plainitüren, ihork ez zütü destorbatüren, deüs ez zaizü nahi ez düzünik jinen : bena gaüza desiratüak oro batetan, zure gogoaren araur dütükezü, eta zure bihotzeko desirkün-teak oro aseziatüren eta gaintikatüren zitizüe.

Han goitzarren soferitüen ordari, emanen deizüt gloria, tristezien ordari laüdorioz estaliren zütüt, eta lekürrik apalena hartü dükezülakoz, ükenen düzü ene erresumako egongia betierekoz.

Han agertüren düzü obedientziaren frütüa, alageratüren düzü penitentziaren tribailüa, eta besteren pean izate ümila koroatü izanen düzü.

Apal zite arren orai ümilki beste(e)n ooren esküpetara, eta ez düzüla axolik jakitez nork hori erran edo manatü düan.

Bena üken ezazü arranküra handi bat, ala zure gehienak, ala zü beno gazteagoak, ala zihaturen bardinak galtatü edo ezagüterazi deizün gaüzaren honeala hartzeko, eta iseia zite egiazko borontate batez haren konplitzera.

Batak txerkatüren dizü haur, besteak hura, haur glorifikatüren düzü hontan, bestea hartan, eta biz laüdatü mila miliutan ; zü aldiz ez ziteala alagera, ez hartan, ez hontan, bena bai zure zihaturen mesperetxatü izatean, eta ene nihaturen plazer honean eta ohorean.

Haur behar düzü desiratü, Jinkoa den zütan glorifikatü, bada bizian, bada hilean.

L. KAPITÜLÜA.

Zer gisaz gizon eskerniatüak Jinkoaren esküetan jarri bebar düan.

1. Z. Ene Jinko Jauna, aita saintüa, zirela orai eta betiere benedikatü ; zeren zük nahi bezala oro egin izan beitira, eta zük eginen dütüzünak hon beitira.

Alagera bedi zütan zure zerbütxaria, ez beraurtan, ez eta ere beste zonbaitetan ; zeren zü zihaur beitzira egiazko alagrantzia, zü ene esparantxa eta koroa, zü Jauna ene boztarioa eta ohorea.

Zer dü zure zerbütxariak zureganik üken düana baizik, eta hura ere merexitü gabe ?

Zük eman eta egin dütüzünak oro, zureak dütüzü.

Praube nüzü, eta ene gaztezarooz geroz beti penetan : tristetzen düzü zonbait ordüz ene arima, nigar egitealadrano ; zonbait aldiz ere bere beitan nahasten, pasione bertan atakatüren düenen direla kausa.

2. Bakearen boztarioa desiratzen dit, zure haurren bakea galtatzen dit, zoin kon(t)solazionearen argiaz hazten beitütüzü.

Emaiten badüzü bakea, isurten badüzü alagrantzia saintüa, zure zerbütxiariaren arima boztariozko kantatzez beterik izanen düzü, eta debota ere bai zure laüdorioan.

Bena haren(n)ganik hürrüntzen bazira, ardüra kostümatü düzün bezala, ez düzü ebiliren ahal zure manüen bidean, bena lehenago haren belaünak plegatzen dütüzü bere bularraren zaflatzeko ; zeren ez den atzo eta herenegün bezala, noiz ere zure argiak bere leinürüak hedatzen beitzütüan haren bürü(a)n gain(er)a, eta zure hegalen itzalaren pean, tentazione atakatzen züenatarik begiratüa beitzen.

3. Aita jüsto, saintü eta beti laüdatü izan behar düzüna, zure zerbütziariaren borogatü izateko orena jin düzü.

Aita maitatü izan behar düzüna, jüsto düzü zure zerbütxiariak zerbait zuregatik soferi dezan oren hontan.

Aita beti ohoratü izan behar düzüna, zük eternitate oroz geroaz jinen zela bazanakian orena jin düzü, zointan zure zerbütxiariak tenpora apür batez apalmentü üken behar beitu kanpotik, barnetik zü beitan beti bizitzen delarik.

Biz apür bat mesperetxatü eta ümiliatü, ezdeüs bedi gizonen aitzinean, soferitze(e)k eta eritarzünek xeheka beze(e), amore(a)gatik zureki(n) (h)ar(t)zara pitz dadin argi berri baten azkor(r)ian, eta zelüko gaüzetan argiz betea izan dadin.

O aita saintüa, zük hala eragin düzü, zük hala nahi üken düzü, eta zük manatü üken düzüna egin izan düzü.

4. Zure adiskideari egiten düzün grazia bat düzü mündü hontan zure ganako amorioagatik soferitzea eta türbürarzünean izatea, zonbatetan-nahibeita, eta nortzaz-nahibeita hori egin ledin nahi üken beitüzü.

Deüs lürren gaine(a)n egiten deia arrazu gabe, eta non ez den zure kon(t)seilüaz eta probidentziaz pausatüa ?

Hon düzü enetako, Jauna, zeren ümiliatü naizün, amore(a)gatik ikas ditzadan zure grazian izateko bideak, eta aparta ditzadan bihotzeko goratarzünak, eta nihaurez dütüdan sineste honak.

Profeitable düzü enetako zeren ahalkez estalirik begitartea üken düdan, amore(a)gatik gizonak beno lehen, zü txerka zitzadan ene kon(t)solazionetako.

Hortarik ere ikasi dit zure jüjamentü ezin ezagützen denaz ikara jarten ; zeren jüstoa gaixtoeki(n) nahastekatzen beitüzü dolore(e)tan, bena ez hon arau eta jüstoki baizik.

5. Eskerrak emaiten deitzüt, zeren ene gaizki eginak gaztigatü gabe ez dütüzün eitzi, bena azote kolpü (sic) garratzez xehekatü naizün, doloreak emaiten eta hersidürak igorten zeneiztalarik kanpotik eta barnetik.

Ez düzü ni kon(t)sola niroanik zelüaren pean diren gaüzetarik batere, zü baizik, ene Jinko Jauna, arimen zelüko medezia (596) ; zük zaur(i)tzen gütüzü eta sendotzen, zük ifernüaren kantüala eramaiten gütüzü, eta hantik idokitzen ere bai. Biz zure gaztigüa nitan gaine(a)n, eta zure zabaroak berak jakintsütüren nizü.

6. Haur nüzüla ni, zure esküen artean, aita maitatüa, zure azote kolpüen gaztigüaren pean apaltzen nüzü.

Zafla ezazü ene bizkarra eta ene lepoa, amore(a)gatik ene okerreria ple-gaerazi dezazün zure borontatearen egitera.

Egin nazazü zure dizipülü debot eta ümil bat, ontsa egitera kostümatü düzün bezala, amore(a)gatik zure begi keinüririk mendre(e)nean obedi zitza-dan.

Nihauren büriä, eta nik dütüdanak oro gomendatzen deitzüt gaztigatü izateko, hobe düzü heben gaztigatü izatea, eziez beste mündüan.

Zük oro bederakarka (597) badakitzü, eta gizonaren kontzentzian deüs estalirik ez düzü zuretako.

Heltü behar düen gaüzak, egin izan ziren beno lehen ezagütü züntüan, eta ez düzü beharrik norbaitek abisa zitza, edo erakuts ditzazün lürren gaine(a)n igaraiten diren gaüzak.

Zük badakizü zer den hon ene profetiarentako, eta zoinen abantailos den gaitz ükeitean bizioen erdoilaren garbitzeko.

Egizü nitzaz zihaurk plazer düzüna, eta ez dezazüla beltzuririk egin ene bizitze bekatüz estaliari, zoin ihork zük beno hobeki eta klarkiago ez beitü ezagützen.

7. Jauna, emadazü grazia jakin behar düdanaren jakiteko, maitatü behar düdanaren maitatzeko, zuri plazentetik zaizünaren laüdatzeko, zuri preziatü üdüri zaizünaren gogoan etxekiteko, eta zure begien aitzinean itsusi denaren deslaüdatzeko.

Ez nazazüla eitz ene begiek kanpoan ikusten düenaren araur ene jüjamen-tüaren emaitera, ez ene sendimentüaren erraitera gizon deüs ez dakienen entzütearen araur : bena bere(i)zeraz izadazü beti gaüza ooren gainetik zure plazer honaren borontatea.

8. Gizonen zentzüak ardüra inganaten dira bere(n) jüjamentüen emai-tean, orobat mündü honen maitazaleak inganaten dira, ikusten ahal diren gaüzen baizik ez maite ükeitez.

Nolaz da gizona hobe, beste gizon batek besteak beno handiago uste düa-lakoz ?

⁵⁹⁶ medezi : medikua, sendagilea.

⁵⁹⁷ bederakarka : bederazka, banaka.

Inganazale batek inganazale bat, bano batek bano bat, ütsü batek ütsü bat, flakü batek flakü bat inganatzen dü goratzen düan tenporan, eta egiaren erraitera, ahalkez lehenago betatzen dü banoki laüdatzen düanean.

Ezi San Frantses ümilak dioian bezala, Jinkoaren begien aitzinean handi den bezainbeste düzü batbedera, eta ez haboro.

LI. KAPITÜLÜA.

Obra apaler ihork estekatü behar düala, gorenetera ezin beltzen denean.

1. B. Ez zauteke beti, ene semea, bertüte(e)n desir süz betean, ez eta ere zelüko ezpiritüz ikustearen gradürük gorenean ; bena behar düzü zonbait aldiz, bekatü orijinalaren kozü gaixtoa dela kausa, lekü apalagoetarat jaitsi, eta zihaurk nahi gaberik, eta debeiatzen zirelarik, egari bizitze gastatü honen pezüa.

Korpitz hilkor haur karreiatzen düzüno, borogatüren düzü debeiarzüna eta bihotzeko pezütarzüna.

Behar düzü arren ardüra, korpitz honeki(n) zireno, hasperen egin, aragiaren pezütarzüna dela kausa ; zeren ez beitzitake tai(ri)k gabe esteka Jinkoaren ezpiritüz ikusteari, edo gisa hortako obrer.

2. Ordüan hon dükezü zuretako hersa zitean obra apaler eta kanpotikoer, eta alageraxe zitean egitate honetan : egürüki dezazün konfidantxa fermo bateki(n) ene jitea eta zelüko bisita, pazentziareki(n) soferi dezazün zure desterrüa eta ezpiritüaren idortarzüna, nik (h)ar(t)zara bisita eta erreüstarzün orotarik libra zitzadan arteo.

Ezi ahazteraziren deizüt zure pena, eta barneko pausüaz gozaeraziren zütüt.

Hedatüren zitit zure aitzinean eskriptüraren edertarzünak, amore(a)gatik, bihotza largatürük, has zitean lasterkan ene manüen bidean.

Eta erranen düzü : *mündü hontako soferitze(e)k ez düe merexitzen gütan agertüren den beste mündüko gloria.*

LII. KAPITÜLÜA.

Gizonak uste üken behar düala lehenago merexi dütüala azote kolpüak, eziez kon(t)solazioneak.

1. Z. Jauna, ez dit merexi zure kon(t)solazionea, ez bisita ezpiritüala : eta hartakoz jüstoki tratatzen naizü, prauberik eta eskerniatürük eizten naizünean.

Ezi, itsaso bat nigar egin ahal nezan ordüan, ez nikezü orano merexitzen zure kon(t)solazionea.

Hartakoz deüs besterik ez dit merexitzen, baizik ere azotatu eta gaztigatu izatea ; zeren ardüra eta mortalki ofen(t)satu beitzütüt, eta gaüza hanitxetan hüts handirik egin beität.

Egiazko arren arrazua ontsa ezagütürik, ez dit merexi kon(t)solazionerik mendre(e)n mendre(e)na.

Bena zük, Jinko ezti eta miserikordios zirena, zure obrak gal ditean nahi ez düzüna,. miserikordiaren ontzien eretzean, zure hontarzünaren aberastar-züen erakusteko, badüzü karitatea zure zerbütxiaren, harek ihontik merexi düan beno haboro kon(t)solatzekoa, gizonek orok egin liroien beno hobeki.

Ezi zure kon(t)solazioeak ez dütüzü gizonen elestak (598) bezala.

2. Zer egin düt, Jauna, zük eni eman zinizadan zelüko zonbait kon(t)solazioe ?

Nik nihaur beitan ezagützen dit deüs honik ez düdala egin, bena bizioetara beti ekarri, eta honealat ützültzeko herabezti izan nizala.

Hori egia düzü, eta ez zirozüt üka. Bestela erran baneza, zü jar zinteko ene kontre, eta ez lükezü ihor ni süstenga nindiroanik.

Zer merexitü düt ene bekatüentako, ifernüa eta sü eternala baizik ?

Egian aitortzen dit trüfak eta mesperetxüak merexi dütüdala, eta ez dau-tala ontsa zure deboten artean izentatu izatea : eta zonbat ere hori nekez entzüten beität, hare(n)gatik orogatik salatüren zitit ene bekatüak, nihauren kontre, egiaren süstengütan, amore(a)gatik zure miserikordiaren ehiñerago jardiestea merexi dezadan.

Ogendant nizanean, eta ahalkez beterik nagoanean, zer erranen düt ?

Ez dit hitz honen erraiteko baizik mihirik : bekatü egin dit, Jauna, bekatü egin dit, heizü nitzaz pietate, parka ezadazü.

Eitz nazazü apür bat ene dolorearen nigarrez hüstera, lür ülün eta herioaren belzküras estalirik dagoenealat joan beno lehen.

Deüs galtatzen düzüa gar habororeki(n) bekatore miserable ogendant bate(n)ganik, eziez bihotzeko dolümenean izan dadin, eta bere falte(n)gatik ümilia dadin ?

Egiazko dolümenean eta bihotzaren ümiliatzean sortzen düzü parkamentüaren esparantxa, pausatzen düzü kontzentzia nahasia, arraberritzen düzü grazia galdüa, begiratzen düzü gizona gero jin behar düan koleratik, eta Jinkoa eta arima penitenta batzen dütüzü alkarreki(n), besarka saintü batetan.

4. Bekatüen dolümen ümila, sakrifizio maitagarri bat düzü zuretako, Jauna, zoinek ürrin (599) hanitxez hobeago bat egoixten beität zure aitzinean, eziez intsentsü erratzen denak.

⁵⁹⁸ elesta (iz.) : eleketa, hizketa.

⁵⁹⁹ ürrin : usaina, *hemen* usain ona, lurrina.

Hori düzü orano ünkentü preziatü, zure hoin sakratüetara isur ledin nahi üken zünüana : zeren ez beitüzü seküla beltzuririk egin bihotz dolümenez eta ümilitatez beterik dagoenari.

Han düzü gure etsaiaren kolerari ihesi egiteko leküa ; han teiarzün bestetarik bildü dütügünak oro garbitzen eta honealat kanbiatzen dütüzü.

LIII. KAPITÜLÜA.

Jinkoaren grazia ez dela laket lürreko gaüzetan gozo hartzen düenekilan.

1. B. Ene semea, ene grazia preziatü düzü, ezin honesten dizü kanpotiko gaüzekilan eta lürreko kon(t)solazionekilan nahastekatü izatea.

Apartatü arren behar dütüzü graziaren baragailüak oro, haren ükeitea desirutzen badüzü.

Beste(en)ganik bere(i)z zite, maite üken ezazü ihor ere gabe izatea, ez dezazüla txerka ihoreki(n) elestatzea, bena bai lehenago Jinkoaren debotki otoitzea, amore(a)gatik kontzentzia xahürik eta ezpiritüa dolümenareki(n) etxeke ditzatzün.

Ez dezazüla mündü oroz peretxürik batere egin : Jinkoaren zerbütatzea kanpotiko gaüza ororen gainetik ezar ezazü.

Ezi ez dirokezü ezpiritüa eneki(n) etxeke, eta tenpora beraurtan gaüza igaraiten diren hoietan plazer har.

Hürüntü behar düzü ezagünetarik eta maite dütüzüne(n)ganik, eta zure ezpiritüa gibeltü kon(t)solazione tenporal orotarik.

Hartakoz Jondane Petiri apostolüak otoitzen zitizü Jesü Kristen zerbütxari leialak, bere(n) bürüak bidejant eta arrotz elibat bezala etxeke ditzen mündü hontan.

2. Ala beitüke konfidantxa handia, hiltzerako püntüan, mündü hontako gaüzaren baten ere estekamentürik ez dükeanak !

Bena ezpiritü orano eri den batek, ezin bere beitan entelegatzen dü zer den hala bihotzaren gaüza orotarik laxatürik ükeitea ; eta gizon aragiareki(n) estekatürik dagoenak, ez daki zer den gizon debotaren libertatea.

Hare(n)gatik orogatik, nahi bada egiazko debot izan, behar dü hain ontsa hüllaner nola hürrüner adio erran, eta ihori ere ez haboro gogoa eman, eziez bere bürüari.

Zihauren bürüa erras garaitzen badüzü, bestetan ehiñerago bürütan (600) joanen zira.

Bere bürüaren garaitzea da bitoria osoa.

⁶⁰⁰ bürütan : buruan, aurrean, aitzinean.

Ezi nork ere bere bürüa apaltürrik etxekiten beitü, gisa batez non aragia arrazuaren, eta arrazua ene obedien(t)zian egon dadin gaüza orotan, hura da egiazki bere bürüaren garaitzale, eta mündüaren bür(ü)zagi.

3. Goratarzün hortara igaitea desiratzen balin badüzü, hasi behar düzü bihoztoiki, eta zainealadrano (601) aixkora pikoa (602) eman, amore(a)gatik idoki eta desegin dezazün zihaurganako eta mündüko hon berezi orentako düzün enjogidüra gaixto estalirik dagoena.

Errotik garaitü behar diren gaüzak oro daude kasi(k) bizio hortan, erran nahi beita bere bürüaren sobera behar ez den bezala maitatzean : gaitz hori garaitüz eta plegatüz geroz, ihork ükenen dü ber(e)hala bake eta pausü handi bat.

Bena nola jente apür iseiitzen beitira bere(n) bürüari osoki hiltzera, eta bere(n) beitatik ez beitira erras jalkiten, hartakoz egoiten dira bere(n) beitan nahasirik, eta ez ditake ezpiritüz berak beno gorago joan.

Eneki(n) aldiz, trebükü gabe ebiltea desiratzen düanak, behar dütü bere bihotzeko nahikünte gaixto eta okerrak oro hilerazi, eta kreatürari bateri ere ez pasionereki(n) estekatü amorio berezi batez.

LIV. KAPITÜLÜA.

Graziaren eta natüraren bulka ezin alkarreki(n) konpostatzen abal direnetzaz.

1. B. Ene semea, ontsa gogoa eman ezazü natüraren eta graziaren bulker, zeren ezabaki alkarren kontre bulkatzen beitüe, eta nekez bere(i)zi izaten beitära, gizon debotaz eta barnetik argitü denaz baizik.

Egiala orok gaüza hona desiratzen düe, eta uste düe zerbait honik badela h(ai)en erranetan eta eginetan : hartakoz honaren itxuraren pean hanitx inganätü izaten dira.

Natüra finazios da, bereganat hanitx jente tiratzen dütü, lazoetan hartzen eta inganatzten, eta berauri beti azkenik so egiten dü.

Grazia aldiz sinpleki ebiltzen da, üdüripen gaixto orotarik gibeltzen da, inganiorik ez dü nahi, eta gaüzak oro egiten dütü xahüki Jinkoagatik, zointan azkenki pausatzen beita.

2. Natüra ez da nahi bortxaz baizik hil, ez hersatü, ez goitü izan, ez bere olez beste(e)n pean plegatü ez jarri.

⁶⁰¹ zain : *hemen* erroa.

⁶⁰² piko : ebaki dezakeen kolpea.

Grazia aldiz bere bürüari bortxa egitera iseiatzen da, aragiaren nahikün(e)r bühürtzen da, pean izatea txerkatzen dü, goitü izatea desiratzen dü, ez da nahi bere libertateaz zerbüt(x)atü, gaztigüaren pean izatea maite dü, iho-ren gehiengoarik ez dü galtatzen, bena bai Jinkoaren pean beti bizitzea, egoi-tea eta izatea, eta Jinkoaren amore(a)gatik prest da kreatüra ooren pean ümilki jartera.

Natüra bere abantailagatik tribailatzen da, eta zer irabazi beste bate(n)ganik jin ahal dakidion gogoia emaiten dü.

Graziak aldiz hobeki so egiten dü, ez zer abantaila edo hon berauri jin dakidion, bena hanitxentako profiteable datekeanari.

Natürak gogo honez ohorea eta koladak (603) hartzen düti.

Graziak aldiz ohorea eta gloria oro Jinkoari leialki emaiten düti.

Natüra ahalkearen eta mesperetxüaren lotsa da.

Grazia aldiz alageratzen da Jesü Kristen izenetan goitzarrenen honesteaz.

Natürak auherkeria eta korpitzaren pausüa maite düti.

Grazia aldiz deüs egin gabe ez dagoke, eta tribailüa gogo honez besarkatzen dü.

Natürak gaüza berrien eta ederren ükeitea txerkatzen dü, hastio düti txar-rak eta lodiak.

Graziari aldiz gaüza sinple eta ümilek plazer egiten düe, ez düti lodiak mesperetxatzen, ez eta ere xaharkiz beztitzeari beltzuririk egiten.

Natürak gaüza tenporaler so egiten dü, lürreko irabaziez alageratzen da eta damüaz tristetzen, hitz arinzki erran batez kexatzen da.

Graziak aldiz eternitateko gaüzetan gogoia etxekiten dü, tenporaler este-katü gabe dagoelarik, gaüzen gal(t)zeak ez dü nahasten, ez eta ere ele gaixtoek kexaerazitzen : zeren zelüan, deüs galtzen ez den leküan ezarri beitü bere tresaura eta boztarioa.

4. Natüra nahios (604) da, eta hartzen gogo hobez dü eziez emaiten, bere gaüza propiak maite düti.

Grazia aldiz debot eta komün da, bere(i)zkerier ihesi egiten dü, apürrez pairatzen (605) da, *emaita hobea go dela* uste dü, *eziez hartzea*.

Natüra kreatüretarat, bere aragi propialat, banitate(e)tarat eta elestetarat erortoki da.

Graziak aldiz Jinkoaganat eta bertüte(e)tarat tiratzen dü, kreatürak eizten düti, mündüari ihesi egiten dü, aragiaren nahikün(e)ak hügü düti, ezpiritüaren barreiarzünak baratzen düti, gizonen artean agertzera ahalke da.

⁶⁰³ kolada : errespetua.

⁶⁰⁴ nahios : nahitsua, gutziatsua.

⁶⁰⁵ pairatü (*hemen : da*) : asebeta, kontentatu.

Natürak gogo honez kanpotiko zonbait kon(t)solazione hartzen dü, zointan gozotako plazer bat edireiten beitu.

Graziak aldiz Jinkoatan beraurtan kon(t)solatü izatea txerkatzen dü, eta gaüza ikus ditakean ororen gainetik, hontarzün ezinago handi denean bere plazera edireiten dü.

5. Natürak oro egiten dütü bere irabazi edo abantaila propiagatik, deüs ez dü egiten dohainik, bere honki eginen pakü esparantxa dü ükenen düala berak egin bezalako bat, edo hobe bat, edo laütorio bat, edo ürgaizte bat ; eta bortizki nahi dü bere gaüza eginak edo emanak hanitx peretxatüak izan ditean.

Graziak aldiz deüs ere tenporalik ez dü txerkatzen, ez beste pakürrik Jinkoa bera baizik ordaritako, eta gaüza tenporal behar direnetarik batere ez dü desiratzen, hontarzün eternalen jardiasteko zerbüttxatzen ahal zaitzonak baizik.

6. Natürak plazer hartzen dü adiskide eta askazi hanitx ükeiteaz, etxe honetik eta arraza handitik jalkiteaz glorifikatzen da, puxanter gogara egiten dü, aberatsak lausenkaten dütü, eta bera üdüri direnen ützüliak laüdatzen dütü.

Graziak aldiz etsaiak ere maite dütü, ez da adiskideen hanixtarzünaz handitzen, ez dü etxeaz ez sortzepenez kasürrik egiten, han berean edireiten ez bada bertüte handiago bat.

Praubea lehenago eziez aberatsa ürgaizten dü, ogengabea dolügarriago zaio eziez püxanta, egiatiareki(n) laketago da eziez inganazalareki(n).

Jente perestüak korajutzen dütü, beti obra hobeagorik egitera inbeia üken dezen, eta Jinkoaren semeari, bertüte(e)n moianez, üdüri izan ditean.

Natüra mentsaz eta penaz plainitzen da ber(e)hala, graziak fermoki gabezia soferitzen dü.

7. Natürak beraurganat gaüzak oro ützülerazitzen dütü, beraurgatik indarkatzen da, eta beste(e)tan zerbait arrerraiteko edireiten dü.

Graziak aldiz Jinkoaganat oro ützültzen dütü, zoine(n)ganik lehen ütürbürütik bezala jalkiten beita ; deüs honik berauri ez dü honesten, ez beraurtzaz ügüilütsüki pakü izaten, debadorik ez dü eraikiten ; bere sendimentüa beste(e)na beno hobe ez dü etxekiten ; bena bere sendimentü eta entelegü orotan zühürtze eternalaren, eta Jinko oro ikusten eta ezagützen dütüanaren pean jarten da.

Natürak segretüen jakitea eta berrien entzütea lehiatüki desiratzen dü, kanpoan agertü nahi da, eta hanitx gaüza zentzüez borogatü ; burré (606) ezagütü izan ledin nahi lüke, eta egin hanitx gaüza, laüda eta peretxaerazi liroienetarik.

⁶⁰⁶ burré (*biarnesetik*) : edonola, zer nahi gisaz, nolanahi.

Graziak aldiz ez dü axolik berrien eta gaüza ez dakitzanen ikastearen, zeren hori oro bekatü orijinal zaharraren gaixtotarzünetik sortü beita, deüs berririk ez iraüposik ez denen gaine(a)n mündü hontan.

Gisa batez non erakusten beitä zentzüen begiratzen, banaloriari eta banitateari ihesi egiten, laüdatü behar düen eta jüstoki miragarri diren gaüzen ümilki gordatzen, eta gaüza orotarik eta jakite orotan ezpiritüzko abantailaren idokiten, eta Jinkoaren laütorioaren eta ohorearen txerkatzen.

Ez dizü nahi ez bera, ez bereak bantatüak (607) izan ditean ; bena nahi likezü Jinkoa bere gaüza emanetan benedikatü izan dadin, zoinek oro largoki emaiten beitätü amorio pür batez.

8. Grazia haur da zelüko argi bat, Jinkoaren dohain berezi bat, haütatü izan direnen seinale propi bat, eta salbamentü eternalaren gaje (608) bat, zoinek gizona lürreko gaüzetarik zelükoen maitatzera goraerazitzen beitä, eta aragiari enjogi izatetik debozionealat ützülerazitzen.

Zonbatenaz arren natüra ürüxki (609) eta goitü izatera hobeki erakarten beita, ha(i)nbatenaz grazia handiago baten isuria jiten da, eta barnetiko gizona, bisita berririk egün oroz ükeitez, Jinkoaren imajinaren araur arraberitzen da.

LV. KAPITÜLÜA.

Natüraren gastatü izateaz, eta Jinkoaren graziaren egitate azkarraz.

1. Z. Ene Jinko Jauna, zure üdüriala eta imajinala egin naizüna, emadazü grazia hain handi eta salbatü izateko hain mengoa düdala erakutsi deitazün haur, amore(a)gatik ene natüra ezinago gaixto bekatüetara eta perdizioneala tiratzen naian hau garait dezadan.

Ezi borogatzen dizüt ene aragian bekatüaren lege, ene ezpiritüaren legearen kontre joaiten den bat, eta esklabo bat bezala, hanitx gaüzatan berauren desiren konplitzera eramaiten naian bat, eta ez zirotzüt iraitx haren pasioneak, zure grazia ezinago saintüak ene bihotzeala sü handireki(n) isuri izan denak ürgeizten ez banai.

2. Zure graziaren, eta grazia handiaren mengoa badizügü, natüra gaztezaroz geroz beti gaizkiala ekarri den honen goitzeko.

⁶⁰⁷ bantatü : goretzi, harrotu (zerbaitez), laudatu.

⁶⁰⁸ gaje : bermea.

⁶⁰⁹ ürüxki (*aboz* : *üxki*) : zapatu, gainetik tinkatu.

Ezi Adam lehen gizonak erorerazirik, eta bekatüaz gastatü izan ondoan, maküla horren pena hedatü düzü gizon orotarar, gisa batez non natüra hura bera, zoin zützaz ontsa eta xüxen egin beitzen, bizioaren orai eta natüra gastatü izan den flakeziaren hartzen beita, zeren eta haren bulkak, beraur eizten bada, gaixkiala eta lürreko gaüzetara tiratzen beitü.

Ezi indar apür baratü zaiona, sü txinka hauts pean gorderik dagoena bezala düzü.

Hori da arrazu natürala bera, ülüntarzün handi batez üngüratüa, honkiaren eta gaizkiaren, egiaren eta gezürraren orano ezagützen dakiana ; zonbat ere ez beitirotza konpli hon zaitzon gaüzak oro, eta ez beita orai gozatzen egiaren argi osoaz, ez bere bihotzeko xüxentarzünaz.

3. Hortik jiten düzü, ene Jinkoa, ene barneko pentsamentüez zure legean gozo hartzea, dakidalakoz zure manüa hon, jüsto eta saintü dela, zoinek erakusten beitü orano zer den gaizkia, eta bekatüari ihesi egin behar dela.

Bena aragiak bekatüaren legeala plegaerazitzen nizü, haren desirer lehen eziez arrazuari manüak egiten dütüdanean.

Hantik düzü nitan *bonaren nabia, nola egin dirodan aldiz ez dit edireiten.*

Hantik jiten dütüzü hanitx hontarzünen egiteko ardüra hartzen dütüdan deseinak ; bena grazia ments badüt ene flakeziaren ajütatzeko, den mendre(e)n indarkak eta bühürtzeak eitzerazitzen diztadazü, eta faltala erorten nüzü.

Hantik heltzen düzü orano konplitü izatearen bidea ezagützen düdalarik, eta aski klarki ikusten zer gisaz gobernatü behar düdan : nihauren gaixtotarzünaren pezüaz kargatürrik, ez beitüt ene bürüa goitierazitzen gaüzarik hobe(re)n direnen egitera.

4. Ala beitüt, Jauna, ezinago zure graziaren mengoa handia, bai gaüza honaren hasteko, bai haren aitzina joaiteko, bai eta ere haren akabatzeko.

Ezi hura gabe deüs ez zirozüt egin, zütan aldiz oro bazirozkezüt, graziak azkartzen naialarik.

O egiazki zelüko ziren grazia, zoin gabe deüs ez beitera gure mereximentüak, eta zure natüraren propitaje(e)k deüs ez beitüe izan behar peretxatü.

Deüs jakitek, deüs aberastarzünäk, deüs edertarzünäk edo azkartarzünäk, deüs ezpiritüak edo ontsa mintzatzeak ez dizüe balia zure eretzean, Jauna, zure grazia gabe.

Ezi natüraren propitajeak (610), honen eta gaixtoen komün dütüzü : haütatüen aldiz dohain berezia düzü grazia edo amorioa, zointzaz edertürrik eta seinalatürrik direnean, merexitzen beitüe bizi eternala.

⁶¹⁰ propitaje : egokitasuna.

Hainbestetara doazü grazia honen goratarzüna, non gero jinen diren gaüzen jakitea, miraküllüen egitea, eta zonbat-nahibeita handi den Jinkoaren ezpiritüz ikustea, deüs ez beitira hura gabe peretxatü izaten.

Haboroz haboro fedea, esparantxa eta beste bertüteak ez zaitzü maitagarri, karitatea eta grazia gabe.

5. O grazia ezinago döhatzüa, ezpiritüz praube, bertüteaz aberatserazizalea, eta hanitx honez aberats denaren bihotzez ümil izanerazizalea.

(T)ziauri, jaits zite nitara, beta nazazü goizetik gora zure kon(t)solazioneaz, beldürrez einearen handitarzünak eta ezpiritüaren idortarzünak ene arima engoxaerazi dezan.

Otoitzen zütüt, Jauna, zure aitzinean grazia ediren dezadan ; ezi zure graziaz aski dit, natürak desiratzen dütüan gaüzetarik ez jardietsirik ere batere.

Izanik ere tentatü, eta türbürarzün hanitxeskerniatü, ez dit lotsarik ükenen, zure grazia eneki(n) den ber.

Hura düzü ene azkartarzüna, hura eni kon(t)seilü eta sokorri emailea.

Etsaiak oro beno poterosago düzü, eta zühürak oro beno zühürago.

6. Hura düzü egiarenbür(ü)zagisa, jakite honaren erakuslea, bihotzaren argia, hersidüraren kon(t)solazionea, tristeziaren akazazalea, lotsaren idokizalea, debozionearen hazlea, nigarren erakarlea.

Zer niz hura gabe, zur idor bat baizik, eta zain, egoixteko baizik hon ez den bat.

Zure graziak arren, Jauna, beti aitzinetik eta ondotik lagünt nazala, eta obra honen egiteko tai(ri)k gabe erpai (611) etxeki nazala, hori galtatzen deüzüt Jesü Krist zure semeaz, halabiz.

LVI. KAPITÜLÜA.

Gibaurenbürüak eitzi behar dütügüla, eta Jesü Krist kürütxearen karreiatzean imitatü.

1. B. Ene semea, zonbat ere zihaurganik jalkiten ahal beitzira, hainbeste eneganat igarenen ahal zira.

Hala nola kanpoan ez deüs desiratzeak barneko bakea emaiten beitü, orobat barnetik berebürüaren eizteak Jinkoareki(n) jüntatzen dü.

Nahi dit zurebürüaren konplitüki ene borontateala eizten ikas dezazün, plainüririk egin eta arrerraitekorik (612) üken gabe.

Jarraiki zakitzat, ni nüzü bidea, egia, bizia.

⁶¹¹ erpai : aiduru, haidürü, zain.

⁶¹² arreran : berriz erran, errepikatu.

Biderik gabe ez düzü ihor joaiten, egiarik gabe ez dizü ihork ezagützen, bizirik gabe ez düzü ihor bizitzen. Ni nüzü zü jarraiki behar zitzaion bidea, sinetsi behar düzün egia, eta esperantxa üken behar düzün bizitzea.

Ni nüzü gaixtotzen ezin den bidea, erraiten ezin den egia, eta mugarik ez düan bizitzea.

Ni nüzü bide ezinago xüxena, egia gehiena, bizitze kreatü izan ez dena.

Egoiten bazira ene bidean, ezagütüren düzü egia, eta egiak libratüren zütü, eta bizitze eternala jardietsiren düzü.

Nahi bazira bizitzean sartü, begira itzazü ene maniüak.

Nahi badüzü egia ezagütü, sinets nazazü.

Nahi bazira bonean konplütü izan, salitzazü oro.

Nahi bazira ene dizipülü izan, eitzazü zure büriüa.

Nahi badüzü bizitze eternala gozatü, mesperetxa ezazü oraiko bizitzea.

Nahi bazira zelüan gora izan, apal zite mündüan.

Nahi bazira eneki(n) errege izan, karreia ezazü eneki(n) kürütxea.

Ezi kürütxearen zerbützariek baizik ez dizüe edireiten salbamentüaren eta egiazko argiaren bidea.

3. Z. Jesüs Jauna, zeren zure bidea hersi den eta mündüaz mesperetxatü, emadazü grazia haren berauren mesperetxüareki(n) zure imitatzekoa.

Ezi ez düzü zerbüttxaria bere Jauna beno gebiägo, ez eta ere dizipülüa bürr(ü)zagiaren gainetiko.

Pena bedi zure zerbüttxaria zure bizitzearen imitatzez ; zeren hartan beitagoto ene salbamentüa eta egiazko saintütarzüna.

Hartarik kanpo, irakurten edo entzüten dütüdan gaüzak batek ere ez zitazüe ez plazer, ez kontamentü oso bat emaiten.

4. B. Ene semea, zeren horik beitatitzü, oro irakurtü beitätüzü : dohatsü izanen zira egiten ere balin badütüzü. *Nork ere ene maniüak beitatitza, eta hurak begiratzen beitätü, hura da ni maite naiana, eta nik hura maite ükenen dü, eta ene büriüa hari erakutsiko deiot, eta eneki(n) jarreraziren dü ene aitaren erresuman.*

5. Z. Biz hala egin, Jesüs Jauna, nola zük erran eta hitzeman beitätüzü, eta Jinkoak datsala (613) grazia hori merexi dezadan.

Hartü dizüt, hartü zure eskütik kürütxea, egariren dizüt, bai egariren dizüt hil arteo, zük nitan ezarri düzün bezala.

Egiatzki fraide hon baten bizitzea kürütxe bat düzü, bena bai paradüsüal-gidazalea ere.

Behin hasiz geroz, gibealalatzüztzea ez da sori (614), ez eta ere hasi izan denaren eiztea.

⁶¹³ datsala : (on)ets(i) dezala.

⁶¹⁴ sori izan : haizu/zü izan, zilegi izan.

6. Eia bada, ene anaie maiteak, goatzan alkarreki(n), Jesús gureki(n) dateke.

Jesüsen amore(a)gatik hartü dügü kürütxe haur, Jesüsen amore(a)gatik iraün dezagün, kürütxean azkentzealadrano.

Gure ajütazale dateke gure gida eta aitzineko izanen dena.

Haur dela gure erregea, gure aitzinetik ebilten dena, zoinek guregatik gerla eginen beütü.

Jarraiki gakitzon bihoztoiki herratzearen (615) ihork ez düala lotsarik ; prest gaudean korajoski gerlan hiltzera, eta ez dezagün tonarik eretxeki gure gloriari, kürütxeari ihesi eginez.

LVII. KAPITÜLÜA.

Gizona ez dadin izan sobera deskorajatü, zonbait faltatara erorten denean.

1. B. Ene semea, egitekoak gaizki doatzanean, pazentziak eta ümilitateak haboro plazer egiten ditazüe, eziez nahi bezala doatzanean kon(t)solazione eta debozione hanitxak.

Zure kontre erran datekean gaüza txipi batek, zeren tristetzen zütü ?

Handiago izan balitz ere, ez zünükean izan behar alteratü (616).

Eitzazü arren igaraitera, ez düzü hori gaüza berri bat, ez zuri heltü zaizün lehena, ez izanen ere azkena, lüzaz bizitzen bazira.

Aski bihoztoi zira, deüs nahi ez düzünik heltzen ez zaizüno.

Kon(t)seilü honik ere emaiten düzü, eta badakizü zure elez beste(e)n korajutzen : bena uste gabeko türbürarzün bat zure bortala jin den bezain sarri, kon(t)seilüa eta indarra mensten (617) zaitzü.

Gogoa emazü ardüra gaüza txipietan borogatzen düzün zure flakezia handiari : orot(a)rat ere horik eta beste holakorik zerbait heltzen denean, oro zure salbamentütako gertatzen direla.

2. Jar zite bihotzez hobekienik dakizün bezala, eta halarik ere hunki bazütü, ez ziteala hare(n) gatik deskoraja, ez eta ere lüzaz arrankürüz beterik etxeki.

Ez badirozü (618) boztarioreki(n), mendre(e)netik pazentziareki(n) soferi ezazü.

⁶¹⁵ herratü : errebelatu, bidea galdurik ibili.

⁶¹⁶ alteratü : altaratu, asaldatu, harritu/tü.

⁶¹⁷ menstü : faltatu, falta izan, ments izan.

⁶¹⁸ badirozü : dezakezu/zü.

Nahi bada zure gogara ez den zerbait entzün, eta zihaur beitan kexakeria (619) zombait sendi dezazün, izan zite zure bürüaren bür(ü)zagi, eta ez deza-züla eitz zure ahotik txipiak eskandala litiroan hitzik jalkitera.

Bertan, zütan sortü den kexadüria ematüren düzü, eta graziaren jíteareki(n) baretiko dolorea ezitarzünetara kanbiatüren düzü.

Orano bizi nüzü, (ziozü Jaunak) prest zure ajütatzera, eta zuri kostümatü düdan beno kon(t)solazione handiagorik emaitera, nitan fidatzen bazira, eta ni debotki izentatzen banaizü.

3. Ükezü koraje eta indar, adela zite softeritze handiago batetara.

Ez düzü oro galdü, nahibada ardüra zure bürüa eskerniatüririk eta garrazki tentatüririk ediren dezazün.

Gizon zira eta ez Jinko, aragi zira eta ez aingürü.

Nola beti egon ahal zinteki bertütearen hein berean, aingürüa zelüan eta lehen gizona lürreko paradüsüan egon ez direnen gaine(a)n ?

Nik doloretan direnak eraikiten zitit sendotzen dütüdalarik, eta ene jinkotarzünaren ezagützeala goitierazitzen bere(n) flakezia ezagützen düenak.

4. B. Biz, Jauna, zure hitza benedikatü, ezta beno enetako eztiago dena.

Zer egin niro ene türbürarzün eta hersidüra hain handi direnetan, zük zure ele saintüetzaz azkar ez banentzazü ?

Salbamentüaren lekü següreala hel nadin ber, zer axola düit nik softeritü dütüdan gaügen hanixtarzünaz eta handitarzünaz ?

Emadazü azkentze hon bat, emadazü mündü hontarik jalkite dohatsü bat.

Orit zite nitzaz, ene Jinkoa, eta joanerazi nazazü bidexka xüxenaz zure erresumalat, halabiz.

LVIII. KAPITÜLÜA.

Guretako goregi diren gaüzetaz , ez düela behar Jinkoaren jüjamentü estaliek sobera xebeki txerkatü.

1. B. Ene semea, begira zite gaüza goretzaz eta Jinkoaren jüjamentü estalietzaz debadiotan sartzetik : zerentako haur eitzia, hura hartüa den, hain grazia handi batentako ; eta zeren orano haur tristeziaz hain apaltüririk dagoen, hura aldiz boztarioz hain ontsa goratüririk.

Horik gizonaren jakitea beno gorago diren gaüza elibat dütüzü, eta ez düzü ez arrazurik batere, ez debadiorik, Jinkoaren jüjamentüa ikertzen ahal düanik.

⁶¹⁹ kexakeria : kexadura.

Noiz ere arren etsaiak pentsamentü horik emaiten beiteitzü, edo orano gizon oro jakin beharrez galtatzen deitzüenean, ihardets izezü profetareki(n) : *jüsto zira Jauna, eta xüxen düzü zure jüjamentüa.*

Holaxe ere bai, *Jaunaren jüjamentüak egiak dira, bere(n) beitan jüstotarziina dadüke(i)e.*

Ene jüjamentüen ihork lotsa izan behar dü, eta ez hurak ikertü ; zeren gizonen entelegüa ezin h(ai)etara heltzen ahal beita.

2. Ez düzüla orano arranküarik ez debadiorik saintüen mereximentüetzaz, eia bata bestea beno saintüago denez, edo handiago zelüetako erresuman.

Holako gaüzek ardüra sorerazitzen zitizüe debadio eta alterarzün (620) banoak ; ürgüilüa eta banaloria ere hazten zitizüe : nontik jiten beitera jelskeriak, eta alkarren honetsi gabeak, batak saintü bata, besteak bestea, ürgüilüreki(n) iseiitzen direlarik beste(e)n gainetik ezartera.

Bena holako gaüzten jakin eta ikertü nahiak ez dü abantailarik batere erakarten, eta bai aldiz saintüer haboro desplacer egiten, zeren ez beiniz ni debadioaren Jinkoa, bena bai bakearena ; zoin bake egiazko ümilitatean beitagö, eziez bere büriaren goititzean.

3. Zonbait amoriozko zelo batez ekarriago dira batz(ü)et(a)rat edo beste(e)t(a)rat sü handireki(n) ; bena gizonetik lehen, eziez Jinkoaganik jiten da.

Ni niz saintüen orenen egilea, nik ükenerazi diezüt grazia, nik eman diezüt gloria.

Nik ezagützen zitit batbederaren mereximentüak, nik aitzinetik eman ditzezüt ene eztitarzünaren beneditzioneak.

Nik tenporak oro beno lehen jakin dit zoin ziren ene maiteak, nik hurak mündütik haütatü zitit, h(ai)ek ni beno lehen.

Nik deitü zitit ene graziaz, eneganat jinerazi ene miserikordiaz, nik gidatü zitit hanitx gisatako tentazionetzaz.

Nik isuri diezüt kon(t)solazione ederrik, nik eman diezüt ürrentzeadrano iraüteko grazia, nik koroatü dit h(ai)en pazentzia.

4. Nik ezagützen zitit lehena eta azkena, nik besarkatzen zitit oro, amorio ezin preziorik emaiten zaion batez.

Nik ene saintüetan orotan laüdatü izan behar dit, nik gaüza orenen gainetik benedikatü izan behar dit, eta ohoratü h(ai)etarik batbederatan, salbatü izateko haütatü, eta hain gloria handian ezarri dütüdanen gaine(a)n, h(ai)en aitzinetiko mereximentürik batere gabe.

⁶²⁰ alterarzün : harridura, nahasmendua.

Nork ere arren ene saintü txipienetarik bat mesperetxatzen beitü, harek ez dü handia ohoratzen ; *zeren txipia eta handia nik eginik beitera.*

Eta nork ere ene saintüetarik zombaiti zerbait idokitzen beitü, eni nihauri idokitzen dü, eta gaineratiko zelüko erresuman direner orori.

Oro kalitatearen oropiloaz (621) bat dira : sendimentü bat düe, gaüza ber(r)a nahi düe, eta gaüza bakoitz batetan alkar maite düe.

5. Ni orano, (hanitxez gorago den gaüza bat beita) bere(n) bürüak eta mereximentüak beno maiteago naie.

Ezi berak beno gorago altxatü izanik, eta beraurien amoriotik elkirik, oso osoa ene maite ükeiteala igaraiten dira, eta nitan gozamen konplitü bateki(n) pausatzen.

Deüsek ere ez diroketa ez gibelt, ez apal, egia eternalaz beterik sütan jarten direlakoz, karitate ezin hiltzen denaren süiaz gortürük (622).

Daudean arren gizon aragiari enjogi direnak saintüen izateaz hitzik erran gabe, zoinek beraurien plazerak baizik ez beitakie maitatzen.

H(ai)ek hertzen edo emendatzen zitizüe h(ai)en laütorioak beren enjogidüraren araur, eta ez egia eternalari plazent zaion bezala.

6. Hanitxentako jakin gabe da kausa, eta orotan gainti argi apür üken düenentako, zoinek arraroki beitakie norbaiten maitatzen ezpiritüzko amistantxa (623) osoki hon den batez.

Beren desir eta amistantxa natüralak orano baten edo beste(e)n maitatzera azkarki erakarten dütü, eta zer ere sendimentü beitüe lürreko gaüzetaz, hala ustekeria dükeie datekeala zelükoetzaz ere.

Bena bada hürrüntarzün ezin pareiatzen den bat, jakin gabe(e)k ükeiten dütüen pentsamentüen eta Jinkoaren argiaz argitürük direnek, xehe (624) so eginez ükeiten dütüenen artean.

7. Gogoa emazü arren, ene semea, zure jakitea beno gorago diren gaüzetaz mintza ez zitean, h(ai)en ikasi beharrez ; bena lehenago zure arranküra eta ezpiritüa etxeki ezazü, zelüko erresuman, nahibada txipienik, zure bürüa ediren (625) ahal dezazün amore(a)gatik.

Eta norbaitek baleki zoin beste bat beno saintüago lizan, edo handiagoren zelüko erresuman igaraiten den, zer profetitü lüke jakite hortarik, ezagütze horrek ene aitzinean haboro ümilía eta ene laütorio handiagoetarat joanerazi ez baleza.

⁶²¹ oropilo : koropiloa.

⁶²² gortü : goritu, zinez berotu, argitsu egin arte.

⁶²³ amistantxa : adiskidantza adiskidegoa.

⁶²⁴ xehe (adlag.) : xeheki.

⁶²⁵ ediren : aurkitu, kausitu.

Haboro plazer Jinkoari egiten dü bere bekatüen handitarzünaz, bere bertüte(e)n txipitarzünaz eta bere saintüen perestütärzünetik ezinago hürrün izateaz gogoia beterik etxekiten düanak, eziez h(ai)en handitarzünaz edo txipitarzünaz debadiotan sartzen denak.

Hobeago da orazione debotez eta nigar egitez saintüen otoitzea, eta h(ai)en gureganako lagüngoan ezpiritü ümil batez galtatzea, eziez txerkü bano batez h(ai)en segretüen ikertzea.

8. Hurak ontsa eta ezinago ontsa kontent dira, gizonek balekie kontent izaten, eta bere(n) ele auherren apaisatzen.

Ez dütüzü glorifikatzen bere(n) mereximentü propietzaz, ezi bazikizüe ez düela bere(n)ganik hontarzünik batere, bena eneganik düela düena oro : zeren nik ene karitate mügagabeaz eman beiteitzet oro.

Hain ene Jinkotartzünaren amorio handi batez eta alagrantzia mükürri batez beterik diaudetzü, non bere(n) glorian deüs mentsik ez beitüe, ez eta ere ükeiten ahal bere(n) dohatsütärzünean.

Saintüak oro zonbatenez gorago beitera glorian, ha(i)nbatenaz ümilago dira bere(n) beitan, hüllanago enetako eta nitzaz maitatüago.

Hartakoz eskriptüra saintan badüzü izkiribatürrik : *egoixten zütüela bere(n) koroak Jinkoaren aitzinean, eta bere(n) begitarte(e)tan gaina lüharrastü (626) izan zirela axuriaren aitzinean, adoratzen züelarik jinen diren tenpora orotan bizi datekeana.*

9. Hanitxek galtatzen düe nor den handienik Jinkoaren erresuman, jakin gabe eia txipienen herrenküan (627) izatea ere merexi dük(e)ienez.

Gaüza handia da txipienik ere zelüan izatea, non oro handi beitera : zeren oro Jinkoaren seme deitüren eta izanen beitera.

Txipiena milaren izanen da, bekatorea aldiz ehiin urtez bizirik ere, betierekoz bilén da.

Ezi ene dizipülük galtatzen zeitade(e)n tenporan nor zatekean handienik zelüko erresuman, holaxe ihardetsi üken neien :

Ez baziradeie eneganat ützültzen, eta txipitzen haurrak bezala, ez ziradeie zelüko erresuman sartüren. Nor ere arren ümiliatüren beita haur hau bezala, hura dateke handienik zelüko erresuman.

10. Desdixatü dira hurreki(n) bere(n) olez ümiliatzera deinatzen (628) ez direnak, zeren zelüko erresumako borta apalak ez beitütü eitziren sartzera.

Desdixatü dira orano *aberats heben bere(n) kon(t)solazioneak düitüenak* ; zeren praubeak Jinkoaren erresuman sartzen diren tenporan, hurak kanpotik marrakaz (629) egonen beitera.

⁶²⁶ lüharrastü : apaldu, ahuspekatu.

⁶²⁷ herrenkü : herronka, errenkada, ilara, maila.

⁶²⁸ deinatü : onartu, onartzera apaldu.

⁶²⁹ marraka : ardien, ahüntzen etabarren orroa.

Alagera ziteie ümilak, boztarioz beta ziteie praubeak : zeren Jinkoaren erresuma züentako beita, egian hargatik ebilten ziradeielarik.

LIX. KAPITÜLÜA.

Jinkoaren beraurtan gure esperantxa eta konfidantxa oro ezarri behar düügüla.

1. Z. Zer da Jauna ene bizitze hontan düdan konfidantxa, edo zoin da ene, zelüaren pean ageri diren gaüzetarik, kon(t)solazionerik handiena ?

Ez zireia zü, ene Jinko Jauna, mügagabezko miserikordia dadükazüna ?

Non ontsa izan niz zü gabe ? Edo noiz gaizki izan ahal niz, zü eneki(n) züntüdan ?

Nahiago nüzü praube izan zure amore(a)gatik, eziez aberats zü gabe !

Haütatzen dit lehenago lürrean zureki(n) bidejant izatea, eziez zü gabe zelüaz gozatzea. Non ere beitzira, han düzü zelüa, eta non ere ez beitzira, han herioa eta ifernüa.

Ene desira zütan diagozü, eta hori dela kausa zure ondoan igorri behar zitit ene hasperenak, ene oihüak eta ene otoitzeak.

Ihortan hitz batez ez nitezü osoki fida ene behar ordüetan püntüanago sokorritü izateko, eziez zütan zihaurtan, ene Jinkoa.

Zü zira ene esparantxa, zü ene konfidantxa, zü ene kon(t)solazalea, eta gaüza orotan enetako leialenik zirena.

2. Orok nork berea txerkatzen düe ; zük ene salbamentüa eta ene profei-tüa baizik ez düzü nahi, eta oro honealat ützültzen deiztadatzü.

Zonbat ere hanitx gisatako tentazione(e)tara eta gaitzetara eizten beinaizü joaitera, hori oro ene profetitüako egiten düzü ; zeren hanitx gisaz kostümatü beitzüzü maite dütüzünen borogatzea.

Eta hala borogutzen naizünean, ez düzü gütiago behar maitatü eta laüdatü izan, eziez zelüko kon(t)solazionez betatzen banündüzü.

3. Zütan arren, ene Jinko Jauna, ene esparantxa oro ezarten dizüt, zuri hersatzen nüzü ; zureganat igorten zitit ene doloreak eta penak oro : zeren zütarik kanpo, ikusten dütüdan gaüzak oro flakü eta kanbiakor edireiten beittüt.

Ezi adiskide hanitxek ez dizüe profetitürik emanen, ez ajütari azkarrek sokorritik, ez kon(t)seilazale zühürrek ihardeste honik, ez jakin(t)süen lib(ü)rük kon(t)solazionerik, ez zonbait gaüza preziatük soltatzerik, ez lekü apart eta begien e(i)jer direnek segürantzarik, zük zihaurk ürgaizten, sokorritzen, azkartzen, kon(t)solatzen, eskolatzen eta begiratzen ez bagütüzü.

4. Ezi bakearen eta dohatsütärzünaren jardietserazitzeko, hon direla üdüria düen gaüzak oro ezdeüs dütüzü zü gabe, eta ez dizüe egiatzko ontsa izate-rik batere emaiten.

Zü zira arren hontarzünen ororen azken müga, bizitzearen goratarzüna, eta jakite ororen zolagabe den barnatarzüna ; eta zütan gaüza ororen gainetik esparantxa ükeitea düzü zure zerbütixarien kon(t)solazione ezinago indartsüa.

Zuri diaudetzü ene begiak, zütan fidatzen nüzü, ene Jinkoa, miserikordia ororen aita.

Saintü eta benedika ezazü ene arima zelüko benedikzioneaz, amore(a)gatik zure egongü saintü bat eta zure gloria eternalaren jargü bat gerta dadin, eta zure handitarzünaren tenploan deüs ez dadin ediren zure majestatearen begiak ofentsa ditzakeanik.

So egidazü zure hontarzünen handitarzünaren eta zure miserikordien hanixtarzünaren araur, eta zure zerbütixari praubearen, hürrün herioaren itzalaren herrian desterratüririk dagoenaren orazionea entzün ezazü.

Estal eta begira ezazü zure zerbütixari txipiaren arima, bizitze gastatü honen hainbeste perillen (630) artean ; eta zure graziaren lagüntzeareki(n), gida ezazü bakezko bidez argitarzün eternalaren gozameneala. Halabiz.

Heren lib(ü)rüaren akabantza.

⁶³⁰ perill : arriskua.

JESÜ KRISTEN IMITAZIONEAREN

*Laurgerren lib(ü)rüa.
Altareko Sakramentü Saintüaz.*

Komünione Saintüalako aholkü debot bat.

JESÜSEN BOTZA.

(T)ziauste eneganat tribailüaren eta kargaren pean ziradeienak oro : eta nik errekeitatüren zütüet, dio Jaunak.

Nik emanen düdan ogia mündüaren bizigarri, ene aragia da.

Har ezaziüe eta jan ezaziüe, haur da ene korpitz zoin züe(n)gatik libratü izanen beita, egiziüe haur ene obartzepenetan.

Nork ere ene aragia jaten beiti eta ene odola edaten, ni bartan nago, eta hura nitan.

Nik erran deitzüedan hitzak, ezpiritü eta bizitze dira.

I. KAPITÜLÜA.

Zonbat apalmentüreki(n) Jesü Kristek errezebitü izan behar düan..

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. Hoiek dütüzü zure hitzak, Jesüs egia eternala, zonbat ere ez beitera ez tenpora batetan erran, ez lekü batetan izkiribatü izan.

Zeren diren arren zureak, eta egiak ere bai, oro honetsi behar zitit boztarioreki(n) eta fede oso bateki(n).

Zureak dütüzü, eta zük erran dütüzü, bena eneak ere dütüzü, zeren ene salbamentüagatik ezagüterazi beitiütüzü.

Gogo honez zure ahotik honesten ditit, amore(a)gatik barna beno barnago ene bihotzean sar ditean.

Hain debozione handitako hitzek, eztitarzünez eta amorioz beterik daudeanek, korajutzen nizüe, bena lotsatzen ere bai nihauren bekatüek ; eta ene kontzentzia teiak hain misterio handien errezebitzetik gibeltzen nizü.

Zure hitzen eztitarzünak airatzen nizü, ene bizioen hanixtarzünak aldiz pezützen.

2. Manü emaiten deitazü zureganat konfidantzareki(n) hüllant nadin, zütan parterik üken nahi badüt ; eta errezebi dezadan hiltzetik begiratüen naian hazkürria, bizitze eta gloria eternalaren jardiestea desiratzen balin badüt.

(T)ziauste, diozü, eneganat tribailüaren eta kargaren pean ziradeienak oro, eta nik errekeitatüren zütüet.

O hitz bekatoreak entzüten ahal düan eztiena eta maitagarriena, zeren zük, ene Jinko Jauna, mengoatüa eta praubea kúmitatzen beütütüzü zure kor-pitz ezinago saintü denaren errezebitzera.

Bena nor niz ni, Jauna, atrebitzeko zureganat hüllantzera ?

Zelüek orok ezin edeiten zütüe, eta diozü : (t)ziauste enegangat oro.

3. Zer erran nahi dü hontarzün ezinago ezti eta kúmitü hainbeste amo-rioz beterik dagoen honek ?

Nola bentüratüren niz jitera, atrebierazi nindiroian honkirik batere nihaur beitan ez düdanean sendi ?

Nola nik, hainbestetan zure begitarte ezinago ezti dena ofen(t)satü eta, sarreraziren zütüt ene etxean ?

Aingürüak eta arkanjelüak ikara diaudezü, saintüak eta jüstoak larderiaz beterik düütüzü, eta zük diozü : ziauste enegangat oro.

Zihaurek, Jauna, hori erran ez bazeneza, nork sinets liro egia dela ?

Eta zihaurek manü hori eman ez bazeneza, nor atrebi leite hüllantzera ?

4. Noe gizon jüsto harek, bere arkaren egitean, ehün urteren tribailüa ezarri zizün, bera zombait bestereki(n) salba ledin amore(a)gatik ; eta ni nola oren batez adelatüren ahal niz, mündüaren egilearen behar den ümilitatea-reki(n) errezebitzeko ?

Moisa zure zerbütxari handiak eta adiskide bereziak egin zizün, zur ezin gastatü zen batetarik, arka bat, zoin ürrestatü beitzüan ürre ezinago xahü batez, bi legearen taulen (631) hartan goititzeko : eta ni, kreatüra kiñozüa (632), bentüratüren niza legearen egilearen eta biziaren emailearen hain ehi-ñera errezebitzera ?

Salomon israelitikoen erregerik zühürrenak zazpi urte ezarri zizün zure izen saintüaren laüdoriotan, tenplo eder beno ederrago baten eragiteko.

Haren sagrazionearen (633) besta zortzi egünez etxeki zizün, mila bakezko ostia oberendatü üken zitizün ; eta aliantzazko arka tronpetotsez eta sürlürriotan, adelatü zeion leküan solenitate handireki(n) ezarri üken zizün.

Eta nik, desdixatü nizana, gizon orotarik praube(e)na, nola sarreraziren zütüt ene etxean, bortxa oren erdi baten debotki enplegatzen dakidana ? Jin-koak baletsa aldi bakoitz batez ene oren erdiaren araua behar den bezala enplegatzen jakin nüan !

4. O ene Jinkoa, zombat gaüzaren egiteko arranküra h(ai)ek üken züen, zuri plazer egin lezen amore(a)gatik.

⁶³¹ bi legearen taulen : legearen bi taulen.

⁶³² kiñozü : kirasduna, usain eta gustu txarrekoa.

⁶³³ sagrazione : sagaratzea.

⁶³⁴ sürlürrio : bozkarioa, boztarioa (Zuh), poza, poztasuna.

(H)elas ala beita gaüza apürra nik egiten düdana ! Ala beität tenpora apür ezarten, errezebitzera adelatzen nizanean !

Bekanki nüzü nihaur beitan osoki sartürrik, eta hanitxez bekankiango barreiarzün orotarik xahatürrik.

Eta egiazki zure Jinkotartzünaren presentzia sendogarrian, ez likezüe behar pen(t)samentü gaizkiala doatzanetarik batek ere jin ezpiritüala, ez kreatürak batek ere gogoan etxeki, zeren ostatatü (635) behar beität, ez aingürü bat, bena aingürüen Jauna.

6. Badüzü halarik ere hürrüntarzün ezinago handi bat, aliantzazko bere barne(a)n zütüaneki(n) arkaren, eta zure korpitz bere bertüte ezin erraiten direnki(n) ezinago xahü denaren artean ; eta lege zaharreko sakrifizio gero jin behar züenak erakusten zütüenen, eta zure korpitzaren egiazko ostia, sakrifizio zaharrak oro betatzen eta konplitzen dütüanaren artean.

7. Zeren arren sü habororeki(n) ez niz adelatzen zure misterio saintüen errezebitzera, noizbaizko patriarka, profeta, errege ere eta printze h(ai)ek bere(n) populü ororeki(n) hainbeste debozione Jinkoaren zerbütüxü saintüaren erakutsi züenen gaine(a)n ?

8. David errege ezinago debota bere indar oroz, Jinkoaren arkaren aitzinean dantzatü izan zen, oritzen zelarik Jinkoak beste ordüz haren aiter egin zütüan hontarzünez ; kantatzeko hanitx instrüment suerte eta salmüak egin zütüan, eta manü eman kantatüak izan zitean boztario eta alagrantziareki(n) ; berak ere ardüra kantatü züan harpa deitzen zen intrüment batetan, Espiritü saintüaren graziaz argitürrik : erakutsi züan Israeleko populüari bihotz oroz Jinkoaren laüdatzen, eta aho batez edo botz batez egün oroz haren benedikatzzen eta ezagüterazitzen.

Ordüan hainbeste debozione, eta Jinkoaren laüdorioen hainbeste ohartzen pen balin bazen lege zaharreko arkaren aitzinean, zonbat orai nik eta populü kiristiak orok üken behar dügü apalmentü eta debozione sakramentü saintüaren aitzinean, eta Jesü Kristen korpitz adorablearen errezebitzean.

9. Badoatz(a) hanitx lasterrez saintüen erlikiak diren lekü orotara, h(ai)en bisitatzeko, eta estonatzen (636) dira h(ai)en egitate(e)n entzütez ; xehe so egiten düe h(ai)en eliza eder eta handier ; h(ai)en ezür sakratü zetaz eta ürrez üngüratürrik daudeaner pot (637) egiten düe.

Eta haur zirela zü, ene Jinkoa, saintüen saintüa, gizonen krezalea, aingürüen Jauna, heben altarean nihauren kantüan zaudeana.

⁶³⁵ ostatatü : aterpetu/tü, ostatu eman.

⁶³⁶ estonatü : harritu/tü.

⁶³⁷ pot : musua.

Ardüran gizonek holako leküen bisitatzean ez düe berritzepepenen, eta orano ikusi ez dütüen gaüzen ezagütü nahia baizik : hartakoz bere(n) bizioetarik kanbiamentü apür ekarten düe, orotan gainti egiazko dolümen bat gabe, arinzki holako lasterkak hartzen dütüen tenporan.

Heben aldiz, altareko sakramentü saintüan zirena oro zira, Jesü Krist ene Jainkoa, gizon egin zirena, nori salbamentü eternalaren frütü aberats bat ihork altxatzen beitü, zü debotki eta behar den bezala errezebitzen zütüan ordü oroz.

Ez gitizü obra horren egitera arintarzün, jakin behar edo zentzüen plazerer enjogi izate zonbaitek eramaiten, bena bai fede azkar batek, esparantza debot batek, eta karitate egiazko batek.

10. O mündüaren krezale Jinko ezin ikusten ahal zirena, ala beiteigüzü batzarre miragarria egiten ; ala beitätüzü ezteki eta mañuski zure haütatüak erabilten, sakramentü hontan zure korpitz propia errezebitzeko eskentzen deigüzünean.

Hori egiazki gure entelegüa oro beno gorago düzü, horrek deboten bihotzak bereziki bereganat tiratzen zitizü, eta h(ai)en süia pizten.

Ezi zure egiazko fidelek bere(n) mentea oro bizitze honaren besarkatzeko iseietan ezarten düenek, ardüra jardiesten dizüe, sakramentü ezinago handi hontarik, debozionearen grazia handi bat eta bertütearen amorioa.

11. O sakramentü honen grazia miragarri gorderik dagoena, Jesü Kristen fidelek baizik ezagützen ez düena, infidelek aldiz eta bekatüaren esklaboek ezin bere(n) beitan borogatzen düena !

Sakramentü honek grazia espiritüala emaiten, bertüte galdüa ariman arraberritzen, eta edertarzün bekatüaz itsustüa ützülerazitzen dizü.

Hainbestetara doazü zonbait aldiz grazia honen handitarzüna, non debozione eman izan denaren betetarzünetik, ez solamentz ezpiritüak, bena orano korpitz flaküak borogatzen beitätü indar handiago eman izan zaitzonak.

12. Bena doloros eta pietate eragingarri da zeren giren hain epel eta laxü ; zeren hain sü apürreki(n) hüllantzen giren Jesü Kristen errezebitzera, zointan beitago salbatü izan behar düenen esparantxa oro eta mereximentüa.

Ezi hura bera da arrerosi (638) eta saintützen gütüana, hura da mündü hontako izale(e)n kon(t)solazionea, eta besteko saintüen gozamen eternala.

Erras dolore eragingarri da arren, zeren hanitxek hain gogoa apür emaiten düen misterio hontarzünez bete honi, zoinek zelüa alageratzen beitü, eta mündüa dena den bezala begiratzen.

⁶³⁸ arrerosi : berriz erosi, salbatu/tü.

(H)elas gizonaren bihotzeko ütsümentü eta gogortarzüna ! Haboro gogoa ez dezan eman dohain hain ezin erran daitean honi, eta egün orozko harez zerbüttxatzeaz ez gogoarik emaitéaladrano eror dadin.

13. Ezi, ezinago saintü den sakramentü haur ez baledi lekü batetan baizik zelebra, eta apez batez baizik mündü orotan kon(t)sekratü izan ez baledi, zonbat bihotzeko süreki(n) uste düzü lekü hartara eta apez hare(n)gana gizonak joan litekeala, misterio hoi en zelebrazionea ikus lezen amore(a)gatik ?

Orai aldiz hanitx apez egin izan dira, eta hanitx lekütan oberendatzen düe Jesü Krist, amore(a)gatik grazia eta Jinkoaren gizona(n)ganako amorioa ha(i)nbatenez mündüan hedatüago eta barreatüago beita komünione sakratüa.

Eskerrak zuri Jesüs hona, artzain eternala, zeren düzün hontarzüna, guri praube eta desterratü elibat baizik ez girelarik, zure korpitz eta odol prezia-tüen hazkürrüaren emaitekoa, eta zure misterioen errezebitzera kümitatzekoa, zihaturen aho propiaren hitzez diozülarik : *(t)ziauste enegana tribailüaren eta kargaren pean ziradeienak oro, eta nik errekeitatüen zütüet.*

II. KAPITÜLÜA.

Jinkoak gizonari, sakramentü hontan, hontarzün eta karitate handi bat erakusten düala.

DIZIPÜLÜAREN BOTZA

1. Zure hontarzün eta miserikordia handian fidatzen nizalarik, Jauna, hül-lantzen nüzü eririk sendozaleaganat, goserik eta egarririk bizitzearen ütürbü-rüalat, mengoatürük zelüko erregeaganat, zerbüttxari bat bezala bü(r)zagiaganat, kreatüra bezala krezaleaganat, eta eskerniatü bat bezala kon(t)solazale honaganat.

Bena nontik düt hontarzün handi haur, zü enegana jin zitean, nor niz ni, zihaturen eni emaiteko ?

Nola bentüratzen da bekatorea zure aitzinean agertzera ? Eta zük, nolaz düzü hontarzüna bekatoreaganat jitekua ?

Ezagützen düzü zure zerbüttxaria, eta badakizü deüs honik bere beitan ez düala, zük hari adiskidegoa horren emaiteko.

Aitortzen dizüt arren ene ezdeüstarzüna, ezagützen dit zure hontarzüna, laüdatzen zure miserikordia, eta eskerrak emaiten zure karitate ezinago handiari.

Zihaturen amore(a)gatik hori egiten düzü, eta ez ene merexie(n)gatik, zure hontarzüna hobeki ezagüterazi dizadazün, karitate hedatüago bat ni beitan

enpeltatzea (639) izan dadin amore(a)gatik, eta ümilitatea hobekiago gomen-datüa.

Zeren arren hori zuri plazent zaizün eta hala egin izan ledin manatü beütüzü, plazent zitazü eni ere zure hontarzüna ; ontsa nahi nikezü ene inikitateak ez liazon baragailürik ezar.

2. O ene Jesús ezinago ezti eta hon zirena, zonbat apalmentü, esker eta tai(ri)k gabezko laüdorio zor zaizü zure korpitz sakratüaren errezebitzearentako, zoinen handitarzüna entelegaerazi diroian gizonik ez beita edireiten batere.

Bena zer pentsamentü ükenen düt komünione saintü hontan ene Jinkoari hüllantzean, zoin behar bezala ez beitirot adora, eta hargatik haren debotki errezebitzea desiratzen beütit.

Pentsamentü hobeagorik ez sendogarriagorik üken ahal niroa, eziez zure aitzinean ene büriaren osoki ümiliatzea, zure hontarzün mügagabea gora beno gorago nihauren gainetik ezarten düdalarik ?

3. Laüdatzen eta betierekoz goratzen zütüt, ene Jinkoa. Mesperetxatzen dit ene büria, eta zure esküpean ezarten, bere ezdeüstarzünaren barnatarzünearan.

Haur zirela zü saintüen saintüa, ni aldiz bekatüen teiarzüna bera.

Haur zirela zü, eneganat apaltzen zirena, ni aldiz solamentz zuri so egi-teko aski ez nizana.

Haur zirela zü, eneganat jiten zirena, zü eneki(n) izan nahi zira, zük zure banketeala kümitatzen naizü.

Zük eman nahi deitazü zelüko hazkürrüa eta *aingüriüen ogia* jaterat, zoin zihaur bera baizik ez beita, *ogi bizia, zelütik jaitsi zirena, eta mündüari bizia emaiten düziüna.*

4. Horra nontik jiten den amorioa eta maite ükeitea, zer hontarzünak argi egiten düan ! Ala beütüzü horie(n)gatik esker eta laüdorio handirik hartze !

O zoinen sendogarri eta profeitable izan den zure deseina, sakramentü haur arima jaki (640) izan ledin manü eman zünüanean ! Ala beita ezti eta amiragarri, zü zihaur hazkürrütako emanik dadükan banketa !

Ala beita miragarri, Jauna, zure lan egin ! Ala beita poteros zure indarra ! Ala beita ezin erran bezalako zure egia !

Ezi mintzatü zira, eta gaüzak oro egin izan dütüzü ; eta zük manatüa konplitü izan düzü.

5. Gaüza miragarria, sineste merexi düana eta gizonaren entelegüa beno gorago dena : zü osorik zaudeala, ene Jinko Jauna, egiazko Jinko eta gizon

⁶³⁹ enpeltatü : txertatu (zuhaitza).

⁶⁴⁰ jaki : janaria.

zirena, ogiaren eta ardoaren üdüri txipi baten pean ; eta xehekatü gabe, zü errezebitzen zütüanاک jaten zütüala.

O gaüza ororen Jauna, ihoren mengoarik ez düzüna, gütan zure sakramentüaren moianaz egon nahi izan zira : begira itzazü ene bihotza eta korpitza teiarzünik gabe, amore(a)gatik zure misterioak zelebrazahal ditzadan ardüra, kontzentzia xahü eta alagera bateki(n), eta errezebi zitzadan ene salbamentü eternalarentako, zihaturen orotan gainti ohoretan eta betiereko ohartzepen batentako manatü eta ezarri dütüzün bezala.

6. Alagera zite, ene arima, eta Jinkoari eskerrak eman itzazü, hain present eder eta kon(t)solazione berezi, nigarrezko lekü hontan eitzi deitzüne(n)gatik.

Ezi zonbatetan ere misterio hori zelebrazten, eta Jesü Kristen korpitza errezebitzen beitüzü, hainbestetan zure arrerostearen obra egiten düzü, eta Jesü Kristen mereximentüen ororen partel(i)ant gertatzen zira.

Egiazki Jesü Kristen karitatea ez da seküla hertzen, ez eta ere haren arrostearen handitarzüna seküla hüsten.

Hartakoz, ezpiritüaren arraberritze fresk (641) bateki(n), hartara adelatü behar düzü beti, eta salbamentüaren misterio handia gogoan belerazki (642) etxeki.

Hain handi, berri eta maitagarri üdüritü behar zaizü meza erraiten edo entzütän düzüna, nola egün hartan berean, Jesü Krist lehenik Maria Birjina-ren sabeleala jaitsirik, gizon egin izan beiliz, edo kürütxean itzatürrik, gizonen salbamentüagatik soferitzen eta hiltzen beiliz.

III. KAPITÜLÜA.

Hon dela ardüra komüniatzea.

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. Haur nüzüla ni Jauna, zureganat jiten, amore(a)gatik praubearentako, zure eztitarzünean, ene Jinkoa, adelatü düzün presentaz goza nadin, bai eta ere ontsa ediren.

Nik desira ditzakedan eta desiratü behar dütüdan gaüzak oro zütan diaudetzü : zü zira ene salbamentüa eta arreroslea, ene esparantxa eta indarra, ene ohorea eta gloria.

⁶⁴¹ fresk : freskoa, hotxa.

⁶⁴² belerazki : erneki, sendoki, sentoki (*Zub*).

Alagera ezazü arren egün zure zerbütxariaren arima, zureganat, ene Jesús Jauna, goititü düdanen gaine(a)n.

Desiratzen dit orai zure debotki eta apalmentüreki(n) errezebitzea, nahi zütüt ene etxean sarrerazi, amore(a)gatik Zakeareki(n) zützaz benedikatü izatea merexi dezadan, eta Abrahamen haurren artean ezarri izatea.

Ene arimak zure korpitza desiratzen dizü, ene bihotzak zureki(n) jüntatü izatea txerkatzen dizü.

2. (T)ziauri zü zihaur enegangat, eta aski dit, ezi zützaz kanpo ez düzü kon(t)solazionerik batere, deüs balia düanik.

Zü gabe ez nitezü izan, ez eta ere bizi zure bisita gabe.

Hortakoz behar dit ardüra zureganat hersatü, eta zure korpitza salbamentüaren erremedio bat bezala errezebitü, beldürrez bidean engoxa (643) nendin, zelüko hazkürüaz gabe banendi.

Ezi zihaurk Jesús miserikordiaz betea, popülüer benedikatzean, eta gisa orotako eritarzünen sendotzean, noizbait erran zünüan : *ez düitü eitzi nabi barurik joaitera, beldürrez bidean engoxa ditean.*

Egizü eneki(n) ere orai gisa hortan, arima fidelen kon(t)solazionetako zure бүрүа sakramentü hontan eitzi düzünen gaine(a)n.

Ezi zü zira arimaren errekeitü eztia, eta nork ere zü behar den bezala jaten beitzütü, hura zure gloria eternalaren partel(i)ant eta primü (644) izanen düzü.

Egiazki, hain ardüra erorten eta bekatü egiten, hain bertan hozten eta indarrak galtzen dütüdanen gaine(a)n, mengoa handi bat dizüt arraberi, xaha eta gort nadin orazione üsintzaz (645), kobesionetzaz, eta zure korpitz sakramentüaren errezebitzeaz, beldürrez lüzazegi hura gabe egon banendi, ene desein honartü düdana galtzera eitz dezadan.

3. Ezi gizonaren zentzüak, gaztezarotik gora, gaizkiala ekarriak dütüzü, eta Jinkoaren sokorria jiten ez balin bada, bertan gizona gaixtoagoetaraten erorten düzü.

Gaizkitik arren komünione saintüak gibelerazitzen dizü, eta honkian azkartzen.

Ezi orai hain ardüra ezaxolatü eta epel baniz, komüniatzen edo meza erraiten düdanean, zer lizate erremedioa har eta hain süstengü handi bat txerka ez baneza.

⁶⁴³ engoxatü : alditxartu, trenputxartu, konortea galdu.

⁶⁴⁴ primü : premua (gizonezkoa).

⁶⁴⁵ üsintxa : maiztasuna.

Eta zonbat ere ez beiniz egün oroz xahü, ez meza erraiteko ontsa adela-türrik, halarik ere egin ahala eginen dit misterio dibinoen tenpora propiez erre-zebitzeko, eta hain grazia handian partel(i)ant izateko.

Ezi haur düzü arima fidel baten kon(t)solazione bakoitz prin(t)zipala, korpitz hilkorrean zureganik hürüntürrik dagoeno, Jinkoaz ardüra oritzen delarik, bere maitearen ezpiritü debot bateki(n) errezebitzea.

4. O zure gureganako amorioaren hontarzün miragarria, zeren zü zirela-rik, Jinko Jauna, ezpiritü oren krezalea eta pitzalea, arima praubeño bate-tara jiteko beitzü hontarzüna, eta haren gosearen zure jinkotarzün eta gizon-tarzün orotzaz gizenki kontentatzekoa !

O ezpiritü eta arima dohatsüa, bere Jinko Jaunaren debotki errezebitzea merexitzen düana, eta haren errezebitzean ezpiritüzko alagrantziaz bete iza-tea.

O zoinen Jaun handia düan errezebitzen, zoinen arrotz maitea düan sar-razitzen, zoinen lagün maitagarria duan hartzen, zoinen adiskide leiala düan honesten, zoinen espos eder eta noblea düan besarkatzen, beste maite oren artetik, eta gaüza desiragarri diren oren gaintetik maitatü izan behar düana !

Zelüa eta lürra, eta h(ai)en edertarzünak oro beudez isilik zure aitzinean, o ene maite ezinago ezti zirena, h(ai)ek dütüen laütorio eta edertarzünak oro zure eskü goriaren hontarzünetik jiten direnen gaine(a)n, eta ez ditakeanean hel zure izenaren edertarzüneala, zoinen zühürtarzünaren kontürrik ez beita.

IV. KAPITÜLÜA.

Debotki komüniatzen düenek, hanitx hontarzün jardiesten düela.

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. O ene Jinko Jauna, zure eztitarzünaren benedikzioneak aitzinetik hele-raz itzatzü zure zerbüttxariagana, amore(a)gatik debotki zure sakramentü han-dialat hüllant ahal nadin.

Goiti ezazü zureganat ene bihotza, eta lohasna (646) pezü hontarik ira-tzar nezazü (sic).

Bisita nazazü (sic) zure grazia sendogarrian, ezpiritüz goza dezadan zure eztitarzüna, zoin sakramentü hontan, bere ütürbürüan bezala, erras gorderik beita.

⁶⁴⁶ lohasna : lo astuna, sakona.

Argi itzazü orano ene begiak, hain misterio handiaren ikusteko, eta indarrez beta nazazü, haren fede düdarik batere ez dakian bateki(n) sinesteko.

Ezi obra hori zurea düzü, eta ez gizonaren eginahal bat, egitate sakratü hori zurea düzü, eta ez gizonaren edireitze bat.

Ezi ez ditezü ihor ediren bere beitan aski denik misterio horien ezagützeko eta entelegatzeko, zoin aingürüen ere ezpiritüaren zorroztarzüna beno gorago beitera.

Zer dirot arren nik bekatore ezdeüsa, lür eta errauts baizik ez nizana, txerka eta entelega hain segretü gora eta sakratütik ?

2. Jauna bihotzaren sinpletarzünean, fede hon eta fermo batetan, zük manü eman deitazülakoz, zureganat esparantxareki(n) eta apalmentüreki(n) hüllantzen nüzü, eta egiazki sinesten dizüt, zü Jinko eta gizon zirena, heben sakramentü hontan present zirela.

Nahi düzü arren zü errezebi zitzadan, eta zureki(n) karitatean jünto izan nadin.

Hartakoz zure hontarzüna otoitzen dit, eta grazia berezi baten jardiestea galtatzen deizüt, amore(a)gatik zütan hurt eta amorioan gaintika nadin, eta zützaz kanpo, beste kon(t)solazioneren baten ere ükeitez penatan jar ez nadin.

Ezi sakramentü ezinago gora eta handi den haur düzü arimaren eta korpitzaren salbamentüa, ezpiritüzko eritarzün (647) ororen erremedioa, zointan ere bizioak sendotzen beitera, pasioneak bridatzen, tentazioneak garaitü izaten edo hertzen beitera ; zointan grazia handiago bat emaiten, bertüte hasia emendatzen, fedea bortizten, esparantxa azkartzen, eta karitatea süz betatzen eta largatzen beita.

3. Ezi hanitx hontarzün eman, eta orano ardüra emaiten düzü sakramentü hontan zure maite debotki komüniatzen düener, ene Jinkoa, ene arimaren salbazalea, gizonaren flakeziaren sendozalea, barnetiko kon(t)solazionea isuri bat bezala emaiten deiezünen gaine(a)n, türbürarzün hanitx gisatakoen kontre ; eta beren (sic) apaltarzünaren zolatik, goitierazitzen dütüzü zure lagün-goaren ükeiteko esparantzala (sic) : grazia berri batez orano barnetik alageratzen eta argitzen dütüzü, gisa batez non aitzinetik erreüs, eta komünionea beno lehen bere(n) büriak bihotzeko amoriorik gabe senditü zütüenak, gero zelüko janari eta edateko haren har ondoan, edireiten beitätüe honealat kanbiatü izan direla.

Hartakoz gisa hortan, zure häütatüak bere(n) indarren araur tratatzen dütüzü, amore(a)gatik egiazki ezagüt ezen eta klarki boroga zonbat flakü-

⁶⁴⁷ eritarzün : eritasuna, gaixotasuna.

tarzün düen bere(n) baitarik, eta zer hontarzün eta grazia zureganik jardies-ten düen.

Zeren eta bere(n) beitarik hotz, gogor eta debozione gabe beitera ; zureki(n) batean aldiz gori, alagera eta debot izatea merexitzen beitië.

Ezi nor eztitartzünaren ütürbürüalat apalmentüreki(n) hüllantzen delarik, hantik eztitartzün apür bat hartü gabe jalkiten da ?

Edo nork, sü hon baten kantüan dagoenean, hantik ez dü berotarzün apür bat hartzen ?

Eta zü zira ütürri beti beterik eta gaintitzen dena ; sü tai(ri)k gabe gar egi-ten düana, seküla hiltzen ez dena.

4. Eta ez balin bada sori enetako ütürbürüaren erditik hur hartzea, ez eta ere ase arteo edatea, halarik ere ezarriren dit ene ahoa zelüko isuriaren kanetan (648), amore(a)gatik txortola (649) txipi bat berere (650) hantik har dezadan ene egarriaren apaisatzeko, eta erras ez nadin seka (651).

Eta ene arima ez izanik ere osoki zelüko gaüzetan, ez eta ere hain süz bete-rik, nola kerübin (652) bat edo serafin (653) bat, orot(a)rat ere iseiätüren nüzü debozioneari egoitera eta ene bihotzaren adelatzeroa, amore(a)gatik zelüko süiaren gar txipi bat berere üken ahal dezadan sakramentü biziaren emaile honen errezebitze ümiletik.

Zük aldiz, o ene Jesüs hona, salbazale ezinago saintüa, zure eztitartzünaz eta grazia preziatüaz süpli itzazü nik mens dütüdanak oro, düzünen gaine(a)n hontarzüna ororen zureganat deitzekoa, diozülarik : *(t)ziausteie enegana-tribailüaren eta kargaren pean ziradeienak oro, eta nik errekeitatüren zütüet.*

5. Egia düzü ene begitartearen izerdian tribailatzen nizala, bihotzeko doloreaz eskerniatürük nagoela, bekatüz kargatürük nizala, tentazione(e)k erreüsten naiela, hanitx pasione gaixtok nahasirik eta ürüxkirik nadükela, eta ez dela ihor ni ürgeizten, soltatzen eta salbatzen ahal naianik, zü baizik ene salbazale Jinko Jauna ; hori dela kausa zure esküetara nihaur eta ene honak oro ezarten zitizüt, amore(a)gatik begira nezazün eta gida bizitze eternaleala.

Har nezazü zure izen saintüaren ohoretan, adelatü düzünen gaine(a)n zure korpitzä ene janaritako, eta zure odola ene edantzatako.

Ükezü hontarzüna, ene salbazale Jinko Jauna, misterio honen ardüra errezebitzeareki(n) batean, ene debozionearen süia emenda dakidan.

⁶⁴⁸ kaneta : tutu txikia, hodi mehe laburra.

⁶⁴⁹ txortola : txorta txipia (*Zub.*), xorta txikia, sortañoa, ttantta, ttintta (*Zub.*).

⁶⁵⁰ berere (bera ere ?) : bederen.

⁶⁵¹ sekatü : sikatu, idortu, legortu.

⁶⁵² kerübin : goiaingeru mota bat.

⁶⁵³ serafin : beste goiaingeru mota bat.

V. KAPITÜLÜA.

Altareko sakramentüaren banditarzünaz, eta apezgoaren goratarzünaz.

MAITATÜAREN BOTZA.

1. Zünüan ordüan aingürüen xahütarzüna, eta Jondane Johane Batistaren saintütarzüna, ez zinanteke halere aski xahü sakramentü honen errezebitzeko, eta esküen artean erabilteko.

Ezi ez düzü gizonen mereximentüer eman gizonak kon(t)sekra eta maneia dezan Jesü Kristen sakramentüa, eta hazkürrütako har dezan aingürüen ogia.

Misterio miraküllosa, eta apezzen goratarzün handia : aingürüek üken ez düen poterea h(ai)er eman izan zaienen gaine(a)n.

Ezi apez elizan behar den bezala ordeinatü izan direnek baizik ez düe mezaren erraiteko eta Jesü Kristen korpitzaren kon(t)sekratzeko poterea.

Apeza da Jinkoaren ministrea, Jinkoaren hitzaz zerbützatzen dena, Jinkoaren manüaren eta xede ezarri düanaren bertütez : Jinkoa aldiz han da, egile prin(t)zipala, obrazale ezin ikusten dena, zoinen pean beitaude nahi dütüan gaüzak oro, eta zoinek manatzen dütüanak oro obedient beitütü.

2. Sakramentü ezinago handi den hontan arren, behar düzü haboro sineste ezarri Jinko potere oro düanean, eziez zure zentzü propian, edo beste seinale ikusten ahal den zombaitetan.

Hartakoz larderia eta apalmentü handireki(n), obra saintü hontako hülantü behar da.

Ontsa gogoa emazü, eta ikus ezazü zer gaüzaren kargüa eman izan zaizün, apezküpiüaren esküen zütan gaine(a)n pausatzeaz.

Apez egin izan zira, eta meza erraiteko kon(t)sekratü ; gogoa emazü orai, leialki eta debotki, bere tenporan Jinkoari sakrifizioa oberenda dezazün, eta zure bürüa, deüs hartan erraitekorik ez den bezala, erakuts dezazün.

Ordeinü (654) horren hartzeaz ez düzü zure karga arintü, bena bai lehenago, bizitze hon baten hartzeaz, zure bürüa hersikiago tinkatü, eta saintütarzün handiago baten ükeiteko, estekamentüan jarri zira.

Apezak behar dü bertüte hortzaz edertürük izan, eta beste(e)r bizitze honaren etsenplüa eman.

Haren bizitzeak ez dü behar jente komünenak bezalako izan, bena zelüko aingürüenak edo lürrean konplitüenik direnenak bezalako.

3. Apez arrabestitüak Jesü Kristen plaza etxekiten dü, amore(a)gatik Jinkoa debotki eta ümilki otoi dezan beregatik, eta populüü orogatik.

⁶⁵⁴ ordeinü : ordenua, apaiz egiteko sakramentua.

Badü aitzinetik eta gibeletik Jesüsen kürütxearen seinalea, haren pasione saintüaz tai(ri)k gabe orit dadin amore(a)gatik, eliza-kaparen aitzinean kürütxea ekarten dü, Jesü Kristen hatzer ontsa so egin dezan, eta hari debotki jarraikitera iseia dadin amore(a)gatik.

Giblean badü kürütxea, amore(a)gatik zernahibeita gaitz beste(en)ganik jin dakion, eztiki oro Jinkoagatik igurtz ditzan.

Aitzinean ekarten dü kürütxea, bere bekatüe(n)gatik nigar egin dezan amore(a)gatik, giblean aldiz, pietatez beste(e)k egin dütüenak ere nigarsta (655) ditzan, eta jakin dezan Jinkoaren eta bekatorearen artean ararteko ezarri izan dela.

Ez dizü behar orazione erraitetik, ez sakrifizio saintüaren oberendatzetik eküratü, h(ai)er grazia eta miserikordia jardiets diazen merexi arteo.

Apezak meza erraiten düanean, Jinkoa ohoratzen dü, aingürüak alageratzen, eliza debozionala erakarten, biziak ajütatzen, hiler paüsüa ükeneraziten dü, eta bera hontarzün orotan partel(i)ant gertatzen da.

VI. KAPITÜLÜA.

Galto bat, eia zer egin behar den komünionea beno leben.

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. Jauna, zure handitarzünaren, eta nihauren ezdeüstarzünaren ezagützean sartzen nizanean, lotsaz ikara, eta ahalkez hurtürük jarten nüzü.

Ezi zureganat hüllantzen ez baniz, biziaren emaileari ihesi egiten dit ; behar ez den bezala aldiz, bentüratzen baniz hüllantzera, bekatüala erorten nüzü.

Zer eginen düt arren, ene Jinkoa, ene sokorrizalea, eta eni behar ordüetan kontseilü emailea. ?

2. Erakuts ezadazü bide xüxena, ikaseraz izadazü zombait debozione lla-bür komünione saintüari ontsa daukonik.

Ezi profetible düzü jakitea nola behar düdan ene bihotza debotki eta apalmentüreki(n) adelatü zure sakramentüaren hon den bezala errezebitzeko, edo orano sakramentü hain handi eta miraküllos denaren zelebratzeko.

⁶⁵⁵ nigarstatü : negarreztatü.

VII. KAPITÜLÜA.

Kontzentzia propiaren ikertzeaz, eta bizitzaz kanbiatzean fermo izateaz.

MAITATÜAREN BOTZA.

1. Jinkoaren apezak behar dü sakramentü honen zelebrazteko, maneiatzeko eta errezebitzeko hüllandü, gaüza ororen gaineretik bihotzeko ümilitate ezinago handi bateki(n), süplikazale baten apalmentüareki(n), fede oso bateki(n), eta inten(t)ziona Jinkoaren ohorea baizik txerkatzen ez düan debot bateki(n).

Xehe iker ezazü zure kontzentzia, xaha eta garbi ezazü zure eginahalaz, egiazko kontriziona batez eta kofesione ümil batez, gisa batez non deüs pezürrik ez düzün, edo dakizünik bihotzeko harra pizten deizüla, edo libertate-reki(n) hüllandzera eitz ez zin(t)zakeanik.

Uken ezazü zure bekatü orotzaz jeneralean dolümen handi bat, eta bereziki bihotza dolorez eta hasperenez beta ezazü egün oroztako hütse(n)gatik.

Eta tenpora hartako propi bada, bihotzaren segretüan zure pasione(e)n miseriak oro Jinkoari kofesa itzazü.

2. Egizü hasperen eta ükezü dolore, zeren orano aragiari eta münduari hain enjogi, pasione(e)r hain apür hiltzen, eta nahikünt(e)n gillika gaixtoetzaz hain beterik zaudean.

Zeren hain apür begiratzaz düttüzün kanpotiko zentzüak, hain ardüra zaudean imajinazione banoz nahasirik.

Hain azkarki erortoki ziren kanpotiko gaüzetarar, hain arranküra gabe barnetikoentako.

Hain arin erri (656) egiteko eta plazer gaixtoen hartzeko, hain gogor nigar egiteko eta dolümen ükeiteko.

Hain agüdo (657) laxükerien eta aragiaren plazeren, hain herabezti garraztarzünaren eta debozione süz betearen.

Hain ekarri berrien entzütoko eta gaüza ederren ikusteko, hain gibelkarga (658) gaüza apal eta mesperetxosen besarkatzeko.

Hain inbidios hon hanitx ükeiteko, hain txeken (659) emaiteko, hain etxeki begiratzeko.

Hain apür gogoia emaile mintzatzean, hain güti zure bürüaren bü(ü)zagi isilik egoitean.

⁶⁵⁶ erri : irria.

⁶⁵⁷ agüdo : (langile) trebea, argia, prestua.

⁶⁵⁸ gibelkarga : mugigaitza, atzealdean karga gehiegi duen orga/gurdia bezala.

⁶⁵⁹ txeken : zekena, zikoitza.

Hain xede gabe zure bizitzeko maneretan, hain tai gabe, egiten dütüzün gaüzetan.

Hain enjogi jatekoari, hain gor Jinkoaren hitzaren entzütuari.

Hain lehiatü pausüaren hartzeko, hain berantiar lanari lotzeko.

Hain iratzarri elezahar erraiten zaitzüner behatzeko, hain loti beila saintüen egiteko.

Hain laster ürrentzeala heltzeko, hain barreiatü gogoaren behar den bezala etxekiteko.

Hain laxü ofizio saintüaren erraiten, hain epel mezaren zelebratzean, hain idor komüniatzean.

Hain bertan gogo emaitetik jalkirik, hain arraroki zihaur beitan osoki sartürrik.

Hain llabür koleratzeko, hain ekarri besteri desplazer egiteko.

Hain erortoki jüdikatzeo, hain garratz besteren falten goititzeko.

Hain alagera egitekoak ontsa doatzanean, hain bihotz-apal gaizki doatzen tenporan.

Hain ardüra desein hon harzale, hain bekanki h(ai)en egile.

3. Kofesatü eta nigarstatü dütükezünean, dolore eta hain flakü izanez desplazer handi bateki(n) falta horik eta beste züntükeanak, har ezazü desein fermo bat beti zure bizitzearen honealat kanbiatezko, eta honetik hobeagoalat igarenerazitzeko.

Gero nitan borontate oso bateki(n) egoiten zirelarik, ene izenaren ohoretan oberenda ezazü zure bihotzaren altarean zure bürüa, sakrifizio iraüten düan bat bezala : erran nahi beita zure arima eta korpitza leialki ene esküetan ezarten dütüzülarik.

Amore(a)gatik gisa hortan merexi dezazün, Jinkoari sakrifizioaren eskentzeko, behar den bezala hüllantzea, eta ene korpitzaren profefitableki errezebitzea.

4. Ezi ez düzü ez oberenda hobeagorik, ez penitentzia handiagorik bekatüen hurterazitzeko, eziez mezan eta komünionean, xahüki eta osoki bere bürüaren, Jesü Kristen korpitzaren oberendareki(n), Jinkoari eskentzea.

Gizonak bere ahala egiten badu, eta egiazko dolümen bat balin badü, eneganat hüllantüren den ordü oroz, parkamentüaren eta graziaren jardies-teko : *jüratzen (660) düit, dio Jaunak, ez düdala nabi bekatorearen hiltzea, bena bai lebenago haren bonealat ützüiltzea, eta bizitzea ; haren bekatüen orimentxetarik ez düdanen gaine(a)n habororik ükenen, bena oro parkatü izanen zaitzo.*

⁶⁶⁰ jüratü : zin egin.

VIII. KAPITÜLÜA.

Jejüsek kürütxen gaine(a)n egin düan oberendaz eta bere bürüaren jaunaren esküetan ezarteaz.

MAITATÜAREN BOTZA.

1. Hala nola nik nihauren olez (661), ene bürüa Jinko aitari zure bekatüe(n)gatik oberendatü beität kürütxean besoak zabaltürük, eta korpitza pikarrai nüalarik, gisa batez non nitan ez beitzen deüs baratzen, Jinkoaren apaisatzeko sakrifizioalat igaraiten ez zenik.

Gisa berean behar düzü zük ere, egün oroz mezan zure bürüa eni eskentü bolontarioki, oberenda xahü eta saintü bat bezala, enplegatzen dütüzularik zure indarrak oro, bihotzean ükeiten ahal düzün amoriorik handienareki(n).

Zer zureganik galtatzen düt lehia habororeki(n), baizik ere iseia zitean zure bürüaren eni osoki, bere(i)zkeriarik gabe emaitera ?

Zihauren bürüaz kanpo, emaiten dütüzün gaüzen ez dit axolik batere, zeren ez beität zure gaüza emana txerkatzen, bena bai zihaur.

2. Hala nola beste gaüzak oro ükenik ere, ni ez banündüzü ez beitzünüke aski : orobat, zernahibeita gaüza eman diazadazün, plazerik ezin egiten ditadazü, zihauren bürüa oberendatzen ez badeitadazü.

Oberenda izadazü zure bürüa, eta emazü zirena oro Jinkoagatik, eta ordüan honesgarri izanen zitazü zure oberenda.

Haur nüzüla ni, zuregatik osoki ene bürüa oberendatü düdana ene aitari ; nahi düdana orano ene korpitza eta odola zure hazkürütako, amore(a)gatik osorik zure nintzan, eta zü ene bara zintean.

Bena zihaur beitan bazaude, eta ez badüzü zure olez, nik nahi düdan bezala, zure bürüa oberendatzen, ez dükezü zure oberenda konplitü, ez eta ere gure alkarreki(n) jüntatzea oso.

Behar dizü arren zihauren zure olezko Jinkoaren esküetara eginen düzün oberendak lehen izan, eziez zure beste obrek orok, nahi badüzü jardietsi libertatea eta grazia.

Ezi hartakoz dütüzü hain apür argitü eta barnetiko libertateaz gozatzen direnak, zeren ez beitakie bere(n) bürüen osoki eizten.

Ene errana kanbiamentü gabe da : *nork ere ez beitätü gaüzak oro eizten, ez daite izan ene dizipülü ; zük arren ene dizipülü izateko inbeiarik balin badüzü, oberenda ezazü zure bürüa, zure desirkünite ororeki(n).*

⁶⁶¹ olez : (bere) nahiz.

IX. KAPITÜLÜA.

*Behar düttügüla gure büriiak, eta gük düttügün gaüzak oro Jinkoari eskentü,
eta orogatik hura otoitü.*

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. Zelüan eta lürrean diren gaüzak oro zureak düttüzü, Jauna. Desiratzen dit ene büriaren zuri, nihauren olezko oberenda baten bezala, eskentzea, eta zuretako betierekoz egoitea.

Jauna, ene bihotzaren simpletarzünean eskentzen deizüt egün ene büria, zure betiereko zerbütxari baten, zure obedientzian eta tai(ri)k gabezko laüdo-riotan izateko.

Har nazazü zure korpitz preziatüaren oberenda saintü honeki(n), zoin egün eskentzen beiteizüt, aingürü ezin ikus ditakean bezala daudeanen aitzinean, amore(a)gatik eta zure popülü ooren salbamentütako izan dadin.

2. Jauna, ezarten deizüt oberenda bat bezala, zure bakezko altare gaine(a)n nik, zure eta zure aingürü saintüen aitzinean, bekatü egiten hasi nintzan lehen egünaz geroz, oren hontaradrano egin ahal nüntükean bekatüak oro, amore(a)gatik zure karitatearen sü saintüaz ülaint (662) eta hurterazi ditzazün, ene kontzentzia xahat, eta bekatü eginez galdü düdan grazia berriz eman dizadazün, oro osoki parkatzen deiztatzülarik, eta nihaur bakearen besarka saintüan karitatoski hartzen naizülarik.

3. Zer egin dirot deüs besterik ene bekatüe(n)gatik, baizik ere hurak ümilki kofesa eta nigarsta, eta tai(ri)k gabe zü otoi, parka ditzadazün ?

Otoitzen zütüt, ene Jinkoa, zure aitzinean jarten nizanean, beha zakiztadan parkatzera ekarri dena bezala.

Desplazer ezin handiago bat ene bakatüek orok egiten ditazüe, ez nüzü haboro nahi h(ai)etara erori ; bena dolü dit, eta bizi nizano ükenen ere bai ; prest nüzü penitentzia egitera, eta ene eginahalak, h(ai)en pakütan, behar diren obren konplitzera.

Parka itzadazü, ene Jinko hona, parka ene bekatüak, zure izen saintüaren amore(a)gatik : salba ezazü ene arima, zoin zure odol preziatüaz arrerosi beittüzü.

Haur nüzüla ni zure miseriardiari nagoena, zure eskü saintüetan ezarten dit ene büria.

Egizü nitzaz, ez ene maleziaren eta inikitatearen, bena bai zure hontarzünaren araur.

⁶⁶² ülaintü (*ülbaintü*) : *da/dü* ad. Ilaundu, ilaüntü (*Zub*), erre.

4. Eskentzen deitzüt ene honki-eginak oro, zonbat ere ezinago apür eta eskaz beitira, amore(a)gatik hont eta saintü ditzazün, zaitzün plazent eta mai-tagarri, eta honetik hobealat igarenerazi ditzazün ; ni aldiz, erdi-gizon herabezti eta ezdeüs txar nizana, gida nezazün azkentze dohatsü eta laüdableala.

5. Eskentzen deitzüt orano arima deboten desirkünthe saintüak oro, ene askazi, adiskide, anaie, arreba, kario zaiztadanen ororen, eta eni, edo beste zonbaiti zure amore(a)gatik, honki egin düenen beharrünek eta mengoak.

Hala nola nik orazione eta meza erran niezen bere(n) edo beren(n)gatik desiratü eta galtatü deiztadenak, nahibada lürrean diren orano bizirik, nahibada mündü hontarik jadanik soltatürrik diren.

Amore(a)gatik orok sendi dezen zureganik jiten zaiela zure graziaren sokorria, kon(t)solazionearen ajütüa, danjeretarik begiratü izatea, penetarik soltatzea, eta gaitz orotarik libratü izan ondoan, esker handirik alagrantzia-reki(n) eman ditzazüen.

6. Eskentzen deitzüt haboroz haborotan ene orazioneak eta bakezko ostiak (+), bereziki eni zerbaitetan ogen egin edo tristezia eman deitaiene(n)gatik, edo mesperetxatü, edo damü edo pena zonbait egin leitaiene(n)gatik.

Hitez ere eta obraz, nakialarik edo jakin gabe, zonbait aldiz tristetü, nahaspillatü, pezütü eta eskandalisatü nütükean orogatik : amore(a)gatik guri orori bardinzki parka ditzagüzün gure bekatüak, eta alkarri egin güntükean goitzarrenak.

Idok itzazü, Jauna, gure bihotzetarik mesfidantxa, beltzuri egite, kolera eta debadio güntükeanak oro ; eta karitatea zaur(i)tzen, eta gure anaietako amorioa herterazitzen ahal deizgüen gaüzak oro.

Heizü, Jauna, heizü pietate zure miserikordia galtatzen deitzünetzaz, emazü zure grazia, haren mengoa düaner ; eta izanerazi gitzazü zure graziaz gozatzea merexi dirogün bezala, eta hartzaz profeita dezagün bezala, bizitze eternalealat joaiteko, halabiz.

X. KAPITÜLÜA.

Ez düala ibork arinzki eitzi behar komünione saintüa.

MAITATÜAREN BOTZA.

1. Ardüra hersatü behar düzü graziaren eta Jinkoaren miserikordiaren üturbürüala, hontarzünaren eta xahütarzün ororen ütürriala, zure pasione eta

(+) Ostia da gizonek sakrifizioan Jinkoari eskentzen düen gaüza : hala nola gure altareko sakrifizio adorablean Jesü Krist bera beita bere büriaren aita eternalari oberendazalea, eta apezela hareki(n) batean бүr(ü)zagigoa oro düanari oberenda giten düena.

bizio orotarik sendo ahal zitean amoregatik, eta debrüaren tentazione eta inganio ororen kontre azkarrago eta gogoatüago izatea merexi dezazün.

Nola etsaiak beitaki komünione saintüan dagoela gure abantailarik handiena eta erremediorik hobe(re)na, bere indarrak oro, eginahal eta aldi ükeiten düan oroz, enplegatzen dütü fidelen eta deboten hantik gibelterazitzeko.

2. Ezi noiz ere komünione saintüala adelatzera zombait iseiätzen beitira, ordüan satanen atakarzünik handienak ükeiten dütüe.

Ezpiritü gaixtoa bera (Job saintüaren lib(ü)rüan izkiribatü izan den bezala) Jinkoaren haurren arteala jiten da, amore(a)gatik bere gaixtokeria üsätüaz hurak nahas ditzan, edo lotsaz eta düdaz beta, h(ai)en debozionatearen herterazitzeko, edo atakatzen dütüelarik fedearen galerazitzeko : ustez komünionea eitzeraziren deien, edo epeltarzüneki(n) hare(n)ganat hüllanteraziren dütüan.

Bena ez dü behar ihork axolik üken haren finazia eta üdüripen, zombatnahibeita ahalkeizün eta lotsa eragingarri direnetzaz, bena urtuki behar zaitzo beraurtan gaina (663) berriz itsusmentü hurak oro.

Mesperetxatü eta trüfatü (*izan*) behar dü miserable hark, eta, harek atakütüagatik, edo kexatarzün erakarten dütüene(n)gatik, ez da behar komünione saintüa eitzü.

3. Ardüra orano, debozione ükeiteko arranküra soberak, eta kofesionearen egiteko erreüstarzün batek ezpiritüa nahasten dü.

Goberna zite zühürren kon(t)seilüaren araur, eta eitz itzazü erreüstarzüna eta hüts egin dezazün lotsa, zeren Jinkoaren grazia ez beitüe eizten jitera, eta ezpiritüaren debozionea galerazitzen beitüe.

Komünione sakratüa ez dezazüla eitz, zombait türbürarzün edo greütarzün txipigatik ; bena zoaza lehen beno lehen kofesatzera, eta beste(e)r gogo honez parka itzazü ofentsü egin deitzüenak oro.

Zihaurk aldiz, norbait ofen(t)satü badüzü, parkamentü ümil galta ezozü, eta Jinkoak zihauri gogotik parkatüren deizü.

Zer profeitü da kofesionearen hürrün igittea, eta komünione saintüaren geroalat eiztea ?

Xahat zite bertan beno bertanago, egoitz ezazü bertarik pozua (664), lehia zite erremedioaren hartzera, eta hobeki edirenen zira, eziez lüzaz geroalatürük.

Egün gaüza bat dela kausa eizten badüzü, bihar heltübada (665) beste bat handiagorik jinen zaizü : eta gisa hortan komünionetik lüzaz destorbatü izan ahal zinteke, edo gütiago prest gerta zinteke.

⁶⁶³ gaina : gainera.

⁶⁶⁴ pozu : pozoia.

⁶⁶⁵ heltübada : beharbada.

Bilaintz (sic) zite, ahal bezain fitetz, pezütarzün eta herabe hortarik : zeren ezpiritüaren lüzaz erreüs ükeiteak, tenpora lüzeren türbürarzüean igaraiteak, eta sakramentü hontarik hürüntzeak, egün orozko trebüküak direla kausa, ez beitü abantailarik batere jardietserazitzen.

Damü handi bat düzü lehenago komünionearen beti geroalat lüzatzea, ezi gogortarzün gaixto bat haboroetan erakarten düzü.

(H)elas ! Zonbait laxü eta xede gabe bizi direnek, kofesionea gogotik lüzatzen düe, eta komünione saintüaren geroalat igortea hartakoz desiratzen, amore(a)gatik bortxatü ez diren bere(n) bürüen hobeki begiratzera.

5. Ala beitüe karitate apür eta debozione flaküa, hain ehiñera komünione saintüa eizten düenek !

Ala beita dohatsü, eta Jinkoaren erezeko maitagarri, gisa batez bizitzen, eta bere kontzentzia hainbeste xahütarzüeki(n) begiraten düana, non egün oroz prest beilizate komüniatzeko, eta bere bihotzetik desein hon hura beilüke, sori balitzeio, eta bere bürüa seinalaerazi gabe, hala egin ahal baleza.

Norbait zonbait aldiz, ümilitatez komüniatzetik baratzen bada, edo beste arrazu hon zonbait dela kausa, laüdable da ümilitate haren ükenez.

Bena hoztarzüna sartü bazaio, behar dü bere bürüa korajatü, eta eginahala oro egin ; eta Jinkoak ajütatüren dü haren borontate honaren araur, zoini bereziki so egiten beitü.

6. Noiz ere aldiz arrazu hon batek baraerazitzen beitü, badüke hargatik beti borontate xahüa, eta komüniatzeko inten(t)ziona debota ; eta hala, ez da izanen sakramentüaren frütüa gabe.

Ezi zoin-nahibeita debot, egün eta oren oroz hüllant ahal daiteke profefitableki, eta manü gabe Jesü Kristen ezpiritüzko komünioneala.

Hare(n)gatik orogatik behar dü, egün haütatü zonbaitez, eta tenpora seinalatüez, bere salbazalearen korpitza sakramentüan errezebitü, apalmentü bihotzetik jalkiten den bateki(n), eta bere kon(t)solazionea beno lehen, Jinkoaren laüdoriora eta ohorea txerkatü.

Ezi Jesü Kristen inkarnazionearen misterioa eta pasione saintüa pentsamentüan debotki etxekiten, eta haren amorioaz süz betatzen den ordü oroz, ezpiritüz komüniatzen dü, eta hazkürrü ezin ikusten den batez azkartzen da.

7. Nor ere bestaren jiteari, edo kostümak hartara erakarten düalakoz baik ez beita adelatzen, hura ardürago ez date behar den bezala prest.

Dohatsü da meza erraiten edo komüniatzen düan ordü oroz, bere bürüa Jinkoari eskentzen düana.

Ez ziteala meza erraiten lüze(e)gi ez lehiatüegi izan, bena zureki(n) bizitzen diren(en) egitate honari jarraiki zite.

Ez düzü behar beste(e)r desplacerik egin, ez debeiarzünik eman, bena bai beste(e)n bidea etxeki, zure aitzinetikoen egitate honaren araur : eta besteren profitüa lehenago txerkatü, eziez zure debozionea eta bihotzeko desirküntea.

XI. KAPITÜLÜA.

Ezinago Jesü Kristen korpitzaren, eta eskriptüra saintüaren behar handi bat düala arima fidelak.

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. O ezinago ezti ziren Jesüs jauna : ala beita handi zure banketean zureki(n) jaten düan arima debotaren eztitartzüna, non beste janaririk ez beitzaiio emaiten zü zihaur baizik, zoin beitzira hartaz maitatüa, eta haren bihotzeko desirkünte ororen gainetik, desiragarri zitzaiztona.

Egiazki gaüza ezti bat lükezü enetako, zure aitzinean barnetiko amorio batez nigar egitea, eta Maidalena debotareki(n), zure hoinen nigarrez buzta-tzea.

Bena non da debozione hura ? Non da nigar saintü h(ai)en turrustaz egitea ?

Egia düzü ene bihotzak orok, zure eta zure aingürü saintüen aitzinean, süz beterik izan eta plazerez nigar egin behar lükeala.

Ezi sakramentü hontan egiazki present zütüt, zonbat ere besteren üdüria-ren pean gorderik beitzaude.

2. Ez lirozüe ene begiek, egia düzü, süstenga ahal zihaturen argitarzün propian zure ikustea : mündüa oro ere ez litezü den bezala egon zure gloriako majestatearen leinürü dardeiatzen direnetan.

Ene flakezia dela kausa arren, eta haren egarteko, sakramentüaren pean zure büria gordatzen düzü.

Badit eta adoratzen dit egiazki zelüan aingürüek adoratzen düena, bena nik ez orano fedearen ülünpean baizik ; h(ai)ek aldiz estalgünerik gabe bere beitan den bezala.

Egiazko fedea argi emaiten deitadanaz eta hartan ebilteaz pairatü behar dit, eternitateko argitarzünaren egüna jin eta figüren itzalak igaren ditean arteo.

Bena osoki konplütü dena jin datekeanean, ez date sakramentüen beharrik ; zeren eta zelüko glorian dohatsü direnek, sakramentüen erremedioaren mengoarik ez beitukeye.

Ezi beti iraünen düan alagrantzian, Jinkoaren aitzinean daude, haren gloria begitartez begitarte ikusten düelarik, eta argitarzünetik Jinkotarzünaren le(i)zearen argitarzünealat kanbiatü izan ondoan, plazer handireki(n) gozatzten dira Jinkoaren Berbo gizon egin izan denaz, hatsarrean izan eta eternitate orotan dagoen bezala.

3. Gaüza miragarri horietaz oritzen nizanean, zoin-nahibeita ezpiritüzko kon(t)solazione(e)k ere ez ditazüe debeiarzün greügarri bat baizik emaiten,

zeren eta ene Jinkoa bere glorian klarki ikus dezadan arteo, deüs ez beitütüt peretxatzen mündü hontan ikusten edo entzüten dütüdan gaüzak oro.

Bazütüt zihaur jakiletako, ene Jinkoa, ez dela gaüzarik ni kon(t)solatzen ahal naianik, ez kreatürarik ene bihotza pausaerazi diroanik, zü baizik, ene Jinkoa, zeren zure eternitate orotan ikustea desiratzen beitüt.

Bena ez ditezü hori izan, bizitze herioaren haidürü dagoen hontan nizano.

Hartakoz pazentzia handi bati gomendatü behar dit, eta ene bürüa zure esküpean desirkünite orotan ezarri.

Ezi zure saintüek, Jauna, zoin zureki(n) zelüko erresuman alagrantzia handitan beitaude, fede eta esparantxa handi bateki(n), bizi zireno zure gloriaren jitea egürükitzen zizüen. Sinesten dit h(ai)ek sinetsi züena, badit h(ai)ek üken züen esparantxa ; hurak heltü diren leküala, zure graziareki(n) batean, heltüren nizala konfidantxa fermo batetan nüzü.

Saintüen etsenplüetzaz azkartürrik, fedean anarteo ebiliren nüzü.

Ükenen zitit lib(ü)rü saintüak ere ene kon(t)solagarri eta ene bizitzearen mirail gei, eta horik oro beno haboro dena, zure korpitz ezinago saintüa dükezü ene erremedio bakoitza, eta ni hersatüren nitzaiona.

4. Mündü hontan nizano, bi gaüzaren ezinago mengoa handi bat düdala borogatzen dit, hurak gabe miseriazko izate haur ez nirozü süstenga ahal.

Korpitz honen presontegian nagoeno, bi gaüzaren, erran nahi beita hazkürrüaren eta aragiaren mengoa badüdala aitortzen dit.

Eman deitazü, hori dela kausa flakü nintzalakoz, zure korpitz sakratüa, ene ezpiritüaren eta korpitzaren errekeitütako, eta zure hitz saintüa, lanpada (666) baten argiaz bezala ene ürratsen gidatzeko.

Bi gaüza horik gabe, ontsa ez nitezü bizi ; ezi Jinkoaren hitza düzü ene arimaren argia, zure sakramentüa aldiz, bizia emaiten düan ogia.

Erraiten ahal dizügü orano bi gaüza horik direla bi mahain, eliza saintaren bedera alte(e)tan ezari(r)irik daudeanak.

Bata düzü altare sakratüaren mahaina, ogi saintüa, erran nahi beita Jesü Kristen korpitz preziatüa dadükana.

Bestea düzü Jinkoaren begiarena, dotrina saintüa dadükana, eta saintüen saintüa estaltzen düan arrideoaren (667) alte barnealadrano gidatzen gütüana.

Eskerrak emaiten deitzügü, Jesús Jauna, argitarzün eternalaren argia, dotrina sakratüaren mahainagatik, zoin eman beiteigüzü zure zerbütuxari profeta, apostolü eta beste dotore(e)n medioz.

⁶⁶⁶ lanpada : lanpara, lanpa.

⁶⁶⁷ arrideo : gortina.

5. Eskerrak deitzügu, ô gizonen kreazale eta arrerosle maitea, zeren zure karitatearen mündü orori erakusteko, aihari (668) handi bat adelatü beiteigüzü, zointan, ez figurazko axuria (669), bena bai zure korpitz eta odol ezinago saintüak janaritako eman beiteizgüzü, alagrantziaz betatzen dütüzularik arima fidelak oro banket sakratü harez, eta (h)orditzen ere bai kalitziatzko (670) ardo sendogarriaz, zointan edireiten beitera paradüsüko plazerak oro, eta zointan aingürü saintüek gureki(n) jaten beitië, bena gük beno eztitarzün gozatsüago bateki(n).

6. Ala beita apezan eginbidea handi eta ohoragarri, zoini eman izan beita bere(n) hitz sakratüetzaz majestatezko Jinkoaren kon(t)sekratzea, haren bere ezpainetzaz benedikatzea, esküetan etxekitea, aho propiaz errezebitzea, eta besteer emaita.

Ala beitië apez baten esküek xahü izan behar, haren ahoak garbi, haren korpitzak saintü, haren bihotzak teiarzün gabe, xahütarzünaren Jinkoa hura beitan hainbestetan sartzen denen gaine(a)n !

Hain ardüra Jesü Kristen sakramentüa errezebitzen düan apez baten ahotik, saintü, laüdable eta profetible ez den hitzek batek ere ez dü jalki behar.

Apezere bereziki so daude lege saintüan izkiribatürük daudean hitz hoiek : izan ziteie saintü, *ni züen Jinko Jauna saintü nizanen gaine(a)n*.

7. Haren begi Jesü Kristen korpitzari so egitera kostümatü düenek, simple eta kasto izan behar düe.

Haren eskü zelüko eta lürreko kreazalearen maneiatzera kostümatü direnek, xahü eta zelüalat goititürük.

8. Ajüta gitzan, Jinko potere oro düzüna, zure graziak ; apezgoaren eginbideaz kargatürük girenak, zure behar den bezalako zerbütari izan ahal gitean, debozione eta xahütarzün oso bateki(n), eta kontzentzia hon bateki(n).

Eta zonbat ere ez beigiteke behar günükean xahütarzünareki(n) bizi ahal, orot(a)rat ere emagüzü gure bekatü eginen behar den bezala nigarstatzeko grazia, eta aitzinarako tenporan ümilitatezko ezipiritüan eta borontate hon baten fermotarzünean, zure sü habororeki(n) zerbütatzekoa.

⁶⁶⁸ aihari : afaria.

⁶⁶⁹ axuri : bildotx gazteñoa, arkumea.

⁶⁷⁰ kalitzia (kalitze-a ?) : kaliza.

XII. KAPITÜLÜA.

Jesü Kristen errezebitzeko bebar düala ibork arranküra handi bateki(n) adelatü.

MAITATÜAREN BOTZA.

1. Ni niz xahütarzünaren maitazalea, eta saintütarzün oso baten emailea. Nik bihotz xahü bat txerkatzen düt, eta han da ene pausagia.

Adela ezadazü sala handi ontsa paratü bat, eta zü beitan janen dizüt ene dizipülüeki(n) bazkoko axuria.

Zureganat jin nadin, eta zütan egon nadin nahi badüzü, idoki ezazü altxatürazi (671) zaharra, eta xahat ezazü zure bihotzaren egongia.

Jalkieraz itzazü mündüko egitekoak eta bizioen nahaspillak oro ; jar zite, hala nola eliza-txori hegatz batetan gaine(a)n bera dagoen bat, eta zure faltetzaz orit zite, zure arimaren hasperen karatsetan.

Ezi maite düen orok adelatzen düe lekürük hobe(re)na eta ederrena bere(n) maiteari, zeren hartan ezagün beita bere maitea errezebitzen düanaren bihotza.

Jakin ezazü ez zintekeala hargatik osoki adela ahal zure egitatearen mereximentüaz, igarenik ere urte oso bat adelü hortan, besterik deüs ere ezpiritüan üken gabe.

Bena ene hontarzünak berak eta graziak üzten zütü ene mahainealat hülantzera, hala nola praube bat kümetatüa balitz aberats baten barazkariala, deüs besterik ez beilüke haren honkier ordari emaiteko, bere bürüaren apaltzea eta eskerren emaita baizik.

Egizü zütan dena, eta egizü arrankürareki(n), errezebi ezazü, ez kostümaz, ez eta ere bortxaz, bena larderiareki(n) eta debozionereki(n) zure Jinko maitearen korpitza, zuregana jiteko hontarzüna düanan gaine(a)n.

Ni nüzü zure deizalea, ni nüzü hori egin dezazün zuri manü emailea : nik süplitüren dit zük mens düzüna, (t)ziauri eta errezebi nezazü.

3. Noiz ere debozionearen grazia emaiten beiteizüt, zure Jinkoari eskerrak ematzü, ez zeren zük hura merexi düzün, bena zeren zützaz pietate üken düdan.

Ez balin badüzü debozione hura, lehenago idor zirela borogatzen badüzü, hersa zite orazioneari, egizü hasperen, eta borta trüka ezazü (672), eta ez ziteala bara, grazia sendogarri haren boxinka (673) edo txortola baten ükeitea merexi dezazün arteo.

⁶⁷¹ altxatürazi : altxagarria.

⁶⁷² trükatü (borta trükatü) : atea jo.

⁶⁷³ boxinka : poxiñoa.

Ene mengoa zük badüzü, nik aldiz ez zurea.

Ez zira zü ene saintützera jiten, ni aldiz bai zure saintützera eta hobetzera.

Zü jiten zira eneki(n) jünta eta eneganik saintü zitean amore(a)gatik, grazia berri bat üken dezazün, eta süz beta zitean, berri berritan bizitzez kanbiatzeko.

Ez dezazüla ezaxolareki(n) har grazia haur, bena arranküra handireki(n) adela ezazü zure bihitza, eta zure maitea han sarrerazi ezazü.

4. Gaineran behar düzü, ez solamentz komünionea beno lehen debozionela adelatü, bena orano arranküreaki(n) hartan zure bürüari iraünerazi, sakramentüaren errezebi ondoan : eta ez dizü ihork gütiago arranküra üken behar gerotik haren begiratzeko, eziez aitzinetik debotki adelatzeke. Ezi gerotiko begira hona ezinago adelü profetible bat düzü, grazia handiago baten jardiesteko.

Ezi sobera lehiareki(n) kanpotiko kon(t)solazionetarat ber(e)hala joaiten denak, bere bürüa gertaerazitzen dü hanitzez gütiago propi obra hartako.

Ele hanitx erraitetik begira zite, zaude zihaturen xokoan ihor ere gabe, eta goza zite Jinkoaz, ezi zihareki(n) düzü mündü orok ezin idokitzen deizüna.

Ni nüzü zure bürüa osoki eman behar deiozüna, gisa batez non, heben haratko tenporan, ez zütan bena nitan bizi zitean arrankürarik batere gabe.

XIII. KAPITÜLÜA.

Arima debotak behar düala bihotz osoz txerkatü sakramentü bontan Jesü Kristeki(n) jüntatü izatea.

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. Norganik ükenen dü, Jauna, zure zihaturen edirenerazitzeko abantaila, amore(a)gatik zuri ene bihotza osoki ideki dezadan, eta zütaz goza nadin ene arimak desiratzen düan bezala, eta ez nizan haboro ihortzaz mesperetxatüa, ez eta ere kreatürüz batez ere ene klotütik (674) zotükatüa, ez ikusia : bena zü zihaur mintza zakitzadan, eta ni zuri, maite düan bat maite düanari mintzatzen den bezala, eta adiskide bat bere adiskideareki(n) apairüan elestatzen den bezala ?

Nik galtatzen eta desiratzen düdana düzü, nizana oro zureki(n) jüntatü izatea, eta ene bihotzaren gaüza kreatü izan diren orotarik soltatzea ; eta

⁶⁷⁴ klotü (iz.) : klausura ?

komünione saintüaren eta ardüra meza erraiterean moianez, zelüko eta eternitateko gaüzen gozatzen hobeki ikastea.

Ah ene Jinko Jauna, noiz, nihauren бүрүа osoki ahutzerik, izanen niz nizana oro zureki(n) jüntatүrik eta bat eginik ?

Zү nitan, eta ni zүtan, honar ezazү, holaxe biek bat egiten дүгүларик, algarreki(n) egon gitean.

2. Zү zira egiazki nitzaz maitatүа, milaren artean haütatүа, zointan ene arimak bere mente (675) orotako egongia ezarri beitү.

Egiazki zү zira ene bake emailea ; zүtan diagozү bake ezinago handia, eta egiazko pausүа, zүtzaz kanpo ez дүзү pena, dolore eta miseria ezin konta ditakeanak baizik.

Zү zira egiazki Jinko estalia, gaixtoeki(n) kon(t)seilүrik hartzen ez дүзүна, eta үmilki eta sinpleki elestatzen zirena.

Ala beita ezti, Jauna, zure ezpiritүа, дүзүinen gaine(a)n hontarzүна zure haurrer zure eztitartzүnaren erakusteko, h(ai)en zelүtik jaisten den ogi ezinago ezti batez errekeitatzekoa !

Ez дүзү nazionerik, zonbat-nahibeita handi den, bere Jinkoak hain hül-lantzen zaitzonik, nola zү, gure Jinkoa, zure arima fidel orotarar hüllantzen be(i)tzira, zoini egүн orozko kon(t)soliotako, eta h(ai)en bihotzen zelүalat eraikitoko, zihaur janaritako eta gozamenetako emaiten beitzira.

3. Ezi badeia nazionerik hain famatү denik, nola beita populү kiristia ?

Edo badeia zelүaren pean kreatүra hain maitatүrik, nola beita arima debot bat, zointan sartzen beita Jinkoa, bere aragi gloriosaz hura haz dezan amore(a)gatik ?

O grazia ezin erraiten dena ! O hontarzүn miragarria ! O amorio mүgagabea, gizonaren bereziki enplegatү izan dena !

Bena zer emanen дүт ordari Jinkoari grazia honentako, zer karitate hain baliosarentako ?

Deүs ez niro plazer haboro egin liroanik eman ahal, eziez ene bihotzaren ene Jinkoari osoki emaita eta hareki(n) ezүr (676) xiloetaradrano jüntatү izatea.

Noiz ere ene arima Jinkoareki(n) osoki jüntatү beitateke, ordүan ene bihotzaren barnetikoa oro alegrantziar eta boztarioz beterik dirateke.

Ordүan erranen deit : zү nahi bazira eneki(n) izan, ni ere nahi нүзү zureki(n) ; eta nik ihardetsiren deiot : үkezү, Jauna, eneki(n) egoiteko hontarzүна, ni nahi нүзү gogo honez zureki(n) izan.

Ene desirkүntea oro дүзү zureki(n) ene bihotza jüntatүrik izan dadin.

⁶⁷⁵ bere mente orotako : bere denbora guziraiko.

⁶⁷⁶ ezүr : hezurra.

XIV. KAPITÜLÜA.

Jesü Kristen errezebitzeko zombait arima debotek düen desir süz beteaz.

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. *Ala beita handi, Jauna, zure larderria düenen gorderik begirutzen düziün ezitarzüinen banditarzüina* : oritzen nizanean, Jauna, zombait arima debot, zure sakramentüala hainbeste debozionereki(n) eta süreki(n) hüllantzen direnetzaz, ordüan ardüra nihaur beitan ahalkez hurtzen nüzü ; zeren zure altare sakratüala eta komünione saintüaren mahaineala hain epelki eta hozki hüllantzen nizan.

Zeren hain idor eta bihotzeko gozorik gabe nagoen : zeren zure aitzinean, ene Jinkoa, oro süz beterik ez nizan ; ez hain azkarki debozioneaz tiratüririk eta hunkirik, nola izan beitira hanitx debot, zoin nigar egitetik ezin baratzen beitziren, komünionearen desiraren handitarzüenez, eta bihotzean senditzen züen amorioa zela kausa.

Bena zureganat beitzoatzen barnetiko gozo handi bateki(n), ô ene Jinkoa, ütürri bizi bat zirena, bihotzeko eta korpitzeko ahoa zabaltüririk, bere(n) gosea ezin bestela apaisatüz eta aseziatüz, zure korpitz saintüaren errezebitzez baik, plazer oso bateki(n) eta ezpiritüzko lehia gozatsü bateki(n).

2. *Ala beitzen süz beterik h(ai)en fedea zoin, zü sakramentüan present zirela, borogantzatako (677) zerbützatzen beita.*

Ezi h(ai)ek egiareki(n) ezagützen düe bere(n) Jauna ogiaren haustean, zeren h(ai)en bihotza sü ezinago handi batez betatzen beita, Jesüs h(ai)ekilan ebilten denean.

Ardüra hürrün eneganik diagozü bihotzeko desir eta debozione hura, amorio hain azkar eta süz beterik dena.

O Jesüs hona, ezta eta honki egilea, heizü nitzaz pietate, eta nahi üken ezazü, zure praube amoina galtazale bat nizan bezala, zombait ordüz berere sendi dezadan komünione saintüan, zure amorio bihotzean barna sartzen denetik apür bat, amore(a)gatik ene fedea beti ha(i)nbat azkar dadin, esparrantzaz zure hontarzüinean profeita dezan, eta karitatea, behin ontsa piztü eta zelüko mana gozatü ondoan, seküla nitan ez dadin falta.

3. *Badizü zure miserikordiak poterea eni nik galtatzen deiodan graziaren emaitekoa, eta ene süzko ezpiritüan hontarzüin ezinago handi bateki(n) bisitatzekoa, zure borontate saintüaren egüna jin datekeanean.*

Eta egiazki, zombat ere ez beität zuri hain bereziki debot direnen desir süz betea, halarik ere zure graziak emaiten ditazü desir handi garstatüririk (678)

⁶⁷⁷ borogantza : probeta.

⁶⁷⁸ garstatü : garreztatu.

den hartarik ükeiteko nahiküntea, desiratzen düdalarik eta otoitzen zütüdalarik plazer naizün zure maitazale, süz beterik diren h(ai)en ororen obra hone-tan partel(i)ant egin, eta h(ai)en lagüngoia saintüan ezar(r)i.

XV. KAPITÜLÜA.

Graziaren debozionaia ihork jardiesten düala ümilitateaz, eta bere bürrüaren ezdeüsteaz.

MAITATÜAREN BOTZA.

1. Behar düzü debozionaeren grazia lehiatüki txerkatü, nahiküntereki(n) galtatü, pazentziareki(n) eta konfidantxareki(n) egürüki, eskerreki(n) erreze-bitü, ümilitatereki(n) begiratü, bihoztoiki hareki(n) tribailatü, eta Jinkoari eitzi gaisetiko bisitaren ükeiteko maña (679) eta termainüa, jin daitean arteo.

Ümiliatü behar düzü, orotan gainti debozionerik batere edo apür baizik barnean senditzen ez düzünean ; bena ez sobera deskorajatü, ez behar ez den bezala tristetü.

Jinkoak hanitxetan memento llabür batetan emaiten dizü tenpora lüzez honetsi ez düan gaüza : zombait ordüz aldiz, orazionaeren azkentzean emaiten dü hatsarrean, gero emaiteko, eitzi züana.

Ber(e)hala beti grazia eman balin baledi, ez liro gizonaren flakeziak hura ontsa egar ahal.

Hartakoz esparantxa hon batetan, eta pazentzia ümil bateki(n) egürüki behar dü debozionaeren graziak. Zihauri hargatik, eta zure bekatüer ogena emazü, emaiten ez zaizünean, edo ezabaki idokitzen zaizünean.

Gaüza txipi bat da zombait aldiz, grazia baratzen edo idokitzen deizüna ; txipi, handi beno lehen deitzen ahal bada, hain hontarzün baliosa hürrüntzen deizün gaüza.

Eta bada txipi, bada handi den gaüza hori bera, zihaurganik kentzen eta osoki garaitzen balin badüzü, zük galtatü düzüna izanen düzü.

3. Ezi Jinkoari zure bürüa eman dükezün bezain sarri bihotz oroz, haur edo hura, zure nahikünteaaren araur, txerkatzen ez düzülarik, bena osoki haren esküetan jarri ziratekeanean, edirenen düzü zure bürüa bakean eta Jinkoa-reki(n) jüntatürük ; zeren deüs ez beitüzü hala gozatüren, eta deüsek ez beiteizü hainbeste plazer eginen, nola Jinkoaren borontate saintüaren konplizteak.

⁶⁷⁹ maña (magna) : maina, moldea, era, manera.

Nork ere arren bere inten(t)ziona, bihotz xüxen batez, goiti Jinkoaganat altxatüren beitu, eta bilaiziren beita zoin-nahibeita kreatüraren behar ez den amorio edo hügüntarzun orotarik, hura ezinago propi dateke graziaren errezebitzeko, eta debozionatearen ükeitea merexitüren dü.

Ezi Jinkoak, ontzi hütsak edireiten dütüan leküan, emaiten dü bere benedikziona.

Eta zonbatenez ihork konplitükiago lürren gaineko gaüzak eizten beitätü, eta bere bürüa mesperetxatzen düalarik, hari hiltzen beita, ha(i)nbatenez bertanago grazia jiten zaio, gorikiago hura beitan sartzen da, eta gorago haren bihotza trebükü gabe altxatzen da.

4. Ordüan ikusiren dizü, eta asezia dükezü, eta estonatureren düzü ; eta haren bihotza hartan berean largatureren düzü, zeren Jinkoa hareki(n) den, eta beraur haren eskü saintüetan betierekoz osoki jarri den.

Holaxe benedikatü izanen da Jinkoa bihotz osoz txerkatzen, eta bere arima(n) ontsa begirutzen dakian gizona.

Gisa hortan den gizonak, komünione saintüaren errezebitzeareki(n), merexitzen dü Jinkoareki(n) jüntatü izateko grazia handi bat ; zeren ez beitu bere deboziona eta kon(t)solio propiari sorik egiten, bena bai bere deboziona eta kon(t)solio ooren gainetik, Jinkoaren gloriari eta ohoreari.

XVI. KAPITÜLÜA.

Gure beharrünek behar dütügüla Jesüsi erakutsi, eta grazia berauri galtatü.

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. O ene ezinago ezti eta maitagarri ziren Jauna, zure orai debotki errezebitzea desiratzen nikezü, zük ene flakezia badakizü, eta zer gaüzaren behar-rean nizan, zonbat gaitz eta biziotan hedaturik nagoen, zoinen ardüra tentazionez, turbürarzünez eta teiarzünez beterik nizan.

Jiten nüzü zuregana erremedioaren txerkara, otoitzen zütüt kon(t)sola eta solaja nazazün.

Gaüzak oro dakitzanari mintzo nüzü, ene barnetiko pentsamentüak oro klarki ezagützen dütüanari, eta zük baizik ez nindirozü ihork konplitüki, ez kon(t)sola, ez ajüta.

Badakizü zoin honen, bereziki beste(e)n ooren artetik mengoa düdan, eta bertüte(e)tan zoinen nizan praube.

2. Baniagozü zure aitzinean praube pikarrai den bat bezala, zure miseri-kordiala hersaturik, grazia galtatzen deizüdalarik.

Errekeita ezazü zure praube gosejankina (680) ; gort ezazü ene hoztarzûna zure amorearen süiaz, argi ezazü ene ütsütarzûna zure pazentziaren argitarzûnaz.

Karatseraz itzadzü lürreko gaüzak oro ; pazentziareki(n) harreraz itzadzü greügarri direnak, eta nik nahi gaberik heltzen zaiztadanak ; mesperetxa eta ahateraz itzadzü pe hontako gaüza kreatü izan direnak oro.

Zelüalat zihaur beitarat eraiki ezazü ene bihotza, eta ez nazazüla eitz lürren gaine(a)n barreatürrik horrat-honat ebiltera.

Öraidanik harat betierekoz, zütan baizik ez dezadan eztitarzünik ediren, zeren zü beitzira ene jatekoa eta edatekoa, ene amorioa eta boztarioa, ene eztitarzûna eta hontarzûna oro.

3. Ala beinüke nahi zure presentziaz süz beta, erra, eta zihaurtara osoki kanbia nentzazün, amore(a)gatik graziak eta amorio süz betearen indarrak, zureki(n) bihotzez jüntatü izateko, hurterazitzen nüdüalarik, biek ezpiritü bat baizik ez genezan egin.

Ez düzüla nahi zureganik hürrünt nadin barurik eta sekatürrik, bena egizü eneki(n) zure miseriardiaren araur, hala nola hanitxetan zure saintüeki(n) mirakülloski egin beitzü.

Balizatea mira (681) züganik oro sütan jar banendi, eta nihaur beitan ezdeüs nendin, zü zirenen gaine(a)n sü beti piztürrik dagoen bat, eta seküla hiltzen ez dena, amorio bihotzak xahatzen eta entelegüa argitzen düan bat.

XVII. KAPITÜLÜA.

*Jesü Kristen errezebitzeko, ibork üken bebar düan bihotzeko desir handiaz,
eta amorio süz beteaz.*

DIZIPÜLÜAREN BOTZA.

1. Desiratzen dit, Jauna, zure errezebitzea, debozione ezinago handi bateki(n), ene bihotzeko desir eta bizitarzün ororeki(n), hala nola hanitx saintük eta arima debotek desiratü üken beitzütüe bere(n) komünioanean, zoin ezin haboro zure gogarako izan beitira bere(n) bizitzearen saintütarzünaz, eta debozionearen berotarzün ezinago handiaz.

O ene Jinkoa, amorio eternala, ene hontarzûna oro eta dohatsütarzün mügagabea, zure errezebitzea desiratzen dizüt, jagoiti saintük üken edo senditü ahal düan desirik bizienareki(n), eta ümilitate apalenareki(n).

⁶⁸⁰ gosejankin (izond.) : gosetia, zinez gose dena.

⁶⁸¹ mira : miraria, mirakulua, miragarria.

2. Eta zonbat ere ez beitüt merexitzen debozinezko sendimentü h(ai)en ororen ükeitea, halarik ere eskentzen deizüt bihotzeko desira oro, nihaurk desirkünte süz bete ezinago maitagarri hurak oro beinütü bezala.

Haboroz haboro emaiten eta eskentzen deizüt bihotz osoz, eta apalmentü handireki(n), arima debot batek ezpiritüz gozatzen edo desiratzen ahal dütüan gaüzak oro.

Ez dit nahi deüs ere nihaurentako begiratü, bena bai zuri sakrifizioan eskentü, gogo ezinago oso batez, nihaur eta nik dütüdan gaüzak oro.

O ene Jinko Jauna, ene krezalea eta arreroslea, nahi züntüket egün errezebitü hainbeste bihotzeko desirereki(n), apaltarzüneki(n), laüdorioreki(n) eta ohorereki(n), hainbeste eskerreki(n), xahütarzüneki(n), eta amorioreki(n), hainbeste federeki(n), esparantxareki(n) eta garbitarzüneki(n), zoinen bestereki(n) zure ama ezinago saintak, Maria birjina loriosak errezebitü eta desiratü beitzüntüan, noiz ere debotki eta ümilki ihardetsi beitzüan aingürü, inkarnazionearen misterioaren berria ekarten zeionari : *haur nüzüla Jinkoaren neskatoo, konpli bedi nitan zure hitzak dioiana.*

3. Eta hala nola Jondane Johane Batista, zure aitzinetik jilea, saintü orotako handiena, bere amaren sabelean zerratürrik zagoelarik orano, espiritü saintüaz argitürrik, zure presentzian boztarioz jauzkatü (682) beitzen ; eta hantik tenpora apürren ondoan, ikusirik Jesüs gizonen artean ebilten, ümilia-tzen zelarik, debozione handireki(n) beitzioan : esposaren adiskidea xüti(k) (683) beha daukona boztarioz betatzen da esposaren botzaren entzütuari ; orobat ni ere desir handi eta saintüetzaz nahi nündünkezü sügarretan jarri, eta zuri bihotz osoz ene bürüa eskentü nahi nikezü.

Hartakoz eskentzen eta aitzinean ezarten deitzüt arima debot ororen bihotzeko boztarioak, h(ai)en debozione süstatüak, h(ai)en ezpiritüzko goiti igaiteak, h(ai)engainetik ükeiten zütüen argiak eta zelüko bisitak, kreatüra orok zelüan eta lürrean eman, eta emanen deitzüen bertüte eta laüdorio ororeki(n), nihaugatik eta ene orazionetan gomendatü izan diren orogatik : amore(a)gatik orok, zük merexi düzün bezala, laüda zitzen, eta sekülakoz glorifika.

4. Har itzazü, ene Jinko Jauna, ene botoak, eta zuri ezin konta ahal bezainbat laüdorio eta benedikziona emaiteko nütükean desirak, zure ezin erraiten den handitarzünak hurak oro züzen handireki(n) hartze dütüanen gaine(a)n.

Laüdorio horik emaiten deitzüt, eta egün eta memento oroz emaiteko desira badit ; eta zelüko ezpiritüak, eta zure arima fidelak oro, ene eginahal oro-

682 jauzkatü : jauzi, jauzi egin.

683 xütik : zutik.

tzaz kumitatzen eta otoitzen zitit eneki(n) jünta ditean, zuri eskerren eta laü-dorioen emaiteko.

5. Nazione suerte orok laüda zitzela, eta boztario handireki(n) eta debozione süz bete bateki(n) zure ezta beno eztiago den izen saintüa gora beno gorago ezar dezela.

Eta nork ere ezinago gora den sakramentü haur ümilki eta debotki zelebratzen, eta fede bete bateki(n) errezebitzen beitüe, h(ai)ek grazia eta miseri-kordia zure aitzinean edireitea merexi dezela otoi, eta zure ene eretzeko, bekatore ga(i)xo nizana, bere(n) orazionetzaz emaezazitzeko.

Eta ene praubeziaz oritzeko hontarzüna üken dezen, noiz ere bere(n) debozione desiratüaren eta zureki(n) jüntatü izatearen gozamenen sartü beiritateke, eta kon(t)solazionez beterik, eta miragarriki aseziatürik zelüko mahain sakratütik jalki beiritateke.

XVIII. KAPITÜLÜA.

Ez düala behar gizonak sakramentü honen sobera jakin beharreki(n) ikerzale izan, bena bai Jesüsen ümilki imitazale, fede sakratüaren pean bere ikustea ezarten düalarik.

MAITATÜAREN BOTZA.

1. Ontsa begiratü behar düzü zure bürüa, sakramentü ezinago barna den honen xehe(e)gi edo banoki ikertzetik, nahi ez bazira düdaren barnatarzünearan ito.

Nor ere Jinkoaren majestatearen ikertzen jarten beita, hura haren berauren gloriaren pezüak apal eta eroreraziren dü. Jinkoak haboro egin diro, eziez gizonak entelega beitiro. Egiaren txerkü (684) saintü eta ümil bat beti zerbait honen ikasteari dagoen bat, iseiatzen delarik elizako aiten sendimentü honetan ebiltera, ez da iraitzeko.

2. Ala beita dohatsü simple izatea, eta ezpiritüa penatzen düen gaügen bide gaitzak eitzirik, Jinkoaren manüen xenda (685) ordoki (686) eta següean ebiltea !

Hanitxek debozionea galdü üken düe, zeren gaüza goregiak ikertü nahi üken beitätüe.

Ez zaizü galtatzen entelegüaren gora ükeitea, ez eta ere Jinkoaren misterioen barnatarzünaren ezagützea, bena bai fedea eta bizitze xahüa.

⁶⁸⁴ txerkü : xerkatzea, bilaketa, bilakuntza.

⁶⁸⁵ xenda : xendra, bidezidorra.

⁶⁸⁶ ordoki : laua, eremu laua, ordeka.

Ez badütüzü entelegatzen ez ezagützen zihaur beno apalago diren gaüzak, nola entelegatüren dütüzü zihaur beno gorago direnak ?

Jar zite Jinkoaren esküpean, eta zure entelegüa plegaeraz izazü fedearen manüala, eta eman izanen zaizü jakitearen argia, zük behar bezalako eta zure hon den bezala.

3. Zonbaitek tentazione gaitzik soferitzen düe fede(a)n gaine(a)n, bai eta ere sakramentü honen gaine(a)n, bena ez düe h(ai)ek ogenik, horik etsaiaren gaixtokeriatik jiten dira.

Ez düzüla axolik zure pentsamentüetzaz, ez ziteala h(ai)ekin debadiotan sar, eta ez dezazüla ihardets debrüak igorten deitzün düder ; bena sinets itzazü Jinkoaren hitzak, sinets itzazü haren saintüak eta profetak, eta etsai gaixtoak ihesi eginen deizü.

Hanixetan ontsa profeitable düzü Jinkoaren zerbütuxari batentako, holako tentazioneak üken ditzan.

Ezi ezpiritü gaixtoak ez dütü tentatzen fedegabeak eta bekatoreak, segür dütüalakoz.

Fidelak eta debotak aldiz tentatzen eta eskerniatzen dütü hanitx gisaz.

4. Zoaza arren aitzina fede simple eta düdagabezko batekin, eta hüllant zite sakramentüala süplikazale bati ontsa daukon debozioneareki(n).

Eta Jinko potere oro düanari segürantzareki(n) eitz itzazü ezin entelegatzen dütüzün gaüzak oro.

Jinkoak ez zütü inganatzan ; bere bürüatan sobera sineste ezarten düana düzü inganatüa.

Jinkoa badabila simpleki, bere izatea ezagüterazitzen dü ümiler, entelegüa emaiten dü txipier, ezpiritüa idekiten dü arima xahüer, eta grazia gordatzen sobera jakin-beharrer eta ürgüilütsü direner.

Gizonen arrazua flakü da, eta ingana ahal daite, egiazko fedea aldiz ez daite ingana.

5. Arrazu eta txerkü natüralek orok fedeari jarraiki behar düe, ez haren aitzinetik joan, ez eta ere hari bühürtü.

Ezi fedea eta amorioa beste(e)n ororen gainetik han agertzen dira, eta gaüza miragarririk egiten düe, ezin ezagütü izaten ahal diren manera elibatez sakramentü ezinago saintü eta beste(e)n ororen gainetik den hontan.

Jinko eternal eta mügagabe denak, potereak oro dütüanak egiten dü, zelüan eta lürrean, gaüza handirik eta gure entelegüari eman ez direnik, eta hartakoz dira haren obra miragarriak gük ezin ezagüt bezalako.

Halako balira Jinkoaren obrak, non gizonaren arrazuak ehiñera entelega litzan, ez lirateke miragarri, ez ezin erran ahal bezalako.

Jesüsen Imitazionearen laur Lib(ü)rüen akabantza.

MAISTERREN HIZTEGIA

Hitzen adieretan, Maisterrek derabilzkienez bereiztera edo bederen azpimarratzera saiatu naiz.

A

Abantaila : iz. Onura, hobaria, probetxua.

Abantailos : izond. *Sm.* **abantailatsu.**

Abantailoski : adlag.

Abarizios : izond. Zekena, zikoitza.

Aberats (izond. eta iz.)

Aberastarzün : iz. Aberastasuna.

Abere : iz. Animalia. *Hemen* zentzu orokorrean, eta ez ohi bezala baserriko *azienda.*

Abisamentü : iz. Abertimendua, abisua. *Hemen* abisamentüekin : kasu/sü egi-
nez, kontuz ariz.

Abisatü : *dü* ad. Ohartarazi, jakinarazi, abertitu/tü.

Abisü : iz. Oharra, kontseilua, aholkua.

Abitamentü : iz. 1 Egoitza, egongia. Ikus frantsesez *habitat.* 2 Hartan egotea.

Abüsamentü : iz. Dibertimendua, jolasa, josteta, txostaka (*Zub.*).

Adelatü : *da/dü* ad. Apailatu, prestatu/tü, txukundu.

Adelü : 1 iz. Prestaketa. 2 iz. Apaingarria. 3 izond. Apaina, txukuna.

Adio : Agur (despeditzean). Iparraldean *agur* erraten da harrera egitean, *Agur jaunak* abestian bezala.

Adiskide : iz. Lagun handia, lagun kuttuna, lagun mina.

Adiskidegoa : iz. Adiskidantza, adiskidetasuna. Zubereraz **a** organikoa du,
Batuan ez bezala.

Adorable : iz. Adoragarria, gurgarria. Ikus frantsesez *adorable.*

Adoratü : *dü* ad. Gurtu.

Adrezia : iz. Trebetasuna, trebezia.

Afektatü : *dü* ad. Erasan, hunkitu, ukitu. (Ala « alegia egin » ? Ikusi behar dut testuan).

Ikus gure bi erdaretan *afectar* eta *affected*.

Afruntü : iz. Laidoa.

Ageri : izond. *Lekü ageria*.

Agertü (*da/dü*)

Agortü (*da/dü*)

Agüdo : izond. Trebea, (langile) argia, perestua.

Ahal : iz. Ahalmena, behar den indarra.

Ahal : *da/dü* ad. 1 *da*. Ahal izan. *Jin abal izan da*. 2 *dü*. Ahal üken. *Jan abal üken du*.

Ahalke : iz. Ahalgea (*Lap. Naf.*), lotsa (*Heg.*).

Ahalkeizün : 1 iz. Desohorea, laidoa, lotsaizuna. 2 izond. Ahalkegarria, lotsagarria.

Ahalkeizüngarri : izond. Ahalkegarria, lotsagarria.

Ahalkeizüngarriki (adlag.)

Ahalketü : *da/dü* ad. *Sim. lotsatu*.

Aharra : iz. Ahakarra, liskarra.

Ahatze : *da/dü* ad. Ahantzi.

Aho (*iz*)

Ahülki : adlag. Indar gutiz, geldoki.

Aihari : iz. Afaria.

Aingürü : iz. Aingerua.

Airatü : *da/dü* ad. « *Aidatü* » ahoskatzen dugu zubereraz.

Aire : iz. « *Aide* » ahoskeran.

Aisa : 1 adlg. (Azentu tonikoa lehen silaban). 2 izond. : Erraza. *Lan aisa*. (Azentu tonikoa bukaeran).

Aisezia : iz. Aiseria, aietasuna, erosotasuna.

Aita : iz. Ama ez den gurasoa, gizonezkoa. Bi gurasoak aipatzean, **aita-amak** dira, eta ez gaztelaniaz bezala *aitak* (*los padres*).

Aitortü (*ü*)

Aitzi : adlag. Aurka, kontra.

Aitzin

Aitzina : adlag. Aitzinera. *Jo aitzina ! Aitzina pika . . .*

Aitzinarako : izlag. Aurrerantzeko.

Aitzinatü : *da/dü* ad. Aurreratu. *Zaio* : aitzindu *zaio*, aurea hartu *dio*.

Aitzine : iz. 1 Aurea. 2 aitzindegia, aitzinaldea, aurrealde, aurreko aldea.

Aitzinetiko : aurretikoa.

Aize : iz. Haizea.

Aize beltza : mendebaldetik datorren haizea, usaian euria ekarriz.

Aizkora

Ajargatü : *dü* ad. Geroa zer izango den asmatzera saiatu.

Ajütari : iz. Laguntzailea.

Ajütatü : *dü* ad. Lagundu.

Ajütü : iz. Lagungoa, laguntza.

Akabantza : iz. Amaia, bukaera, ürrentzea.

Akabatü : *da/dü* ad. Amaitu, bukatu, ürrentü.

Akabi : *da/dü* ad. Akabatu, amaitu, bukatu, ürrentü.

Akazatü : *dü* ad. Haizatu, kanporatu, uxatu, ohiltü.

Akazazale : iz. eta izond. Akazatzailea.

Akisitü : *dü* ad. Beretu, eskuratu, zerbaiten jabe bilakatu.

Akodiña : iz. Lan xehe estekatzzailea, buruhaustea.

Aküilatü (*dü*)

Aküilü

Aküsantxa : iz. Akusazioa, salaketa.

Alaba : iz. Aita-amekiko, semea ez den haurra, emakumezkoa. Honek anaia-rik baduenean, **seme-alabak** dira, eta ez gaztelaniaz bezala *semeak* (*bijos*).

Alagera : izond. Alegera, alai.

Alageratü : *da/dü* ad. Alaitu.

Alageraxetü : *da/dü* ad. Alaituxe, alageratüxe.

Alagrantzia : iz. Alegantzia, alaitasuna.

Alartze (*albartze*) : iz. Atearen behealdeko harmaila. Ikus bi erdaretan *seuil* eta *umbral*.

Alegrantziatzko

Alde : forma hau zubereraz ere badugu, baina gainera bi aldaki hurbil : alte, althe.

Elixondoa eta Elixalte Oibergin, eliza alteko (iriko) bi etxeak düütüzü.

Ni « Zazpiak-bat » horren alt(h)e niagozü.

Aldetarzün : iz. Aldekotasuna.

Aldi (iz.)

Aldika : adlag. Aldizka, txandaka.

Aldikatü : *da/dü* ad. Aldizkatu/tü.

Aldiz : 1 lok. Berriz, ordea : *Orai aldiz...* 2 adlag. Batzuetan : *Zonbait aldiz...*

Algar : izord. Elkar.

Aliantza

Aliantzazko

Alkar (*alkbar*) : izord. Elkar.

Altare : iz. Aldarea.

Alte : iz. Iria. *Ürrüstoi Elixalte, eliza alteko etxea düüzü.*

Alterarzün : iz. Harridura, nahasmendua.

Alteratü : *da* ad. Altaratu, asaldatu, harritu.

Altetarzün : iz. Aldetasuna.

Althe : adlag. Aldekoa, alderdikoa. *Norbaiten althe jarri (Lhanderen biztegian).*

Altxatü (*da/dü*)

Altxatürazi : iz. Altxagarria.

Ama

Aments : adlag. Bederen, gutienez. Ikus *aumens* (biarnesez), *au moins* (frantsesez).

Amets : iz. *Xerri goseak ezküra eta zia amets.*

Amistantza : iz. Adiskidantza, adiskidegoa, adiskidetasuna. Ikus espainieraz *amistad*.

Amoina : iz. Limosna.

Amorio : iz. Amodioa, maitasuna.

Amorio propi : iz. Autoestimua, norberaren estimua. Ikus frantsesez *l'amour propre*.

Anaie : iz. Arreba ez den haurride/senidea, gizonezkoa. Honek arrebarik baduenean, **anai-arrebak** dira, eta ez gaztelaniaz bezala *anaiak* (*hermanos*).

Anarteo (anhartio) : iz. Anarteraino. Bereziki leku-denborazko kasuetan erabilia.

Apairü : iz. Otordua, jatordua. Zubereraz « *apaidü* » ahoskatzen dugu.

Apaisatü : *da/dü* ad. Baketu/tü, eztitu/tü. Ikus frantsesez *apaiser*.

Apaisazale : iz. Baketzaila, eztitzaila.

Apal : izond. : *pertsona apala, boz apala*.

Apalmentü : iz. Apaltasuna.

Apaltarzün

Apaltü : *da/dü* ad. Apaldu.

Apart : adlag. Aparte, bazter, bereiz.

Apartatü : *da/dü* ad. Baztertu/tü, bereizi.

Aperendiz : iz. Aprestua, ikaslea.

Apez : iz. Apaiza.

Apezgoa : iz. Apaizgoa. Zubereraz *a* organikoa dauka, Batuan ez bezala.

Apezküpü : iz. Apezpikua, gotzaina.

Apostolü (iz.)

Apür : 1 izond. Txikia, urria. 2 iz. Apur bat : miko bat, poxi bat. 3 adlag. Guti, güti.

Apürtü : *da/dü* ad. Gutitu, gütitü.

Apürtze (iz.)

Aragi : iz. Haragia.

Ararteko (iz.)

Araur : 1 iz. Araua. 2 pospos. Arau.

Ardi (iz.)

Ardu : iz. Ardoa, arnoa, ardanoa.

Ardüra : adlag. Maiz, usu, üsü.

Ardüran

Are : *are...-ago. Orga txarraço, kurrinka are bandiago.*

Argi (iz. eta izond.)

Argitarzün

Argitü (*da/dü*)

Argitze (iz)

Argizale : iz. eta izond. Argitzailea.

Arima (iz)

Arin (izond.)

Arinmentxa : iz. Arintzea.

Arintarzün

Arintü : *da/dü* ad. Arindu.

Arinzki : adlag. Arinki.

Arka : Moisen aliantzako arka.

Arkanjelü

Arma

Armada : iz. Gudarostea.

Armatü (*da/dü*)

Arra : adlag. Berriz, berriro. Üda urte oroz arrajiten da.

Arraberritü : *da/dü* ad. Erreberritu, berritu.

Arraberritze

Arrafresko : iz. Freskaldi berria.

Arrahein : izond. Arduratsua, arretatsua, artatsua.

Arranjatü : *da/dü* ad. Antolatu/tü, arrimatu/tü, akomeatu.

Arranküra : iz. Arrangura, griña, kezka.

Arraroki (adlag.)

Arrats

Arratsalde : iz. Arrastiria. Gaur zubereraz erabili gabea, salbu Muskildin, eta gainera erdi amikuzeraz mintzo diren Donapaleuko kantonamenduko zuberotar herrietan.

Arraza

Arrazonamentü : iz. : Arrazoinamendua, arrazoibidea.

Arrazu : iz. Arrazoaia.

Arreba : iz. Anaia ez den haurride/senidea, emakumezkoa. Honek anaiarik baduenean, **anai-arrebak** dira, eta ez gaztelaniaz bezala *anaiak* (*hermanos*).

Arren : beraz.

Arrerran : *dü* ad. Berriz erran, errepikatu, arrapikatü.

Arrerosi : *dü* ad. Berriz erosi, salbatu/tü.

Arrerosle

Arrideo : iz. Errezela, gortina. Ikus frantsesez *rideau*.

Arrimatü (*da/dü*)

Arropa

Arrotz : 1 iz. eta izond. Atzerritarra, atzerrikoa ; ezezagüna. 2 iz. Gonbidatua ; ostatur hartzen den pertsona.

Arte : iz. Artea, tartea, bitartea ; *Quercus ilex* zuhaitza eta horren euskal izena ez dira ezagunak Zuberoan ez eta gainerako iparraldean. Xalbadorrek Ataunen ikasi zuen 1973an udaberriko arrats batez, Aita Barandiaranen omenez izan zen bertso saio batean, *arte* hori une batean lehiakidei gai bezala eman baitzioten : Urepelekoak azalpenak eskatu zituen.

Gertakari xume horren lekuko izan nintzen emaztearekin.

Artean

Arzara : adlag. Hartzara, berriz.

Ase : 1 *da/dü* ad. 2 iz.

Asezia : iz. Asebeta.

Aseziatü : *da/dü* ad. Asebeta.

Askazi : iz. Ahaidea.

Aski : adlag. Nahikoa.

Astegün

Atakarzün : iz. Eraso, oldarra.

Atakatü : *dü* ad. Eraso. Gaur zubereraz *ataki* erabiliagoa da.

Atrebitü : *da/dü* ad. Ausartu/tü.

Atzaman : *dü* ad. Atzeman ; azken forma hau ere batzuetan agertzen da zubereraz. Orokorki *a* eta *e* letrek ahoskera hurbila dutenez, batak bestea jaten du : *bitzaman/ bitzeman, zire (zide) zirae* logikoaren orde. . .

Gaur iparraldean « *trouver* » edo « *ballar* » errateko, gazteek *atzeman* baizik ez dakite.

Kasu askotan egokiago dira *aurkitu, ediren, kausitu* : *atzaman/atzeman* horrek zentzu indartsua du, *batzez bartzeta, barrapatzea* adieraziz. Historiaurrean, prehistorian, gure aitaseok andregai hola beretzen omen zuten : orain ordea hobe da beste gisaz *ediretea*.

Auher : iz. eta izond. Alferra.

Auherkeria : iz. Alferkeria.

Aurkixe : adlag. Laster, berehala.

Autoritate : iz. Aginpidea.

Axal : iz. Azala.

Axol : iz. Axola, ardura, arreta ; zubereraz *a* organikoa gabe, euskara batuan ez bezala : *ez dit axolik* (Lhanderen hiztegian).

Axolatü : *da* ad. Arduratu, kezkatu, arranguratu (zerbaitez).
 Axuri : iz. bildotx gazteñoa, arkumea.
 Azkar : izond. Indartsua.
 Azkargarri : iz. eta izond. Sendogarria, sendotzen duena ; indargarria, indar ematen duena.
 Azkarki : adlag. Indarrez, bortizki.
 Azkartarzüñ : iz. Indarra.
 Azkartü : *da/dü* ad. Indartu, indartsutu.
 Azken
 Azkenekoz
 Azkenki
 Azkentze
 Azkorri : iz. Ozkorria, goiztiria, egunsentia.
 Azotatü : *dü* ad. Zigortu.
 Azote : iz. Zigorra.

B

Bada : junt. 1 Beraz. 2 Bada...bada...: Edo...edo...Dela...dela...
 Bai
 Baietare : bai eta ere.
 Baimento : iz. Baimena.
 Baizik : besterik ; beti *ez*-ekin dabila, hau leku ezberdinetan kokatzen zaiolarik : *Ez da Jinko bat baizik*, dio Belapeyreren Kateximak, halaber nire haurtzarokoak. Bestelan erran daiteke : *Jinko bat baizik ez da*. Eta *hau baizik ez da*, edo *ez da hau baizik*. Berriki arte ez dut besterik entzun ez irakurri zubereraz, euskalki guzietan bezala. Gaur zuberotar gazteen artean *ez* hori gabe hedatzen da : *hau baizik da...hau bakarrik da* errateko. Are txarrago *ez*-ekin, baina zentzuz kontra : *ez da hau baizik, ez da hau bakarrik* errateko. Frantsesa irakurtzen dutenentzat, « il n'y a que ça » diote, ustez eta « il n'y a pas que ça » erraten dutela. *Baizik* derabilte *bakarrik* edo *beraren* ordeztu. *Bakarrik* « manexa » omen da, zuberotar zaharrek (Maisterrek bezalaxe) derabilguten *solamente* (haren *solamentz*) aldiz « espainola ». Gaurko zuberera garbira mugatu nahi dutenei *bakoizki* aholkatzen diet. « Baizik » bego **beti** « ez » baten konpainia hurbil edo urrunean.
 Bake
 Bakoitz
 Bakoizki : adlag. Bakarrik.
 Balakatü : *dü/da* ad. *Sim. losintxatu*. Gaur zubereraz *balaki* ere dabila.

Balakü : iz. Losintxa, lausengua.

Balantza : iz. Pisatzeko tresna, pezatzekoa (*Zub.*).

Balia : iz. Balioa.

balia izan : balio izan.

Balin : baldin.

Balinba : baldinba.

Balio (*iz.*)

Balio izan : *dü* ad.

Balios : izond. Baliotsua.

Balioski : adlag. Baliotsuki.

Banalaria : iz. Banitatea, hantukeria. Ikus frantsesez *la vaine gloire*.

Banitate : iz. Harrokeria, harrotasuna, hutsakeria.

Banitados : izond. Handiputza, handiustekoa..

Banket : iz. Banketea, apairu handia, otordu ospetsua.

Bano : izond. Hutsala, alferrikakoa.

Banoki (*adlag.*)

Bantari : izond. Espantu egilea, espantotxa (*Zub.*).

Bantatü : *da/dü* ad. *da* : Harrotu (zerbaitez). *dü* : Goratu/tü, goraiatu, goretsi, laudatu. Ikus frantsesez *vanter* eta *se vanter*.

Baragailü : iz. Oztopoa, traba, epanxüa (*Zub.*).

Barantaila : iz. Otsaila.

Baratü : *dadü* ad. 1 *da*. Gelditu, egon. 2 *dü*. Geldiarazi, eragotzi. 3 *dü/zaio*. Topo egin.

Barazkari : iz. *Zab*. Bazkaria.

Bardin : izond. Berdina.

Bardin izan (*da/zait/zaio*)

Bardintü : *da/dü* ad. Konparatu/tü, erkatu (kasu honetan).

Bardinzki : adlag. Berdinki.

Barna : izond. Sakona.

Barnatarzün : iz. Sakontasuna.

Barne : iz. Barrena, barrua.

Barnetiko : barrutiko.

Barreiarzün : iz. Barreiamendua, barreiatzea, barreiadura, sakabanaketa.

Barreiatü : *da/dü* ad. eta izond. Sakabanatu.

Barur : iz. Barura, baraua.

Barurik : adlag. Baraurik.

Bat

Batailatü : *da* ad. Gudukatu/güdükatü, borrokatu/tü.

Bat-batetan : adlag. Bat-batean.

Batbedera : izord. Norbera, bakoitza.

Batere (adlag.)

Batetan : adlag. 1 Aldi berean. 2 Batzuetan : ...*batetan*...*beste(e)tan*... Batere (adlag)

Batü : *da/dü/zaio* ad. 1 Baratü, topo egin. 2 Bildu, elkartu, jüntatü.

Batzak (eta besteak) : batak (eta besteak).

Batzarre : iz. Batzarria (*a*) (*Zub.*), harrera, abegia.

Batzü : batzuk.

Bazka

Bazkagü : iz. Bazkagia (*Zub.*, gaur *a* organikoarekin), bazkalekua, alhagia.

Bazko : iz. Pazko.

Bederakarka : adlag. Banaka, banazka, batbanazka ; gaur *Zub.*: bederazka.

Begi (iz.)

Begira : iz. Arreta, ardura, zainketa.

Begirari : iz. Begiralea.

Begiratü : *dü* ad. 1 Zaindu/tü, babestu. 2 Atxiki : *Dena oro beretako begiratü nahi dü.*

Begitarte : iz. Aurpegia.

Behar : iz. Beharra, premia.

Behar ordü : iz. Beharraldia ; premialdia, estualdia.

Beharri : iz. Belarria.

Beharrüne : iz. Beharra, beharraldia, premialdia.

Behatü : *da/zaio* ad. Adi egon, entzun.

Behin (adlag.)

Beila : iz. 1 Gaubeila. 2 Erromesaldia.

Beilatü : *dü* ad. Gaubeilatu, gaua xuritu.

Beita (beitha) : iz. Baita : *zure baitan, zuen baitan, ni baitan, ene baitan.*

Bekanki : adlag. Bakanki.

Bekatore : iz eta izond. *Zab. Sin. Bekataria.*

Bekatü : iz. Hobena, hutsa (erlijio ikuspegitik).

Belaün (belhain) : iz. Belauna.

Belaurikatü : *da* ad. Belaunikatu.

Beldür : iz. Beldurra, izua, lotsa (*Ipar*).

Beldürti : izond. Beldurtia, aisa beldurtzen dena, lotsakorra (*Lap. Naf.*), lot-sorra (*Zub.*).

Beleraški (adlag.)

Belerať : izond. Ernea, sendoa, sentoa (*Zub.*).

Belhar : iz. Belarra ; **h** horri esker, beste **belar** batetik bereizten da, harek zubereraz *kopeta* (edo *borondea/tea, bekokia*) adierazten baitu.

Beltzuri : iz. Begitarte iluna, so beltza.

Belzküra : iz. Belztura.

- Bena : junt. Baina.
 Benedikatü : *dü* ad. Bedeinkatu.
 Benedikzione : iz. Benedizioea, bedeinkazioa, bedeinkapena.
 Benial (*bekatü*) : izond. (*bekatu*) arina.
 Beno : junt. Baino.
 Beno benoz benozago (63. or.) :
 Bentüratü : *da* ad. Menturatu, ausartu.
 Ber : izond. 1 Bakarra. Berbera jin da. 2 Gauza bera : kasu horretan zubere-
 raz « **berra** » ahoskatzen dugu.
 Berankeria : iz. Berankortasuna.
 Berant : Alag. *Ipar.* Berandu.
 Berantetze (72) : iz. Berandutzea, berantzea, atzerapena.
 Berantiar : izond. Berankorra, berandutzen duena.
 Beraur : erak. Bera.
 Beraurtako : izlag. Bertako.
 Beraurtan : bere baitan, berartan (*Zub.*).
 Berbo (verbo) : iz. Hitza : *bemen*, Jainkoaren hitza gizon egina.
 Bere : izond. Iparraldean berriki nahasketa handia hedatu zaigu *bere* eta *haren*
 izenordainen artean, bereziki komunikabideen bitartez. Hiztegitxo hau ez
 da horrez irakasten sakon eta zehatz baten emateko gunea. Baina **bera**
du eta **harena da** gutienez bereizi ditzakegu.
 Eta ez erran *bere ama da*, inork ezin baitu bere burua sortu. Beraz : *haren ama*
da, eta *bere ama du*.
 Maisterrek pluralean ere *bere* derabil gutiz gehienetan, eta bakanki *beren*.
 Bere бүрү : bera.
 Berekadüra : iz. Fereka, ferekaldia.
 Berere : adlag. Bederen.
 Berezi : 1 izond. Berezia. 2 *da/dü* ad. : Bereizi.
 Bereziki
 Berezkeria : iz. Bereizkeria, bereizte gaitzesgarria, diskriminazioa..
 Berhala : adlag. Berehala.
 Berhaztopadüra : iz. Behaztopa, behaztopatzea.
 Berhaztopatü : *da* ad. Behaztopatu/tü.
 Bermatü : *da* ad. Bermatu, hurbildu.
 Bero (iz. eta izond.)
 Berri (iz. eta izond.)
 Berrikeria
 Berritzepe : iz. Berritzapena, berritzea, berriztatzea.
 Bertan : adlag. Laster, berehala.
 Bertarik : adlag. Berehala, bat-batean.

Bertüte
 Bertütos : iz. Bertutezkoa, bertutetsua.
 Besarka : iz. Besarkada, besarkaldia.
 Besarkatü (*dü*)
 Beso
 Besta : iz. Festa, jaia.
 Bestalde
 Bestalte (*besthalte*) : bestalde.
 Beste
 Bestordüz : beste orduz/düz.
 Bete (*da/dü*)
 Betetarzün
 Beti
 Betiereko : 1 izlag. Betiko : *Betiereko zoriona...* 2 adlag. *Betierekoz salbatuko da...*
 Bezain sarri : bezain laster.
 Bezala
 Bezalako
 Bezanbat : bezainbat.
 Bezainbeste
 Beztimenta : iz. Jantzia.
 Beztitü : *da/dü* ad. Beztitu, jantzi.
 Bide
 Bidejant : iz. Bidaiaria, bidekaria.
 Bidexka
 Bihar
 Biharamen : iz. Biharamuna.
 Biharamün : iz. *Bi formak bizirik ditugu gaur ere.*
 Bihotz
 Bihotz min : iz. Bihozmina.
 Bihoztoi : iz. Bihoztuna, ausarta.
 Bihoztoiki (adlag.)
 Bikari : iz. Bikarioa, apaiz laguntzailea.
 Bilaizi : *da/dü* ad. Biluzi.
 Bilatü : ad. 1 *dü* : Xerkatu, txerkatü. 2 *da* : Bilakatu/tü.
 Bilakatü (*da*)
 Bilküra : iz. Pilaketa, meta, bilduma.
 Bilo (iz.)
 Biltzarrüne : iz. Jende ostea, saldoa, taldea.
 Bisita
 Bisitatü (*dü*)

Bista (iz)

Birjina (iz.)

Bitoria : iz. Garaipena.

Bizi (izond. eta iz.)

Bizigarri (izond. eta iz.)

Bizio : iz. Ohitura txarra.

Bizios : izond. Biziotsua, biziozkoa.

Bizitarzün

Bizitü (*da/dü*)

Bizitze : iz. Bizitza, bizia, bizialdia, bizimodua.

Bizkar (iz.)

Bolontarioki : adlag. Boluntario bezala, bere nahiz.

Borogantza : iz. Frogantza, froga, proba.

Borogatü : *dü* ad. Frogatu, probatu, esprabi ; *hemen* : norbaiten gaitasuna saio edo azterketa bidez egiaztatu.

Borogü : iz. Froga, proba, egaztabidea. Ikus frantsesez *preuve* eta *épreuve*.

Borontate : iz. Borondatea.

Borroka : iz. Gudua, guduka, indarrezko ahalegina.

Borrokatü : *da* ad. Borroka egin, gudukatu.

Borta : iz. Atea.

Bortitz

Bortizki

Bortiztü (*da/dü*)

Bortxa : 1 iz. Bortxà (*azentu tonikoa bukaeran ezarriz*), beharra ; indarkeria. 2 adlag. (*azentua azkenaren aitzineko silaban*) : nekez doi-doia, nekez ozta-ozta.

Bortxakatü (*dü*)

Bortxatü (*dü*)

Bortxaz (adlag.)

Boto

Botz : iz. 1 Boza. 2 Poza, bozkarioa, boztarioa (*Zub.*).

Boxi : iz. Poxia, apurra.

Boxinka : iz. Poxiñoa.

Boztario : iz. Bozkarioa, poza, botza (*Zub.*).

Bridatü (*dü*)

Bühürtü : *da/dü* ad. Bihurtu, bihurritu, buru eman, iharduki.

Bühürtze : iz. Bihurtzea, bihurritzea.

Builta : iz. Bulta.

Bulka : iz. Bulkada, bultzada, pusakoa.

Bulkatü (*dü*)

Bürdüin : iz. Burdina.

Burrar : iz. Bularra.
 Burré : adlag. (*biarnesetik*). Edonola, zer nahi gisaz, nolanahi.
 Bürü
 Bürüneria : iz. Tema, hisia, setakeria, egoskorkeria, бүрүтүскерия.
 Bürüteala (*bürütüla*) : nasaiki, zabalki.
 Bürzagi : iz. Buruzagia, бүрүзәгә (Zub).
 Bürzagioa : iz. Buruzagioa (*Ipar*), бүрүзәгәгә (Zub, a organikoarekin),
 buruzagitza.
 Bürzagisa : iz. Buruzagi anderea, бүрүзәгәсә (Zub).
 Busta : busti aditzaren forma bat.
 Busti (*da/dü*)

D

Damnatü : *da/dü* ad. *Zab*. Kondenatu/tü.
 Damü : iz. 1 Damutasuna, dolua. 2 Kaltea.
 Damügarri : izond. Dolugarria, errukaria, urrikalgarria.
 Damürik : adlag. Tamalez, zoritxarrez.
 Danjer (*danger*) : iz. Arriskua/küa, lanjera (Zub).
 Dardeiatü : *dü* ad. Dirdiratu : argi arraiak eta izpiak bota, dardoak bezala.
 Debadio : iz. Eztabaida, liskarra. Gaur Amikuzen bizi da : *Itxaro Bordak adibi-*
dez derabil.
 Debeiarzün : iz. Asperdura, gogaidetasuna.
 Debeiatü : *da* ad. Aspertu, gogaitu.
 Debot : izond. eta iz. Debotoa.
 Debotki : adlg. Deboziorekin.
 Debozione : iz. Debozioa.
 Debozionezko : izlag. Deboziozkoa.
 Debrü : iz. Deabrua.
 Degüt : izond. Eskasa.
 Deinatü : *dü* ad. Onartu, onartzera apaldu. 327. or. : « *ümiliatzera deinatzen ez*
direnak ». Ikus frantsesez « *daigner* ».
 Deitü (*dü*)
 Deizale : iz. Deitzailea.
 Derezatü (176) : *dü* ad. Drezatu/tü, hezi.
 Desarau : izond. Eragabea, itxuragabea.
 Desbardin : izond. Desberdina. *Sin. ezberdin*.
 Desbardintarzün : iz. Desberdintasuna. *Sin. ezberdintasun*.
 Desdixatü : izond. Dohakabea. Gaur ez dugu erabiltzen.

- Desein : iz. Deseinua (*Zab.*), asmoa, xedea.
 Deseinatü : *dü* ad. Asmatu/tü, xedatu/tü.
 Desertü : iz. Desertua, basamortua.
 Desfortüna : iz. Zoritxarra. Ikus frantsesez « *infortune* ».
 Desir : iz. Desira, desioa, nahikaria.
 Desiragarri : izond. Guragarria.
 Desiratü : *dü* ad. Gutiziatu.
 Desirkünite : iz. Desirkundea (*Ipar*), nahikundea.
 Deskorajatü : *da/dü* ad. Kuraia galdu, adorea galdu.
 Deslaudatü : *dü* ad. Apaletsi, gutietsi, arbuiatu.
 Desplazent : izond. Desatsegina.
 Desplazer : iz. Atsekabea.
 Desterratü : *dü* ad. Erbesteratu.
 Desterrü : iz. Erbestea.
 Destorbatü : *dü* ad. Eragotzi, trabatu.
 Destorbü : iz. 1 Ezbeharra. 2 Traba, eragozpena, epantxüa (*Zub.*).
 Deüs : izond. Ezer.
 Deüsere : izond. Deus ere (deüs ere). *Deus-en indargarria*.
 Dilübio : iz. Uholdea. Leizarragak erabili zuen.
 Diozesa : iz. Elizbarrutia.
 Direnen gain(e)a(n) : direnez, direnez gero, direnaz gain.
 Dizipülü : iz. Ikaslea ; jarraitzailea.
 Döblatü : *dü* ad. Bikoiztu.
 Dohain : iz. Eraitza, bereziki Jainkoaganik ukana ; talendua, ahalmena.
 Dohainik : adlag. Doan, dohainik, kitorik, urririk.
 Dohatsü : iz. eta izond. 1 Zorionekoa, zoriontsua, urosa .(*Lap.Naf.*), irusa (*Zub.*).
 Dohatsütarzün : iz. Zoriona, zorientasuna.
 Dohatsüki : adlag. Uroski (*Lap. Naf.*), iruski (*Zub.*).
 Doi : 1 izond. eta iz. Neurri egokikoa ; *bere doia* : *behar duena soilik*. 2 adlag.
 Ozta-ozta.
 Dolore : iz. Atsekabea, nahigabea, oinazea, mina.
 Doloroski
 Dolü : iz. Atsekabea, damua.
 Dolügarri : izond. Damugarria, errukaria, urrikalgarria.
 Dolümen : iz. Dolua, damua.
 Dolütü : *zaió* ad. Damutu.
 Dotor : iz. Doktoorea. Kontestuan : Unibertsitateko irakaslea.
 Drano : radino, raino, rano (*Zub.*).
 Drezatü : *dü* ad. Hezi.
 Düda : iz. Zalantza.

E

Ebatsi (*dü*)

Ebili : *da* ad. Ibili (gaur zuberera klasikoan ere).

Edan (*dü*)

Edantza : iz. Edaria.

Edari

Edate

Edateko : iz. Edaria.

Eden : *da/dü* ad. Eduki, kabitu.

Eder

Ederki

Edertarzün

Ediren : *dü* ad. Aurkitu, kausitu. Ikus gorago *atzaman/atzeman*.

Edüki : *dü* ad. Eduki, üken, ukan.

Egari : 1 jasan. 2 erabili.

Egarri (iz. eta izond.)

Egarritü (*da*)

Egia

Egiati (izond.)

Egiazki

Egiazko

Egile

Egin : 1 *dü* ad. 2 iz. egin dena : *Apostoluen eginak*.

Eginbide : iz. Egin behar dena, betebeharra.

Egitate (iz)

Egiteko (iz.)

Egoite : iz. Egoitea.

Egon : horren forma bilduak ugari ditu Maisterrek, eta maiztasun handiz derabilzki : *dago, daude, diagozü, eta abar...* Gaur gutitan agertzen dira Zuberoan, eta orokorki iparraldean, salbu idazki jasoetan. Gutiz gehienek *da* eta *dago* nahasten dituzte, adiera ezberdina dutela jakin gabez.

Egongü : iz. Egoitza ; gaur Zuberoan egongia, a organikoarekin : *egongia bat*.

Egotzi : *dü* ad. Egotzi, egotxi (*Zub.*).

Egotxi

Egün : 1 iz. Eguna. 2 adlag. gaur, gaur egun : « *Egun da Santimamiña...* »

Egürüki : *dü* ad. Igurikatu, iguriki, itxaron.

Ehi : izond. Erraza, aisà, aisita.

Ehiki : adlag. Errazki, aisa.

Ehiñera : adlag. Errazki, aisa.

Ehitü : *da* ad. Erraztu, aisatu/tü.

Ehün

Eia : *ea*.

Eine (einhe) (2) : *1 da/dü*, ad. Akitu/tü, nekatu. 2 iz., akidura, nekadura.

Eitzi : *dü* ad. Utzi ; gaur zubereraz « ützi ».

Ejer : izond. Eijerra, polita.

Ekarri : 1. *dü*, ad. 2 izond. *ekarri izan*, enjogi (*Zub.*).

Eki : iz. Eguzkia.

Ekoiliar : iz. *Zab.* : egoiliarra : *zelüko ekoiliar*.

Ekoizpen

Eküratü : *da* ad. Gelditu.

Ekürü : adlag. Geldirik.

Elas : zoritxarrez, maluruski, maleruski (*Zub.*). Ikus frantsesez *bélas*.

Ele

Element : iz. Elementua.

Elesta : iz. Hizketa, eleketa.

Elestari : izond. Eleketaria, berritsua, kalakaria.

Elestatü : *da/dü/zaio* ad. Elekatu, hitzegin, hizketan jardun, mintzatu/tü.

Elestatze : iz. Hizketa, eleketa.

Elezahar

Elibat : Batzuk : *gizon elibat jin dira*. (Bestalde dago *eli bat*, bi hitzetan : *pare bat, talde bat*).

Eliza

Elizagizon : iz. Elizgizona.

Eliza txori : iz. Elizatxoria, txolarrea. Ikus esp. *gorrion*, fr. *moineau*.

Elorri

Emaile

Emaite

Eman : 1 *dü* ad. 2 iz. Eman.

Ematü : *da/dü*, ad. Ematu, eztitu/tü.

Emazte : iz. Emakumea.

Emeki : adlag. : *emeki-emeki*.

Emendatü : *da/dü* ad. Gehitu, erantsi.

Emendio (*iz*)

Emur : iz. Umorea (ona edo txarra) : *emur bon züan, emur gaizto züñan*..

Ene : izlag. Enea, nirea.

Engoxatü : *da* ad. Alditxartu, trenputxartu, konortea galdu.

Enjogi izan : *da*, ad. Zale izan, ekarri(a) izan ; *kanpotiko gauzei enjogi dena*.

Enjogidüra : iz. Zaletasuna, joera.

Enpeltatü : *dü* ad. Txertatu (zuhaitza).

- Enplegatü (*da/dü*)
 Enplegü
 Entelegatü : *dü* ad. Aditu, ulertu, konprenitu/tü.
 Entelegazale : iz. Ulertzailea, konprenitzailea..
 Entelegü : iz. Adimena.
 Entzün
 Entzüte
 Epel
 Epelki
 Epeltarzün
 Epeltü : *da/dü* ad. Epeldu.
 Erabili (*dü*)
 Eragin : *dü* ad. Eginarazi.
 Eragingarri : iz. eta izond. Eragilea, bultzagarria.
 Eraiki (*dü*)
 Erakarle (iz. eta izond.)
 Erakarri (*dü*)
 Erakutsi : *dü* ad. Batzuetan *irakatsi* ordezkutzen du, Maisterrengan bezala gaurko zuberotarren artean, baita orokorkiago iparralde guzian.
 Erantzün : *dü* ad. Ihardetsi ere derabil Maisterrek ; gaur zubereraz hau dugu forma bakarra.
 Erauntsi : 1 *dü* ad. Ari izan da. 2 iz. Uharra : *auri erauntsia*. Erasoa.
 Erdoil : iz. Herdoila.
 Ere
 Eretxeki : *dü* ad. Eratxiki.
 Eretze : iz. Aldea, alderdia, bisean bisa.
 Eri : iz. Gaixoa.
 Eritarzün : iz. Eritasuna, gaixotasuna.
 Eritü : *da/dü* ad. Gaixotu.
 Erleki : iz. Erlikia, errelika.
 Ermita : iz. Ermitaua, bazter batean bizi den erlijiosoa.
 Ero (*erbo*) : izond. Zoroa, zentzu gutikoa. Gaur zubereraz *ertzoa*.
 Erokeria : iz. Zorakeria.
 Eroki : adlag. Zoroki.
 Erori (*da*)
 Erorkor : izond. Erortzeko joera duena : *osto erorkorra dizü haritxak*.
 Erorte : iz. Erortzea. *Ostoer erortea : hostoen erortzea* .
 Erortoki : izond. Erorkorra.
 Erortokidüra : iz. Erorkortasuna.
 Erpai : adlag. Aiduru, haidürü, zain ...*erpai etxeki nazala*...

Errabiatü (*da*)

Erraile : iz. Erralea, esalea.

Erran (*dü*)

Errana (*iz.*)

Erras : adlag. Arras, guztiz, oso, osoki.

Errauts

Errautsi : *dü* ad. Erraustu, suntsitu, txikitu, xehatu, xeheki (*Zub.*).

Erre (*da/dü*)

Errebelatü : *da* ad. Galdu, bidetik atera, herratü (*Zub.*).

Errege

Errege bide : iz. Errege(-)bidea, errepeida, bide handia.

Errejent : iz. Errieta, eskola-maisua, eskola txikietako irakaslea.

Errekeitatü : *dü* ad. Errekaitatu, artatu, zaindu.

Errekeitü : iz. Errekaitua, erremedioa, botika, sendagaia.

Errelijione (*relijione*) : iz. Erlisioea, erlijioa.

Errelijios (*relijius*) : izond. Erlijiosoa, debotoa.

Erremedio

Erresoma : iz. Erresuma ; orokorki **estatua** iparraldeko tradizioan, bereziki zubereraz : *Frantziako erresuma* (nahiz Errepublika den), *Espainiako erresuma* . . .

Erreüs : izond. Antziatsua, axolatsua, urduria.

Erreüski (adlag.)

Erreüstü : *da/dü* ad. Urduritu.

Errezebitü (*dü*)

Erri : iz. Irria

Eskandal : iz. Eskandalua.

Eskandalizatü : *da/dü* ad. Eskandalizatu.

Eskantzatü : *da/dü* ad. Askatu.

Eskaz : iz. eta izond. Eskas.

Eskazkeria : iz. Eskasa, eskasia, eskastasuna, urritasuna.

Eskentü : *dü* ad. Eskaini.

Esker

Esker gaixto

Eskerniatü : *da/dü* ad. Eskarniatu, penarazi, oinazea edo nekea harrarazi.

Eskernio : iz. Eskarnioa, oinazea, nekea.

Esketü : *dü* ad. Eskatu, galdatu, galtatü.

Eskierki : adlag. Eskuarki, segurki.

Esklabo

Esklabogoa : iz. Esklabotasuna, esklabotza.

Esklabaje : iz. Esklabotasuna, esklabotza, esklabogoa. Ikus frantsesez *esclavage*.

Eskola : iz. 1 Ikastola. 2 Jakitatea, jakintza, jakinduria ; *hemen irakaspena*.

Eskolatü (*da/dü*)

Eskolier : iz. Ikaslea.

Eskriptüra : iz. Eskritura, idazkia, izkiribüa (*Zub.*).

Eskü

Esküin

Esküsa : iz. Aitzakia, estakurua.

Espantatü : *da/dü* ad. Harritu/tü.

Esparantxa : iz. Esperantza, itxaropena. Gutiz gehienetan forma hori derabil, eta bakar Batzuez bestea, klasikoagoa. Gaur zuberotarrek « *espantxa* » ahoskatzen dugu, baina *esperantxa* idazten.

Esparantza : iz. Hau bakanki erabili du.

Esperantxa : iz. Ezperantza, itxaropena.

Espiritü : iz. Batean forma hori du, bestean *ezpiritü*. Tradizio luzean biak berdintsu dabilta.

Gaur *ezpiritü* idazten dugu, haatik ahoz *espiritü* noiztenka entzuten dut.

Espos

Estali (*da/dü*)

Estakürü : iz. Estakurua, aitzakia. Gaur zubereraz nagusi dugu *estakürüa* (bat),
a organikoarekin.

Estalgi : iz. Estalkia.

Estalgüne: iz. Estalpea, babesgunea, ezkutalekua.

Estekamentü : iz. Atxikimendua.

Estekatü (*da/dü*)

Esteki : *da/dü* ad. Estekatu/tü, lotu/tü.

Esterlünkü : iz. Ezbeharra, Nahigabe larria.

Estonagarri : izond. Harrigarria.

Estonatü : *da/dü* ad. Harritu/tü.

Estranje : izond. Arraroa, bitxia. Ikus hizkuntza erromanikoetan ; frantsesez
étrange.

Estüdio : iz. Ikasketa.

Eta

Eternal (izond.)

Etsai

Etsenplü

Etxe

Etxeki : *dü/zaio* ad. Atxiki, eutsi.

Etxeurzo : iz. Etxe usoa, *Columba sp.* Ikus gure bi erdaretan *paloma* eta *pigeon*
(*domestique*).

Exker : iz. Ezkerra.

Ez

Ezaba : adlag. Gorderik.
 Ezabaki : adlag. Sekretuan, isilean, ezkutuan.
 Ezabatü : *da/dü* ad. Gorde, itzali, ezkutatu, ezeztatu.
 Ezagütü (*dü*)
 Ezagützale (*iz.*)
 Ezagütze : *iz.* Ikustatea, begirunea, esker ona.
 Ezarri (*dü*)
 Ezaxol : *izond.* Ezaxola (*a* organikoa du Batuan), axolagabea.
 Ezaxolatarzün : *iz.* Axolagabekeria.
 Ezaxolatü : *da ad.* Axolagabetu/tü.
 Ezaxolatüki : adlag. Axolagabeki.
 Ezdeüs : 1 *izond.* 2 *iz.*
 Ezdeüstarzün (*iz.*)
 Ezdeüste (*iz.*)
 Ezdeüstü (*da/dü*).
 Ezetare : ez eta ere.
 Ezi : *junt.* Ezen, zeren.
 Eziez : *junt.* Ezen ez.
 Ezin
 Ezinago
 Ezkapatü : *da/zaio ad.* Eskapatu (*da*), ihes egin (*du*).
 Ezkapi : *da/zaio ad.* Eskapatu, ihes egin .
 Ezker : 1 *iz.* Ezkerra. 2 *izond.* Exkerreta (*Zub.*). 3 adlag. : *ezker joan.*
 Ezkiribatü : *dü ad.* Izkiriatu, eskribitu, idatzi, izkiribatü (*Zub.*).
 Ezkiribü : *iz.* Izkribua, izkiribüa (*Zub.*), idazkia.
 Ezpain
 Ezpiritü : *iz.* Espiritua, izpiritua.
 Ezpiritüal : *izond.* Espirituala, izpirituala.
 Ezti : 1 *iz.* 2 *izond.*
 Eztiki
 Eztitarzün
 Ezür : *iz.* Hezurra.

F

Falta : *iz.* Hutsa, hobena, ogena, errua, bekatua : *Ene falta, ene falta, ene falta banda !* (Aitorpen edo *Confiteor* otoitzean).
Faltatü : *dü/zaio ad.* Falta izan. *Arraro da adiskide leiala, adiskideari bere penetan batean ere faltatzen ez zaiona.* Maister, III 45, 2.

- Faltsü (izond.)
 Fama : iz. Ospea, omena, sona.
 Famatü : izond. Aipatua, goraipatua, ospetsua, sonatua.
 Fede : iz. Sinestea.
 Fermo : izond. Fermua, irmoa.
 Fermoki : adalg. Irmoki.
 Fermotarzün : iz. Irmotasuna.
 Fermotü : *da/dü* da. Irmotu..
 Fida izan : *da* ad. Fidatu/tü.
 Fidatü (*da*)
 Fidel
 Fidelki
 Figüra
 Filosofia
 Filosofo
 Finalki : adlag. Azkenean, azkeneko.
 Finazia : iz. Maltzurkeria.
 Finazios : izond. Maltzurra.
 Fitetz : adlag. Fite, berehala, laster.
 Flakatü : *da/dü* ad. Ahuldu, ahültü.
 Flakezia : iz. Ahulezia, ahülezia.
 Flakü : izond. Flakoa, ahula, ahüla.
 Flakütarzün : iz. Flakotasuna, ahulezia, ahülezia..
 Flanbatü : *da/dü* ad. Sugartu/tü, sugar bilakatuz erre. Ikus frantsesez *flamber*.
 Fraide
 Frantzes : iz. eta izond. Frantsesa, frantziarra. *Hemen* frantses hizkuntza.
 Frantzes da familiako xaharretarik ikasi nuena.
 Fresk : izond. Freskoa, hotxa.
 Früta : iz. Fruitua, landare batzuetariko janari berezia, gehienetan loreak emana.
 Frütü : iz. Emaizta, ekoizkin orokorra : ...*eta benedikatüa da zure sabeleko frütüa*
 Jesüs.
 Fuerte : izond. Indartsua, azkarra.
 Fundamen : iz. Fundamentua, funtsa.
 Fundatü (*dü*)

G

- Gabe : *argi gabe, argi gaberik, argirik gabe*.
 Gabetü (*da/dü*)

Gabezia

Gabezko

Gain : 1 iz. 2 adlag.

Gaine : iz. Goia, goialdea.

Gaineran (adlag.)

Gaineratiko : izlag. Gainerateko, gainerako.

Gainetiko

Gainti : iz. eta izond. Gaindi.

Gaintika : adlag. Gaindika, gainezka.

Gaintikatü : *da* ad. Gainditu, gaintitü. Eznea herakitzean gaintikatü da, hots gaintitü.

Gaintitü (*da/dü*)

Gaitz : 1 iz. Eritasuna, mina, kaltea. 2 izond. Tzarra, gaiztoa ; neketsua ; gaitzekoa.

Gaixo : izond. Errukarria, urrikarria, gizagaixoa, tristanta (*Zub.*).

Gaixotü : *dü* ad. Plainitu, urrikitan hartu, errukarritzat ikusi edota erakutsi.

Gaixto : izond. Gaiztoa.

Gaixtokeria : izond. Gaiztakeria.

Gaixtotarzüñ : iz. Gaiztotasuna.

Gaixtotü : *da/dü* ad. 1 Gaizto bihurtu. 2 Gaizkitu/tü, gaizkondu.

Gaizki : 1 adlag. Txarto. 2 iz.: *bonkiaren eta gaizkiaren zübaina*.

Gaje : iz. Bahia, bermea. Ikus frantsesez *gaje*.

Galdü (*da/dü*)

Galgarri

Galgarritako

Galtatü : *dü* ad. Galdatu, eskatu.

Galtegin : *dü* ad. Galdegin, galdetu.

Galto : iz. Galdea.

Gar : iz. Karra (suarena).

Garai : iz. Gaina, goia..

Garaiti : Garaitik : *gogoz garaiti, gogoz gaindi, gogoz kontra*.

Garaitü (*garbaitü*)(*dü*)

Garaitzale (*garbaitzale*) : iz. Garaitzailea, goitzailea.

Garbi (izond.)

Garbitü (*da/dü*)

Garratz

Garrazki

Garraztarzüñ

Garstatü : *dü* ad. Garreztatu.

Gastatü (*da/dü*)

- Gatik : Maisterrek izenari loturik derabil, gaur Batuan egiten dugun bezala.
- Gatz
- Gaü (*gai*) : iz. Gaua.
- Gaüza (*gaiza*) : iz. Gauza.
- Gaxo : Gaixoa (zuberera klasikoan ere). 1 iz. eta izond. Eria. 2 . Errukarria, urrikalgarria.
- Gaxotü : *da/dü* ad. Gaixotu/tü, eritu/tü.
- Gazitü (*da/dü*)
- Gaztelü
- Gaztezero : iz. Gaztaroa, gazte denbora.
- Gaztigatü : *dü* ad. Zigortu.
- Gaztigü : iz. Zigorra.
- Gehiago
- Gehien : 1 izond. Nagusia : zaharrena *baita* buruzagia : *familiako gehiena, komen-tüko gehiena*. 2 adlag. Gehienik, haboroenik.
- Gei : gai
- Gerla : iz. Gerra, gudua.
- Gerlazko
- Geroalatü (373) : *dü* ad. Geroratu, geroko utzi, atzeratu.
- Gerren : garren (Belapeyrek *garren*).
- Gertatü : *da/dü* ad. Gaur zubereraz erabili gabea, salbu izkirioz maila jasoan, bereziki pastoral edo trajerian ; *agitü* aditzak ordezkaten du : hau Mais-terrengan ez dut ediren.
- Gezür
- Gezürrezko
- Gezürti
- Gibel-karga (*da*) : izond. Mugigaitza, atzealdean karga gehiegi duen orga edo gurdia bezala.
- Gibeltü : *da /dü* ad. Gibelatu/tü, gibeleratu, atzera egin.
- Gida : iz. 1 Gidaria. 2 Gidaritza.
- Gidari
- Gidatü (*dü*)
- Gidazale : iz. Gidatzailea, gidaria.
- Gihaur : izord. Guhaur : *gu* izenordearen era indartua.
- Gillika : iz. Kilika. Zubereraz Basabürüan *gillika*, bestetan *killika*.
- Gisa
- Gisa berean : Gaur zubereraz erabili gabea ; horren ordezkorritzen da *ber gisan*.
- Gisatako
- Gizenki (adlag.)
- Gizon

Gizonki (adlag.)

Gloria : iz. Aintza, loria, ospea.

Glorifikatü : *dü* ad. Lorifikatu, goreski.

Glorios : izond. Aintzatsua, goresgarria.

Goaitan (*egon zaio*) : goaitan, zelatan, barrandan *egon zaio*.

Goaitatü : *dü* ad. Goait *egon zaio*, zaindu, zelatatu *du*.

Gobernari : iz. Lema (itsasontzikoa).

Gobernatü (*da/dü*)

Gobernü

Gogara : adlag. Gustura.

Gogatü : *dü* ad. Norberaren iritzira, aburura erakarri.

Gogoa : iz. Gogoa : *a* organikoarekin derabil ; gaur zubereraz ere gabe.

Gogoati : izond. Kezkatia, kezcatsua.

Gogoatü : *da/dü* ad. Arranguratu, kezkatu, seriestu, (tristatu ere ?) *da/du*.

Gogo honez : adlag. Gogotik.

Gogor

Gogorki

Gogortazün

Gogortü (*da/dü*)

Gogotik

Gogoz

Goiti

Goititü : *dü* ad. Altxatu/tü, eraiki.

Goitü : *dü* ad. Garaitu/tü.

Goitzarren : iz. Laidoa.

Goiz

Goizik (adlag.)

Gomendatü (*dü/ zaio*)

Gomendü : iz. Gomendioa.

Gontz : iz. Atearen eta leihoaren **erroak**.

Gor

Gora

Goratarzün : iz.1 Garaitasuna : *Ama Birjinaren goratasuna*. 2 Garaiera, altuera.

Goratü (*da/dü*)

Gordailü : iz. Gordelekua, gordetegia, ezkutalekua.

Gorde : *da/dü* ad. Ezkutatu.

Goren

Gori : izond. Joria, oparoa, aberatsa.

Goriki : adlag. Joriki.

Goritsü : izond. Ugaritsua, oparitsua.

Gormant : izond. Sabelkoia.
 Gorotz : iz. Animalien ongarria.
 Gorritü (*da/dü*)
 Gortü : *du* ad. Goritu : zinez berotu, argitsu egin arte.
 Gose (iz. eta izond.)
 Gose-jankin : izond. Gosejankina, gosetia.
 Goserik
 Gozamen : iz. Atsegina, bozkarioa, poza.
 Gozatsü : izond. Gozotasunez betea.
 Gozatü (*da/dü*)
 Gozo (izond. eta iz.)
 Gozogabe (izond.)
 Gozoko (*zure*)
 Gradü
 Grazia
 Greü : iz. eta izond. Nazka.
 Greügarri : izond. Nazkagarria, higuingarria.
 Greütarzün : iz. Asea, narda, nazka.
 Greütü : *da/dü* ad. Gohaindu/tü, nardatu, nazkatu, okitu.
 Güdüka : iz. Gudua, borroka, gerla (hemen espiritualala, lehenik norberaren aurkakoa).

H

Habitatü : *dü* ad. Egoitza batean bizi izan.
 Haboro : adlag. Gehiago.
 Haboroago : gaurko zuberotarrei bitxi zaigu *ago* hori.
 Haidürü : adlag. Aiduru, goait, zain (egon).
 Hain
 Hainbat
 Hainbeste
 Halabiz
 Halarik ere : junt. Halere, hala ere.
 Han
 Hanbat : hainbat
 Handi
 Handitarzün
 Handitü (*da/dü*)
 Hanitx : anitz.

Hanixtarzün : iz. Aniztasuna.

Hankürotx : iz. Hanküra/hantura txikia.

Hantü : *da/dü* ad. Puztu.

Hantxe : han berean.

Har : iz. Harra.

Harat-honatü : *da/dü* ad. Hara-honakatü.

Harpa : iz. Musika tresna. *David erregeak harpa jo zuen.*

Hartü (*dü*)

Hartze : iz. Hartzekoa. *Hartze didazu : zor dizut.*

Harzale : iz. Hartzailea.

Hasi (*da/dü*)

Hasperen : iz. Hasbeherapena, intziria, suspirioa (*Zab.*).

Haste

Hastio (*dü*)

Hats : iz. Arnasa.

Hatsalbo (*da*) : hatsantua, hatsanditua.

Hatsarre : iz. Hasiera, hastapena, hastea.

Hatz : iz. Hatza, arrastoa, aztarna, herexa ; gaur zubereraz ez da erabiltzen, salbu idazki jasoan.

Haur : hau.

Hauste : iz. Haustura.

Haütakeria (*haitakeria*)

Haütatü (*haitatü*)(*dü*)

Hauts (*iz.*)

Hautse : *da/dü* ad. Hautsi.

Hazi : *da/dü* ad. Zubereraz aditza soilik. Bestea, iz., *b* gabeko *azia* dugu.

Hazkürri : iz. Hazkurria/hazkürria, janaria, elikadura, bizigaia.

Hazle (*iz.* eta *izond.*)

Heben : adlag. Hemen.

Hebentxe : adlag. Hementxe, hemen berean.

Hedatü (*da/dü*)

Hegal : iz. Hegaztien hegoa.

Hegaltatü (*da*)

Hegaltaz : adlag. Hegaldaka.

Hegatz : iz. Teilatua.

Hein : iz. Maila, neurria, tamaina.

Hek : erak. Haiek.

Heltü : ad.1 *da*. Iritsi, ailegatu, arribatu. 2 *da*. Gertatu. 3. *zaio*. *Otoi bel Jaun eztia...* (Abenduko kantika) ; *bel ! = help !*

Heltübada : adlag. Beharbada.

Heltze

Hen : erak. Haien.

Herabe : 1 iz. Nagikeria. 2 izond. Alferra, nagia ; uzkurra, lotsatia.

Herabezti : izond. Herabetia, herabetsua, nagia.

Herabeztitü : *da/dü* ad. Nagitu, lotsatu/tü, beldurtu/tü.

Heraki (*da*) : izond. Irakitan. *Kasü, hur hau ez düin epela, bena berakia !*

Heren : zenbatz. Hirugarrena.

Herexa : iz. Hatza, arrastoa, aztarna.

Herio : iz. Heriotza, heriotzea (Zub.) : *berioa bezain itsusi düzü !*

Heriotze : iz. Heriotza, herioa.

Herots : iz. Harabotsa, zarata, azantza.

Herramentü : iz. Herratzea, errebelatzea, bidea galtzea.

Herratü : *da* ad. Bidea galdu, desbideratu.

Herrenkü : iz. Herronka, errenkada, ilara, maila.

Herritar

Herro : iz. Erroa : gaurko zuberera klasikoan ere *b* gabe.

Hersatü : *dü* ad. Hertsatu. *Hemen*,arrangurak konfiantzazko norbaiti kontatu, laguntza bila.

Hersatze : iz. Hertsatzea

Hersi : izond. Estua.

Hersidüra : iz. Herstura, hertsitasuna.

Hersiki : adlag. Hertsiki.

Hertü : *da/dü* ad. Gutitu/tü, murriztu.

Hetsi : *dü* ad. Itxi, zerratu/tü (*Ipar*).

Hezi (*dü*) : adiera zinez lardieratsua du Iparraldean eta bereziki Zuberoan ; abereentzat baizik ez genuen egarten, hegoaldetik pertsonentzat ere sartu zitzaigun arte.

Hi

Hil (*izan da*) : zubereraz oso gutitan agertzen da transitiboan (*hil dü*) ; kasu horretan « *eho dü* » erraten dugu, baina haurtzaroan bakar batzuetan « hil zizün » entzun ukan dut Altzaiko « axaita » eguzaitagandik, ehizaz ari zela, baita hamalauko gerla handiaz.

Hil : iz. : Hila, zendu den pertsona : *bila bain hüllan üken eta, deüs ez zakienak (Bere-terretxen Kantorea).*

Hilean : iz. Herioan : *bizian eta bilean.*

Hilkor

Hiltze

Hiratü : *da/dü* ad. Haseretu, samurtu, kexarazi.

Hitz

Hitz eman : *dü* ad. Hitzeman ; zubereraz gaur maizenik *bitzaman*.Ikus gorago *bitzaman*.

Hitzeman

Hobe

Hobeago : gaurko zuberotarrei bitxi zaigu ago hori, haatik nafar-lapurtarrek derabilte.

Hobeki

Hobekiago : ikus *hobeagoz* egin dudan oharra, *hobekiagorentzat* ere balio baitu.

Hoben : izond. Hoberena.

Hoiek : erakas. Hauek.

Hoila : iz. Foila, orria, hostoa, osto (Zub.).

Hoin (*buñ*) : iz. Oina.

Hola (*bula*)

Holaxe (*bulaxe*)

Hon (*bun*) : izond. Ona.

Hon : iz. 1 Ongia. 2 Ondasuna.

Honat : honarantz.

Honesgarri (*unbesgarri*) : izond. Onesgarria, zubereraz logikoki *honesgarria*.

Honetsi (*unbetsi*) : *da/dü* ad. Onetsi, honetsi (Zub.).

Honki : 1 adlag. *Sin. ontsa, ondo*. 2 iz. Ongia.

Honki egile : iz. Ongilea.

Hontarzün : iz. 1 Ondasuna, aberastasuna. 2 *hemen* : Ontasuna, ona denaren nolakotasuna.

Hor

Hor : iz. Txakurra, usaian handia (*zakurra*), adibidez *artzanora*.

Hori

horik : nom. plur. *Beste horik jin dira*.

horiek : erg. plur. *Horiek ere jan behar düe*.

Horra : 1 *da* ad. Badator. 2 adlag. Horra (hor). *Emakumea, horra hor zure semea*.

Horrat : adlag. 1 Horrantz. Norat builtatürrik zira ? Maulerat ! 2 Horra (hor egoteko). *Helaraz, belaraz gitzazü zeliilat, zü ganat, zure lorialat !*

Hotz (iz. eta izond.)

Hozkeria : iz. Hoztasuna.

Hozki

Hoztarzün

Hügü (*üken*) : *dü* ad. Higuin izan.

Hügüntarzün : iz. Higuintasuna.

Hüllan : adlag. Hurren, hurbil.

Hüllangia : iz. Hurbillbidea.

Hüllantü : *da/dü* ad. Hurrandu, hurbildu.

Hüllantze : iz. Hurbilketa

Hunki : *dü* ad. Hunkitu, ukitu.

Hur : iz. Ura

Hura

Hurak : nom. plur. *Hurak eguerdiko heltü ziren.* Haatik ergatiboan **haiek** : *haiek ere bazkaltü behar beitzüen.*

Hürrün : urrun, urruti. 1 adlag. : *herritik hürrün bizi da.* 2 izond. : *bazterra hürrün batetan.*

Hürrüntarzün : iz. Urruntasuna.

Hürrüntü : da/dü ad. Urrundu.

Hurtü : da/dü, ad. Urtu.

Hüskor : izond. Huts egitera ekarria.

Hüstü (da/dü)

Hüts : iz. 1 Hobena, ogena (*Zub.*). 2 Ezereza, gabezia, hutsunea, zero.

Hüts : izond. 1 Betegarririk ez duena. 2 Garbia, nahasgabea, soila : *espiritu butsa.*

(H)ütsarte : iz. Hutsarte.

I

Ideki : da/dü, ad. Ireki, zabaldu.

Idoki : dü ad. 1 Atera. 2 Kendu/tü.

Idokizale : iz. eta izond. Idokizalea.

Idor : izond. Lehorra, agorra.

Idortarzün

Ifernü : iz. Infernua.

Igain : igan.

Igan : da/dü ad. Igo, goiti/gora joan.

Igante : iz. Igandea.

Igaren : da/dü ad. Igaran, igaro, pasatu.

Igerikatü : da ad. Igeri egin (*du*).

Igerikatze

Igorri (*dü*)

Igurtzi : dü ad. Torratu.

Ihardeste : iz. Erantzuna.

Ihardetsi : dü ad. Erantzun.

Iharrausi : da/dü ad. Inarrosi.

Ihesi : 1 adlag. Ihesi joan. 2 ihes/ihesi, ihesten da/dü ad. *Sin. ezkap* (*Zub.*), **eskapatu** *da, zai*o.

Ihitz : iz. Ihintza.

Ihola (ere ez) : inola (ere ez).

Ihor : inor.
Ikara (iz)
Ikaragarri
Ikasi (*dü*)
Ikertü (*dü*)
Ikerzale : iz. Ikertzailea.
Ikusi (*dü*)
Ikuste
Imajina
Imajinazione : iz. Imajinazioa, irudimena.
Imitatü (*dü*)
Imitazale : iz. Imitatzailea.
Imitazione : iz. Imitazioa.
Iñazi (iñhazi) : iz. Tximista.
Inbeia : iz. Enbeia, gutizia, gogoia.
Inbidia : iz. Bekaizkeria.
Inbidios : izond. Bekaitza.
Indar
Indargabetü (*da/dü*)
Indarka : iz. Ahalegina.
Indarkatü : *da* ad. Indarka egin, ahalegindu, saiatu.
Indartsü
Indartü (*da/dü*)
Infidel (iz. eta izond.)
Inganagarri : izond. Engainagarria, tronpagarria.
Inganatü : *da/dü* ad. Engainatu, tronpatu/tü.
Inganazale : iz. Engainatzailea.
Inganio : iz. Engainua.
Inganios : izond. Engainagarria.
Inikitate : iz. Bidegabekeria, zuzengabekeria.
Injüsto : izond. Zuzengabea, zuzengabekoa.
Inkarnazionea : iz. Jainkoaren gizonegitea Jesusen pertsonan.
Inklinazione : iz. Joera.
Inozentzia : iz. Errugabetasuna, hobengabetasuna.
Inprobiski : adlag. Ezustean, ustekabean.
Inspirarzün : iz. Inspirazioa, goiargia, goi arnasa.
Instant : iz. Istanta, mementoa, unea.
Instrüment : iz. Musika tresna
Intentzione : iz. Intentzioa, xedea.
Intsentsü

Irabazi : 1 *dü* ad. 2 iz. *irabazi duzun saria*.
 Iraitxi : Eraitsi, jaitsarazi.
 Irakatsi (*dü*)
 Irakurte : iz. Irakurtzea. Gaur zubereraz ere nagusiki *irakurtzea*, salbu Basabü-
 rüan (*irakurtea*).
 Irakurtü : *dü* ad. Irakurri. Gaur zubereraz ere, *irakurri*.
 Irakurzale : iz. Irakurlea.
 Iratzarri (*da*)
 Irazarri : iz. Ekaitza, euri eta kazkabar erauntsi azkarra.
 Iraüle : izond. Iraunkorra.
 Iraün (*iraiñ*) (*dü*)
 Iraüpos : izond. Iraunkorra.
 Iretsi : *dü* ad. Irentsi. Gaur zubereraz *gaintitü*.
 Irurziri : iz. Ortzia.
 Iseiatü : *da/dü* ad. Entseatu, saiatu.
 Isei : iz. Entsegua, saioa, saiakera, zubereraz iseiüa.
 Isil
 Isiltarzün
 Isiltü (*da*)
 Israelitiko : iz. Israelita, judua (erlijioz).
 Istant
 Isuri : 1 *da/dü* ad. 2 iz. Isuria : *Übaintzandiak isuria Baionarat dizü*.
 Ito (*itbo*) (*da/dü*)
 Itsas marea
 Itsaso
 Itsusi (izond.)
 Itsuski (adlag.)
 Itsusmentü : iz. Itsustasuna.
 Itxura
 Itzal
 Itzatü : *dü* ad. Iltzatu.
 Izale : iz. : *zelüko izaleak*.
 Izan
 Izar
 Izari : iz. Neurria, tamaina.
 Izartü : *dü* ad. Neurtu.
 Izate
 Izen
 Izerdi
 Izertü : *da* ad. Izerditu.

Izieri : iz. Izualdia.
 Izitü : *da/dü* ad. Izutu.
 Izkiribatü : *dü* ad. Izkiriatu, eskribitu, idatzi.
 Izkiribazale : iz. Idazlea, izkiribainoa (*Zub.*).
 Izkiribü : iz. Eskritura, izkribua, idazkia.

J

Jadanik
 Jagoiti : adlag. Jagoitik, aurrerantzean, gaurdanik.
 Jaiki (*da*)
 Jaitsi (*da/dü*)
 Jaki : iz. Janaria, jatekoa.
 Jakile : iz. Lekukoa, testigua.
 Jakilegoa : iz. Lekukotasuna, testigantza, testigutza.
 Jakin
 Jakintsü
 Jakintsütü : *da* ad. Jakintzaz hornitu, jakinean jarri, ikasi.
 Jakitate : iz. Jakintza, jakinduria.
 Jakite : iz. Jakitatea.
 Jakitos : izond. Jakintsua.
 Jale
 Jalki : *da* ad. Jalgi, atera, irten. Gaurko zubereraz *jelki, elki*.
 Jan
 Janari : iz. Jatekoa, jakia, bizigaia.
 Jardietsi : *dü* ad. Erdietsi, ardietsi (*Ipar*), lortu.
 Jargü : iz. Jargia, jarlekua. Gaurko zubereraz ere *jargia* (bat), *a* organikoarekin.
 Jarraiki (*da, zaio*)
 Jarraikile : iz. Jarraikitzailea, jarraitzailea.
 Jarri (*da/dü*)
 Jateko (iz.)
 Jaun
 Jauzkatü : *da* ad. Jauzi (*da*), jauzi egin (*du/dü*).
 Jeloskeria : iz. Bekaizkeria.
 Jeneralean : adlag. Orokorki.
 Jente : iz. Jendea.
 Jesto : iz. Jestua, keinua.
 Jile : iz. Datorrena, etortzekoa (pertsona) : *jile bat ikusten dit, beste bat gero jilea dizügü.*

Jin (*da*)

Jinkoa : Jainkoa.

Jinkotarzün : iz. Jainkotasuna.

Jite : iz. Etorrera, etortzea.

Joaille : iz. Joanen dena edo joaten ari dena.

Joaitte : iz. Joatea.

Joan (*da*)

Jondane : Jondoni, santu handi bakar batzuei ematen zaien titulua.

Josi (*dü*)

Jüdikamentü : iz. Jujamendu (epai) morala, kritika.

Jüdikatü : *dü* ad. Hitzez jujatu/tü (epaitu), kritikatu/tü.

Jüdio : iz. Judua/jüdüa. Zubererazko literaturan *jüdio* eta *jüdü* bi hitzak badi-tugu.

Jüdizio : iz. Epaiketa.

Jüjamentü : iz. Epaiketa.

Jüjatü : *dü* ad. Epaitu.

Jüje : iz. Epailea.

Jüntatü (*da/dü*)

Jünto : adlag. Oso hurbil, kontaktuan.

Jüratü : *dü* ad. Zin egin.

Jüsto : 1. izond. Zuzena. 2 iz. Justua : pertsona zuzena, zintzoa, prestua.

Jüstoki : adlag. Justuki, zuzentasunez.

Jüstotarzün : iz. Zuzentasuna.

K

Kal (atzizkia) : *egünkal* (adlag.): *egun bakoitzeko*.

Kalamitate : iz. Zorigaitza, hondamena.

Kalitzia (kalitze-a ?) : iz. Kaliza ; *Inchauspek ere kalitzia*.

Kanabera : iz. Seska : toki hezeetako landare lastodun luzea (*Arundo dunax*).

Kanbiakor : izond. Aldakorra.

Kanbiamentü : iz. Aldaketa

Kanbiatü : *da/dü* ad. Aldatu, kanbiatu/tü.

Kanbios : izond. Kanbiakorra, aldakorra.

Kandera : iz. Kandela.

Kaneta : iz. Tutu txikia, hodi mehe laburra : *isuriaren kanetan* (Maister).

Kanpo : iz. Barnekoa ez dena. *Kanpoan, kanpora, kanpotik*. . .

Kantatü (*dü*)

Kantatze (iz)

- Kantazale : iz. Kantatzailea, kantaria.
 Kantiko : iz. Kantika.
 Kantu : iz. Kantoia : *kale edo karrika baten kantoian*.
 Kantü : iz. Alboa, aldamera : *kantüko lañina maita zure büria bezala*.
 Kantüan : adlag. Ondoan, hurbilean : *Jesüs barrüküan, astoa kantüan*.
 Kapa
 Kapitülü
 Kaputxi : iz. Kaputxinoa.
 Karastarzün : iz. Kirastasuna.
 Karats : izond. Kiratsa, mingotsa, samina.
 Karga : z. Zama.
 Kargatü (*da/dü*)
 Kargü : iz. Betekizuna.
 Kario : izond. 1 Garestia. 2 Maitea.
 Karitate : iz. Goi maitasuna.
 Karitatoski (adlag.)
 Karreiatü : *dü* ad. Garraiatu.
 Karreiazale : zi. Garraiatzailea.
 Karrika : iz. Kalea. Gaur zubereraz hiribildua, burgua, bürgüa.
 Kasi : adlag. Kasik.
 Kasü : iz. 1 Kasü egin : jaramon egin, arreta jarri. 2 Kasü eman : kontu egin, kontuz ibili.
 Kasto : izond. Sexu harremanik gabekoa.
 Katixima : iz. Kristau-ikasbidea, dotrina. Belapeyrek *katexima* : hori da haur-rean zubereraz ikasi dudán hitza, lapurteraz ez bezala.
 Kausa : iz. Arrazoia, zergatia. Usaian *bori dela kausa* hitz multzoan dabila : *bor-rengatik*.
 Ke : *surik gabeko kerik ez omen dago*.
 Keinü
 Keremende : keremenda (Lhande), oinazea, kurrinka, zinkurina.
 Kerübin : iz. Goiaingeru mota bat.
 Kexadüria : iz. Kexadura, haserrea.
 Kexakeria : iz. Kexadura.
 Kexatarzün : iz. Kexadura.
 Kexatü : *da* ad. Haserretu.
 Kexatze : iz. Haserretzea.
 Kexeria (kexüeria) : iz. Kexadura, haserrealdia.
 Kexü : 1 izond. Kexü *da* : haserre *dago*. 2 iz. Kexüa : haserrea.
 Kiñozü (*khiñozü*) : izond. Kirasduna, usain eta gustu txarrekoa.
 Kiristi : iz. eta izond. Kristaua, giristinoa.

Kitatü : *dü* ad. Utzi, ützi.

Klarki : adlag. Argi, argiro.

Klotü(tik) : Klausura ? Ez dut inon aurkitu, ezta Orotarikoan ere. Ikus frantsesez *clôture* (komentuko eremu itxia). Bestalde Lhanderen hiztegian *klot*, biarnesetik, zilo edo hutsune baten adierazteko.

Kobesatü : *da/dü* ad. Konfesatu, aitortu/tü.

Kofesatü : *da/dü* ad. Konfesatu, aitortu/tü. Gaur zubereraz *kobesatü*.

Kofesione : iz. Konfesioea, aitorpena. Gaur zubereraz *kobesioea*.

Kolada : iz. Errespetua.

Kolera

Koleratü (*da*)

Kolpe (iz.)

Kolpü : iz. Kolpea. Zuberotarrek, bukaerako *ia* sasi diftongoaren eraginez, hitz batzuen urrentzeko *e* letra maiz ordezkutzen dugu *ü* batez : *botxe*-ren ordez *botxü*, *aterbe*-ren ordez *aterbü*... Azken hitz honetan anka sartzea ongi agertzen da, gogoan edukiz *aterbea aterpea* dela.

Komentü : iz. Erljiioso talde baten etxea : *fraidetegia*, *serorategia*.

Komün : 1 iz. Denak : *komunaren bona* : *denen ongia*. 2 izond. : *Xiberoko lür komünak*.

Komüniatü : *dü* ad. Jauna hartu.

Komüniatze : iz. Jaunartzea : *komüniatzea serio*ski egin behar da.

Komünioea : iz. Jaunartzea : *komünioeko sakramentüa*.

Komünzki : adlag. Arruntean, usaian, eskuarki.

Konbeni izan : *dü/zaio* ad. Komeni, egoki.

Konfesor : iz. Fedearen jakilea, lekukoa, testigua.

Konfidantxa : iz. Konfiantza.

Konpainia (*konpañia*) : iz. Lagunartea ; lagundia.

Konplitü : 1 ad. Bete : *eginbidea bete*. 2 izond. Perfektua, perfeita.

Konpostatü : *dü* ad. antolatu/tü, ordenatu, taxutu, txukundu.

Kontatü (*dü*)

Kontent : izond. Pozik, zubereraz botzik : *botzik kantatzen dügü gure sinestea*...

Kontentamentü : iz. Poza, botza (*Zub*).

Kontentatü : *da/dü* ad. Poztu, boztü, asebete.

Kontentatzeko : iz. Poztekoa, boztekoa, asebetetzekoa.

Kontre : kontra, aurka, aitzü (*Zub*).

Kontrizioea : iz. Kontrizioa. Sin. **maite-damu, dolü** (*Zub*).

Kontsekratü : *dü* ad. Kontsakratu, sagaratu.

Kontsekrazioea : iz. Kontsekrazioa, sagara.

Kontseilü : iz. Aholkua, aholküa (*Züb*).

Kontsolagarri

Kontsolatü (*da/dü*)

Kontsolazale : iz. Kontsolatzailea.

Kontsolazione : iz. Kontsolazioa.

Kontsolio : iz. Kontsolazioa.

Kontü

Kontü egin (99) : kasu/sü egin.

Kontzentzia : iz. Kontzientzia.

Korajatü : *dü* ad. Kuraia eman, adorea eman.

Koraje : iz. Kuraia, adorea.

Korajos : izond. Kuraiosoa, adoretsua, bihoztoia.

Korajoski : adlag. Bihoztoiki.

Kordelies : iz. « *Cordeliers* » (sokadunen) fraide ordena : frantziskotarren izena
Frantzian Iraultzaraino.

Koroa (*kborua*) : Koroa. Gaur zubereraz **koha** ahoskatzen dugu euskaldun zaharrek, bokalen arteko **r** ezitia irentsiz ohiko moduan ; **b** horrek aldiz, *corona*-ren **n** ordezkatzen duke, *abate*-ren kasuan bezala (**anate**-m). Beraz **koroha** idatzi behar genuke zubereraz.

Koroatü (*da/dü*)

Korpitz : iz. Gorputza.

Korte : iz. Gortea.

Kostüma : iz. Usaia, usantza, üsantxa (*Zub.*), ohitura.

Kostümatü : *da/dü* ad. : Usaia hartu, üsatü (*Zub.*), ohitu.

Kostümaz : usaiaz, ohituraz.

Kozü : 1 iz. Kutsua. 2. izond. Kutsuduna, kutsakorra.

Kreatü (*dü*)

Kreatüra

Kreazale : iz. Kreatzailea.

Krützifikatü : *dü* ad. Kürützifikatü (*Zub.*), gurutzefikatu, gurutziltzatu.

Kümitatü : *dü* ad. Gomitatu, gonbidatu.

Kürioski : adlag. Ikusminez, jakin-minez.

Kürütxe : iz. Gurutzea.

L

Labe

Laborari

Labür (*llabiür*) : izond. Laburra, luzera txikikoa, motza.

Labürzki (*llabürzki*) : adlag. Laburki, llabürki (*Zub.*).

Lagüngoia : iz. Lagungoa. Zubereraz *a* organikoa du, Batuan ez bezala.

Laguntza.

Lagüntü (*dü*)

Laido : iz. Iraina, desohorea.

Laket (*da*) : *Orbiko txoria Orbin laket da.*

Lan

Landa : prospos. Lekora, ondotik, ondoren. *Lanetik landa pausa gitean.*

Lanegin : lan egin.

Langile

Lanpada : iz. Lanpara, lanpa.

Lanpüts : izond. Kamutsa.

Larderia : iz. 1 Begirunea, errespetua. 2 Beldurra, mehatxua.

Largatü : *dü* ad. Zabaldu : *Bidasoa altean autobidea largatzen düe.*

Largo : izond. Zabala.

Largoki : adlag. Zabalki.

Laster : 1 iz. 2. izond. Zalua : *amodioa laster da, egiati, debot, ezti, maitagarri... 3 adlag.*

Lasterkan : adlag. Korrikan.

Lasterkatü (*da*) : Laster(ka) egin.

Lasterrekaz : lasterka(z), lasterrez.

Lasterrez : adlag. Lasterka, lasterrean, korrika.

Lasto

Lati : iz. Latina.

Läüdable (*laidable*) : izond. Laudagarria, goresgarria.

Läüdatü (*laidatü*) : *dü* ad. Goratu, goraipatu, goretsi.

Läüdazale (*laidazale*) : iz. Laudatzailea, goreslea.

Läütorio (*laidorio*) : iz. Goresmena.

Lausenkari : iz. Lausengaria, balakaria.

Lausenkatü : *dü* ad. Lausengatu, losintxatu, balakatu.

Lausenkazale : iz. Lausengatzailea, balakatzailea, balakaria.

Laxatü : *da/dü* ad. Utzi (*dü*), utzikieran erori (*da*).

Laxü : izond. Laxoa, lazüa, lasaiegia, artarik gabekoa.

Laxükeria : iz. Laxokeria, lazakeria (*Zub.*), utzikeria.

Laxütarzün : iz. Utzikeria, lazakeria, zabartasuna.

Lazo : iz. Lazoa, lakioa, lakirioa : ehizako zepo bat, basihizien harrapatzeko soka urka-bilurduna.

Lege

Lehen : 1 Lehena, lehenengoa. 2 adlag. Lehenago.

Lehen beno lehen : berehala.

Lehiatü (*da*)

Lehiatüki

Leial

Leialki

Leialtarzün

Leinürü : iz. Izpia, distira.

Lekü

Lekzione : iz. Ikasgaia, *bemen irakaspena*.

Lengoaje : iz. Lengoiaia, mintzaira, **hizkuntza**.

Lepo

Lerrakor

Lerratü (*da*)

Letera : iz. Letra. 1 Hizkia. 2 Gutuna.

Leze : iz. Leizea.

Libertate : iz. Askatasuna.

Libratü (*dü*)

Librü : iz. Liburua, libürüa (*Zub.*).

Lixentzia : iz. Lizentzia, baimena.

Lo (egin, egon)

Lohasna : iz. Lo astuna, lo sakona.

Lohi (iz. eta izond.)

Lorios : izond. Loriatsua, aintzatsua, ospetsua

Loti : izond. Lo asko egiten duena.

Lotsa : 1 iz. Beldurra. 2 izond. *Gaiiaz autoaren gidatzeko lotsa nüüzü.*

Lotsagarri : izond. Beldurgarria.

Lotseria : iz. Beldurra, izualdia.

Lotsor : izond. Beldurtia, izukorra.

Lotü : *da/dü/zaio* ad. *Hemen*, lotü *da* : Lokartu/tü *da*, loak hartu/tü *du/dü*.

Lüharrastü : *da* ad. Ahuspekatu, ahuspezkatu, ahuzpeztu ; apaldu, ukurtu, makurtu.

Luis : iz. Frantziako azken Louis erregeen urrezko diru, dibisa, moneta bat,
« *le louis d'or* ».

Lür : iz. Lurra.

Lützürios : izond. Lizuna. Ikus frantsesez *luxure* (iz.) eta *luxurieux* (izond).

Lüzakeria : iz. Luzapen gaitzesgarria.

Lüzatü (*da/dü*)

Lüzaz

Lüze

M

- Magitxa : iz. Leka, teka (*Zub.*), haziaren estalkia.
- Mahain : iz. Mahaia
- Maitagarri (izond.)
- Maitatarzün : iz. Maitasuna.
- Maitatü : 1 iz. Maitea. 2 *dü* ad.
- Maitazale : iz. Maitatzailea.
- Maite : 1 iz. Maitea. 2 *dü* ad. Maite üken.
- Majestate : iz. Maiestatea, handitasun gurgarria edo ohoragarria.
- Maküla : iz. Lohidura, orbana, nota (*Naf./Lap.*), t(h)ona (*Zub.*).
- Makülatü : *da/dü* ad. Lohitu/tü, tonatü.
- Malezia : iz. Gaiztotasuna, maltzurkeria.
- Manatü : *dü, deio* ad. Manatu, agindu.
- Maneiatü : *dü* ad. Erabili, egari : *armak maneiatu*.
- Manent : izond. Obedientea, esanekoa.
- Manera : iz. Moldea, modua, era.
- Maneria : iz. Manera.
- Mana (*manna*) : iz. Mana : « Jainkoak israeldarrei basamortuan igorri zien janari miragarria ».
- Manü : iz. Manua, agindua.
- Maña (*magna*) : iz. Maina, moldea, era, manera.
- Mañuski : adlag. Eskuzabalki.
- Maradikziona : iz. Madarikazioa.
- Mardaila : iz. Gaitzesana, gaitz errana, norbaitez erraten den gaizkia : *medisenzia eta kalomnia bekatü dira*. Ikus Bernat Etxeparegan *gaitz erran aditza Emazten fabore* poeman (III.a da) : « *Emaztiak ez gaitz erran ene amorekatik . . .* » eta *gaitzesana* izena Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegian*, 555. or. : ***medisenzia***. *iz. . . . Gaitzesana. . .*
- Mardailer : iz. Gaitz erralea, gaizki erralea, gaitzeslea.
- Mardaileria : iz. Gaitz errankeria, neurri gabeko mardaila edo gaitz errana.
- Marea : iz. Itsasaldia. *Marea gora* : itsasgora. *Marea behera* : itsasbehera.
- Marraka : iz. Ardien, ahuntzen eta abarren orroa.
- Martir : iz. Martiria : bere fedeagatik herioa pairatu duen pertsona.
- Martirio : iz. Martiriak pairatzen duen tortura edo herioa, bere fedeari ez uko egiteagatik.
- Maugrenaje : iz. Marmarra. Ikus frantsesez *maugréer* aditza (*marmar egitea*).
- Medio : iz. Bitartekoa, bidea : *graziaren medioz : graziaren bidez eta bitartez*.
- Mehatxü : iz. Mehatxua, zemaia.
- Memento : iz. Unea.

- Mementokal : adlag. Une bakoitzean, bakoitzeko.
 Mendren : adlag, eta izond. Den mendre(e)n(a), gutiena, txikiena.
 Mendretü : *da/dü* da. Mendratu, gutitu/tü, ahuldu/tü.
 Mengoa : iz. Beharra, premia.
 Mengoati (izond)
 Mengoatü : *da/dü* ad. 1 *da* : Beharra sentitu. 2 *dü* : Behartu.
 Menstü : *da, zaio* ad. Faltatu, falta izan, ments izan.
 Menstüra : iz. Mentsa, eskazia, gabezia.
 Mente : iz. 1 Mendea, ehun urteko denbora/bitartea ; denbora. 2 Menpea.
 Ments : 1 iz. Eskasia, hutsa. 2 izond. Falta izan, eskas izan.
 Merexi : iz. Merezia, merezimendua.
 Merexi (üken) : *dü* ad. : *bere saria merexi dü langile perestüak.*
 Merexitü (*dü*)
 Mesfidantxa : iz. Mesfidantza, konfiantzarik eza, uste txarra.
 Mesperetxatü : *dü* ad. Mespretxatu, gutietsi.
 Mesperetxos : izond. Mespretxatzailea, gutieslea.
 Mesperetxü : iz. Mespretxua, gutiespena.
 Meza
 Mihi
 Mila
 Miliu : iz. Milioia.
 Miñatze : iz. Mahastia, mahastoia (*Zub.-Amik.*).
 Min (iz)
 Mingar : izond. Mingotsa, garratza.
 Mingarki : adlag. Saminki.
 Mingatx : izond. Karats aire, mingots aire, azido aire.
 Mingaztü : *da/dü* ad. Karastu/tü, azidotzen hasi.
 Ministre : iz. Ministroa. *Hemen*, elizgizona, bereziki apaiza.
 Mintzatü (*da/dü/zaio*)
 Mintzo (iz) : *xabar borrek orano mintzoa badizü.*
 Mira : iz. Miraria, mirakulua, miragarri dena.
 Miragarri : izond. Mirespena merezi duena.
 Miragarriki (adlag.)
 Mirail : iz. Ispilua.
 Miraküllos : izond. Mirakuluzkoa, mirarizkoa.
 Mirakülloski : adlag. Mirakuluz, mirariz.
 Miraküllü : iz. Mirakulua, miraria.
 Miserable : izond. Dohakabea, zorigaiztokoa, urrikgarria, oso behartsua.
 Miseria : iz. Behartasun gorria.
 Miserikordia : iz. Errukia, urrikia.

Misterio : iz. Ulertezinezko egia edo gauza.
 Mitilgoa : iz. Zubereraz *a* organikoarekin. Mutilgoa (a), morrontza.
 Mixkandi : iz. Sehia, morroia, zerbitzaria.
 Moian : iz. *Zab.* Bidea, bitartekoa. Ikus frantsesez *moyen*, eta zubereraz *moien*.
 Molde
 Moldezko
 Mortal : izond. 1 Hilgarria : *bekatu mortala, bekatu larria*. 2 Hilkorra.
 Mortalki (adlag.)
 Müga : iz. Bazterra.
 Müga gabe : izond. Mügagabea, baztergabea.
 Mükürri : izond. Mukuru, *Zub.*mükürri.
 Mündü
 Murmuzeia : iz. Murmuzia, murmuzika (*Zub.*), marmarra.
 Murmuzeiatü : *dü* ad. Murmurikatu, murmuzikatü (*Zub.*), marmar egin.
 Müs (eman) : *dü* ad. Desmezua eman.
 Mütü
 Mütür
 Mütütü (*da/dü*)

N

Nabasi : izond. (Lagun) hurbila, (lagun) ausarta.
 Nabasiki (adlag.)
 Nabasterre : iz. Nabastasuna, hurbiltasun ausarta, sarküra handia (*Zub.*).
 Nahasi (*da/dü*)
 Nahasküra : iz. Nahastura.
 Nahaspilla : iz. Nahaspila, nahaste-borrastea, nahaskeria.
 Nahasteka : 1 adlag. Nahasian. 2 iz. Nahastea.
 Nahastekatü : *da/dü* ad. Nahastu, nahasi.
 Nahi : 1 iz. Nahia. 2 *da/dü* ad. Nahi izan *da*, nahi üken *dü*.
 Nahibada : adlag. Nahiz.
 Nahibeita : postpos. -Nahi : nornahi, zernahi eta abar...
 Nahikünite : iz. Nahikundea, nahikaria.
 Nahios : izond. Nahitsua, gutziatsua.
 Nahiz (junt.)
 Natüra
 Natüral
 Natüralki (adlag.)
 Nazione : iz. Nazioa.

Negü

Neke : 1 iz. Nekezia, zailtasuna. 2. izond. Neketsua, zaila. 3 *da/dü* ad.: *neke da gaur jesapen baten ardiesteá banketan .*

Nekez : adlag. Eragozpen edo zailtasun handiz.

Nekezia

Neskato : iz. Neskamea, emakumezko zerbitzaria.

Ni

Nigar : iz. Negarra.

Nigarstatü : *dü* ad. Negarreztatu.

Nihaur : Ni izenordearen era indartsua.

Nitaz : gaur Arbaila eta Pettarreko forma.

Nitzaz : gaur Basabürüko forma.

Noiz

Noizbait (*nuzpait*)

Noiz nahibeita : adlag. Noiznahi, edonoiz.

Nola

Nola nahibeita : adlag. Nolanahi, edonola.

Nolako nahibeita : adlag. Nolanahikoa, edozein motatakoa.

Nolaz

Non

Nor

Nora

Norat : 1 Norantz : *norat ari ziradee ?* 2 Noraino, han egotekotan : *...zelüalat, züganat, zure lorialat !*

Norat nahibeita : adlag. Noranahi, edonora.

Norbait

O

Obedient : izond. Obedienteá, esanekoa.

Obedientzia : iz. Esanekotasuna.

Obeditü : *dü/dio* ad. Obeditu. Zubereraz *sinetsi* aditzak bigarren adiera hori ere badu.

Oberenda : iz. Oparia.

Oberendatü : *da/dü* ad. Oparitu, opari egin.

Oberendatze : iz. Oparitzea.

Obra

Obrazale : iz. Obratzailea.

Odol

- Ofentsatü : *dü* ad. Iraindu.
 Ofentsü : iz. Iraina.
 Ofizio (saintüa) : iz. Elizkizuna, elizako zeremonia.
 Ogen : iz. Hobena, hutsa, errua.
 Ogendant : izond. Hobenduna.
 Ogen dün : izond. Ogendüna, hobenduna.
 Ogen gabe : izond. Ogengabea, hobengabea.
 Ogi
 Ohartzepen : iz. Oroitzapena, oritzapena (*Zub.*). Zuberoan orai ere, maiz *ohartü* erraten dugu, *oritü* (oroitu) –ren orde.
 Ohiko
 Ohoin (*ubuiñ*) : iz. Ebaslea, lapurra.
 Ohoratü (*dü*)
 Ohore
 Oihü : iz. Deiadarra, garrasia.
 Okasione : iz. Okasioa, aukera.
 Oker : izond. eta iz. Makurra, zuzen ez dena.
 Okerreria : iz. Okertasuna.
 Okertü : *da/dü* ad. Makurtu.
 Oküpatü (*da/dü*)
 Olez (bere) : (bere) Nahiz. *Bere olez jin da* (Lhanderen hiztegian). Gaur hitz ezezaguna.
 Onest : izond. Zintzoa, zuzena, ondradua.
 Onetsi (*unhetsi*) : ikus *bonetsi*.
 Ontsa (*untsa*) : 1 Ongi. 2 iz. Ongia ; kasu horretan azentua azken silaban dauka : *ontsa*, idatzi gabeko artikulua ondotik duelako : *ontsa(a)*.
 Ontsago : adlag. Hobeki. Gaur bakan entzuten da.
 Ontsatarzün : iz. Ongia.
 Ontzi
 Opütz : iz. Emaitza, ondorioa.
 Orai : adlag. Orain.
 Orai berri : adlag. Berriki, duela (denbora) guti.
 Orano : adlag. Oraino, oraindik.
 Orazione : iz. Otoitza, otoitzea (*Zub.*). Ikus Bernat Etxeparegan, I. *Doktrina kristiana*. . . *Orazione igandeko*. Zuberoan ahoz bizirik dago : *ozionia* (*orazionea*).
 Ordari : iz. Ordain, ordainez.
 Ordeinatü : *da/dü* ad. Ordenatu, ordenako sakramentua hartu edo eman.
 Ordeinü : iz. Ordena, apaizten duen sakramentua.
 Ordinariozki : adlag. Arrunki, eskuarki, komunzki.
 Orditü : *da/dü* ad. Horditu/tü, mozkortu/tü.

Ordoki : iz. eta izond. Laua, eremu laua, ordeka.
 Ordü : iz. Unea, aldia.
 Ore (*orbe*)
 Oren : iz. Ordua.
 Orijinal (bekatü) : izond. Bekatu orijinala, jatorrizko bekatua.
 Orimentxa : iz. Oroitzapena, oroipena, oritzapena (*Zub.*).
 Oritü : *da* ad. Oroitu.
 Oro
 Oroa : iz. Dena, guzia ; *hemen*, guzia den izakia (Jainkoa).
 Orobat : adlag. Era berean, berdin, halaber.
 Oropilatü : *da/du* ad. Korapilatu.
 Oropilo : iz. Korapiloa.
 Orotrat : orotara(t).
 Osagarri : iz. Osasuna.
 Oso
 Osoki
 Ostatatü : *da/du* ad. Ostatatu, ostatu hartu edo eman.
 Ostia
 Ostikata : iz. Ostikada, ostikoa.
 Otean : galderazko partikula. Ote ?
 Otoi
 Otoitü : *dü* ad. Otoiztu/tü.
 Otoitze : iz. Otoitza.

P

Pairatü : 1 *dü* ad. Jasan, nozitu, sofritu/tü, sufritu. 2 Ohiz kanpo : *da* ad. Ase-
 bete, kontentatu. « *Grazia...apürrez pairatzen da...* »
 Pakü : 1 iz. Paga, pagua, ordaina, saria. Bozkarioa. 2 izond. Pozik, kontent.
 Pakütan : paguz, ordainez.
 Paradüsü : iz. Paradisua.
 Paratü (*pharatü*) : *da/dü* ad. 1 *Behiek erauntsiari bizkarra paratzen dioie*. 2 Prestatu.
 Pare : 1 Parea, bikotea : *idi parea*. 2 Parekoa, berdina : *Aimar pelotakari hoberenen
 pare da*.
 Pareiatü : *da/dü* ad. Parekatu/tü, konparatu/tü.
 Pareiü : iz. 1 Parea, bikotea. 2 Parekotasuna, berdintasuna.
 Parkamentü : iz. Barkamendua, barkamena.
 Parkatü : *dü* ad. Barkatu.
 Parrean : parean.

- Parte : iz. Zatia
- Partelant : iz. Parteliant (*Zub.*), parteliar, partalier, partzuer, sozio, bazkide.
- Paseiatü : *da/dü* ad. Paseatu.
- Pasione : iz. (Jesu Kristoren) Nekaldia.
- Pasü (*phasü*) : iz. Pasarte. *Zerrailüko pasütik ardiak baratzean sartü dira.*
- Patriarka
- Pausagü : iz. Pausalekua, atsedenekua, atsedentokia. Gaur zubereraz **pausa-**
gia, *a* organikoarekin : *pausagia hona.*
- Pausatü : *da* ad. Pausatu *da*, atsedena hartu *du.*
- Pausü : iz. Pausua, atsedena, geldialdia.
- Pausüzko : izond. Lasaia, lasaigarria.
- Pazentzia : iz. Pazientzia.
- Pazienki (adlag.)
- Pazient : izond. Jasankorra.
- Pazientki (adlag.)
- Pe : iz. Behea, beherea : *gaineko ibarra, peko ibarra. Azpia : haritx baten pean.*
- Pekatü : *dü* ad. Pekatu, pagatu, ordaindu. *Mibiak bekatu (egin), mibiak pekatu (du).*
- Pena
- Penagarri
- Penatan
- Penatü (*da/dü*)
- Penitentzia
- Penos : izond. Neketsua.
- Pentsatü (*dü*)
- Perdizione : iz. Galbidea. Ikus espainieraz *perdicion* eta frantsesez *perdition.*
- Peredikatü : *dü* ad. Predikatu.
- Peredikü : iz. Predikua.
- Perestatü : *da/dü* ad. Prestatu : *hemen*, apailatu.
- Perestü : izond. Prestua.
- Perestütarzün : iz. Prestutasuna.
- Peretxatü : *dü* ad. Prezatu, balioetsi, aintzakotzat hartu, estimatu/tü.
- Peretxü : iz. Errespetua, estimua.
- Perill : iz. Arriskua. Ikus frantsesez *pénil.*
- Persona : iz. Pertsona.
- Petxa : iz. Zerga, legarra (*Zub.*).
- Pezatü : *dü* ad. Pisatu.
- Pezü : Pisu. 1 Lurraren ekarmen-indarra ; pisatzeko tresna. 2 izond. Astuna,
pisu handikoa.
- Pezütarzün : iz. Pisutasuna.
- Pezütü : *da/dü* ad. Pisutu, astundu, pisuago bihurtu.

- Pietate : iz. 1 Debozioa ; ikus frantsesez *piété*. 2 Errukia, urrikia, urrikalmen-
dua ; ikus frantsesez *pitié*, eta bi kasuetan espainieraz *piedad*.
- Pikarra : adlag. Biluzik, bilaizik (*Zub.*).
- Pikarraitartzün : iz. Biluztasuna.
- Pikarraitü : *da/dü* ad. Biluzi, bilaizi (*Zub.*).
- Pike : iz. Bika.
- Piko : iz. Ebakia, ebakidura : *aizkora piko*.
- Pintatü : *dü* ad. Pintatu. *Sin. margotu*.
- Pitzale : iz. eta izond. Pizlea, piztailea (*L, Duvoisin*).
- Piztü (*da/dü*)
- Plainitü : 1 *da* ad. Pleinitu, kexatu. 2 *dü* ad. Erruki izan, urriki ukan (norbai-
tez).
- Plainü : iz. Pleinua, auhena, intzeria.
- Plainütsü : izond. Zinkurintia, zinkurintsua, kurrinkazüa (*Zub.*).
- Plaza : iz. *Hemen* : Lekua, tokia. *Haien plazan* : *haien lekuan, haien ordez*.
- Plazent : izond. Atsegina, goxoa.
- Plazer : iz. Atsegina.
- Plegatü : 1 *da/dü* ad. Tolestu. 2 *da* ad. Makurtu, menderatu.
- Popülü : iz. Populua : herri edo lurralde bateko jendea.
- Pot : iz. Musua. Ikus Bernat Etxeparegan : *VIII. Potaren galdatzia*.
- Potere : iz. Boterea, agintea, nagusigoa.
- Poteretsü : izond. Boteretsua, ahaltsua.
- Poteros : izond. Boteretsua, ahaltsua.
- Praube : izond. Pobrea, behartsua, txiroa.
- Praubeki : adlag. Pobreki, txiroki, xuhurki.
- Praubetü : *da/dü* ad. Pobretu.
- Praubezia : iz. Pobrezia, pobretasuna, xuhurreria, gabezia.
- Present : 1 izond. Presente *izan, egon* : aurrean izan, egon. 2 iz. Oparia.
- Presentean : adlag. Orain.
- Presenteko : oraiko, mementoko.
- Presontegi : iz. Presondegia.
- Prest
- Prestik
- Preziatü : *dü* ad. Prezatu, balioetsi, aintzakotzat hartu, estimatu/tü, peretxatü
(*Zub.*).
- Prezio : iz. Saria
- Prezios : izond. Preziatua, balio handikoa.
- Primü : iz. Premua, seme nagusia, oinordekoa. (*Alaba delarik : prima*).
- Printze
- Printzipalki : adlag. Nagusiki

Probidentzia : iz. Jainkoa ; haren arta eta ardura izakienganako.
 Profeitable : izond. Baliagarria, probetxugarria.
 Profeitableki : adlag. Baliagarriki.
 Profeitatü : *dü* ad. Baliatu/tü *da/du/dü*, aprobeixatu *da/du*.
 Profeitü : iz. Probetxua, abantaila.
 Profeta
 Promes : iz. Agintza. Promes egin : agindu, hitzeman.
 Propi : izond. 1 Berekia : bere ona, bere beraren ona, bere on berekia. 2 Ego-
 kia.
 Propitaje : iz. Egokitasuna.
 Proximo : iz. Aldeko (kantüko) laguna, lagun hurkoa.
 Prozeskatü : *da* ad. Auzitan sartu.
 Psalmü : iz. Salmoa.
 Püntü
 Pür : iz. Purua, hutsa, garbia.
 Pürgatorio
 Pürki : adlag. Osoki.
 Pürü (*pbürü*) : adlag. Bederen.
 Pusatü : *da/dü* ad. Pusatu, bulkatu/tü, bultzatu.
 Puxant : izond. Ahaltsua/tsüa.

R

Relijione : ikus *errelijione*.
 Relijios (*relijius*) : ikus *errelijios*.

S

Sabel
 Sagrazione : iz. Sagaratzea.
 Santa : iz. eta izond. Santa.
 Saintü : iz. eta izond. Saindua, santua.
 Saintüki : adlag. Sainduki, santuki.
 Saintütarzün : iz. Saindutasuna, santutasuna.
 Saintütü : *da/dü* ad. Saindutu, santutu.
 Sakramentü
 Sakratü : izond. Santua.
 Sala : iz. Aretoa, gela.

Salatü (*salbatü*) (*dü*)

Salbamentü : iz. Salbamena.

Salbatü : *da/dü* ad. Onik atera.

Salbazale : iz. Salbatzailea.

Salbü : adlag. Izan ezik : *fededun guztiak, salbu zabar eta eriak*.

Saldo : iz. Talde handia : *ardi saldoa, ardi tropa, artalde, artelia (Bela)*.

Saldü (*dü*)

Sarküra : iz. Sarrera, sarbidea.

Sarri : adlag. Berehala : *abal bezain sarri = abal bezain laster*.

Sartü (*da/dü*)

Segret : izond. Sekretua.

Segretki : adlag. Sekretuan, isilean, ezkutuan.

Segretü : iz. Sekretua, segetua (*Lap. Naf.*)

Segür

Segürantza : iz. Segurantza, segurtasuna, ziurtasuna.

Segürki (adlag.)

Seinale : iz. Ezaugarria, adierazgarria, keinua.

Seinalatü : *dü* ad. Nabarmendu, markatu.

Sekatü : *da/dü* ad. Idortu, legortu.

Seküla : adlag. Sekulan, inoiz, behin ere.

Sekülako : 1 izlag. 2 adlag. *galdua naiz sekulako*. Betiko.

Seme : iz. Aita-amekiko, alaba ez den haurra, mutikoa. Bi sexuetako haurrak dituztelarik, hauek **seme-alabak** dira, eta ez gaztelaniaz bezala, denak *semeak (hijos)*.

Senblada : iz. Biltzarra.

Senbertü : *da/zaio* ad. Konfiantzaz norbaiti lotu, jarraiki.

Sendimentü : iz. Sentimendua.

Senditü : *da/dü* ad. Sentitu, borogatu. Iparraldean ez du *damu izan*-en adierarik.

Sendogarri : iz. eta izond. Sendotzen duena.

Sendotü (*da/dü*)

Sendozale : iz. Sendotzailea.

Serafin : iz. Goiaingeru mota bat.

Serora : iz. Serora, moja, lekaimea.

Sineskor

Sineste : iz. Sinestea, sinesmena, fedea.

Sinetsi : ad. 1 *dü*. Fede eman : *Jainkoagan sinetsi, entzuna sinetsi, erralea sinetsi*. 2 *dio*.

Obeditu/tü.

Simple : izond. Bakuna, lañoa.

Sinpletarzün : iz. Bakuntasuna, lañotasuna.

- Sinpletate : iz. Sinpletasuna, bakuntasuna.
 Sinpletü (*da/dü*)
 Sinplizitate : iz. Sinpletasuna, bakuntasuna.
 Sobera : adlag. Gehiegi.
 Soberakin : iz. Soberakina, haborokina.
 Sobre : izond. Jan-edanetan zuhurra.
 Soferitü : *dü* ad. Sufritu, sofritu/tü (*Ipar*).
 Soferizale : iz. Sufritzailea.
 Soferitze : iz. Sofritzea (*Ipar*), sufritzea.
 Sofre : iz. Sufrea.
 Soin : iz. 1 Sorbalda. 2 Gorputza.
 Sokorri : iz. Sokorria (*Ipar*), laguntza, sorospena.
 Sokorritü : *dü* ad. Lagundu, sorotsi.
 Sokorrizale : iz. Sokorritzailea, soroslea.
 Solajatü : *dü* ad. Arindu, eztitu (Iana, mina). Ikus frantsesez *soulager*.
 Solamentz : adlag. Bakarrik, bakoizki, soilik. Ni bezalako zuberotar zaharrek :
solamente.
 Soldado : iz. Soldadua, gerlaria, gudaria.
 Soldata : iz. Lansaria.
 Solenitate : iz. Ospea, ospakizuna. Ikus gure bi erdaretan *solemnidad* eta *solen-
 nité*.
 Solt : izond. Soltea, librea, askea, lokarririk gabea..
 Soltantxa : iz. Askatasuna, libertatea.
 Soltatü : *da/dü* ad. Askatu, libratu.
 Sor : izond. Soraioa.
 Sordei : izond. Okerragoa, makurragoa.
 Sori izan : haizu/zü izan, zilegi izan.
 Sortatü (*sorthatü*) : *dü* ad. Zamatu, kargatu.
 Sortü (*da/dü*)
 Sortzepen : iz. Sortzapena, sorrera, sortzea, etorkia.
 Sterlünkü, stürlünkü : iz. Esterlünküa, ezbeharra, nahigabe larria.
 Sü (*iz.*)
 Sübitoki : adlag. Supituki, bat-batean.
 Suerte : iz. Mota.
 Sügar : iz. Garra.
 Süge (*iz.*)
 Sügei : iz. Sugaia, erregaia.
 Süperbia : iz. Hantustea, harrokeria, urguilua.
 Süperbios : izond. Harroa, urguilutsua.

Süplikatü : *dü* ad. Otoiztu/tü, errugutu. Ikus gure bi erdaretan *suplicar* eta *supplier*.
 Süplikazale : iz. eta izond. Otoizgilea.
 Süplitü : *dü* ad. Ordezkatu, hutsunea bete. Ikus *suplir* (esp.) eta *suppléer* (fr.).
 Süplizio : iz. Tormentua, tortura.
 Sürlürío : iz. Bozkarioa, boztarioa (*Zub.*), poza, poztasuna.
 Süstatü : *dü* ad. Suspertu, bultzatu, bulkatu/tü.
 Süstagarri (izond. eta iz.)
 Süstengatü : *dü* ad. Sostengatu, süstengi (*Zub.*), eutsi, atxiki, lagundu/tü.
 Süstengü : iz. Sostengua, euskarria, laguntza, lagungoa.
 Süzko

T

Tabernakle : iz. Tabernakulua.
 Tabla : iz. Taula. Aurkibidea, edirengia (*Zub.*).
 Tai (*thai*) gabe : adlag. Gelditu gabe, aertu gabe.
 Taik gabe : tairik gabe.
 Taula
 Teiarzün (*theiarzün*) : iz. Zikintasuna.
 Teiü (*theiü*) : izond. Zikina.
 Teiütü (*theiütü*) : *da/dü* ad Zikindu.
 Temerari : izond. Ausartegia.
 Temerario : izond. Ausartegia. Ikus frantsesez *le jugement téméraire*, oinarri gabeko iritzia.
 Tenore (*thenore*) : iz. Garaia, ordua, tenorea (*h* gabe gaurko zuberera klasikoan ere).
 Tenplo : iz. Tenplua, otoitz etxea.
 Tenpora (*thempora*) : iz. Denbora.
 Temporal : izond. Denborari lotua, betiko ez dena.
 Tentatü : *dü* ad. Zirikatu eta bulkatu zerbaiten egitera, bereziki gaitzera, bekatu-
 tura.
 Tentazione : iz. Tentazioa, tentaldia.
 Termañi : iz. Termainüa, epea, bereziki ernalgoarena : *gure behiak termainüa bete dizü.*
 Territatü (*therritatü*) : *dü* ad. Tarritatu, narritatu, zirikatu.
 Tinkatü (*dü*)
 Tiratü (*dü*)
 Tona (*thona*) : iz. Nota, orbana.

- Tonatü (*thonatü*) : *da/dü* ad. Orbandu, lohitu.
- Tormentü : iz. Tortura.
- Trabailüzko : lanezko.
- Traidore : iz. Saltzailea.
- Tratatü : *dü* ad. Erabili : *ontsa tratatü niziü*.
- Trebükatü : *da* ad. Oztopatu, behaztopatu/tü.
- Trebükü : iz. Behaztopoa.
- Trenkatü : *dü* ad. 1 Ebaki, moztu/tü, pikatu (*BNaf*). 2 Erabaki, deliberatu/tü.
- Trenpatü : *da/dü* ad. Busti.
- Tresaur : iz. Tresora, altxorra.
- Tribailari : iz. eta izond. Trabailaria, langilea.
- Tribailatü : *da* ad. Trabailatü da, lan egin du.
- Tribailü : iz. Trabailüa, lana, nekea.
- Trinitate : iz. Hirutasuna (Jainkoaren hirutasuna kristau sinestean).
- Triste : izond. Goibela, iluna.
- Tristetü : *da/dü* ad. Tristatu, goibeldu, ilundu.
- Tristezia : iz. Tristura.
- Trono : iz. Tronua, errege aulkia.
- Tronpatü : *da/dü* ad. Engainatu, nahasi.
- Tronperia : iz. Engainua.
- Tronpetots : iz. Tronpetaren hotsa edo herotsa, azantza, zarata.
- Trüfa : iz. Trufa, iseka, burla.
- Trükatü (borta trüka) : *dü* ad. Jo (atea).
- Türbüratü (*ihürbüratü*) : *da* ad. Nahasi, nahasura bat jasan (*du*).
- Türbürarzün (*ihürbürarzün*) : nahasdura, herstura, nahigabea, atsekabea.
- Turrusta : iz. Zurrusta : *ütürriko turrusta*.
- Txanpa : iz. Zaunka, txakurraren oihua.
- Txarpa : iz. Zarpa, pilda.
- Txar
- Txeken : izond. Zekena, zikoitza.
- Txerkatü : *dü* ad. Xerkatu, bilatu/tü.
- Txerkü : iz. Xerkatzea, bilaketa, bilakuntza.
- Txestailü : iz. Dastatzekoa.
- Txinka : iz. Txinparta, pindarra.
- Txipi : izond. Txikia.
- Txipiñi : izond. Txikiñoa, oso txikia.
- Txipitarzün : iz. Txikitasuna.
- Txipitü : *da/dü* ad. Txikitu, txikiagotu.

- Txortola : iz. Txorta txipia (*Zub.*), xorta txikia, sortañoa, ttantta, ttintta (*Zub.*).
 Txosteta : iz. Txostaka, josteta.
 Txüti(k) : adlag. Zutik, tente.
 Txütitü : *da/dü* ad. Zutitu.

U

- Üda
 Üdüri : izond. Iduria, irudia.
 Üdüripen : iz. Irudipena.
 Üdüritü : *zaio* ad. Iruditu.
 Ükatü (*dü*)
 Ükeite : iz. Ukaitea : haur ükeitea / ukaitea.
 Üken : *dü* ad. Ukan, eduki, edüki (*Zub.*)
 Ükentsü : izond. Ukanduna, ondasunak dituena, aberatsa.
 Ülaintü (*ülbaintü*) : *da/dü* ad. Ilaundu, ilaüntü (*Zub.*), erre.
 Ülün : izond. Iluna.
 Ülünki : adlag. Ilunki.
 Ülünpe : iz. Ilunpea.
 Ülüntarzüen : iz. Iluntasuna.
 Ülüntü : *da/dü* ad. Ilundu.
 Ümil : izond. Apala
 Ümiliatü : *da/dü* ad. Umiliatu, umildu, apaldu/tü.
 Ümilitate : iz. Umiltasuna, apaltasuna.
 Ünble : iz. Umila, apala. Ikus frantsesez *bumble*.
 Üngüratü : *da/dü* ad. Inguratu, gerrikatu, setiatu/tü.
 Üngürüne : iz. Ingurunea.
 Ünkentü : iz. Ukendua, gantzua.
 Urde (iz.)
 Ürgaitzi : *dü* ad. Urgatzi, lagundu, lagüntü.
 Ürgaizte : iz. Urgazpena, laguntza, lagungoa.
 Ürgüilü : iz. Harrotasuna, harrokeria, hantustea (*bandi ustea*).
 Ürgüilütsü : izond. Harroa, burgoia.
 Ürgüilütsüki : adlag. Harroki, burgoiki.
 Ürgüilütsütü : *da* ad. Harrotu, burgoitu/tü.
 Ürre
 Ürrentze : iz. Bukaera, amaiera.
 Ürreztatü : *dü* ad. Urrez hornitu, bete, estali.

Ürrin : iz. Usaina ; *bemen* usain ona, lurrina.

Ürrintzütü : *da* ad. Usain txarra hartu (*du*).

Ürrüntzi : izond. Ürrintzü, usain txarrekoa.

Urte

Üruxki (*üxki* ahoskatzen da): *da* ad. Zapatu/tü, gainetik tinkatu/tü.

Üsantxa : iz. Usantza, ohitura.

Üsatü : 1 *da/dü* ad. Ohitu, usaia hartu. 2 izond. : *üsatü lana da : usaiako, obiko lana da.* « *Gaiüza üsatüen eiztea greü zaigü. . .* » (Maister, I. Lib., XI. Kap.,6).

Üsintza : iz. Usutasuna, maiztasuna.

Üskara : iz. Euskara.

Uste : iz. Ustea : Nire ustea da hori. 2. Uste üken : *dü* ad. *Bena zer uste düzü, gizona ?*

Uste gaberik : adlag. Ustekaberik.

Ustekeria : iz. Ustea, maiz hutsala.

Ustez

Üsü : 1 adlag. Usu, maiz, sarritan. 2 izond. : *. . . orazione üsürrik eta süz beterik. . .*

Usuki : *dü* ad. Ausiki, ausiki egin.

Ütsarte : ikus hütsarte.

Ütsü : izond. Itsua.

Ütsümentü : iz. Itsumena.

Ütsütarzün : iz. Itsutasuna, itsudura.

Ütürbürü : iz. Iturburua.

Ütürri : iz. Iturria.

Ützi (*dü*)

Ützüli : 1 *da/dü* ad. Itzuli : *desterrutik itzuliko dira.* 2. iz. Itzulia : Frantziako itzulia.

Üzürri : iz. Izurria.

X

Xaharkia : iz. Arropa zaharra, pilda : *xabarkiz beztitzen da.*

Xahatü : *da/dü* ad. Garbitu.

Xahü : izond. Garbia.

Xahüki : adlag. Garbiki.

Xahütarzün : iz. Garbitasuna.

Xedatü : *dü* ad. Xedea hartu.

Xede : iz. Helburua, asmoa, egitasmoa.

Xehe : iz./adlag. Xeheki, xehero, xehetasunez.

Xehekatü : *dü* ad. Xehakatu. Gaur zubereraz *xeheki*.

Xeheki : adlag. Puska xehetan.
 Xenda : iz. Xendra, bidezidorra.
 Xoko : iz. Zokoa.
 Xoxa : iz. Etxola, txabola.
 Xüti : adlag. Zutik : *xüti dago*. Gaur zubereraz *xütik*.
 Xütitü : *da/dü* ad. Zutitu.
 Xüxen : 1 izond. Zuzena. 2 adlag. *Xabar izanagatik, xüxen ibilten da*.
 Xüxentarzün : iz. Zuzentasuna.
 Xüxentü : *da/dü* ad. Zuzendu, okerturik dagoena zuzen ezarri.

V

Virjina (Maria) : ikus *Birjina (Maria)*.
 Verbo : ikus *berbo*.

Z

Zabaltü (*da/dü*)
 Zaflatü : *dü* ad. Zafratu, jipoitu.
 Zahar
 Zaharo : iz. Zurtoin meheñoa, abar gazte, zuzen eta luzea, zigor bezala baliatzen dena.
 Zain : iz. Erroa : *hemen*, zuhaitz baten erroa.
 Zamalkatü : *da* ad. Zaldiz ibili.
 Zauri : iz. Zauria, kolpadüra, sakia, sakoa (*Zub.*).
 Zaurtü : *da/dü* ad. Zauritu/tü, kolpatu/tü.
 Zeinatü (*zeinbatü*) : *da* ad. Zeinatu, gurutzearen seinalea eta keinua egin.
 Zelebratü : *dü* ad. Ospatu/tü.
 Zelebrazione : iz. Ospakizuna, ospakizüna.
 Zelo : iz. Kartsutasuna, kartsütarzüna.
 Zelü : iz. Zerua.
 Zentzü : iz. Zentzua. 1 Zuhurtasuna, zühürtzia. 2. Erranahia, adiera.
 Zentzü gabe : izond. Zentzugabea, adimengabea.
 Zer
 Zerbait
 Zerbütxari : iz. Zerbitzaria.
 Zerbütxatü : *dü* ad Zerbitzatu.
 Zerbütxatze : iz. Zerbitzatzea.

Zerbütü : iz. Zerbitzua.

Zeremonia : iz. Ospakizuna

Zeren : gald. Zergatik, zertako, zerendako.

Zer nahibeita : zernahi, edozer gauza.

Zerratü : *dü* ad. Hetsi, itxi : *leiboa zerra otoi !*

Zeta

Zihaur : zuhaur, zu izenordearen era indartsua.

Ziotate : iz. Hiria, herria. Ikus erdaretan *civitas, ciudad, cité*.

Zira : zara, (*Lap. zare*). Zubereraz pluralean forma ezberdinak hartu ditu :

zirae : asmakizun berria da, oso logikoa, *e* letrak plurala markatzen duenez.

Haatik praktikan, fonetikak orain arte baztertu du, *a* eta *e* letrek ahoskera hurbila dutelako : batak bestea jaten du. Adibidez *bitza eman* : *bitzeman* (zubereraz gehienetan *bitzaman*). Fonetikako lege horren ondorioz, beste bi forma erabili dira : *zire* eta *ziraie*.

ziré (Arxu) : *ziree* idatzi behar litzateke, azentu tonikoa azkenaren aitzineko silaban izanez. Ahoz *zidé(e)* da Zuberoan forma erabiliena, bokalen arteko *r* eztiaren lekuan *d* sartuz ahoskeran. Baina toki batzuetan, bereziki Barxoxen, *zidie* da entzuten duguna, lehenbiziko *e* hura *i* bilakatuz ahoskeran.

ziraié (Emmanuel Inchauspe) : hori da eliza katolikoak apaizen idazkien bitartez ekarri digun forma klasikoa, *i* protetikoa sartuz *a* eta *e* letren artean.

Zirade (Gèzek *ziràde*, eta paraleloan *giràde*) : *zira*-ren forma jaso. Pluralean **ziradée**.

Amaren familian hori zuten eguneroko forma, Altzai Üstübilea etxean, eta maiz entzun izan dut 1950 urteetan. Maisterrek ere ez du besterik egarten, haatik *i* protetikoa sartuz bi *e* letren artean : **ziradeie**. Gezek zer dakarren : *ziraie, ziradeie, zirade*.

Zohardi : iz. eta izond. Zeru izartzua. Zaharretarik beti gauazko entzun izan dut. Orain ordea ni baino gazteago batzuek egunaz egiten duen « oskarbia » ere hola deitzen dute.

Zoin : zein.

Zoin nahibeita : zein-nahi, zeinahi, edozein. *Ipar* : zoin-nahi edo zoinahi.

Zoinü : iz. Arreta eskatzen duten lan xeheak, metatuz kezka sortzen dutenak ; arrangua, kezka.

Zoinütsütü (*zoñbütsütü*) : *da* ad. Kezkaz bete, arranguraz kargatu.

Zolada : iz. Zola, zorua.

Zonbait : zenbait (*Batuan*), zonbait (*Ipar eta bereziki Zub.*).

Zonbait ordüz : zenbait aldiz.

Zonbat : zenbat.

Zonbat nahibeita : zenbanahi, zonbanahi (*Ipar*).

Zor

Zorte : iz. Zoria.

Zorrotz

Zorroztarzün

Zortzi

Zotükatü : *da* ad. Higitu, mugitu, igitü (*Zub.*).

Zotükü : iz. Higidura, mugimendua.

Zü

Zühür : izond. 1 Zentzuduna. 2 Zekena, zikoitza.

Zühürki

Zühürtarzün

Zühürtze : iz. Zuhurtzia, zühürtzia.

Zur : iz. Ikus gure bi erdaretan : Zura, *bois d'œuvre, madera*. Zura ez da egurra.

Egür/egur : *bois de chauffage, leña*.

Zure

Züzen : iz. Eskubidea.